

Jean Hiriart Urruti

**GONTZETARIK
JALGIARAZIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Gontzetarik jalgiaraziak*, Jean Hiriart Urruti
(Iñaki Caminoren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1995

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00288.htm>

GIZARTEA

Hilak surat

Berriz ere mintza baginte aphur bat Parisez eta Pariseko gauzez? Egia da azken aldian ere heietaz mintzatu garella. Bainan jakin behar duzue orduan nere solasa erditan trenkatu nuela, luzeegi joan beldurrez. Lan handiak dituzue orai: bero ari ere da; eta holakoetan irakurtze luzeak lokhargarri dira.

Bizkitartean errana da aiphatzeko denik zerbeit gogara duen gizona nekez dagola ixilik. Emazteak orobat omen dira; edozer dakitenean, nekez egonki mintzatu gabe. Gizonak eta emazteak alde ditudanaz geroz, ni ere mintza niteke, abiatu solasaren burura heltzeko.

Beraz, erran dugun bezala, Pariseko jendearen hiruetarik bat edo ez da batheitua, edo lehen komunionea egin gabe dago; elizatik kanpo ezkontzen da, eta neholako othoitzik edo erlisio-neko seinalerik gabe ehorzten ohi da. Hitz batez, xahu pagano bizi da eta pagano hiltzen.

Egia horri eratziki dezogun argi berri bat, nahiz jadanik erakutsi ditugun gauzen ondotik, ezin ukhatua den.

Ez da deus giristinoen artean hala ezaguturik, nola baita beren hilez hartzen duten artha berezia. Eta eskualdunek ez deiegu, buru hortarik, nehoi ere zorrik. Herioak hartzen deraukun ahaide eta adiskideen gorphutzak arthatzen ohi ditugu oraino bizi balira bezala, edo hobeki. Ehorzteko aphaintzen ditugu ahalik ederkiena: hil-herrietan heien azken egon lekhua garbi deraukagu eta ahalaz eder; ardura bagoatzi heien hobiaren gainean othoitz egitera. Badakigu ez dela han galdu ditugunen arima, baina badakigu ere han dagon gorphutza berriz arimarekin bat egin beharra dela. Eta horra zertako ditugun hanbat artharekin begiratzen, eta zertako ez dugun nihun hain gogotik ez eta hoin ongi othoitz egiten arima maite heientzat, nola heien gorphutza daukan hobiaren aldean.

Parisen orobat hilez artha handia dutela diote. Sinhets errexa da gauza hori. Bizkitartean beldur izaiteko da alde hortarik ere Parise beheiti eta makhur ari dela.

Baditu urtheak, gizon batzuek galdatu zutela lege bat ekharria izan zadin, nola handik goiti Parisen eta hiri handietan, ehortziak izaiteko orde erreak izanen zirela hilak. Estakurutzat emaiten zuten bizien osasunak hala zuela galdatzen.

Legea ez da ekharria izan, baina haizu zaio bat bederari bere hilen edo ehorztea edo erre araztea, hautura. Lehenbizian moda berri eta higuigarri horrek bere aldeko guti ukhan du. Baina emeki, emeki, urthetik urthera, emendatuz joan dira, guziz Parisen. Ezen alde batetik hiriko kontseilua anhitz ekharria da gauza hortarat, eta badira gizonak ahal guziak egiten dituztenak, jende beharri diru emanaz, hil-erretze horren onhets arazteko. Orai Pariseko hil-herrietan badira hil-erre arazteko labeak. Nahi duenak han, lau liberetan edo petik, erre araz ditzazke bere hilak, eta ez du ehorzteko lanik. Gehiago dena, Pariseko kontseiluaren baimenarekin, hiri hartako ospitale edo eritegietan hiltzen diren guzien gorputzak, ehorzteko orde erre arazten dituzte, baldin nor bederak ez badu aitzinetik galdatu nola ehortzirik nahi duen izan. Orai mila-

ka dira hola erre arazten dituzten hilak, guziz jaberik ez duten jendeen artean. Eta hori zertako? Ez jendea bere baitharik ekharria delakotz gauza hortarat; bainan zeren aiphatu ditugun gizonak ari baitira ahal oroz, bai mehatxuz, bai balakuz, bai diru emanaz, hatzeman ditzazketen hil oroz jabetzera; eta azkenekotz zeren Pariseko kontseilua beren alde baitute lan galgarri hortan.

Nundik heldu othe da, bai Pariseko kontseilua, bai jaun horiek hola ekharriak baitira hil-erretze hortarat? Galde horri ihardesteko aski da bilhatzea zer sinhestetako diren batzuk eta bertzeak. Uste izaiteko da beren sinhesteak derabil-tzala; bertzenaz ez litezke gizonak ere. Oro gure erlisionearen etsaiak dira; beren aithorra da hori; eta ez behin egin aithorra, bainan egun orozkoa. Hetarik gutiz gehienek ez dute ez Jainkoan, ez ariman, ez eta geroko bizitzean sinhesterik. Nahi lituzkete bertzeak beren iduriko egin: heien indar guziak hortara doatzi. Emaiten dituzten bertze estakuru guziak ez dira zinezko xede horren estaltzeko baizik.

Eta nola ikhusten baitute hilen orhoitzape-nak, heietaz hartzen dugun arthak, phitz arazten

dituztela gu baithan sinheste horiek guziak, uste
dute hilen gorphutza suaz suntsituz, suntsituko
dituztela ere sinheste salbagarri horiek.

Agian ez dira burutzietan joanen, nahiz sobe-
ra jende baizik ez duten jadanik bereturik! Ezin
ukhatua hau da: Parisetik heldu zauzkun gauzen
eta irakaspenetan badela zer har eta zer utz: eta
oraikoetan hartzeko baino gehiago bai uzteko.

Eskualduna, 1892-06-10

Zerk egin du Espainia?

Egun hautarik batez adixkide batekin solasean nindagon. Zer eta zertaz mintzo ginen xuxen baitezpada erraiteko, ez ninteke on.

Asko elhe eta erasia bazerabilan gure gizonak, buru kaskoa beroak jo baitzuen; eta bertalde berenaz ere ez baitio gantzak baino hanbat gehiago haztatzen... zentzuak.

Bihotz ona bai; ahoko eztena ere xorrotxa; bainan gaineko estalgi hura arin, arin...

Eta gero zernahi errozun, harek bethi bertze eskualdea hartuko derautzu. Zoazi esker, joanen zautzu eskuin. Zu eskuin, berehala hura esker.

Halere lakhetgarri da holako batzuekin elhekan egoitea; luzegi liteke erraitea zertako.

Goazin laburtuz gure xedera. Mintzo ginen beraz bertze asko solasen artetik zezenez eta *zezenkari*ez.

Erdi irriz, erdi zinez, hanxet gogoratu guziak erran ginituen elgarri. Batek hau, bertzeak hura. Ez jauna, ba jauna. Azkenean gutik egin zuen, ez baiginen osoki samurtu.

Nere adixkidea *zezen-gudu* horien alde zen; eta ni dakizuen bezala, ez alde.

Hitz derautzuet ez zela ixilik egon gizona. Ez alafede eta ni ere.

Batek ala bertzeak gure erraitekoak oro erran ondoan, badakizue azkenean zer atheraldia atheratu zerauntan? Huna hitzez hitz: «*Espainia zezen-guduek egina da... Ce sont les courses de taureaux qui ont fait l'Espagne*».

Ez baxharrik eskuaraz eta frantsesez, baina zazpi mintzaiez eman nintzazke hitz hoik, orok, orok irakur ditzaten eta har behin bethikotz ongi gogoan.

Zer ahopaldia! Hori aditzearekin bazterretik guri so zauden batzuek irria ezin atxiki zuten.

Bizkitartean egia zuen bertzeak. Bai egia; berak uste baino egiago.

Eta horra zertako adixkide bezala, nahi dudan lagundu ahal bezenbat egia handi horren hedatzen, eskerrak bihurtuko ahal derauzkidalakoan...

Jendakia guziek bezala badituzke eta baditu espagnolak ere bere ongaitzak. Behinik behin, bana-bertze, edozoin baino bihotzez atxikiagoa

da española bere fedeari. Gizonez gizon ere, nehor guti dukezu española baino adixkide hobeagorik.

Baditu bertze asko alderdi on españolak, bereziki español *eskualdunak*. Bere sor-lurra eta sor-etxea itsutuki maite ditu. Zernahi egin lezake; eman letzazke dituen guziak, bizia barne, bere nausitasuna eta bere zuzenak galtzerat utzi baino lehen.

Españolaren aiphamen ederra orotan hedatua da.

Bizkitartean erran zaharren arabera, ez da munduan itzalik gabeko arbolarik.

Españolaren itzaletarik bat... ez dut erraiten handiena, ez eta ttipiena, baina itzal bat ezinukhatuzkoa da frantsesak deitzen duena: *le goût du sang*. Odolaren *gostua*... ez dezaket bertzela erran eskuaraz.

Aspaldi ezagutua da: ez duela odolak izitzen española; ez eta ere gizonaren odolak.

Abere bat bezen gogo onez hilen derautzu españolak gizona, hitz batetarik bertzean.

Egun zortzi hemen aipatu dugu Mugerreko harri-atheratzaile langile batzuen arteko gudu

izigarria. Hiru edo lau gizon gazte hanxet gelditu dire kanibet sistaka itsuski kolpaturik. Hetaryik bat engoitik hila da, edo gutitarik behar da bizi gelditu, bizkarretik bulharretara kanibeta sarthu ziotelakotz. Zer alimalekeria!

Erran dugu zein estakuru gutiz hasiak ziren kolpeka; eta gehiagoko makhurrik gabe, hiltzerainoko sarraskiak han zituzten eginak. Nori? Frantses batzuei. —Eta nork? —Españolek. Holako makhur hoitan bethi espagnolak dire kolperik itsusienen emaileak.

Arrotzekin bezala, elgarren artean bardin dire. Den gutieneko ez-bai bat aski dute, berehala *al kutchilo* joateko. Iduri dute ez dakitela borrokatzen elgar *sangratu* gabe. *Sangre!* Odolaren eta odol ixurtzearen izen hori bera espagnola da. Emozute odol...

Eta zerk emaiten othe diote jaidura tzar hori? Odolaren ixurtzeko gutizia higuingarri hori, gizonen hiltzeko errextasun itsusi hori nondik othe dukete beraz españolek? —Ez beren baitharik. Ezen erran dugun bezala espagnolak berenaz bihotz ona du. Bada hor bertze zerbait. —Zer

othe? Anhitzen arabera eta ene ustez ere *zezen-guduetarik* dathor aztura salbai hori.

Alabainan ardurenik begien aitzinean ikhusten duen hartara da tirriatzen gizona. Hurrez errana da: zer ikhus, hura ikhas. Arren halaber dezakezu erran gutarik bat bederaz. Edozoin adinetan haur handi batzu gira oro, edo bederen gutiz gehienak. Ikhusten dugun hartaz gutiziatzen gira, bereziki gure jaidurak azkarki phitz-arazten dituen hartaz; zernahi izan dadin, janhari, edari ala ikhusgarri. Hala nola gizon edalea ez dagoke arno edo bertze zerbeit edariren izena dakharren zerbeiti lothu gabe. Azkarrago eta nahiago du.

Alta jan edanetakoa baino garhait-gaitzagoa da begiz ikhusteko jaidura. Tripa bethe due-nean gelditzen da edatetik gizon hordia.

Bainan begiak ez dire tripa edanez bezala bethetzen ikhusiz. Hortakotz ere ez othe da errana: tripa baino goseago direla zenbeiten begiak? Nik uste nuke oroenak ere hala direla.

Eta orai huna zertara doan nere solasa: balin bada ikhusgarri dorpherik, gizonaren begiak eta zainak phizten dituenik, haren odola erakit-araz-

ten duenik, hura da gizon eta zezen hil edo bizi borrokan ikhuste hori. Batek edo bertzeak behar dute han leher egin. Eta zezenaren orde gizona hil daitekkelako *beldur* hori bera zaiote *atsegin* bat ikhuslei.

Ororen buruan, bat ala bertzea hil dadin, odol zorta bat ixurtzen ikhusi dutela badakite. Ai gizona, odol gorri hura zezenaren lephotik edo gizonaren ixterretik burrustan jauzten ikhustea, zer ikhusgarri gozoa begientzat!

Nondik nahi duzue odolaren ikhustek izi ditzan españolak? Ez dute nahi bezen luzaz eta ardura zorion hori!... Zer diot? —Norbeiten *sangratzeko* gutizia heldu zaiotenean, aski dute *kutchilo* hura eskuan harturik idekitzea. Etsai edo adixkide, hitz bat goregi derasanari saka tripatik edo bizkarretik... saka giderrera.

Odol bero hartan eskuaren bustitzea gozo da, ez dea hala, Manuel?

Iragan negua zen. Baziren hor, Espainia hegal hortan (ahantzia dut herriaren izena) bi gizon langile; biak elgarren adixkide minak. Bat urde hiltzalea zen, bertzea haren lagun zabilan, etxez etxe, hiltzalearen lagun. Batek atxik, ber-

tzeak hil. Elgarrekin lana egin; gero jan eta edan eta lo; hots ezin bereziak ziren elgarretarik.

Horra non egun batez, zerri baten buztana baino guttiagoko zerbeitetarik makhurtzen diren. Ez eta bai erraiteko arterik gabe, sartzen dio batek bertzeari urde hiltzeko kanibet handi hura. Paria nezakezu... biharamunean ez zakikela zertako hil zuen gizon adixkide hura. Lo on batek ahantz-arazten ditu holako gerthakari ttipi hoik... Espainian.

Hemen Frantzian haro aphur bat eginen zuen halako batek. Espainian ez. Josteta bat zaiote eta españoiei odolaren ixurtzen ikhustea. Orotarat egiten da gizona... ikhusiz eta ikhasiz.

Ba *Bettiri*, egia diozu. Espainia, den bezala, zezenkariak eta zezenek egina da. Hori baino egia handiagorik ez duzu erranen, biziak dirauzuno. Zaude hortan!

Eskualduna, 1895-09-20

Hil ala bizi?

Italiako errege zenaren hiltzalea kondenatu dute beraz. —Hiltzerat eiki? —Ez omen. —Zer hori? Eta nola? Errege bat odol-hotzean, gaixta-keriaz hil duen gizonari utzi diotela bizia? Ez dutela lephoaren mozterat kondenatu?! Beraz burutik badute jujeek; ahulak ziren araiosoki, edo gorri hutsak, errege zelakoaren hiltzeaz atsegin zuketanak? —Ez, adixkidea; ez da holarik deus? Ez dute hiltzerat kondenatu, ez zezaketelakotz kondena. Bizia utzi diote, Italiako legeak hala manatzen duelakotz. Eman zezoketen gaztigurik dorpheena zen, bizi guziko pre-sondegia; eta hura diote holetaneman. Frantziar lephoa moztuko zioten; Espainiar eta bertze asko tokitan urkhatuko zuten, eta zalhu... Zoin othe da hobe? Oro bardintsu. Denik ere, hiltze hori naski, orotako beltzena, iduriz bederen.

Eta zertako da othe lege hori horrela Italian, hemen gutartean ez bezala?

Ezen Frantziako legearen arabera gizon-hiltzaleak ordainez eta gaztiguz hiltzerat kondena-

tzen dire. Non ez duen hiltzaleak nolazpeit hein batean bederen bere burua garbitzen: uste gabean eginik edo samurrean zerbeit estakuruz; bertzeak hil nahi zuelakotz, edo harek jo duela-kotz lehenik. Zerbeit holako itzalpe, ihesleku hatzemaiten ez badu edo ez badiote bertzek erhotzat ezagut-araziz edo hola... ez du zeren bizitzeaz ametsik egin. Legea da Frantzian gizon bat hil duenak hiltzea duela merezi. Soldadogon hil badu lagun edo aitzindari norbeit, berehala juja, kondena eta tiroka garbi.

Bertze nornahi izan dadin hiltzale, gillotinez lephoa motz. Bethi ere hiltzalea hil. Lege zorrotza, lege izigarria, bainan ororen buruan lege zuzena eta zuhurra. Zuzena hiltzaleak hiltzea merezi baitu; eta zuhurra, lege horri esker baitaude gaixtaginak, bethi ez bada bederen ardurra, geldixago; lege horren beldurrak baitauzka tzarkeria gehiago bederen egitetik; eta hola gaixtagin handi zonbeiten odola ixuriz, azkenean bana bertze anhitzez odol gutiago ixurtzen baita, bertzenaz ixur litakeen baino.

Bizkitartean ez da lege hori Frantzian ororen gogorakoa. Ezen aspaldi du gutartean zenbaitek

lege hori hemen ere khendu nahi luketela. Bere-
ziki hamar bat urthe huntako solasa da gorri
beltz aintzinatuenen artean: hobe litakela lege
hori behin bethikotz khendurik. Eta gero, hori
khendu-eta, gizon-hiltzale gutiago othe liteke?
Zertako ez has bertze burutik? Erran nahi baita,
lehenik gaixtaginak khen, eta gero gaztiga. Gizo-
naren hiltzea hoin gauza itsusia denaz geroz,
nehork ez dezala gizonik hil, eta orduan lege
dorpe hori bere baitharik ezeztaturen da.

Bertzenaz gaixtaginek laster gaina lukete.
Nork nola ihardok, bereziki egungo egunean?
Bazter guziak oro gizon tzar, alfer, ohoinezgero
ta-gehiago bethetzen ari, eta herioaren beldu-
rrak berak izitzen ez ditueni beldur hori khen?
Egiazko ahulezia eta itsumendua! —Ez hil, bai-
nan bota preso bethikotz. —Bethikotz; non ordea
eta nola? Errex da erraitea. Bethiko presondegia
hura ezti balin bada aphur bat eta jasangarri,
zeren beldur nahuzue izan diton gizon-hiltza-
leak? Bardin han ere, presondegian, bizi ahalko
direla ikhusiz, ez-azol bilhaka litazke, handik
oraino noizpeit nolazpeit ihes egiteko nahikari
eta ustekariarekin.

Eta aldiz bethikotzateko presondegi hura dorpeegi balin bada, zertako eta zerentzat dukete bizia? Ezen gaztigu zorrotzegiaren pean leherturik bethi, gau eta egun bizitzea dorpego daite, ba eta luzara biziki jasangaitzago, ezenez eta berehala hiltzea. Hiltzea ikharagarri da, bainan labur. Zer ez da ordean bortz, hamar, hogoi, berrogoi urthe, hots, luze edo labur, hil arte hanxet ilhunpean, bakhartasunean, deus ari gabe, nehor mintzatu ez ikhusi gabe; ez ahaide ez adixkide, nehoren berririk sekulan ukhan gabe, bizitzea; bethi gogoetan, bethi bere buruarekin buruzburu!

Ezin hil, ezin bizi; egiazki bizirik hiltzea, edo erran baditake, hil bizitzea da hori.

Hori da arren Bresci dohakabe, Italiako errege hil duenaren bizia, hortarat kondenatu dutenaz geroz. Holetan bizi guziko presondegia eman diote; bainan ordean zer eta nolakoa? Izigarriki garratza. Lepho mozturik hiltzea baino lazgarriagoa.

Barne ilhun hertsu batean beharko da hil arte hanxet egon; atzar eta lo, eri ala sendo; gau ala egun; xutik edo etzanik, edo jarririk, bethi han; bi

urhats eta erdi luze, urhats bat zabal den barne hotz mutzi batean, gizabethe bat eremu daukan taula idor bat ohetzat, lastorik ere gabe. Argi eta aire izpi bat doi-doia, leiho-arte ttipi batetarik dathorkiola. Egunean jan-othordu bakhar bat: ogi huts eta ur huts. Bertze deus ere ez haizu behin ere. Hura ere zilho batetarik hartu behar, ixilik, ekhartzalearekin hitz bat egin gabe. Ez haizu ez irakurtzera ez izkribatzera, ez eta deus lan egitera. Han ixil eta geldi egon; edo... españolak diona: *Cuidado!*

Den gutieneko tinta mintarik egiten badu, zurezko kutxa batean sar, ezin higituzko heine-raino estekaturik; edo zango besoak elgarri burdinaz esteka eta belhauniko, buruz beheiti han egon, hezi arte. Zer bizia! Hola bizi ala hil, zer hauta zinezake?

Ez da erraiteko baizik, gizon hiltzaleak hiltzerat kondenatzen dituen legea dorpe balin bada Frantzian, dorpeago dela Italian bizirik preso dauzkana. Behinik behin burutik joaiten ezpada, zikhinpean usteldu beharko du bizirik. Ez duke deusen esperantza onik, baizik ere lehenbaile-

hen hiltzea. Horra zer irabazi duten Italian gaix-
taginen hil-arazteko legea khenduz.

Eskualduna, 1900-11-07

Nausi eta langile

Egungo eguneko ez-bai, makhurbide handie-netarik bat da langileentzat nausiekilako, eta nausientzat aldiz langileekilako... zera. Badakizue zer den zera? Hura eta bera, oro dauzkala, elhe gutiz.

Egundaino ez dire izan langileak eta nausiak elgarri buruz orai bezen minbera, kexu, bekhoi eta bekhaizti. Bizitzekotz, elgarren beharra baitezpada ukhanki, eta ez nahi elgar lagundu. Bakhotxa bere alde ariz, lan onik ezin egin... Zer diot? Ezin ar, bakhotxa berenaz bere. Elgar laguntze orde, jazartzen badire bata bertzeari, deus onik ez nehorentzat zeren eta orduan, bai bata eta bai bertzea, beren buruari ari baitire harrika.

Berearekin batean, langilearen ona bilhatzen ez duen nausiak ez du bihotzik; ez ordean bertzeek ere harentzat. Dathorkiola nahigabe bat: hala nola bere egitekoetan herstura bat: nehork ez du halakoa urrikari.

Orobat langile tzarra, triparen bethetzeaz baizik kexu ez den hura; nolazpeit bere saria biltzen badu, lanaren ongi egiteaz axolarik ez duen langilea; nausiaren sabeleko minaz atx egiten ez duena, langile hitsa; nehork guti nahiko duena bere lantegian.

Hitz batez: elgarri zinez atxikiak ez diren nausi langileak ez doazke luzaz ongi; ez ongi elgarrekin, ez eta ere bakhotxa berenaz bere. Goiz edo berant leher eginen dute, batek edo bertzeak; eta orobat biek.

Solas alfer, solas hau, ez dea hala? Askori menturaz iduri zaiokete, bertze deus egun erraitekorik ez ukhanez aiphatzen dugula hau hemen. Zerbeitez mintzatu nahi alabainan... Ez da hori. Aspaldi ezen gogoan dakharkagu nausilangileen arteko zuzenez eta makhurrez mintzaztea. Bainan bethi zerbeit gibelamendu sorthu zitzaiku. Hau edo hura, ezin utzia.

Zertako ez aithor, bertzalde, lotsaz egon girela, solas huni lotzeko? Ezen ez daukagu baden bazterretan, hau baino hanbat minberagorik. Ez dakizu nondik ez nola hunki.

Langileen alde mintzo balin bazira nausiek beltzuri: zertako sartzen ziren heien artean; utz ditzazula ixilik, deus ez dakizula, eta holako.

Nausien aldea daukazula iduri bazeie, langileak muthur: ez duzunetz jende xehea urrikari; zuzen zautzunetz, nausia langilearen izerdiz gizen dadin, huni bere zuzena eman gabe. Nola mintza ororen gogora? Eta bizkitartean, norat nahi zoazin, hiri hoitarat, bertze solasik entzuten ez duzularik, nola egon, behin bederen hitz bat erran gabe, zauri huntaz?

Egiazko zauria! Guk hemen Eskual Herrian, ez dugu oraino, Jinkoari esker, gaitz hortarik hanbat, nahiz hemen ere tokitan, asko erraiteko baduketen elgarrez nausi eta langileek. Bainan zoazi hor harat: nonahi, noiznahi, zernahi estakuruz, kalapita gorria dute.

Jinkoak baitaki, langileen eta nausien arteko hisia tzar horrek zer ondorio ikharagarriak dakharzkeen! Ba eta ja ondorio makhur anhitz ekharri ere badu Frantzian horrek: diru galtze, irabazpide ttipitze, lan gibelatze, gosete, odol-ixurtze... nork erran zer eta zenbat jazarkunde itsusi?

Eta bizkitartean orainoko iragan hoik oro deus guti dire, sarrixago bizi denak entzun eta ikhus ditzazkenen aldean. Ezen esku-lan guzia lehen ez bezalakatua da osoki. Lehen eskuz eta besoz egiten zena, orai tresnaz; anhitz errexkiago, eta lan gutiagoz, langile gutiagoz, lan arau.

Tresnaz ari ez denak ez dezake luzaz ihardok; nahi eta ez, ukho egin behar du. Tresnarik hoberenak nausi azkarrenen eskuetan direlakotz, langilea behar da, nahi eta ez, nausi direlakoen eskuetarat erori; heien muthil jarri, on bazaio eta ez bazaio. Esku-langilea nehondik ez dakioke tresna-langileari jarraik.

Gero, langile multzo bat bere azpiko duen buruzagiak lan gehienak eskuratzen ditu, banazkakoentzat guti utziz edo bat ere ez. Hortakotz, nehon, nehor kasik ez duzu gehiago *bere gain* ari den langilerik. Dela zurgin, dela hargin, dela tindatzale, zoin ere langileren beharra baitukezu, hamarretarik bederatzieta debalde dukezu langilearengana joaitea, buruz buru. Zoazi nausia-rengana. Haren baia gabe ez zautzu langilea jinen.

Ez du erran nahi hau gaizki dela; batek ala bertzeak huntan bere ona kausitzen dukete. Eta azkenean, on edo ez on, ezinbertzea da.

Horrela beraz, lan guzia nausi-langilez doanaz geroz, ageri da nausi-langileek elgar ahalaz lagundu behar luketenean, elgarri harrika ari badire; elgarren behar gorria, eta elgar begien aintzinean ezin ikhus; ezin jasan elgar; hots, ageri da deus onik ez dezaketela igurik.

Alta bada hortaratuak gira; eta gero-ta gaizkiago joaki, bide hortaz. Erran duguna, Eskual Herrian gutienik; bainan ja hemen ere ba guti edo aski; eta bertzetan itsuski.

Eta bertzetako gaitz gutiz gehienak azkenean gutaratzen; eta gehiago dena, lakhetzen gurekin. Jinkoak begira bagintza bederen huntarik! Bertze aldian ikhusiko dugu, zeri ginauzkeen bertzeen gainera hori sar balakigu.

Eskualduna, 1901-05-10

Gillotina

Kentzer daukute gure deputatuek. Ehun bat eta zenbeit bozez nausitu da. Hiruetan hogoi bat itzuli balazkio, lepho mozteko tresna izigarriari kontra, akabo zen. Bethikotz edo behingotz, edo nork daki? Gizon hiltzaleak ministro jarri arte, itzalerat beharko zuen.

Erreboluzione handiaren aitzineko egunetan ere kendu zuten behin gaixtaginen hilaraztea lephoa moztuz. Gero ezarri berriz legean; eta dakizuena, gaixtaginez bertzerik hilarazi, Frantzia guzia odoletan ezartzerainokoan hoben izpirik etzutenei lephoa moztuz.

Ordu arte burregoak hiltzerat kondenatuak zirenei burua zur baten gainerat etzanarazirik, aizkora ukaldika mozten zioten. Huts egiten zutenean berriz jo, moztu arte. Ikaragarri omen zen ikustea.

Dohakabeak urrikariz, eskuzko aizkoraren orde, Guillotin deithu mediku deputatu batek eginarazi zuen oraiko tresna hori, burregoaren lan lazgarria errextuz, hil behar zena ere horrek

lasterrago mozkinduko zuela, min gutiago egi-
nez; kasik ohartu gabe; *atx* erraiteko arterik utzi
gabe.

Nonbeitik halere kenka onean jina zen *gilloti-
na* delako tresna izigarri hori. Mila zazpi ehun eta
lauetan hogoi-ta hamahiruan horrekin Frantzia-
ko hiri guzietan, edo gehienetan moztu zituzten
buruak ehunka, milaka. Eta nori? Ez baxharrik
erregeri eta erreginari, bainan gizon ala emazte,
inozent, ahul, tzarren ihes beldurrak zerabiltza-
nei eta orori; neskato gazte, haur, zahar ezindu,
eri herresta, hiltzaleen alde etziren guziak harra-
paka preso ereman, eta jujatu ere gabe, multzo-
ka orgetan estekaturik, gillotinatzerat.

Hitz dautzuet, etzela zenbeit hilabethez her-
doildu *gillotina*, bereziki Parisen, alfer egonik.

Azkenekotz elgarri jazarri ziren hiltzaleak,
arima salbu-ta zakurrak hilki gosez elgarri jazar-
tzen diren bezala. Batzuk bertzen ondotik jasta-
tu zuten —ez orok, bainan anhitzek—, ea lepho-
an min egiten zuenez gillotinak.

Gizon tzar bihotz-gabe heiek harriturik utzi
zuten Frantzia dohakabea; gillotinaren izena

bera ez baititake aipha, hetaz eta heien egitate lazgarriez orhoitu gabe.

Eta halere —ahalgegarri dena, gizon handiak zirela hek, erranen dautzute oraiko hauiek. Ez dakite zer derasaten, edo barnez hek iduriak dire.

Gauza segura dena da, orai ere tzarrenak, herratsuenak, odol ixurtzearen gutienik beldur litazkenak direla beroenik gillotinaren kentzera.

Kentze horren alde direla, lehen-lehenik nor? Gizon-hiltzaleak; norbeit ja hilik dutenak edo hil gogo.

Hitz batetik bertzean bulharretara puñalaz eman lezakezutenak edo tripan tirahalako ostiko batez gizona lurrerat hil-gor aurdik lezaketen guziak oro gillotinaren kontra dire.

Poxolu dute, ageri da.

Bizkitartean aski lukete nehor ez hiltzea; ez lukete gillotinaren beldur izaiterik. Ez baitire ordean hortarik ari!

Egia erran behar da: ez dire bakarrik jende hiltzaleak eta heien idurikoak, gillotinaren kontra. Bada bertzerik. Ez balitz tresna lazgarri hori baitezpada beharra; zuzen ez balitz, gizon hiltza-

lea, odol-hotzean, tzarkeriaz, bere idurikoa hil duena hil dadin; ez balitz bertzalde larderia izigarri horren beharra, gaixtaginen izitzeko; oro ez bada, zonbeit bederen ez balitu horrek gogoetazten, lotsarazten, gibelatzen, begiratzen hil nahi luketenaren hiltzetik... hori ez balitz, orok ginuke behar gillotina gaitzetsi, madarikatu; pus-katurik zokhorat aurdiki; edo erre, suntsitu sekulakotz. Ez balitz ere horrek Frantzian bertze orduz egin dituen sarraskien orhoitzapenetan baizik. Fuera gillotina behar ginuke orok oihu egin; eta egin ginezake gogotik.

Ba bainan, larderia hori kenduta, gero, nork egin burutzarik ohoin tzar, gizon-hiltzale deusen beldur ez litazkenekin?

Hori da gogoetagarri.

Eta futxo halere, barne oneko gizonetan ere frango izanki gillotinaren kontra. Diotelarik: hortara gabe gizon-hiltzaleak biribilka ditazkela eta itzalerat ereman sekulakotz. Bati edo bertzeri, huts eginik, hobendun ez denari, uste-gabean, lephoa motz, eta lepho hura ez ditakela berriz sorbaldei jos; bizi dena, urtheak ondoan ere, pre-

sondegitik jalgi ditakela, etzela hobendun ezagutzearekin; hil bat ez dezakezula pitz.

Hoik oro hola, batzu kontra, bertzeak alde, oraiko huntan ez dire nausitu deputatuen bilkuran gillotina kendu nahi zuketena. Ehun bat eta zenbeit bozez joan dute bertzeak.

Gure departamendukoetarik, Barthou ministroa zen bakarrik, bere ministro lagun guziekin, kendu nahi zutenen alde. Bertzeak bertze alde rat oro.

Gorri beltz aitzinatuenetarik has, eta xuri eztienetaraino, batzu alde, bertzeak kontra, bat ere alderdika ari gabe, eman dute boza, *ba* edo ez, bakotxari zoakon bezala.

Gaizki erran dut: gorri aitzinatuenak oro edo kasik-oro *kentzeko* ziren. Gorri eztiak eta xuriak dire bi aldetarat joan; eta halere gillotina nausitu.

Tresna itsusia balin bada izan bedi, nahi bezen itsusi; den bezalakoa delakotz da haren beharra, justiziak izan dezan larderia eta indar; gillotinaren urrunera ikusteak *ikhara* eman dezoten, orori ez bada, bederen zenbeit gizon hiltzalei.

Ezta erraiteko baizik: badire bi apez deputatu; bat Lemire, buru baino bihotz gehiagoren jabe dena; bahez ura eman bailezokete, gogotik, egarri diren guziei; bertze batzuek hitzemaiten dautzutena, hunek eman orori; ba eta saskiz arno ere, ahal balu. Bera xede onez bethea delakotz, uste bertzeak ere hala direla. Gillotina khen zezaten eman du boza.

Bertze apez deputatua da Gayraud. Hau buruz azkarrago da, xuxenago, ez delarik bihotz gabea. Hau ere kordokatu bide dute aphur bat gillotinaren kentzea hobe zela ziotenek; dudaturik egon da bozik eman gabe, zoin alde eman ez jakinez omen.

Bi aldetarat arrazoin handiak badire, alde batetarat baizik ez bailitake, ez balitz jendea tzartzen ari, eta gizon-hiltzaleak emendatzen urthetik urthera.

Hura khendurik hauk are gehiago emendata, non ginintazke?

Eskualduna, 1908-12-08

Burdin-bidetako langileak

Gutitarik egin du, azken bi aste hautan, ez baita Frantzia guziaz xahutu, odol kolpe batez bezala; eta oraino ere gaitzaren garhaitzera doalako espantu guti egin ditake.

Gizonaren bizia zainek eta zainen barnez barne dabilan odolak balin badaukate, halaber egungo egunean bizipide, lanbide, janhari, edari, negozio, erresumaren goiti-beheia, hots, bizia, hor da, burdin-bide hoitan. Hoiek derabilate jendea, gau eta egun, harat hunat, eta zer jende keta izigarria!

Orga, karrosa, beribil eta botiga, bertze guziak oro deus guti dire, banazka ala oro elgarrekin, burdin-biden aldean.

Horra non gelditzer diren, oro batean, burdin-bidez dabilzan guziak, hoitako langilek lanari uko eginik, orok elgar hitzharturik, beren ustez.

Bihotza eta zainak lokartzearekin, oro lo. Bizpahiru egun bereziki hor iragan dire, beldurtzeko baitzen, etzadin gehiago trein bat higi nehorat,

ez aitzinerat, ez gibelerat; oro zank, hanxe lokar-
turik, erran dena, geldi ziten.

Lo egon balire oraino! Lana ba lo; langilen
besoak, hortzak eta hertzeak zortzi egun gabe
loaz bertzerik nahiz ernatuko zirela, ezta duda-
rik. Orok betan lana uztearekin laster ikusiko
ginituen oro kurrinkaz abiatzen, jateko bilha.
Den lekuan loth.

Gose denak ahal duena eginen baitu, bizi
nahiz.

Tripa hutsik duen gizona bat bederazka ere
zernahiri jazartzeko aiher balin bada, zenbatez
gehiago, ehunka, milaka direnean gose eta ega-
rri, eta alfer... elgar sustatzen dutela gerlaren
pizterat, nonbeitik hatzemaiteko ahoratekoa.

Beharrik da hor beldurtzeko zena ez gertha-
tu. Debruak zeramatzan bertzenaz gobernamen-
duak eta oro. Eta zalhuxko lurperat sarthuko
ziren zenbeiten furfuriak; iduri zernahi badirela,
haizeari erhautsak baino gehiago ez baitzuten
iharduk ahalko «nor gira gu» larruak atxik ahala
urguluz hanturik dabiltzan batzu.

Gutitarik egin du, ez baita uste gabetarik
bezala bet-betan lehertu handitxua, hedaturik

behin, egun batetik bertzera, gorputz guzia hartzerainokoan.

Elgar ez dute oraiko huntan oraino aski ongi aditu burdin-bidetako langilek. Batzu lanari uko egitera zauden, bertzeak ez, tenorea etzitzeiela-kotz iduri ethorria zela; geroxago utziz lana orok batean, lehenik ontsa elgar hitzharturik, hobe zutela.

Zer da gerthatu? Buru beroenak berehala eman dire *** buru hotzak jarraiki aitzina lanari; bitartekoak —orotan bezala, hor ere baitire azkarrrena zoin izanen den beha daudenak, ikusteko, norat eror— bitartekoak dilindan bezala egon dire; lana utzi nahi, ez nahi; ez jakin zer egin...

Ohartu direnean, partida galtzera zeramatela langilek, dudako guziak egon dire higitu gabe beren lan hartarik.

Utzia zutenetarik ere anhitz berriz itzuli dire, buruak aphaltik; zer egin zezaketen bertzerik?

Thematu direnak han daude, lanik gabe, geroaren menturan; egun guzietz nekezago ardiets ahalko lana. Batzu ja *errebokatuak*; Baionan berean hogoi bat hurbil baitziren, bortzez bertzeak hartu dituzte berriz. Orotara Frantzia

guzian, nork daki zonbat den geldituko errebotaturik?

Lana galduz geroz langilea urrikaltzeko da; orhoitu othe dire hortaz, langile dohakaben sustatzaileak?

Berek berentzat deus galtzekorik ez duten bazter nahastalek orai zer egin dezakete, zer axola ere othe dute, ogia gal-arazi dioten langilentzat zerbeiten egiteaz?

Ez dire bakarrik egun hautako buru berotzaileak hobendun. Hauk bezen edo gehiago dauzkagu eta dire kriminel, oraiko ministroak berak eta heiekilakoak.

Elhe ederrez hanturik ezarri dute jende xehea, ogi baino gasna gehiago hitzemanenez bethi. Eta gero? Dakizuena.

Baheaz uraren hatzemaitea baizik ez balute oraino egin... Bainen herra, nausi eta langilen arteko hisia gaixto, elgar ezin ikusizko janhiza guziak hazi dituzte. Bakean bizi zirenen artean gerla gorria piztu dute berek.

Zenbat deputatu ezta dirudunen eta langilen arteko gerla berek sustatu dutelakotz baitire jaun handi?

Ez du bi urthe, Barthou ministroak deputatuen bilkuran goraki ziola: «nahi nuke jakin, ea nork erranen dautan, burdin-bidetako langilek ez dutela dretxorik *en grève* jartzeko iduri zeien guziez».

Horra non diren jarri, Barthou ministroak uste baino lehen. Goizegi araz; ezen ministro hura bera kontra dute orai; gaizki dabilzala.

Orobat eta gorakiago ere *grève* eta holako hoi en alde izana bertze orduz, ministroen buruzagia, Briand; laneko tresnen makurtzea, nausierri hilka jazartzea eta oro onhartzen zituena, onhartzen eta kontseilatzen, sustatzen oihuka... orai? —Orai zoazte, galda zozue zer dion. Hil lezakete langilek: zertako trahitzen dituen.

Gerla berek erain eta bakea nahi lukete altxatu. Ez ditake. Eraiten duzun hura da sortzen, eta sorthuko, mundua mundu deno.

Burdin-bidetako langileak zuzenean zirena, ala ez, irabazi gehiagoren galdatzeko? Bertzerik da hau. Gutienik irabazten dutenek poxi bat gehiago behar luketela, segur; bainan orok araberan baitute ordean galdatzen emendatzea. Hiru liberaz petikakoek eta orok, gutienetik,

bortz libera. Gero handik goiti orori gehiago. Kolpez ahamen handiegia nahi duena geldituko da ahoa idek eta zabal-zabala, hutsik.

Bainan bethi huntara goazin: langilea da hemen asko aldiz gutienik hutsean. Badituzkete, ba, nausiek ere hobenak. Bainan batzuen ala bertzenak baino handiago da eta itsusiago, nausi-langilen artean gerla piztuz, haziz gerla, *hartarik bizi diren* alfer batzuen tzarkeria.

Eskualduna, 1910-10-21

Bizia Baionan

Zonbeit urthe huntan edertuz doa eta hedatuz Baionako hiria.

Ohiko gerlatiarrek inguruan altxatu harrasi gora lodien barnean aspaldi du etzezakela hedadura gehiago nehorat har. Bethea zen eta da oraino etxez, arroltzea bezala; biziki hertsiegi eta elgarri hurbilegi lantegiak, botigak, bizitegiak.

Iguzki eta hats eskasez oro elgarren poxolu, guziz tokitan, karrikarik zaharrenetan. Itho nahi. Zer zimitza eta zorri ohandzeak!

Aire eskasaren gainera emazue hainbertze zoko-mokotan nolana bizi direnen usteldura; izanen da berriz ere mathela zuhail-horail, sorbalda sarthu, bulhar galdu, gazterik zahar higitu, hirian.

Bego kanpaña nausi osasunarentzat.

Nahiz ez den errex, ari dute bizkitartean harrasien barneko hiria, emeki-emeki garbitzen, argitzen, idekitzen norapeit, ahal arau. Karrika ilhun, itsu batzuetan etxe zahar bat eror dadila

bere baitharik, edo erre, hiria jabetzen da para-
da onean balin badu, lurraz, gostatzen dena
gosta; plaza ttipi bat bizpahiru arbolarekin, ithu-
rri bat, pasaia berri bat egiten dautzute, auzoen-
tzat ez baita guti laket eta on.

Zahar-berrikatzen dituzten edo errotik berri
deramatzaten etxeak ere lehengoz bertzerik
dire argiz, hatsez, osasunari doazkon zer guziez.

Bi plaza handi ederrak egin berri dituzte, oro
landare, lore, itzalpe, alki, edertuz joanen dire-
nak, arbolak handitzearekin.

Garatik hirirako bi zubiak ere behar dituzte
zabaldu, ez baita goizegi izanen; egun batzuez
han ez den harat-hunat, oinezko, zaldizko, suzko
herrementeriarik ez baita, noiznahi elgar leher-
tzekotan.

Lan hori aspaldi duela hitzemanik beren
hitzaren jalek baino segurago eta lasterrago,
egin-araziko baitu beharrak, ezinbertzeak.

Harrasiez kanpo, Sant-Ispirita, Allemarin,
San-Leon-eko bazterretan etxe berri hanitz egi-
nik badute; are gehiago egiten hasiak edo haste-
ra joaki; kaputxinetako alde hartarat bereziki
azken hamar urthe hautan ez badire berrehun

bizitegi eginak, eta nolakoak... Batzu bertzeak baino begikoago. Hetarik hogoi bat, nehongo jauregirik ikusgarrieneri zorrik ez dutenak; batzu arrotzari eskaintzeko urtheko hunenbertzetan; ehunka baino maizago milaka arrandatzen baitute ja askok; bertzek berentzat.

Nonbeit bada diru, nahiz oro zinkurinaz ari zaitzun... ezin biziz...

Bizia kario; jan-edan, atherbe, guziak oro odolean behar erosi; eta halere karraskan aphaintzeko, airean ibiltzeko, etxea etxearen gainerat egiteko dirua burrustan nornahik. Oh! ez orok, ez; bainan eskasa dutenek lana bederen badukete; ezpaitire alabainan hok oro berak egiten.

Bitxi dena duzu hiriaren ingurunean hoinbertze etxe berri; hiri barneko jende gaindia hetarat ixuri behar litakela iduri lukelarik, kokahala betterik baitaude bizitegiak, nor non sar gehiago ez baitukezu kasik zilharretan, ez urhetan ere. Oro mukurru, edo iduri hala direla.

Puskaz emendatu da jendea, xehe eta larri; bainan gehiago da hemen ari jende xehea, langilea ez baitauke lehen bezen hertsiki; lehen bi

barnetan zagozin senhar-emaztek, berez bere edo bizpahiru haurrekin, ez dituzte orai aski, hiru edo lau; jateko edo *bisiten* errezebitzeko salunak eta oro behar.

Hau ez da hain makurra heltzen ahal denarentzat, gorputzaren ala arimarendako ez baita on familia bat oro multzoan bizitzea, buhamiak bezala, non ez den hek iduri bilhakatu nahi, edo areagoko, hirian.

Mintzo dire hiriz kanpo, langile bizitegi batzu, merke eta goxo, aski handi eta garbi, *osasundegiño* batzu ezin gehiago laketak, egiteaz. Errexago da mintzatzeari holako ametsez, obratzea baino.

Gero zer ez dugu behar ikusi? Baionak eta Miarritzek, etxez etxe, baratzez baratze, itzalpez itzalpe, biek elgar hunkiturik bat egiten dutela ikusiko ditu omen *aski luzaz bizi denak*.

Anhartean, sakela hemen gori ez duenak seguru du parabisuko zoriona baino maizago ikustea... debrua, ezin biziz.

Oro gainez gain kariotuz doazi; orotako gehienik aloimenduak. Bospasei barne exkax, karrika hits batean, pagaraziko daitzute, kanpa-

ñan etxalde on bat berelurrekin bezenbat; hiru, lau, bortz, sei ehun.

Ez dakite aski zer galda nausiek.

Urthatsez heldu zaitzu, irri zuri bat ezpaine-tan: «Urthe on —Bai zuri ere. —*Je vous apporte pour étrennes, cent, deux cents, tris cents francs d'augmentation du loyer* —Baduzuia burutik? —*C'est à prendre au à laisser.* —*Bonjour.* —*Bonjour monsieur*».

Zer eginen da? Behar da baietz ihardetsi, edo joan, antzara ferratzerat. Batek hiru ehun... bertzeak bortz bardin galdatuko daitzu.

Jaun bat egun hoitan bere botigaren bortha alhazean zagon, kopeta zimurrik. Galdatzen diot: «Zer duzu kara ilhun hori? —Bazinaki!... Ikusten duzu magasina hau; zeren den paradan, bi mila libera pagatzen nuen. —Eta zer duzu, koñita ukan? —Ez; barda izan zaut nausia, *mila liberaz* emendatzen; bainan hitzemaiten dautalarik (erdi trufaz) bizi deno ez dautala gehiago emendatuko.

«Orok toki hauk huts ditzagun merezi lukete diren bezalakoek. —Eta ez diozu deus erran? —Zertako? Ala irri egin zezadan sudurrera? Goazin

ahal duguno. Leher egiten dugunean, ez dire
nausiak ere ezteietan izanen».

Badakit estai bat, bi zathitan aloitua: zathi
ederrena, handiena emendatu diote han dagon
andere adin handiko bati sei ehunetarik
berrehun gehiagoz; ttipiena, hitsena, gibel bate-
tarat dagona, bi hurrekilako senhar-emazte
lanetik bizi diren batzuri, *berrehunez...* bertzeari
bezala.

Arauka galdatzen ere ez dakite. Ahora jina
erran, eta kontent ez dena doala fuera kanpo.

Handienetarik bat, ezin sinetsizkoa da: para-
da gaitzeko tokian taillur batzuek *hemezortzi
ehun libera* pagatzen zutena. Zapetaria eder
batek hartu du... zuen ustez zonbatetan?

—Nork daki? Bizpahiru miletan othe?

—Ba, zera! *Bortz mila eta bortz ehunetan.*

Hartu duena erhoa ez balin bada, zer irabazi
ez dio eman behar zapetak? Parea 50, 70 liberaz
goitikoak omen dire. Araberan gostaiak ere ba
ordean. Aloimendu horren araberako patanta
sehi-muthilak eta oro pagatuz, zer soma izigarria
ez da heldu urthearen buru batetik bertzera?

Miarritzen egin zuten holatsuko jauzi bat, goiti, duela zonbeit urthe aloimenduek; ba eta urthe laburrik barne, beheiti ere bertze bat, ez ttipiagoa.

Ikusiko. Behin gorapenean gira; estakurua dute nausiek: bizia kario dela. Egoiliarrentzat ez othe? —Zergak emendatu diozkatela —Nori ez?

Batek egun hoitan erraiten zaundana nihauri, bizitegi batez solasean ginelarik: «Zer nahuzu? Zubien zabaltzeko edeki dazkidate 67 libera. — Ba eta eni 40 sos. —Ikusten duzu; ez da zuzen; ez da bardin. —Egia zuk, jauna; hamar bat egoiliar baititutzu, khen-ozute bakotxari ehuneko bat —edo zertako ez berrehun gehiago? Bakotxetik urthean berrehun libera jalgiz, hatzemanen duzu *behin aldi bat* emaita behartu zautzun 67 liberakoa». —Hori erranik, hantxe utzi dut ene gizona irriz. Puska on bat da gaizoa. Pentsa zer juduak ahal diren bertze batzu!

Eskualduna, 1912-07-05

Zaharren erretretak

Zenbat langile zahar othe dire Frantzian, jakin dutenak iragan asteart apherilaren bieko beren izena eta beren lehen emaitza, gizonak 9 libera, emaztek sei, zoin beren herriko-etxean emanak behar zituztela nahi bazuten erretretaz gozatu?

Hiruetan hogoi urthetan pasatuak eta hetarat hurbilduak direnek aski zuketen, izena emaitzerekin, legea onhartzen zutela, lehen emaitzaren egitea ehun eta zonbeit liberaren ukaiteko.

Adineratuz geroz deus gehiagoren emaiterik ez; eta bizkitartean ehun eta zonbeit liberaren altxatzeko eskua ba.

Intresean eman diruarentzat *ehuneko bortz* eder da, ez dea hala? Huna hemen kasik *bortze-ko ehun*.

Aski goiz ernatu ez direnek anhitzez gutiago izanen dute. Hanbat gaixtoago. Noren falta? Ez gurea; guk entzun eta lehenbailehen hemenxe adi-arazi dugu, zena zen bezala.

Gobernamenduak ere *Journal Officiel* delakotan eta merietako afixetan eman-arazia zuen, zer zuketen hor egiteko legeaz gozatu nahi zutenek.

Bizkitartean ez du egin halako harorik. Ez balioz othe, zeren ez duen kasik nehork haren boza entzun aitzinagokoetan erretreta direlako ez mintzatu denean; ala ez othe beldurrez, orai-kotik hor bereziki hunkituak zirenek adi zezaten orok, eta sinets?

Ezen non litake Gobernamendua hiruetan hogoi betheak edo hurbilduak dituzten guziak oro baloazko, bakotxa beren 6 edo 9 liberekin, huna nere izena eta huna nere emaitza. Emadazue hunenbertze arranda.

Hor sarthu den baino anhitzez gehiago ez baladi uko egon, ederki hatzemana litake Gobernamendua.

Alabainan biziki diru guti luke altxatzekorik, bakotxa emaitza bat edo biekin berehala handik harat deus kasik ez gostarrikako erretreta onaren jabe litakenaz geroz.

Nondik luke orori emaitekoa? Zahar anhitz bada, nahiz gazte are gehiago.

Gazteak oro uko egoki; langile gazte nehor kasik ez oraino legean sarthurik, gobernamen-
duak hor sos biltzeko zuen esperantzarik hobe-
rena zen, zaharreri emaitetkoa gaztetarik bilduko
zutela.

Gazteak gibelerat, gazteak hotz, gaztetarik
deus ezin ardiets, nondik athera zaharreri emai-
tetkoa?

Zaharrek berek bakarrik ez dezakete aski
eman, ez dute aski emanen elgarrentzat. Beraz
orduan?

Orduan bietarik bat: gobernamentuak hitza
jan beharko diote, nahi eta ez, ezin bertzez,
lehenik hor sarthuak edo sarthuko direneri.

Hitza ez jatekotz, beharko du hartu dirua ber-
tze nonbeitik.

Gibel aldearen peaxatzeko belhaunetik haix-
turrez oihal puska motz; zilho baten tapatzeko,
bertze bat bertze nonbeit bardina egin, edo han-
diagoa. Ahal den lana!

Orok onhartuz legea, ontsa zoaken. Ontsa?
Ez dakigu azkenean langilearen onetan izanen
zenez. Bainan gobernamentuak bati kendua

bertzeari emanaz, erran zezaken zerbeit ari zela, eta zerbeit onik.

Ororen buruan *on bat* othe den biziko diren bakar batzuentzat orok luzaz karga dorpe baten jasaitea, ez ginuke gure gain hartu nahi erraitea.

Bainan gobernamentuak duen bezin diru emaile guti dueno, eta galdatzale anhitz, nondik nahi zinukete, ihardok dezan.

Laster hitzaren ezin atxikia, orori ezin emana jin dakioke. Edo atxikitze hitza, beharko du dirua den lekutik hartu; ohointzari lothu berriz, edo hobeki erraiteko, aspaldiko sailari jarraiki?

Gauza ebatsiak egundaino nehoi ondorio on guti egin dio; ez ebasleari, ez eta haren eskutik hartzaleari.

Ororen buruan hor beren emaitza eginik sartu direnek, erretretaren ukaiteko, den gaixtoenetik ere, adinean joanak direnaz geroz, ez dukete mila galtzen biziki gutiren emaitza baitute.

Eta guti emanik, badukete berehala hor arrandaño bat pullita. Agian ba, bizi direno.

Sarthu ez direnak aldiz, gure arabera, urriki ttipi bat badukete, bainan ez buruko ileri lotzekorik.

Ezen ez da hoin segur, erretretaren hitzemai-lek hitza luzaz atxik ahalko dutela. Dirurik biltzen ez badute, nondik ukanen dute emaitetkoa?

Eta nondik bilduko dute aski orori emaitetko, fornitzalerik hoberenak, langile gazteak oro edo gehienak legeari gibelaz itzulirik balin badaude, daudela ikusten duzuen bezala?

Agian gauzak guk uste baino hobeki joanen dire. Hala baloazi, hobe ororentzat.

Anhartean, espantu guti dute gure gizonek orai artinokoaz.

Eskualduna, 1912-07-05

Emazteak boz-emaile

Aspaldiko solasa da; bainan luzaz egonik, urtheak eta urtheak, elheketarien jostagailu, emeki-emeki sarthu nahiz dabila eta sartzen ari ez othe den ere, zinez, gaude, hanitzen buruetan.

Ja zerbeit da, kasik orori bertze orduz, bitxiaren bitxiz, irringarri zitzaiotena, orai ja, ez baitaukate orok hain makur. Zonbeitek ba bethi; eta, egia den bezala erraiteko, hanitzek ere oraino; bainan ttipituz joaki ordean, hori onets ez dezaketenen, sekulan ez dutela onetsiren, ezin onetsizko erhokeria bat dela hori ere bertze askoren gainera, diotenen nonbrea. Emendatuz araberan —erran gabe doa— horren alde direnak.

Diote: ooren buruan, ez denez bada zuzen, emaztea ere, gizona bezen ongi, jendea denaz geroz, harentzat indar dutenaz geroz legek, gizontzat bezala, ez lege guziek bardin, hala nola soldadogokoak.

Bizkitartean, hortaz ere, funtsera eta, beren hitzaren erraiteko dretxoak bailukete, zuzenez, emaztek: etxeko lan, gerla, bake, senhar eta seme, aneia eta bertze gizonkien egitekoetan azkarki hunkituak baitire soldadogoaren goiti-beheitiakin, emazteak, arrebak, amak... Bertze edozoin legetan bezenbat hortan ere nola ez aithor baduketela beren nahiaren erakusteko dretxoak?

Dretxo edo ez dretxo, zuzen edo ez zuzen, badoa bethi solasa bere bideari aitzina, hedatuz, erroak eginez beheiti eta adarrak goiti; tokitan kalapita bat gaitza hortarik, eta ez atzo ta egungoa bakarrik, baina ja hortzak eginik, xutik joana eta urthetik urthera handitzen ari.

Eta gehienik non? —Angleterran. Ohiko urhats hartu zahartuetan bertzenaz gogorrenik dagon populua behar ginuela ikusi, emaztek bozaren emaitiaz, ez emaitiaz, hor derabilaten haroaz inharrosienik, nork amestuko zuen bertze orduz?

Jende buru bero, nehon ez dauzken batzuen artean altxatzea kasaila hori, paso; baina Angleterran... elhe guziak, urhats guziak neurt-

huz, haztatuz, odol hotzean deramatzen gizon eta emazte batzu behar hoinbertzetaraino kexatu elgarri oldarka, mehatxuka, zernahi erran eta eginka, emaztek bozaren emaita, ez emaita hortaz! Bitxi da!

Badute hor angles gizonak, beren buruez apur bat, ba eta apur baino gehiago hartuak zirenek, badute zertaz ahale. Mundu guziari atxikitzeko aski zail, eta iraunkor zirenek, gure Napoleon handi zenaren eta ororen garhitzeko aski azkar izan anglesek, beharko othe duten hor emazte batzuri amor eman!!!

Bizi denak ikusiko.

Anhartearen debruen lanetan dire. *Les suffragettes* diote izen edo izengoiti emana, beren bozaren galdez bazterrak oro nahasiak dauzkaten emazte axola eta beldur-gaberi.

Erran gabe doa ez direla hor ari, ez ibilki, zalapartaka, angles emazte behar bezalakoenak. Zer du erran nahi, emendatuz balin badoazi eta azkenean gainaren hartzekotan balin badi-re?

Xuxen edo makur, ondorio gaitzak dakharzke
hunek, denborarekin, Angleterran eta bertzetan,
ithotzen ez badute, ordu deno... gizonek.

Eskualduna, 1913-05-23

KATOLIKOTASUNA

Nor da nausi?

Juduak eta framazonak. Gu giristinoak, gu jende langileak, heien muthil; gu heien azpiko, on bazauku eta ez. Gu deus ez Frantzian, ez eta ere zoin gure herrietan. Ez xoilki zu eta ni irakurtzale maitea, bainan oro, oro muthil, oro esklabo; batzu bortxaz, bertzeak hala nahiagoz.

Nor da nausi gure herrietan *herriko gizonetarik*? Beha zazu bazterretarat. Egizu Eskual Herrian itzuli bat. Geldi zaite nahi duzun lekuan; sar zaite solasean herriko gizonekin. Batean erranen dautzute: «hemen xuriak dira nausi». —Bertze batean aldiz: «hemen gorriak nausi».

Eta nik erraten dautzut batzu ez bertzeak ez direla *nausi*. Nik erraten dautzut, batzu ala bertzeak esklabo direla; eta noren esklabo? Framazonen eta juduen esklabo; nun ez diren berak judu edo framazon.

Orobat duzu hau eta hura erran: hori hola da. Adi zazu hau, adiskidea; ez dautzut egun bertze deus aipatu nahi; adi zazu hau.

Eskual Herrian oro edo gutiz gehienak erlisionekoak gare oro. Ez bagare ere oro bardin erlisioneak manatzen darozkun eginbideeri jarraikiak, orok bederen bihotzaren zolan maite dugugure erlisionea; erlisionearen laguntzarekin nahi gare bizi, edo gutienetik bederen hil. Orok nahi ginuke dugun erlisionea begiratu, guretzat eta gure ondokoentzat. Zernahi makhur elgarren artean izanagatik, orok edo gehienek nahi ginuke, edo bederen erraten dugu nahi ginukela gure herriko eskoletan oroz gainetik erlisionea ohortua eta katixima irakasten ikhusi. Guziek aithortzen dugu bai katixima, bai khuretzefika, eta erlisioneko seinale eta irakaspn guziak herriko eskolatik kanpo ezartzen dituen legea, lege tzarra dela; lege tzarra, zuzen kontrakoa, eta galgarrria dela serorak eta fraideak, zeren diren erlisionearen irakasle hoberenak, herriko eskoletarik, herriaren bortxa, herriko buruzagien eta burhasoen bortxa, khentzen dituena. Ongi hori, eta ederki.

Ederkiago laiteke lege tzar horren hausterat artzeko, guziek elgar aditu eta elgar lagundu nahi baginu. Hortakotz izan dira, hilabethe

hunen hamahiruan, Hasparnen bilduak Eskual Herriko gizon ohoragarri eta zinezko fededun ezagutuenak. Han zirenek hitzeman dute lege itsusi horren hausterat ariko direla bere ahal guziez.

Ez gare bakharrak Frantzian lege hori gaitzesten dugunak; Frantziaren hamarretarik bederatzietan lege hori gaizki ikhusia da. Jende xeheak guziz ez du onhartzen, zeren eta harek behar baitu lege hori gehienik jasan; zeren aberatsek oraino, bederen diruaren gostuz, beren haurrak erlisioneko eskoletan altxa baitetzazkete.

Bainan zoazi jende xeheari erraterat, behar dugula lege hori hautsi, eta horren hausteko ez dela bertze biderik baizik ere, lege horren hausterat artzea hitzematen duten gizoneri *boz-aldi guzietan* indar ematea. Aski eta aski aditzen dugu bakhotxa bere bozaren *nausi* dela; boza bakhotxak bere *kontzientziaren* arabera eman behar duela; hau dela, hura dela, elhe ederra frango. Nun dira obrak?

Boz-emaileak erranen dautzu, bat ere ahalgerik gabe, eta gaizki ala ongi dabilan beldurtasunik gabe, erranen dautzu:

«Ongi pena dut: bainan ez naiz ene bozaren jabe. Holakoari edo halakoari hitzemana diot». Herriko buruzagiak eta guziz herriko mera gorria balin bada, erranen dautzute: «gu erlisionekoak gare, bainan bethi jaun merarentzat ematen dugu boza. Gizon ona da... *bertzenaz*. Ez da dioten bezen gorria».

Zoazi delako jaun merarengana. Galde zozu zertako ez duen, mera denaz geroz, eta guziz *mera errepublikanoa*, bainan bethi halere erlisionearen aldekoa, galda zozu zertako bada ez duen gobernamentuko gizonen aitzinean bere burua gehixago agertzen; zertako ez dioten jaun heier goraki eta azkarki erraten: «zuen alde naiz, bainan kondizionerekin, holako eta halako lege tzarra, hala nola eskoletako lege hori khenduko ditutzuela. Ene herriko gizonak, ez nik, ez dugu hori onhartzen. Hori behar duzue khendu, edo *gurekilakoak eginak ditutzue*».

Jaun merak erranen dautzu, legea ez dela harek egina. Emanen du hutsa Suprefetaren edo

Prefetaren edo ministroaren gain, deputatuen gain. Eta gero deputatu tzar hek, ministro tzar hura, Prefet tzar hura, Suprefet tzar hura mintzatu beharko dituenean, ez du izanen kopetarik hitz erdi baten errateko. Bere boneta eskuan egonen da, ixil eta umil jaun heien aitzinean. Jaun heiek eginen dute gure jaun mera gaizoa-ren herrian nahi dutena; sarthuko dira gero eta barnago herriko aferetan. Khenduko diotzate herriko jendeari, eta jaun merari berari, emeki emeki, esku guziak. Jaun merari idurituko zaio halere hura dela herrian nausi. Nor izanen da, nor da jadanik gure giristino herrietan, eta horrela Frantzia guzian nausi? Ez herriko jendea, ez herriko konseilua, ez herriko gizonak; ez herriko burhasoak eta etxeko-jaunak. Nor da nausi? Framazonak. Noiz arte? Guk nahi arte.

Eskualduna, 1891-10-30

Igandetako lana

Deusetarik ez duzu hobeki ezagutuko zer heinetan den herri batean erlisionea, baizik ere ikhusiz herri hartako jendeak nola begiratzen duen igande eguna. Gure Eskual Herrian berean ikhus azu zertaratuak giren, duela hogoi urthe hautarik hunat. Orhoit zaite zure herrian berean, nungo nahiko izanagatik, nola iragaiten zen bertze orduz igande eguna, goizetik arrats. Eta orai aldiz! Garbiki, ahalgegarri da zertaratuak giren.

Ez naiz mintzo meza bezperen entzuteaz, nahiz balitaken nun zer erran. Ez naiz mintzo ere, igande egunetan egiten diren sal-erospe-nez, libertimenduez; ez eta ere igandetan hor gaindi harat-hunat, herriz-herri, bidez-bide, batzu ihizin, bertzeak arraintzan, gehienak bere burua zoin bere lekhetan ezin jasanez, iduri ez dakitela nola jan denbora; ez naiz mintzo ase eta pasea, alfer daudenez edo dabiltzanez. Banuke gaurko eta biharko lan, orotaz mintzatzekotz.

Mintzo naiz bakarrik lanaz, igandetako lanaz. Bertze orduz Eskual Herrian, ez eta ere nehungo

giristino herrietan nehork ez zuen lan dorpherik hunkituko, baitezpadako ezin-bertzean baizik. Horrelako behar orduetan langilek galdatzen zuten herriko artzainaren permisionea. Jainkoari esker oraino ere badira herri onak, usaia zuhur hori daukatenak. Bainan asko tokitan galdua da edo galtzen ari usaia hori. Horrela, nahi eta ez, jendea lazitzen da, igandearen lege sainduari buruz. Batek lan poxi bat, bertzeak puska bat egin; erdietan behar handirik gabe; emeki emeki jendea sorhaitzen da; zer ere ikhusten baitugu bertzeer egiten, hari jartzen gare. Den gutieneko estakurua aski dugu igande bethean lanean artzeko. Estakururik ez duenak, bilhatuko du... ba eta errexki hatzemanen. «Hau egin behar, hura egin gabe ezin utz; alabainan bizi nahi; eta futxo, igandetan lan hau edo hura egin gabe, ezin bizi». Ehun mila zinkhurina. Bardin bardina mintzo dira hor gaindi igande egun edo goiz guzia, burdin bide horietan eta bertze asko lane-tan igande goiz guzia ari direnak.

Bainan nunbeitikako langile dohakabe hek bederen paganoak dira; edo, giristino bezala bateiatuak badira ere, pagano bilhakatuak dira.

Gu, Eskual Herrian, ez gira oraino pagano bilhakatua; ez nahi ere! —Ongi, ederki. Baina ez dezagun sobera espantu egin. Ni beldur naiz, paganoak ikhusiaren bortxaz, eta heiekin bizitzaren bortxaz, ez othe giren, ohartu gabe, paganoak bezelakutzen ari. Beldur naiz ez othe giren zonbeit lekhutan jadanik hortaratuak.

Nork erranen zuen denbora batez, ikhusiko gintuela Eskual Herrian, *herriko langileak*, igande egunaren legea kolpatzen, goiz osoak lanean, aitzur-lanean?

Nik badazkit Eskual Herrian horrelako eskualdunak, horrelako giristinoak. Nahi duena eskandalisa bedi: ez nauke begien aintzinean dudana erran gabe. Ez dut izendatzen herria, ez nahiz herri hartako erretora eta hango giristino egiazkoak ahalge-arazi. Neroni ahalgetzen naiz, erran behar izaitiaz baditezke eta badirela eskualdun giristinoak beren buruen nausi ez direnak, eta igande eguna lanean deramatenak, erranez asteko lana gal lezaketela bertzela eginez. «Bizi nahi...» —Orai arte nola bizi izan dira? Baina debalde duzu deusen erratea. Hortan gira!...

Emaztearen errespetua

Erlisoneari esker da gutartean emaztea den bezala errespetatua; deus dakiten guziek aspaldi dakitena da hori; erlisoneak jalgia dela emaztea eta altxatua —zoin aphaldanik eta zoin gora!

Lehen esklabo zena, kasik abere bat bezala gizonaren eskuko, hunek nahi zuenean har, nahi zuenean utz; nahi zuen bezala erabil, eros edo sal.

Harentzat lan guziak, edo bederen hastioenak; esker guti edo bat ere ez. Estimua, ohore, nausitasun den gutienik.

Osoki azpitik zaukan bertze orduz, paganoen denboran, gizonak emaztea, sehi bat baino biziki azpitikago. Sehia lan truk irabazitan dago, bere beharrez ba, bainan bere nahiz ere. Lana zor du, bainan gaineratikoaz bere buruaren jabe da. Emaztea lehenago senarrari buruz, eskurik gabe zen. Hau bakarrik nausi.

Giristinotasunari dio zor emazteak, etxean eta etxetik kanpo ere, orotan lehen baino ikusierago balin bada, eta entzunago, errespetatuago.

Gizona jaun bezen andere baita gutartean emaztea, ba eta puskaz andereago, bederen jende ikasietan, ongi altxatuetan.

Emazte baten joitea —baitezpadako ezinbertzez kanpo— desohore bat da gutarteko gizonarentzat; eta aldiz askotan ohore, haren alde jazartzea, gaizki lerabilkenari.

Etxe batean sartzearekin bizitzen dakienak agur eginen dio etxeko-jaunari baino umilkiago etxeko-andereari.

Karrosa batean tokirik hoberena utziko diozu emaztekiari, edo bederen ez hartuko aitzinka, gizonkiari bezen aise. Jende handietan, ba eta entralekoetan ere, mahainean lehen tokia senarrari buruz-buru, nork dauka? *Madamak*.

Eskual Herriko etxerik hoberenetan, guziz laborarietan, egia da, eztuzuela ikusiko etxeko-anderea bertzeekin jarririk mahainean jaten; bereziki arrotz edo atze, bazkaltiar norbeit due-larik; are gutiago pesta egunetan, non ez dituen alaba edo seme baten ezteiak.

Sukaldetik dago ardura eskualdun etxeko-anderea bazkariari; bainan ez alfer, ez eta zokotan gorderik. Jar zaite, adixkidea; apetitu on, eta

sarri erranen dautazu, etxe hortan badenetz erregina bat eskurik duena, eta zer eskua! Askoren tronuarentzat ez bailezake truka bere soineko torxun xuria.

Zinezko familia giristino batean, emaztea baino hobeki ekarririk nor duzu? Eritasun eta bihozmin, orotan jasaiteko zerbeit bada edo izanzen goiz edo berant.

Bainan othe da emaztearentzat nahigabetan ere laguntza hoberik, erlisionearena baino? Dohatsu, egiazki jainkotiar balin bada bera; laguna eta haurrak bere iduriko balin baditu, are dohatsuago.

Bizi deno errespetuz inguratuko dute orok, etxean eta auzoan. Hil ondoan ez dute haurrek behin eta behin haren izena aipatu ahalko, begiak busti gabe.

Senar-emazte giristinoen artean ez gira zeren sar. Begoite Jainkoak bizi guziko ezarri dituen batasunean. Josienetarik zonbeit ikusi dituzketzue, nik bezala, eta entzun behin baino gehiagotan, bata bertzeaz mintzo, zoin den ona, zoin hau, zoin hura!

Bitxiz irri egiteko litake, ez balitz ederrez Jainko onari eskerrak bihurtzeko, zeren duen egin jendea jende, gizona gizon, emaztea emazte, biak elgarren lagun familiaren hazteko eta altxatzeko eginbideari buruz; biek bat egiten dutela bethi; gorputzez baino ere arimaz elgarrenago.

Emagun gauzak ez doazila orotan bethi hoin ederki; badela bazterretan hogoi-ta bortz gizon eta emazte, lagunaren aldetik dohakabe denik; bitartean ere ba goiti-beheiti asko; osoki xuxen edo arras makur doazin bezenbat ez othe da, elgarren itzalak ikusiz, hutsak estaliz bizi direnik purgatorio puxka bat eginez aitzinerat, oro hil ondoko utzi gabe.

Ditzagun ikus eta erran gauzak lañoki, diren bezala. Ez da gutiago egia, familiako lokarriak eztiago eta azkarrago, maiteago edo bederen jasangarriago dauzkala erlisioneak. Hau gal, familia gal, edo galtzeko irrisku handitanago.

Nork erran behar luken, eta nork sinetsi, gure begiz ikusten ez baginu, ez daukutela nahi utzi erlisionea familiaren zimendu bezala ere!

Xantilun pollitak baitituzte bardin eskaintzeko, bertzeak bertze, familian burhasoei, hurrei,

senar-emaztei, elgarrekilakoaren berme, erlisionearen orde!

Aski da ikustea zertaratzen ari den eta ja zertaratua familia, erlisioneaz gabetu tokietan. Haurrik den etxetan, burhasoen errespetu mikorik ez, haurrik ez bada edo diren hek poxolu badi-tuzte aitamek, poxolu eta ezin jasan elgar ere, familiarenak egin du.

Gizonak erlisionerik ez badu, beldurtzeko da jendetasunik ere ez dezan ukan. Urrikalgarri, haren emaztea.

Bainan huni berari ken-ozue gaztedanik Jainkoaren beldurra, harenganikako esperantza eta sokorria, asko oren hitsetan bertze nehondik ez duken kontsolamendua, zorigaitz orduan emazteari, ba eta harekilakoeri!

Gaztetasunean, erlisioneak beiratzten ez badu, arinkeria baizik gogoan ez duelarik, gerthadakiola uste gabezko nahigabe handi zenbeit; hara non den abandonatua; aitzinean alegia guri bezen idor bihotzak ondoan. Erlisionerik ez badu, norat itzul? Zeri loth?

Familiatua den emazteak ere, zer konfiantza duke geroaren gainean, lagunaren partetik, ba

eta lagunak harenetik, ez badire bata ez bertzea Jainkoaren beldur?

Alta hortara goazi, bide xuxenez eta laburrez, haurrak erlisionerik gabe altxatuz; muthikoak bezala neskatoakoak.

Neskato gaztearen ala emazte adinekoaren errespeturik ez badute harekin bizi behar direnek, hanbat gaixtoago gisa guzietz, ororentzat.

Emazteak berak gal baleza bere buruaren errespetua, erlisioneak galtzearekin, orduan ginezake ikus bazter pollitik...

Ohiko esklabotasunerat eror litake emaztea, egundaino baino beherago. Hori lukete nahi emaztearen *erlisionetik libro* ezartzeaz mintzo direnek.

Gogo eman dezatela, Jainkoaren beldurrarekin batean gal-araz emazteari gizonarena.

Eskualduna, 1911-02-03

Liburu kondenatuak

Kondenatuak direlako liburuez mintzo dire asko, jakin gabe zer derasaten.

Gauzak diren bezala xuxen ikusi nahi dituenarentzat, badire bi kondenamendu suerte, ba eta bi liburu kondenatu andana, elgarretarik osoki berexak: batzu erlisionearen etsaiek alde batetik eta bertze aldetik bertzeak Elizako Buruzagiek kondenatuak.

Goazin ikus garbiki, zoin zoin diren.

Gobernamenduaz jabetuak diren gizon tzar, erlisionearen etsai herratsuek Frantziako eskola publiko guzietarik fuera kanpo emanak, haurren begien aitzinerat eskola hetan ez agertzerat *kondenatuak* diren liburuetarik lehen-lehena da *katixima*, erlisione katolikoaren erakaspak laburzki dauzkan liburutto hura.

Ba, katixima kondenatua da, den herririk katolikoenean ere, gobernamenduaren meneko den ber, atheaz barnerat ez sartzerat. Dagola kanpoan.

Errientak ez dire haizu, katiximaren erakasterat eskolan. hori erran gabe doa. Legeak debekatzen diote hori ja hogoi-ta hamar bat urthe huntan errientei, nahiz hastapen hartan, jende xehearen tronpatzeko, aitzina erakasten zuten oraino, berek beren legea kolpatuz; gero, jendea emeki-emeki ezazol bilhakatzearekin, katiximak, othoitzak eta oro uzteko xedea zutelarik, ba... ikusi eta ikusten dugun bezala.

Orai ja nehon ez dute katiximarik erakasten. Gehiago dena, oraiko buruzagi tzarren gogorako edo areagoko anhitz errienteak, aski dute haur baten eskuetan katixima bat hetsia, edo sakelatik haren ezkina bera doi-doi ageri dela ohartzea, hartu eta kanporat aurdikitzeke; urratzeko han berean, haur guzien aitzinean katixima hura; edo bederen debekatzeko haurrari liburu haren ekartzea eskolarat, sakelan ere. Fuera katixima = *livre condamné*.

Katiximarekin batean, arrazoin beraz, gizon tzar diren bezalakoek begietan dituztelakotz, *kondenatuak* dire orobat Frantziako eskola publiko guzietarik kanpo egoiterat, katiximaren usai-

na duketen liburu guziak, *erlisionearen aldekoak*.

Gure sinesteari zinez eta garbiki atxikiak diren liburuak bota bazterrerat; edo Jainkoaren izeneraino kendurik, karrakaturik sinestezko hitz hobeen guziak, erlisioneaz buluzirik, husturik baizik ez haizu eskolako haurren eskuetan... *libres condamnés; condamnés par qui? Par les ennemis de la Religion.*

Ordainez, eta miletan arrazoin gehiagorekin, erlisionearen Buruzagiek, Jaun Apezpikuek, heien eginbidea delakotz, duketen eginbide handienetarik bat, kondenatuak dituzte ja liburu batzu, eta bertzerik ere kondena dezakete oraino, ager arau; ezagut arau, kaltekor direla haurrentzat.

Liburu *kondenatuak*: zer erran nahi da? — Nahi da erran: erlisioneaz artha dutenek, hartako direnek, Apezpikuek irakurtu dituztela liburu hek, eta ezagutu erlisionearen gal-arazle. Nork du hobeki jujatzen ahal hori, Apezpikuek baino?

Nardagarri ere bada, bertzeak bertze, gure erlisionearen etsaiek beren kazeta tzarretan ala solas egiteko ahoa idek-aldi guzietz duten kope-

ta: erlisionea suntsitu nahiz ari berak errabian, eta guri erraiteko halere oraino berek, nola dugun edo ginuken behar guk erlisionea zaindu?

Nor nori erakusle, zer den erlisionearentzat on, zer kalte...

Apezpikuek kondenatu liburuak: horrek erran nahi du oraino haurren eta are gehiago burhasoen eginbidea dela, non ez duten erlisionea zangopean ezarri nahi, Elizako Buruzagieri obeditzea, erlisionearen kontrakotzat kondenatu liburu hek utziz bazterrerat.

Ba eta errient giristino katolikoek eginbidea ere, liburu hetarik ez emaita haurren eskuetarat, gobernamentuko buruzagiek manaturik ere.

Sinesterik edo axolarik ez badu errientak, burhasoek eta haurrek ukan dezatela berentzat. Ez da hor haratik, ez hunatik.

Haurrak eskolatu behar direla. —Eskola baino beharrago dute arimaren ez galtzea. —Zertako dituzten apezpikuek hor liburu hoik kondenatu. —Zoazte, galda zozuete framazonei eta heiekilakoei, zertako duten berek lehenik kondenatu katixima.

Bi kondenamendu eta bi liburu kondenatu
suerte hoiien artean egizue hautu.

Hautuaren arabera izanen zarete zinezko
katoliko edo giristino arnegatu. Bata edo ber-
tzea. Bien erdian ez dukezue hor zeri loth.

Eskualduna, 1911-03-24

POLITIKA

Errepublika

Adiskide batek izkribatzen dauku, harritu dela, iragan astean *Eskualduna*-ren lehenbiziko artikulua irakurtzearekin.

Ez dugu bada, gure ustez, deus ere erran egiarik eta zuzenik baizik. Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gituela, bakearengatik eta erlisionearengatik, Errepublika on bat onhets dezagun. Egia erran dugu.

Erran dugu onhartzan dugula guk kontseilu hori. Erran dugu orai baino lehen ere, gure bait-harik eta aski erakutsi dugu, nor diren gure etsaiak; ez gituela gu Errepublikaren izenak izitzen.

Erran dugu Errepublika ona izan dezakegula, baldin bozkatze guzietan gizon zuzenak, zuhur-rak, giristinoak izendatzen baditugu. Hori egia othe da, ala ez?

Hala ez bada, zoazi adiskidea; errozu Aita Sainduari, ez dela xuxen mintzo. Guk nahiago dugu haren eta gure hitzean egon.

Zer bada? Orai *xuriak gorri* behar othe gira bilhakatu? —Ez dugu hori erran; ez eta hitz erdirik ere ez dugu erran, hortara dohanik.

Gure adiskidearen arabera, gaizki egin dugu Aita Sainduaren letra laburzki aiphatzea. Behar ginuen beraz letra hartarik zathi handi bat bederen eman...

Zertako ez letra guzia, osorik, zabal zabala? Bazuketen gure irakurtzalek behingo lan, letra luze horren burutik buru irakurtzen.

Ez; ez dugu nahi izan sobera lan hartu, ez eta eman nehori.

Oxala astean behin *egia bat, bakhar bat* ongi sar-arazten ahal baginu gure *Eskualdun* irakurtzaleen buruan!

Azken aldian ahal bezen laburzki eta garbiki eman ditugu hemen Aita Sainduak igortzen dauzkigun bi kontseilu.

Kontseilu horietarik lehena da, gorago aipatu duguna: Errepublika on bat onhestea. Kontseilu hori zor ginuen gure adiskideri. Eta, ez, gure izenean, bainan Aita Sainduaren izenean, ezarri dugu hemen eta egun berriz ezartzen lañoki den gutieneko gibel-beldurrik, ez itzulikarik gabe.

Hanbat gaixtoago hori ongi ez zaionarenzat.

Eta aldiz Aita Sainduaren bigarren kontseiluaz ez omen dugu aski erran. Gure adiskidearen arabera, *Errepublikaz* sobera mintzatu gira; eta ez *aski* orai artinoko Errepublika hunen lege tzarrez eta egitate tzarrez.

Barkhatu jauna. Huna, hitzez hitz, zer erran dugun egun zortzi:

«Framazonen eskuetan gira. Framazon horiek bere ahal guziak egiten dituzte Frantzian erlisioneari erro guziak moztu nahiz.

Guri dago ahal guzien egitea gaixtaginer jazartzeko. Dugun elgar adi, elgarri esku eman giristino guziek, framazonak eta heien alde diren guziak Ganberetarik eta herriko kontseiluetarik kanpo ezartzeko. Behin ere ez dezagun bozetan indarrrik eman erlisionearen kontrako lege tzar horien khentzera ariko direla zinez hitz-eman nahi ez duten gizoneri».

Xehetasunetan sartzeko denbora dugu. Etsaiek emanen daukute aski eta sobera okasio-ne hortako. Goazin elgar adituz, bederen adiskidekin.

Eskualduna, 1892-02-04

Uztailaren hamalaua

Aste huntan dugunaz geroz gure errepublikaren besta egunik handiena (*14 juillet*) bi hitz nahi gintuzke erran hemen gure irakurtzaleri besta horren gainean.

Anhitzek ez dukete axola handirik, besta hori noiz den eta zertako den ez jakinik ere, diotelarik: «besta eta josteta gose denak egin dezala nahi duena. Gu ariko gira lanean».

Badire eta ere gutartean anhitz besta delako horrentzat urhats bat egin, edo ere sos bat xahutu baino nahiago luketenak... ez dakit zer!

Behinik behin Eskual Herrian bozkalentzia guti ikhusten dugu, bandera eta argi guti leihoe-tan; irhintzina are gutiago dugu aditzen hama-rretarik bederatzi herritan.

Hotz, hotz bazterrak egun hortan, ez bakharrik Eskual Herrian, bainan hemen bezala bertze asko tokitan. Eta non ez? —Orotan bardintsu.

Osoki gobernamentuaren azpiko diren kargudunak khen eta nehor kasik ez duzu den gutiena aphaindurik ere ikhusiko. Beren buruen

jabe direnak urrun daude besta hortarik. Iduri du orok halako minthu-usain bat sendi diotela.

Ez dea hori bitxi? Frantzia guziko besta egunean oro ukho; oro hotz! Xuriak hotz, eta gorriak... ez bero.

Nondik heldu othe da hotzetasun hori?

Hastapenean erran zitaken, *errepublikari* egiten ziotela anhitzek beltzuri. Baditake ere batzuen gibelatzeko hori bera aski zen lehenbizi hartan. Bainan orai? Ingoitik iduri luke orduko bekhoizkiak eta aiharkundeak ahantzixeak izan behar litezkela. Eta bizkitartean errepublika zahartuago, eta errepublikaren besta hitsago, minthuago... Zerk egiten du hori? Zerk egiten duen hori ene arabera, huna bi hitzez.

Haste hastetik gaizki hautatua da besta hortako eguna; eta hori delakotz behin ere ezin ongi kokatu da jenden gogoan.

Alabainan behar zitaken Frantzia guziaren besta egun hori, ez izanik ere baitezpada oroen gogorako, bederen errepublika zuzen baten alde direnei bihotzaren hatzemaiteko, behar zitaken izan zenbeit gerthakari handiren orhoitzapena.

Errepublikaren besta eguntzat hautatu behar zuketan eta lukete oraino ere populuari zerbeit ongi handi ekharri dioken egun bat; laburzki erateko errepublika ohoratzen duen egun bat.

Halako egunetarik bat othe da uztailaren hamalaua? Ez eiki, horri buruz gehienak hoin hotz edo ephel direnaz geroz.

Frantziako ixtorio izpi bat xuxen dakitenek ez dute nehork erraite beharrik nolako orhoitzape-nak dakharrizkan berekin *quatorze juillet* delako egun horrek.

Ixtoria liburuetarik ikhasia ez dutenek ere badakikete oraino zerbeit beren burhasoek erranik. Ez dire oraino ahantziak duela ehun urthe Frantzian gerthatu ixtorio... pollitak!

Ahantziak dituzketenentzat erranen dugu *mila zazpi ehun eta lauetan hogoi-ta bederatzian*, uztailaren hamalauan, Pariseko populua gobernamentuari jazarri zitzaiola, egun hautan jazarri nahi zitzaion bezala, bardin-bardina.

Bazen orduan Parisen presondegi zahar bat, *la Bastille* deitzen zutena. Orain ere badire presondegiak Parisen; ba eta behar ere presondegiak etanaski gero-ta gehiago behartuko...

Bainan nola orai bezala orduan ere jende xehea sinhetskor baitzen, gizon tzar batzuek gezurra sinhets-arazi zioten, bazaduzkala gobernamenduak presondegi zahar hartan ez dakit zenbat eta zenbat ehun gizon dohakabe, hobetik gabe han preso ezarriak, burdinaz estekaturik, erdi goseak, hezur eta larru bilhakatuak!

Gezurra zen.

Bainan nola ordukotzat buruak harrotuxeak baitziren, gezur hori aski izan zen asaldo bat izigarriaren altxarazteko. Populuak handik eta hemendik harma eta bertze tresna parrasta bat bildurik, inguratu zuen presondegi hura, oihuka eta mehatxuka, su emanen ziotela, eta bere barnekoekin erreko zutela ez baziozkaten hango atheak idekitzen.

Arren zenbat presuner uste duzu zirela han orduan? —Ez mila, ez ehun, ez eta hogoi ere; bainan *zazpi*. Zazpi hetarik *lau*, ohoinak, diru falsu egileak... hots, lau *panamixta* ederrak. Bertze bat, bere aitak han ezar-arazia, nehork nehore ezin hezizko muthiko tzar bat. Gero bertze biga, errege hil nahiz beren buruak galdurikako bi erhoska.

Hara orduan han ziren presuner guziak: oro ere zazpi, eta oro hobendunak.

Zer egin zuen halere populuak? Presondegiko zainen buruzagiari hitzeman zioten bizia utziko ziotela, baldin populua sartzerat uzten bazuen. Harek utzi gaizoak, ustez bihotza hautsiko ahal zitzaiotelakoan.

Populua barnerat sarthu; eta jaun dohakabe hura harrika, tiroka eta ezpata-ukhaldika hil.

Hil-eta lephoa moztu zioten. Haren burua gerren baten buruan erabili zuten hirian karrikaz-karrika, oihu eta garraziaka.

Ordu berean ohartzten dire hiriko auzapheza ez dutela hanbat beren alde. Nahi zuketen eiki beren tzarkerien egiteko jaun hura aitzindari ukhan; bainan harek ez bide zituen onhartzten egitate itsusi horiek. Odol-ixurtze ikharagarri hura ikhustearekin, *nigarra jauzi zitzaion*. Bertzek oihu: «Baia nigar? Guk sar-araziko dazkia-guk nigarrak. —Zer da? Zer da? —Auzapheza nigarrez. —Hil, hil auzapheza!» Berehala gaixtagin bat hurbiltzen zaio; tiro batez erdiz-erdi erretzen dio begithartea. Hil-gogor erortzen da. Lephoa mozten diote; eta haren burua ere, bertzea-

rena bezala ziri baten puntan badaramate hiri guzian gaindi; bi buruak bat bertzearen aldean, begiak zabaldurik, larru guzia odolez eta lohiz beltztua: zer ikhusgarria! Zer besta ederra!

Hil zituzten orobat presondegiaren zain zauden soldadoetarik hatzeman ahalak oro. Presondegi-etxe guzia lurrerat arthiki zuten, harrasi ezkina bat ere xutik utzi gabe. Gero hango harrietarik bat igorri zuten Frantziako hiri eta herri guzietarat. —Zertako? —Orhoitzapentzat!

Harri hura ez othe zen orotarat heldu? Ala ez othe dute gure arbasoek haren begiratzeko artha hartu? Ez dakigu. Bainan herri bakhar bat ez dugu ezagutzen orhoitzapen aberats hura galdu eta ahantzi ez duenik. Zer eskergabetasuna!

Horra beraz nolako orhoitzapenak dakharrizkan *uztailaren hamalaueko* besta handiak!

Geroztik hunat ehun eta hiru urthe joan dire. Orduko presondegi batentzat badire orai Parisen berean (bertzeak bertzalde) hamar presondegi. Orduan baziren presondegi haren zain zaudenak ehun bat soldadu zahar. Orai badire Parisen *zen-beit ehun* presuner preso, eta preso ez direnen

preso ezartzeko kheinu baten begira daudenak...
*berrogoi-ta hamar mila soldado, lau mila jandar-
me, sei mila hiri-zain*, populua larderiaren azpian
atxikitzea baizik bertze lanik ez dutenak. Eta
halere beldur!

Horra zertan giren uztailaren hamalauuko
egun handi hartarik ehun eta hiru urtheren
buruan. Nork ere baituke orai orhoitzapen horren
ohoretan besta egiteko gutizia, on dakiola!

Eskualduna, 1893-07-14

Sozialixtak

Jadanik errana dugu badirela azken bozaldi huntan hautatuak izan diren deputatuen artean 60, *hiruetan hogoi* sozialixtak.

Anhitzek izen hori eta izen hortako deputatuen nonbrea irakurtu dituzkete; eta gero bertze asko berri bezala, ahantzi, hanbat gogoan hartu gabe.

Bizkitartean ez da hori gauza bat ahanztekoa. Ezen hortarik doake, gutien ustean, deputatu berriek eginen dituzten on-gaitzetarik gehien ez-baia.

Badire asko herri, hala nola Alemania, zoinetan gobernamentuko gora-behera guzien gidera, alde batetik girixtino katolikoek eta bertze aldetik *sozialixtek* baitaukate.

Han ez da gehiago, erran behar bada, ez gorririk, ez xuririk. Nor den sozialixta, eta nor ez? Hortan da guzia. Biba sozialixtak! Fuera sozialixtak!

Ni beldur Frantzian ere, iduri ez duelarik, emeki-emeki, hortarat ari othe giren? Orai arte

hogoi-ta zenbeit bakhar deputatu sozialixta baikirik ez ziren eta orai *hiruetan-hogoi*. Bertze aldian baditazke ehun eta berrogoi. Eta behin nausitzen hasiz geroz, gero-ta gehiago. Jainkoak begira behin gainaren hartzerat utz!

Erranen dautazu, ea zer kalte othe ginuken *sozialixtak* nausitzerat heldu balire?

Sozialixtak azkartuxeak diren tokietan heien garhaitzea baino errexago da zure galdeari ihardestea.

Nahi baduzu jakin zer bilhaka litaken Frantzia sozialixten eskuetan, aski duzu gogoan hartzea zer diren, nolakoak diren sozialixten egitateak, eta heien xedeak.

Sozialixta izen horrek berak deus ez du bere baitharik erran nahi. Hori bertze asko hitz bezala, *hitz* bat da; eta hitzak edozoin kolore eta soinu ukhanik ere, ez du ageri kanpotik zer den, ez norat dagon.

Da ikhusi behar zer duen barnean.

Orobat duzu *Errepublikaren* izena. Batzuer iduri zaiote «*Biba la République*» oihi egin eta ez dela deus gehiago erratekorik, ez eta ere egitekorik. Hala behar litake, eta hala litake ere

Errepublikak izaitez *ona* balitz. Egia, Manex, bainan non da Errepublika ona?

Sozialixtek ere Errepublika dute omen nahi. Berek diote, eta Jainkoari esker aski gora errepi-katzen dute, heien gogorako Errepublika hura litakela, hura egiazko Errepublika! Alaxintxo!

Oraiko hunek *izena* du omen Errepublika bainan *ez izana*. *Izan* hura emanen diote holetan sozialixtek, beren xedetara heltzen direnean. Zer xede dituzte? Huna laburzki: behinik behin akhabo erlijionea. Errotik khen fedea eta hari darraizkon guziak, aphez eta serorak, elizak eta bertze gaineratiko guziak.

Jainkorik ez; aphezik ez; *nausirik* ez. Edo hobeki errateko oro orotan oro en nausi. Zer besta! Oro bardin; nehor nehoren azpiko.

Ez dea hala Errepublika ederra hura izanen dela?

Baginuke asko xehetasun emaiteko, sozialix-ten xeden gainean. Bainan hitz laburrez hortan da heien gogorako gobernamentua.

Eta ez da hor harat hunatik. Ez badugu azkar-ki gibelerat egiten, ez badiogu erlijioneari bere indarra begiratzen, nahi ala ez, hortara goazi.

Eskualduna, 1893-09-29

Noiz arte urririk?

Egun zortzi erran dugu, nola gaduzkaten gu nekatzaileak iretsirik bezala kargudun alfer batzuek. Egia.

Erran dugu kargudun hoitarik erdiak baino gehiago erdi alfer bizi direla. Egia. Erran dugu lanik gutiena egiten dutenek dutela ukitzen sari-rik handiena. Egia.

Erran dugu kargu behar-gabekoak emendatzen ari direla, eta bizkitartean kargu bakhotxaren irabazia oroz batean goititzen ari; bi aldeta-rik iresten ari gaituztela gero-ta gehiago. Egia.

Huna egun bertzerik; ez da egungo solasa, ez eta ere atzokoa; urtheak ditu solas hauxe tokitan jadanik zahartuxea dela. Bainan guk ez dut uste oraino aipatu dugun *Eskualdun*-ean; eta ordu da solas delakoaz hitz bat erran dezagun. Hazi onak hemen ere, bertzetan bezala zerbeit onik dakharke.

Dakizuen bezala, badire kargudunen artean irabazdunak eta badire sari-gabeak. *Urririk* beren kargua bethetzen dutenak badire, hala

nola herrietako auzapezak eta kontseiluko gizonak. Kargu horiek deitzen dire ohorezkoak; eta izaitez kargu bezen *karga* dire gutiz gehienentzat, zeren eta baituke auzapez batek, baitukete kontseiluko gizonak, zuzenak direlarik, asko urhats egiteko, eta zenbait aldiz egunak ere galtzeko, herriarentzat derabiltzaketen harat-hunatetan.

Galdua gal, ohoreak ere zerbeit balio duela koan araiz, nehor nehon ez zen, eta ez da ere gutartean oraino nehor hanbat mintzo, kargu horien *kargez*. Jasan ez detzazkenak utz ditzala bertzentzat, eta dagola itzalean.

Ba bainan ez nahi nehor egon itzalean. Deus ez diren eta deus ez duten batzu nahi kargueta rat igan goiti, oro goiti... Egungo egunean herriko etxeko-jaunik txarrena ikhus dezakezu auzapez, edo bederen kontseiluko gizon.

Bereziki Frantzia barnean ikhusgarri omen dire auzapez eta bertze buruzagi txar batzu. Zehe bat lur berenik ez izaki; bazterrak oro zorrez betheak... eta futxo halere: «Nor gira gu?».

Beren etxeaz nausi ez diren gizon ez-deus batzuen eskuetan herri guziko nausigoa. Herrietan eta herrixketan baino sordesago dire oraino hiri handietan horrela nausituak diren *gorriak*. Ez gutarteko gorri hauien kidekoak, bainan gorriago batzu; zeren eta jaunen jaunak bezala baitire *gorrien gorriak*; ba eta izanen ere, bide huntaz aitzina balin bagoazi: beherekoak goiti eta gainekoak beheiti.

Azkenean zer gerthatzen da? Aski apha! jautsi ondoan, buruzagiak ezin biziz diruari lotzen dire. Batzuek esku-azpiz, bertzek agerian, beren kargutik biltzen ahal duten guzia bil, bil... ebatsiz edo bertzela, eta biba Errepublika!

Horra non diren ohorezko karguak irabazpide bilhakatuak. Noiznahi Frantzia barneko kazetetan irakurtzen dugu holako hiriko auzapezak bi edo hiru mila libera beretzat *buxetean* eman dituela. *Eman...* gaizki mintzo naiz; *hartu* dituela behar nuen erran buxetetik bi edo hiru mila libera.

Pariseko kontseiluetan, ez bakharrik auzapezek, bainan kontseilari guziek zenbat uste duzue urthean berentzat daukatela hiriko dirutik?

Bakhotxak *sei mila* libera. Karrosak urririk, burdin-bidetako harat-hunat guziak urririk. Bertzalde asko edari eta bertze gozagailu, oro urririk. Saritzat *sei-mila libera* bakhotxak! Zaude, Manex; egiazki etxeko-jaun onak dire Pariseko jaun kontseilariak. Irabazi ederra dute beren lanarentzat. Ez da beraz harrigarri jaun hek oro erromes gose hamikatu batzu balin badire.

Parisen bezala bertze zenbait hiritan ere auzapezek eta kontseiluko gizonak beren buruak hiriko dirutik pagatzen dituzte, estakurutzat emanez beren eginbideen bethetzekorik ez dutela; eta nonbeitik behar.

Behar, errex da erraitea: *behar*. Zertako ez utz beren ahalaz goragoko kargu hoik aberatsa-goentzat?

Ez dut erran nahi auzapez eta kontseilari guziak aitoren-seme edo bederen herrian jaun handi izan behar direla; ez eta ere jakintsun handi; bainan hein bat bada. Kargu hoik *urririk* bethe ez ditzazkena, dagola holakorik gabe. —Ez ordean egon nahi.

Ahalgetu ere behar luke gizonak bere buruaz, holako kargu bat *saritan* bethe nahi ukhaiteko.

Baitire ordean ahalgea zangopean emaiten dakitenak. Eskual Herrian berean asko auzapez baginazkike bi eskuz boza eman lezaketenak beren kargutik *soldata* on baten altxatzeko.

Orai artean esku-azpiz ahal dutena beretuz, bederen agerian urririk ari dire, sorhaio bakhar zenbeitez bertzeak. Noiz arte horrela urririk? Ez othe dire gosetuko, urruneko heien berriak entzunez? Ni beldur. Horra zer den herriko nau-sigoa etxeko-jaun azkar batzuen eskutik deus ez duten eta ez diren batzuen eskuetarar erortzerat uztea. Dirutan baizik nehork gehiago deus ez egin nahi. Urririk zerbait egin lezaketenak bazterrerat utziz herri-jale batzu ari dire kargu guziez jabetzen. Bizi denak oraino bazter politik ikhus dezake.

Eskualduna, 1896-07-31

Gorritik beltzera... zalditik astora

Azken aldian *gorriz gorri*; egun *beltzez beltz*; zer izanen othe da heldu den astean? Hoi dakiena ixilik dago. Guk hemen erran dezakeguna da: ez goazila onthuz, iragan bozetako egunetarik hunat.

Bizkitartean iduri zukeen eta zioten ere baginuela onerateko esku-gain poxi bat, guti bazen guti, onerat buruz. Ez othe zen egia? Naski ez. — Zer zerasaten beraz: deputatu berriek president berria lehengoa zen baino eztiagoa, gorrietan eztienerarik bat izendatu zutela? Brisson zahar tzarra bazterrerat utzirik, Deschanel gaztea ezarri zutela deputatuek beren president, eta ez errexki halere, baina bethi nolazpeit han ezarri zutela buruzagi: gezurra othe zen? —Ez, etzen gezurra; egia zen; baina egia horri zarraizkio-ken bertze itxura guziak ez bide ziren egiazkoak. Iduri ba orduan hau eta hura; bakezko errepublika zuzen zuhur batean sartzera ginoazila; edo ez baginen oraino hartaratuak osoki, bederen

urhats bat gehiago ginuela eginik harat buruz; hots, haizea gure alde zoala. Zer gerthatu da beraz? Hauxe da gerthatu: haizea bethi haize: aldakor, itzulkor.

Bet betan hor itzuli da gorri-beltzen alde; hainbertzetaraino non bazterrerat utzia zelako Brisson hura baitukegu bihar, ba eta ja egungotz ere minixtroen buruzagi.

Badakizue nola ginen hamabortz egun huntan minixtrorik gabe? Méline aitzineko minixtroen buruzagia eztegi zelakotz, begietan zuten gorri beltzek. Halere xurien bozak, zuzen bezala, hartuz, gaina zuen. Bainan gorri-beltzek estakurutzat emanik xurien bozak ez *balire bezala* behar direla utzi; gorriz-gorri gorriak baxharrik behar direla nausi egon; hor arthiki dute *Méline* minixtrogoatik, Mélinek deputatuen buruzagigoatik Brisson khendu zuen bezala.

Eta gero? —Gero... hotz ez dena bero. Nork erran hamabortz egun huntan hor derabiltzaten elhe eta urhats nahasiak?

Holakoetan Errepublikaren presidentari doako, nor ere uste baitu gehienak indardun eta gai dela minixtro-nausigoaren hartzeko, hura

deitzen du eta othoizten: bil ditzan hamar minixtro lagun. Félix Faure jaun presidentak deithu berehala *Ribot* minixtro ohi bat, ahoz ezta, baina izaitetz bi sosen ohorearentzat bere burua debruari sal lezoken kalamanka bat. Ribot horrek gorri, gorrasta, zuhail, beltz eta ilhun (xuriak bakharrik bazterrerat utziz) nahi ukhandu bere minixtro hamarrekoa bildu. Ezin heldu da bere xederat.

Gero bi edo hiru gorri-beltz, Sarrien, Peytral, eta nik dakita nor eta nor oraino ikhertu ditu Errepublikaren presidentak; ibil-arazi ditu, bat bertzearen ondotik lagun-keta. Oro alferretan. Ezin elgarretaratu dire gorriak.

Azkenean jaun presidentari gogoratu zaio: behar diola minixtro-nausigoa eskaini... nori uste duzue? —Brisson zaharrari. —Zer? Bazterrerat emana zen hari? —ba; hari eta berari. Gehiago dena, harek topatu. Bildu ditu berehala bere hamar lagunak; oro bere kidekoak; oro gorri-beltz hutsak.

Hara non diren orai: Méline lurrean; eta Deschanel eta Brisson, hek biak aldiz xutik buruz buru; ontsala minixtro behar zaitekena deputa-

tuen president; deputatuen presidentgoa galdu-rik, deusetako gehiago etzela iduri zukena... Brisson higuin higatu hura... *hura* aldiz orai minixtro-nausi.

Komedia da! Orotako bitziena da gorriz-gorri elgar ezin adituz gorri beltzetara nola giren erori egun batetik bertzean.

Zer goiti-beheiti nahasiak! Emazue hor gorri eztiak; *xuriekin* bat eginez, bazineten zerbait; horra non tuzuen orai gorri beltzak nausi. Merezi duzue; bainan Frantziak zuenganik horrela othe zuen merezi. Zer bakezko hitzen ondorioak! Jainkoak duela urrikari Frantzia!

Eskualduna, 1898-07-01

Aita alabak

Egun zortzi *aita semeak*; egun, *aita alabak*: bati bertzea darraikio.

Ikhusi dugu errient aita bat, bere semea edo zoin bizipideri loth-arazi nahiago duela diona, errientgoari baino lehen, errientak egungo egunean *esklabo* direlaketz. Biba hura.

Huna bertze gizon bat; erran dezakegu ere *jaun bat*, hura baino jaun handiagoa, aberatsagoa; nehoren *esklabo* ez dena, edo bederen hala izan behar ez litekena. Osoki bere buruaren jabe dena da, jaun hura ezagutzen duenak nihauri erran dautanaz. Hanxet dago Orteseke aldean; alfer bizitzekoa lukelarik, negozio pixka bat egi-ten du, deus ari gabe ez egoiteko.

Gizon bat da osoki zuzena, erlisionekoa, elizatiarra; hots, on guziak lituzkena, ez balitz bel-durti hutsa; herabea, uzkurra, bere burua erakutsi baino nahiago lukena... ez dakit zer iretsi eta jasan.

Goragoko errienta ez bezala, hau *esklabo* bizitzeko eta hiltzeko sorthua.

Behar dautzuet hemen erran jaun horren ixtorioa. Zenbaitek heldu bada erranen dute: «zer behar ginuen guk hortarik?». Badire alabainan bethi deusetarik deus *behar* ez dutenak, beren tripa hura ontsa balin badute.

Bainan ez gira oraino arras oro (gehienak ba... ez oro) hortaratuak. Badire oraino, han hemenka, bakhar batzu, gogoetagarri zerbeit entzuteari begi beharriak idekitzen dituztenak, eta burua goiti altxatzen. Goazin heientzat gure solasera.

Azken boz-aldiko egunak ziren. Ordukotzat ja fraide eta serora guzien khentzeaz aiphu zen azkarki. Serora zenbeit, haro kalapitarik ez nahiz, ja ordutik ahal zuten lekhurat ihesi zoazin. Hala nola *karmelita* eta holako serora ixil, gorde, beren xokhoetan othoitz egile hoitarik anhitz. Ez nahi kasailan ari, ez eta nehor ar zadin heientzat, bazoazin emazte gaixoak ihesi Frantziatik kanpo.

Geroztik baitago halako zenbait joanik. Eta ondarrak ere luzamen laburra, itxura guzien araberera.

Egun batez beraz gure gizona hor heldu da niri, hau erran dautan adixkidearengana: bi begiak hantuak eta gorrituak, tipula egosiak bezala. Begitarte ilhun; elhea motz. Ageri omen zuen, nonbeitik heldu zela, gaua galdurik; zer ere baitzuen eta nigarrez hipaka egonik.

«Agur. — Bai zuri ere; sar zaite eta jar. — Ez, ez; banoa etxerat. Ez nauke larruaren barnean. Ur... alimaleak! — Zer duzu, gizona? Nork zer egin dautzu? — Zer egin dautaten? Ene alaba gaixoa, serora nuena badakizu, Frantzia behe-rean bainuen bi urthe huntan? — Zer zautzu? Ez balinba hil? — Ez, ez; bainan hil bezalatsu. Eta gisa batez, hilik ikhustea baino saminago da hor harat joaiten ikhustea, itsasoaz haindirrat, arrotzen artean bizitzerat. Othoi barkha: ez niz nere baithan egun: ez dakit zer egin nezaken. Diren bezalako bihotz-gabeak! Holako zanphail zikhinen eskuetan ditakela egon Frantzia. Leher egin balezate guziek, ez litake goizegi. — Ez hoinbertzetaraino khexa, gizon maitea. — Ez khexa? Aise mintzo zira zu. Bazinu nik bezala, alaba bat serora; ni bezala, gaur Havretik heldu bazine, haur gaixoa hanxet, behar-bada azken aldikotz,

besarkaturik! Bertzela mintza zintazke. Zer gaizki egin du ene haurrak?».

Burutik joana bezala zen gizona, ziolarik artetan: «hoik, hoik! Zer diren hoik holakorik! Eta gu hoiien azpiko behar bizi... *Ah! les salauds!*». Ez omen zakien aski zer erran. Dorpe baita ere aita batentzat, harek zuen bihotzmina.

Egunak joan, egunak jin. Handik laster hor dathozi bozak; deputatuen berritzeakoak.

Zera zen bat, eskualduna baitzuen ere andrea, Irisarriko;... Lagoardette jaun gazte bat, errepublikano eztiak zirelako denboran suprefet ere izana; bainan oraiko tzar-tzar zurruburru haien etsaia; etsai azkar eta beroa ere ba eiki osoki. Ezen lanak eman ziozkaten; non gutitarik gelditu baitzen nausitu gabe; eta beraren gogora, ba eta bertze anhitzen arabera, nausitua zelarik, zuzen kontra eman omen baitzuten bazterrerat.

Dena den, hainbertzetaraino behartu zuen bere burua; harat hunat, zalapartan, bere ahal guzia egin nahiz, lehertu zen gizagaixoa, eta nahiz gazte, hanxet indarrak higaturik, hil. Jinkoak urrikari duela!

Haren kontrarioa, Catalogne izena duena, hartaz nausitzen etsaiak *lagundu* zuena, nehon diren deputatu makhurrenetarik bat duzu. Orainko ministro haien egitate guziak onhartzen ditu, eta oro bethi bere bozaz laguntzen.

Zer xedetako gizona zen, orok bazakiten aitzinetik. Lagoardette libertatearen alde zen; Catalogne kontra. Hau bereziki seroren etsai; hura ez. Frantsesak diona: «*les positions étaient claires et nettes*».

Zer uste duzue egin zuela oxtiko alaba karmelitaren aitak? Ba, ez zinezakete pentsa, ez. Nik ez nuen sinhetsiko, ez balaut ikhusi duenak erran. Ea, zuen ustez, zer egin zuen? —Bi eskuz tinki boza eman seroren aldekoarentzat? —Ez. —Etsaiari beraz? —Ez eta ere. Ahoa zabaldurik zagozte hor, zer mirakulu egin othe zuen bada? Ihesi joan herritik, ez nahiz bati ez bertzeari eman bere boza. Gorde kukutu, ezeztatu gizona bi kontrarioak *ezagun* zituelakotz, ez nahiz, batekilakoaren egiteko, bertzearekilakoa hautsi.

Gaizo ziria, ez dea hala? Ba, egiazkoa; baina, ondikotz, ez baxharra Frantzian. Urrunago

joan gabe, adiskidea, zenbat holako ene eta zure
herrian, auzoan eta... hurbilago ere?

Okasione berean lan ber-bera eginen baitzu-
ten, baitzinuketen... zenbat?

Eskualduna, 1903-02-06

Etsenplu

Egun zortziko *Eskualdun*-ean irakurtzearekin, *Tissier* deithu Arrotako auzaphez orhoitgarria burutik joan zela, herri hortan auzaphez bezala elhepide onik eman ondoan, —ez ahal du balinba nehork uste izan atsegin ginuela hemen aspaldiko etsai batez gaizki mintzatzea. Hori uste lukeena hutsean litake.

Are gutiago du zeren nehork erran, edo norbeitek hala ez dena erranik, sinhets, herraz, jazarri gitzakola gizon eri bati. Ez da hola. Lehenago ere, behin baino gehiagotan, bere buruaren jabe zelarik eta nehor bezen on, bere makhi-laren xuritzeko, bereak aditurik dago hemenxet Arrotako auzaphez ohia. Gaizki diot: *ohia*; ezen ez da oraino haren ordaina izendatua. Izaitez ez bada, bederen izenez erho izigarri bat du oraino meratzat Arrotako herriak, on bazaio eta ez bazaio.

Du... eta merezi du.

Ikhusten dut solasa gaizkirat hartu nahiko dutenek, zer erranen duten: gizon dohakabe bat,

eroria, herrestan erabiltzea ez askiz, haren hobenetan ikustekorik ez duen herria, herri guzia nahi ginukela berriz orai lurra baino behe-rago ezarri. Ez da egia hori ere.

Bainan gaizki hartuak izan behar bagine ere gogoan duguna erranen dugu, zabal-zabala.

Zer ere baitzauku iduri, *gizonaz* bezala, *gizonez*. Egia.

Eta ez bat ere, nehoren aphaltzeko gutiziaz, bainan holako gerthakari bat ororentzat etsen-plu delakotz.

Orok engoitik dakiketena da bertzenaz, ez dugula *Eskualdun*-ean holako solasik nehortaz hanbat erabilki. Non da ere holakorik? Bainan hots, ez zauku lakhet, beharrik gabe, nehortaz gaizki mintzatzea. Eta hemen artetik erran deza-dan egia, solasak dakharrenaz geroz, gure artha berezienetarik bat da, egiazko *lan bat*, bertzeak bertze, eta ez bethi errexena, athe leihoen zain-tzea; ez dakigun, uste gabean, artekatik sar, behar ez denik. Halere lizafinek badakite xilhoen hatzemaiten. Ahal duguna egiten dugu.

Beltzuri bat baino gehiago ukhanik gaude segurki, eta gure adixkide ustez hoberenetarik

zenbeitekilan makhurturik; edo guti edo aski hoztasunetan jarririk, zeren ez ditugun igorri zauzkutenak oro hemen ezarri bethi. Bertze zenbeitek hala egiten omen baitute. Nahi badute ba. Guk ez.

Garbiki bertzenaz, iduri zeie batzuei, oro on direla erraiteko, zeren eta errana den bezala, paperak ukhanak oro hartzen dituen.

Paperak ba. Guk ez. Orhoit hortaz.

Bainan ez du horrek erran nahi oilo busti batzu girela, zenbeit antzara karrankaritarik entzuten dugun bezala; edo ahate mutu batzutarik. Baitire halakoak ere; bertzen buztanaz uli haizatzaile batzu onak. Xo; bego hortan.

Zeihartu zauku solasa. Non ginen? Huna... ahanzter baitut gehienik gogoan nakharrena hemen erraitea.

Arrotako auzaphez dohakabearen adixkide edo ahaide hurbiletan balitz nor edo nor, *bera hobendun ez delarik*, hartaz erran behar izan ditugun egia latzek bihotzean zimiko egin dioke-rik, barkha dezagula. Barkhatzen ez balakute ere, guk gure eginbidea bethea dukegu, erakutsiz, ez gabiltzala nehoi penarik eman beharrez,

merezi ez badu. Ez eta merezi luketenei ere, non ez den holako zerbeit etsenplu izigarri, ingurune guzian orok dakitena, eta etsenplutzat oroitzeko dena.

Halaber, nor ere baititake Arrotako herrian, herriko mera dohakabearen hutsetan ikhustekorik ez duena; hura nolazpeit lagundu ez duena, bozez edo bertzela, gaizkiaren egiten, ez dakiola othoi gaitzi hemen erraitera deramaguna.

Bertzez ez dugu axolarik; edo hobeki erran dezadan, orok egia onhar dezaten nahiago ginuke ba, bainan egiaz hunkituak ditazkenei min egin beldurrez, ez gira egonen ixilik.

Egun erran nahi ginuena, hau da: Arrotako herriak hainbertze urthe huntan zuen bezalako mera balin bazuen, merezi zuena baizik ez zuela. Ez othe? —Ez, eta *otherik* gabe oraino. Zu hunen irakurtzen ari ziren bezen segur.

Alabainan, ez ahal zen bera jarria gizon hori herrian auzaphez? Norbeitek izendatua zen araiz; eta nork? Herriak, herriko gizonak; bozemailek. Lehen aldian edo bi aldiz tronpaturik ere, azkenean, zena zenarentzat ezagutua zuketan. Zertako ez utz, ezagutuz geroz, bazterrerat?

Zertako ez khen? Bakearengatik baizik izan ez balitz ere, zertako ez ezar bertze norbeit haren ordain auzaphez? Ala nehor ez izakiz ordain-gei? Ez da egia. Hasteko, nornahi bazitaken hura bezenbat. Zer zuen, ororen buruan, halako zer berezirik, bertzek baino gehiago? Onik deus ez; bakharrrik gaixtakeria.

Bertzalde nehon guti den bezalako buruzagi geiak bazitazken Arrotan. Hetarik bat, diotenaz, haren axuanta; bertze itzalik gabeko gizona, baizik ere, haren gibeletik baitzagon, hura utziz askotan bere gogoaz zapatzen zuelarik, nahi zituen kixkilkerien egitera.

Itzalik aski, herriaren kaltetan. Ezen ahuleziaz, bere aldean gaizkia egiterat uzten duen gizona, izan bedi nahi duen bezen gizon ona... ez *da gizona*. Holako zain eta odolik gabeko batzuek dute jauts-arazia Frantzia, ikhusten dugun erreka zolaraino.

Eta gero? Hura zen bezalako mera gaixto baten izenarekin bere izena lerroan ezartzen duen gizona, edo bakharrrik *uzten* ezartzerat, nahi eta ez, bethi hari indar emaiten ari zaio.

Bera utzi balute, listako lagunik gabe geldituko zen.

Ondoan bederen, ikhusiz haren egitateak, batzuek egin zutena egin balute orok, *demisionia eman*, ber-bera gelditzen zela ikhusiz, behar ko zuen berak ere demisionea eman, edo gelditu zangorik, ez besorik, ez bulharrik gabeko buru; ororen irri-egingarri.

Gehiago dena, ditaken gizon —*gizon*, ongi-egile, prestu, bihotzdun, jakintsun, herriko etxe-ko-jaun hoberenatarik bat, laguntza asko berak egin zezakena herrian, eta beharrez ardiets ere ba goragodanik, Daguenet Baionako Jaun notari on, zuhurra, nahi izan baitute behin edo bietan, haren ordain ezarri zenbeitak herriko buruzagi, Irigoin hagin-jalitzale biphila eta herriko semerik zerenak oro alde zituelarik notari horrek... hale-re-halere oraino mahain-petik edo nolazpeit nautitu baitzen Tissier! Hura bezalako gizon hits batek behar zuela garhaitu Daguenet notaria? Biak ezagutzen dituenarentzat ahalgegarri da.

Ba, egiazki gero, ahalgegarri herriarentzat.

—Noren falta? —Zerarena... *Xinako* enperadorearena naski! —Ba bainan zera da: *gider* han-

diak omen zituen. —Zer derasate: gider eta gider? Orizue, alafede, burutik joan denean, oro erhautsi nahi omen baitzituen, hartu balu aizkora bat, hatzeman guziei burua arraildu behar zeila, utziko othe zuten libro, erranez: «*Bego, giderra eskuan du!*».

Khen, khien giderra; khien fite, zuen onetan. Lau urthetarik behin bazuketen arrotarrek gizon lanjeros hari gider guzien khentzeko parada ona. Zertako ez khien?

Khendu baliozkate, ez baitzen beharbada burutik joanen ere.

Hori zauku, hori, bi gogoetaren egiteko doia buru dutenentzat biziki handi. Etsenplu ditaken gogoetagarrienetarik bat.

Hortako dugu hemen aiphu, nahiz barneak halako bat egiten daukun, erho dohakabe batez hain luzaz mintzatzeak.

Hitzik ez ginuen jaliko bertzenaz.

Ez daukagu ere, Arrotako herri ttipiari doakola Eskual Herri guziaren begietan horrela emana izaita. Bainan etsenplua heldu den lekhutik hartzen dugu; on edo txar.

Oxala Eskual Herriarentzat, ba eta Frantzia guziarentzat, bakharrik Arrotako ixtorioa balitz hau! Bainan zenbat herritakoa ez da?

Bertzeak bertze, diote ikhusi dutenek, ez dela Combes ministro buruzagi tzar hura baino gizon itxura hitsagokorik (hitsago baititu oraino egitateak).

Buru aphalt, kokots herdoil, zango mehar, higatu bat omen da.

Nehork ez omen du ere ikhusi nahi. Ez nahi ikhusi, ezin ikhus begien aitzinean. Hola-hola erraten zuten Arrotako merarentzat halere hura arrotarrek meratzat atxiki; zenbat urthez? Erhotu arte.

Combes delakoa ere arront erho baladi, ez litakela nehor estona, diote. Ja erhotuxea ez balitz, ez litzazke dazkigun lan tzarrak egin.

Anhartearen gure nausi, Combes Frantziako auzaphez guzien «*chef*» ohiko aphez-gei arnegatua. *Giderrak* eiki eskuan dituzke hark ere. Nork emanak?

Ba, haurrak, ba; berriz ere diot: *nork emanak?*

GERTAKARIAK

Duela

Zer da «duela»? Hitz horrek iduri du eskuara dela, baina ez da hala. *Duela* deitzen dute frantsesez, hiri horietako buru beroek, odola gaintzen zaiotenean, elgarrekin *buruz-buruka* egiten duten borroka-aldi bat.

Hortakotz hautatzen dituzte bakhotxak bi lekhuko; gero berriz gerlako tresnak: harma, pistolet edo sabre.

Badoazi holako tenorean halako tokirat, zoin bere aldeko lagunekin eta, zer gertha ere, zaurien lotzeko eta... beharrez, bihotzaren altxatze-ko on ditezken sokorri guziekin. Hara direnean, emaiten dira biak athorra-mahunga-has, edo gerriraino buluzirik.

«Bahiza to? —Ni ba; eta hi? —Ni ere ba. —Goazin haste».

Lekhukoek izartzen dute lurra. Gure gizonak han emaiten dituzte, bekoz-beko, elgarretarik 30 urhatsetan, tiroka ari behar direnean; eta sabrearekin edo ezpatarekin balin badira, hiru urhatsetan. Lekhukoek, montra eskuan, egiten

diote kheinu, eta berma hor: eian zoinek erreko dion bertzeari burua tiroaz; edo zoinek sarthuko duen bertzea gerrenean...

Ez dira gero nolana behar jokhatu: joko guzietan bezala, badira hortan ere *legeak*: hau haizu, hura ez. Legen arabera behar da han hasiz geroz, garhaitu, *edo hil!* Ez da jostetarik. Urhats bat behar baino aintzinago edo gibelerat egiten duena, galdua da! Akabo haren ohorea! Ez duelakotz nahi izan xuxen ari, ahalgez urthurik hil beharko da. Zer uste duzu direla hein hortako gizonak, adiskidea? Esku-ukhaldi bakhar bat makhur emaita aski litake, han, lekhukoen aintzinean, desohore gorriaren biltzeko; non ez den huts egilea judua. Juduenzat, bertze asko gauzetan bezala hortan ere, oro haizu dira.

Badu lau edo bortz urthe Meyer izena duen judu gazeta-egile bat, horrela ari zelarik ezpatarekin *duelian*, etsaiaren ezpatari lothu zitzaiola esku batez (beldurrez min har...); eta bertzeaz ixterrean barna sarthu ziola bere ezpata. Gutitarik egin zuen, ez baitzioten bertzeari zangoa moztu izan behar. Beharrik zen gizon phizkorra, eta odol onekoa.

Haro handiskoa egin zuen orduan afera horrek. Baina nola huts-egilea judua baitzen, eta bertzea, ez xoilki giristinoa (nahiz ez hanbaterko giristinoa, gerla zozo hortan ari zenaz geroz) baina juduen etsai errabiatua, juduek egundaino izan duten etsairik azkarrena, Drumont famatua; juduen aldeko gazeta guziak berehala ixildu ziren.

Meyer juduaren jokia Drumontek egin balu, ez zen Drumont xahurrentzat ere on izanen. Meyer badabila oraino, kopeta gorarik, nehorengatik beltzuri handirik ukhan gabe.

Egun hautarik batez izan da hor berriz bertze *duel* bat. Zertako? Luze litake xehetasunetan sartzea. Hitz batez errana da zer zuten makhura.

Meyer delako horren izen bereko judu kapitain gazte batek egin dio itsuskeria bat, Mores deitzen den jaun bati.

Hitz batetarik bertzean duelerara joan dira. Zer gerthatu da? Moresek juduari ezpata sarthu dio bulharretan; ez bertze harek bezala, etsaiari eskutik tresna khendurik, baina *dueleko* erre-

glamendu guzien arabera, xuxen, erdiz erdi. Egun berean judua hil da.

Judu guziak berehala nigarrez eman dira, heiagoraz: «gaixo kapitaina! Gaixo gizon gaztea! Leher egin balezate Moresek eta juduen etsai guziek!». —Hiltzalea preso altxatu dute; behin ere nehor holakoetan atxiki ez duten bezala eta gero libro utzi zazpi egunen buruko. Ez dute berdin deusetarat kondenatu ahalko, *duela* onhes-ten dutenaz geroz. Ba, bainan juduak khexu bai-tira ordean.

Bertzenaz egia erran behar dugu: *duel* joko hori nehon den jokorik zoroena eta itsusiena da. Haurkeria bat litake, ez balitz astokeria. Zer bada? Gizonak ezin, hortara gabe, elgarrekilako gora-beherak antola? —Zertako dira tribunalak? Eta gero hobendunak bertzea kolpatzen edo hiltzen badu? Zer gizontasuna!

Bizkitartean hori onhartzten dute egungo egu-nean asko gizon, iduriz zuhurak eta izenez giris-tinoak direnek. —Nahi badute ba.

Bainan hori aspaldikoa da. —Nahi badu ba. —Morès eta bereziki Drumont gure aldeko beroe-netarik dira. Erlisioea maite dute, bere ahal

guziez badaukate gure aldean juduen kontra. — Nahi badute ba. Hobeki egin lezakete erlisionearen praktikatzea, orhoituz duelean artzen direnak eta hartan pharte hartzen duten guziak Elizaz kondenatuak direla, eta eskumikoz joak. Hanbat gaixtoago hori ahanzten duenarentzat, nornahi izan dadin, judu ala giristino!

Behin bazen eskualdun gizon gazte bat soldado. Erran behar da soldadoek elgarren artean makhur handixkorik dutenean, *duelean* artzera bortxatuak bezala direla. —Bai, othe, *bortxatuak*? Nahi badute ba. Ori, adiskidea, eskualdun soldado horri eman zioten beharrondoko bat. Bai eta hak bertze biga. Eta gero, nola nahi baitzuten bere lagunek *duelerat* bildu, erran zioten harek, biphil-biphila: «nahi baduzue, ariko naiz *duelian*; bainan nik hauta harmak». —Bertzek baietz. —Eta harek, bi eskuetara thu eginik bat bertzeari kontra thorratzen dituelarik: «goazin beraz esku huts».

Batek irri, bertzeak irri: *ainsi finit la comédie*.

Eskualduna, 1892-07-01

Panama

Izen hori ematen diote bi Ameriken erdian den lur zerranga hertsia eta luze bati. Amerika guzia, burutik buru hartuz, bi zathi handitan bezala da. Bi leihor handi dire, delako lur zerranga hartaz elgarri josiak. Hura ez balitz, bi aldetat urrez ur joaiten errexago eta laburrago litake. Orai nahi bazira Xilirat joan urez, behar duzu itzuli bat egin, gaitza, handia eta luzea!

Hortakotz nahi izan dute bi Ameriken arteko lur-muga hura hautsi eta handik aldean-bertze urari bidea egin, untziak xuxen xuxena han gaindi ibiltzeko, bertze itzuli handi hura egin gabe. Ba bainan nork eta nola hauts lur muga hura? Liburuetan ikhusi eta iduri du biziki hertsia eta hauts-errexak dela. Hala da ere... *arabera*. Nahiz hertsia den, baituke ordean eremu puska bat halere! Mendixka batzu omen dire han, askitto gorak; barne guzia harri. Heien artetik egiteko, naza handi bat bezala, uraren bidea, zioten hasetik ere, beharko zirela ez dakit zenbat *miliun!*

Izigarriko soma bat! Halere ez ziren lotsa izan zenbeit, lan dorphe horri lotzera... *bertzen diruz*.

Ferdinand de Lesseps izena duen jaun *baiones* batek hartu zuen bere gain lan horren egitea. Lehenago ere bazuen hanxet, Suez erraten dioten toki batean, holatsuko lan bat egina. Baina Panamako hori dorpheago izanen zela beldur ziren. Zioten ere batzuek lan hori gizonaren indarrez goragokoa zela. «—Ezetz —Baietz—». Hor abiatzen dire lan horren egiten *hasteko* diru galdez.

Gazeta handi guzietan ezar-arazi zuten: nahi zuenak ongi irabazi aski zuela hortan emaitesa. —Zenbat beharko da? Deus kasik ez *hastean: berrehun miliun*. Bakhotxak bortz ehun edo mila liberako batez, zioten somatto hori berehala bildua zitakela. Gazeten errana sinhetirik, biziki irabaz-bide ona zela, anhitzek erosi zituzten *actions et obligations* deitzen diren titulu batzu. Titulu horiek oro *bortz ehun* liberakoak ziren. Ahal zuten guziek erosi zuten *bat* bederen; bertzek biga edo gehiago. Iduri zuen ez zuela nehork galtzeko beldurrik.

Hasi ziren lanean, Jainkoak daki nola! Nehon diren judu eta alfer mandrineria jende-jale guziak bildu ziren *sosaren* usainera. *Berrehun miliun* hek berehala suntsitu ziren berrehun sos baizik izan ez balire bezala. Nehork ez du egundaino jakin noren sakelan sarthu diren hek oro. Edo balin bada dakienik, ez da oraino mintzatu.

Lan hasia, edo alegia hasia ezin utz. Rata-plan-plan-plan berriz diru galdea! Gazeta tzar egileak ongi pagatuz espantuka has-arazi zituzten: «ez zela halako irabaz-biderik!».

Gezur hori anhitzek oraino sinhetsirik, emeki emeki bildu zituzten... zenbat miliun, zure ustez? —Bertze berrehun? —Gehiago. —Lau ehun? —Gehiago. —Zortzi ehun? —Gehiago: *hamabortz ehun miliun!*

Frantziako jende langile bizikariek harmairu xokoetan soska, soska bazterrerat emanik zauzkatzen diru guziak; oro garbitu zituzten.

Hamabortz ehun miliun: burtzoragarri da soma hori gogoan hartzea bera. Eta hori guzia gal! Eta Panama oraino han... zilhatzekoa!

Lana berriz haste, nahi duenak hasi eta nahi duenak paga.

Noren eskuetan urthu othe dire hamabortz ehun miliun hek oro? Zenbeit urthe baditu *Panamako konpainiak* faillita egin zuela. Beren sos bakharrak han ezarriak zituztenek bi nigar xorta egin zituzten, berri txar hori entzutearekin. Haro pixka bat ere izan zen behin: behar zirela ohoiak hatzeman: de Lesseps edo delako jaun hari behar ziozkatela konduak xuxen galdatu; hau zela, hura zela...

Ttunpalahara! Lokhartu zen nolazpeit afera. Buluziak zirenek dolua hartu zuten. Eta nola frantsesa holakoetan ahanzkor baita, iduri zuen kasik ez zela gehiago nehor gehiago hortan orhoit, noiz eta ere gutien ustean berriz afera piztu baita.

Aste huntan ukhan dute deputatuen ganbaran afera horren gainetik haro bat, kalapita bat ikharagarria! Auzi bat behar dugu ikhusi, itxura guzien arabera, egundaino izan ez den bezalako. Diote badirela ehun eta zenbeit deputatu ere, auzi hortarik eskuak garbi eta buruak gorarik atherako ez direnak. Zer bokheta! Agian ez dira lo egonen hoinbertze ohoin-philtzarren harrotzaileak! Eta agian iguzki eder bat jalgiko

da osorik atherako diren xuriketañoen idor-araz-
teko! Ez dakigu. Beldur gira oihal lohirik gehie-
nak oraikotzat garhatoinek janak dituzketen; eta
gelditzen diren undarrak hor harat ura behera
joanen diren. Sobera usteldura da bazterretan,
nehondik argi onik eta garbitasun handirik iguri-
kitzeko. Agian ba! Gauden bethi begira...

Eskualduna, 1892-11-25

Espainia

Azken bi aldietan aipatu dugu nola gure buruzagiak, bai eta gure auzo herrialdetako buruzagiak oro gerlaren beldur diren. Erran dugu ere nondik eta nola dathorren beldur hori. Agian ez baita gerthatuko!

Espainiak aldiz badu aspaldi huntan gerlaren beldurra baino beltzagorik eta dorpeagorik jasaiteko. Habanako gerla izigarri hura neholere oraino ezin bururatuz lan ederretan da Espainia dohakabea. Etsai azkarra du garhaitzeko, eta bazterretarik azkarki lagundua dena, bai diruz bai eta buruz eta zango besoz.

Alta Espainiak ere ahalaz bere indar guziak dagizka, nahiz eho eta zanpatu etsai hori. Laster onik egin-arazten ere badio etsaiari; bai ordean etsaiak ere espagnolari. Bi aldetarik anhitz gizon galtzen dute; ez baitezpada odol ixurtze handiak direlakoan. Banazka, bi, hiru, seirazka, gorenik hogoirazka baizik ez omen da gizon hiltzerik, elgarri jazartzen diren aldi bakharretan. Halere aski... luzara!

Bainan gerlako tresnez baino anhitzez gehiago badoazi eritasunez eta nekheduraz. Artha guti baitukete alabainan, gau eta egun, leihorrez eta urez, elgarren ondotik dabiltzan gerlatiarrek. Nahi eta ez, laster higatzen dire gizonak, eta higa arau, bethi berritu behar, edo ukho egin. Zenbait mila gizon baditu Espainiak hor harat igorririk, itsasoaz haindirat; Jainkoak baitaki zenbatek han galduko duten bizia edo bederen osasuna.

Eta zer diru keta jadanik xahuturik, bai eta oraino xahutzen ari!

Aste guzietz miliunka derabilate dirua; geroago eta nekezago, eta geroago eta nasaikiago.

Nola irauin eta noiz arte? Jadanik zor handien pean da Espainia, eta iduri du ez dezakela hola-xet luzaz ihardoki. Bizkitartean badauka oraino, eta nonbeitik jalgitzen du dirua. Beharrik du gogo azkarra eta zaila. Bertze batzu lotsatuko ziren aspaldi; bainan espainiak ez du barkhatzen azken hatseraino.

Anhartean Kuba delako leihor hura larruturik daukate; ez uztarik ez etxerik ere, deus ez dute azkenean xutik utziko. Nornahik irabaz dezan

garhaitia, ontasun baino hauts eta erhauts gehiago geldituko zaiote eskuetan.

Hori bat; bainan bertze nahigaberik ere badu egun hautan Espainiak. Bertze itsas-leihor batzu baditu Espainiak, Xinako aldean. Eta han ere hango jendearekin gerla du. Bi tokitan beraz etsaiak, eta bietan ezin garhaituak.

Ez da geroztik harrigarri herstura gaixtoan balin bada Espainia, gerlaren ondorioz. Bai bihi, bai arno, bai larru, haragi, oihal eta bertze asko igortzen zuen Espainiak urrungo leihor hoitarat. Hek oro ezin igor; langilearentzat sal-biderik ez; lan gutiago egiten; guti hura ere nehorat ezin sal nehorat. Lanak, lanak...

Hor berean, gure auzoan Andoaingo eta Bergarako oihaleria batzuek langileak gutitu behar izan dituzte. Etxe handi batek ehun langile, bertzeak bertze hainbertze utzi dituzte, lanik gabe, bazterrerat.

Bakearekin ere, bizitzea ez da errex egungo egunean. Eta gerlarekin are gaitzago. Jainkoak urrikari duela Espainia!

Hogoigarren mendea

Hogoigarren mendean sartzera goazi. Heldu den astelehen arratsean, gauerdiko hamabiak joitearekin, sarthuren gira hemeretzigarren mendetik hogoigarrenerat.

Horra beraz hemeretzi ehun urthe betheak gure Salbatzailearen sortzetik hunat. Bertze ehunen buruan izanen dire hogoi ehun, hogoi mende. Hogoigarren ehun-sailari lotzen gira.

Nork ikhusiko du sail berri hunen bertze burua? Erran nahi baita: lur hunen gainean orai bizi giren hautarik zenbat izanen othe dire oraino bizi, hemendik ehun urtheren buruan? Hogoigarren mendearen hastapena ikhusiko dutenatarik zenbat... hogoi-ta bat-garrena ikhusiko dutenak? Zenbat eta nor? Hori dakiena xuxen, ixilik dago. Bainan bi begiak hetsirik erran dezakegu: egun hautan sorthu berri, azken hoitarik bakharrño batzu baizik ez dela geldituren bizi. Hoitarik ere bakharrak; ez, bana bertze, bi miletarik bat; ez eta hurbiltzeko ere.

Bertze guziak oro itzaliko gira ordukotz; batzu goizxago, bertzeak berantxago, batzu bertzeak baino harrabots gehixago edo gutixago eginik.

Ba, guziak oro, oraiko zahar eta gazte, on ala gaixto, ttipi ala handi: oro hilak izanen gira; ez bakharrik hilak, bainan ahantziak ordukotz aspaldi; ezeztatuak lur huntarik, egundaino izan ez bagine bezala.

Dorphe da hori, ez dea hala? Ba eta zuzen. Zuzen da ezen, gu gure aitzinekoentzat bezala izan diten guretzat aldiz gure ondokoak. Nor da orhoit hor-harat gure aintzinean joanak direnez? Nehor guti; noizetik noizera bihotz-altxatze bat egitearekin galdatzen badiogu Jinkoari gure hilentzat urrikalmendu, nonbeit hor. Eta eginbide hori bera ere zenbat aldiz ez dugu osoki ahanzten?

Nahi badugu bertzeak gutaz orhoit diten, orhoit beraz gu ere lehenagokoez. Egungo egunean begien aintzinean ditugun gizonetarik asko baino anhitzez gizonago zirelakotz ere haukien aitzinekoak, badoakote gure orhoitzapena. Ez dezagun oraiko hautan gure gogoia osoki koka.

Beren aldia eginen dute hauiek ere, on bazaiote. Lehengoak bezala eta gu guziak bezala beharko dire hauk ere, beren oihu eta zalaparta guzien buruan, agertu, gaineko Juje handi haren aintzinean.

Zorigaitz han agertzeko on izanen ez denari!

Gure orena jin denean eskuak hutsik aurkhitu nahi ez badugu, egigun, ordu deno, gure eginbidea, bihotz onez, lotsatu gabe.

Gogo-emogun huni: gure oraiko ukhaitza eta egintza guzietarik deus, bainan fitsik deus ez dela gu hil ondoan geldituko gurerik, baizik ere egiten dukegun *ongia*.

Ongi guzietarik hoberena, iraunkorrena, menderen mende, Jinkoaren laguntzarekin, irauenen duena da: (orhoit huntaz, burhaso maiteak) haurren ongi altxatzea; gizonki, girixtinoki altxatzea.

Zueri nitzauzue bereziki mintzo, eskualdun etxeko-jaun eta etxeko-andre gazteak, haurrak oraino ttipi dituzuenak. Haur gaixo hoik maite dituzue, ez da egia?

Nahi zinukete sarri zahartu-eta hiltzearekin, ikhusi zuen sor-etxea, zuen lurrak, hanbat izer-

diz bustitzen dituzuen lurrak, haur hoiien eskue-
tan osorik eta eder gelditzen? Ehun urtheren
buruan eta gero bethi aintzina, zuen izena ekhar
dezan etxeak bethi; bethi zuen odolak iraun
dezan, haurren haurretan, menderen mende,
nahi zinukete? Deratxikozue bethiereko iraupe-
naren hazkurria: erlisionea; haur-haurretik erli-
sione zinezkoa. Hura da familien eta etheen
begiragarri. Gizonak hilik ere, gizontasunak irau-
ten dueno; ez dugu zeren etsi geroaz.

Jinkoak digula orori, diola bereziki Eskual
Herriari urthe on, mende on!

Eta guk ere hemen, gure *haurraz* griña dugu-
la erakusteko, Jinkoak egin beza, hemendik ehun
urtheren buruan *Eskualdun* hau bizi dadin; bethi
gazte eta azkar; bethi gero-ta gehiago *eskuaraz*
eskualdunen argitzale!

Eskualduna, 1900-12-28

Hiru andere

Behar dautzuet erran zer ikhusi dudan egun hautarik batez. Izan niz Xuberon, *Eskualdun On* hunen egiten laguntzaile ditugun adixkidetarik zenbeit behar nintuela ikhusi. Eta nahi baduzue jakin egia, ez niz batere urrikitia, joan-jin hori eginik. —Nolaz othe? —Hori... gutartean bego.

Gibeleratekoan, Mauletik Baionarat gindoazilarik burdin bidez, trein guzia jendez mukhuru bethea zen. Behinik behin, gure bagonean baginen koka ahala. Halere horra non, Autevielen edo han nonbeit, igaiten zauzkun, haizea bezen arin eta zalhu, eta harro, su hiltzetik heldu balire bezala berotuak, eta gora, bainan gora mintzo eta hiruak betan... hiru andere gazte; saltsa bezala aphainduak, xapeletan, esku-larrurik gabe bizkitartean. Egia da, ez zutela esku-larru beharrik; poxolu zituzketela.

Sarthu orduko, beren puskek harat hunat aurdikirik «barkhatu jende onak» ez eta «egun on», ez holakorik deus erran gabe, jartzen dire, bat hemen, bertze biak han, hari buruz-buru.

Ber-berak izan balire baino gehiago ez zirela kexu ageri zuten, bertzeen poxolatzeaz. Nahia-go, izaitekotz ere, oro makhur-arazi, beren buruen erakusteko, eta ahal bazuten, norbeitekin mokoka partida baten egiteko.

Zer begiak, eta zer mihiak! Berrogoi lagun dauzkalako bagon barne hura guzia ez zen aski heientzat. Hihi-haha, irri eta kalaka. Sei soldadok, ostatuko mahainean papoa beroturik etxerat joaki, ez zautzuten haro gehiago eginen, gure hiru anderek baino. Deus erraitekorik ez, eta elhea ez athertzen; barazuza bezala zariotela hiruei. Aroaz, iguzkiaz, erhautsaz, hatsik ezin hartuaz, egarriaz, gosez... nik dakita zer eta zertaz? Bazerasaten Akelarre guziak bezenbat, berek.

Gu bertzeak oro ixilik, elgarri so, irria ezin atxikiz; artetan hitz bat edo bertze ahal ginuen bezala erranez; bainan deus ezin adi.

Gutarik batek baitzuen berekin *indicateur* treinen orenak oro dauzkan liburuttoa, galdata zion hiru anderetarik iduriz zaharrenak: «erakuts othoi». Behako bat emanik, bihurtu zion, ziolarik: «milesker».

Ez da erraiteko baizik, ez bide zutela deus gaixtorik. Paria nezakezu, ez zirela ohartzen ere, nola ginauden gu estonatuak.

Elhe eta elhe, hasten dire hiruak zokolet jaten. Bat buru huntarik, bertzea hartarik loth eskuz; krisk-krask, puska hauts, eta ahorat. Ogi-rik gabe, hutsik bazeramaten ithoka.

«To! ametsetako lukhainka, dio gazteenak frantsesez, bertze bieri kheinu egiten diotelarik; behazue hantxeko hari».

Bagonaren bertze buruan zen jaun adineko bat, frango ontsa emana, kara onekoa; aise mintzo, eta itxuraz berak ere jakin, bazakiela mintzatzen; hots, *norbeit* bazela. Lege zaharreko jaun errient ohoragarri baten eite zuen. Urrunera solasean hasten dire: «agur, jauna. —Bai zueri ere, andereak. Nola zarete? —Eta zu, jauna? Zato gurekin bazkiterat. Aire hartzerat goazi egun guzikotz. Saliesen jausten gira. Zato. —Milesker, ez nitake jin. Urrunago noa. —Zato bederen hunat, gurekin solas egiterat».

Jauna irriz: nola zoaken bagonaren buru bate-tik bertzera, airean ez joaitekotz?

Gure andereñoak ez baitziren jaun hura bezen lotsa, ez herabe, airean ibiltzeari, elgarrekin *kozurta* egiten dute: «joan baginte gu? —Ez. —Ba».

«*Un, deux, trois*»... bat bertzearen ondotik badoazi, eta zalhu, hemendik hara. Alkien bizkar-gibelak bagonetan goraxko dire; gaineko estalgia berriz aphaixko. Jauzi egiteko behar da zangoa altxatu eta burua behebitu, anderen... zerari doakon baino gehixago. Jo aintzina. Briubrau, zaldirat igaiterat baloazi bezala, zango bat altxa, bertzea altxa, ixtaklok jartzen dire bizkar-gibeleko taula haren gainean. Igan bezala jauts. Bati gaina jorik, bere lastozko xapel handia lehertzen zaio; bertzeari zango bat zaietan lothurik dilindan gelditzen; lagunek libratu ez balute, han beharko zuen gelditu... zaldiz.

Hara non diren beren ezagun jaunarekin jarriak, solasean, iduri behingotz.

Oren erdi bat gabe jautsi ziren, igan bezala, jauna han utzirik, buruko minik balin bazuen, khendurik; eta ez balin bazuen, emanik.

Har dezagun hatsa.

«Zer dire hoik? —Hauk dire marimuthikoak!
—Nork egundaino ikhusi du holakorik? Urrikari
ditut hoién burhasoak. —Ba eta nik gizongeiak».

Orok baginuen zerbeit erraiteko. Ene aldeko
lagunak egiten daut: «ez dakizu zer diren?
Errientsak dire. —Zaude ixilik. Ez dut sinhesten.
—Sinhesten ahal duzu, hala baitire. Eta ez balo-
harrak. Adin hortako *andere* errientsak oro kasik
orai hola dire. Iduri dute ez dakit zer. Alabainan
neska gazte, buru arin, ahul dohakabeak elhe
ederrez hanturik dauzkate buruzagiek. Hau dela,
hura dela. Oro jakin, zernahi irabaziko. Ohore
handiak izanen, ezkontza aberatsak eginen; eta
holako.

Heiek oro sinhets. Erdiek ja erlisione izpirik
ez. Dutenek ere, gorde behar, ongi ikhusiak nahi
badire. Dena den, gordeka bederen, poxi bat
dutenak oraino zerbeit dire. Bainan bertzeak!
Hogoi urthetan, atsegin gose errabiatuak; urgu-
luz... nehon ez dauzkela, diotelarik erreboluzione
ohiko egunetan bertze zoro batzuek ziotena:
«*C'est nous qui sont les princesses, à présent*».

«Nigaringarri da garbiki, nolako buruzagien eskuetarat erortzera doazin eta ja eroriak diren, Frantziako haur girixtino gaixoa!».

Irriak sar-arazi zauzkidala hitz dautzuet, ene aldeko lagunaren atheraldiak.

Eta futxo egia zuen. Deus ez da gogoetagarriagorik, non ez den, hori gure begiz ikhusten dugularik, gure ezazolkeria; deus ez balitz baino gehiago ez baikire hartuak izigarrikeria huntaz.

Eskualdun Ona, 1904-08-26

Hegaldaka

Airean behar othe ditugu ikusi gizonak ibilki xoriak bezala, hegaldaka? Aspaldiko ametsa da.

Zer diot: *ametsa? Ametsak* nuen erran behar; ezen amets bat baino gehiago eginik, huni datxi-kola, joanak dire gure aitzinekoetarik anhitz.

Mendeak ditu, ohiko liburu zaharren artean zaharrenek diotenaz, ureko arrainen, ba eta ere aireko hegastinen ikusteak eman ziola gizonari gutizia, urean igerika eta airean hegaldaka ibiltzeko.

Izan omen ziren ere buru bero xoriburu batzu, arrano eta bertze zori handi batzuei ebatzirikako bi hegal bi sorbaldei lothurik ezkoz, eta gero hegal hek besoez erabiltzen ikasirik, xoriek bezala, aphur bat goiti alxatu zirenak; baina diote iguzkiak ezkoa urtharazirik, hegalez gabe-tu zirela, biziki gora zoazilarik, eta erori lurrerat piruriketan.

Lehenbizikoek bizkar hezurra hautsi eta bertzeak lotsatu. Egia edo alegia, erran bat da hori, aspaldidanikakoa.

Behin ere ez ordean osoki ukho egin gizonak, hegaldaka edo nolazpeit hedoietan gora igaite horri. Amets zaharra bethi berri. Ezin etsi gain hartan leriitzeaz, bazter ikusten ibiltzeko ez bailitake halakorik.

Haurdanik has, nork ez du hogoi-ta bortz aldiz gogoan erabili: zer atsegina litaken, eta nolako errextasuna, herriz herri, mendi kaskoz mendi kasko, itsasoak eta oro gainez gain iraganez, joan ahal izaita, herrialde batetik bertzera, haize alde, haize kontra?

Eskolatuxeak direnek izan dukete, behin edo behin, buruzagiak egiteko emanik lan hau: *si j'avais des ailes!*

Hegaldun banintz, zer egin othe nezake, non gaindi, nola ibil? Hortarik haste, gogora jin guziak paperean izkribuz eman eskolako haurrek, bazen pollitik! Edo bazitaken, ametsak egiazko gerthakari bilhakatu ahal izan balire.

Hartarat othe goazi, edo ja hartan othe gira? Mende bat eta erditsu du, lan handiak derabilizatela gizon argitu batzuek. Hasi berri den mende hunen aitzinekoan sartzera ginoazilarik, Mont-golfier deithu batek egin zituen *aérostats*

erraiten dioten lehenbiziko balonak: haren bera-
ren izena *montgolfières* eman baitzioten oraino.

Geroztik hunat halakoen egileak ikasiz doazi
bethi. Zerbeit halako zen iragan egun hoitarik
batez Pauen iganak goiti, Orzaizen jautsi zirela
hiru gizon artho landa baten erdira erran baiki-
nuen, heien balon, zazpi kintal hutsik pizu zitue-
lako hura.

Ba, bainan huna bertzerik. *Aérostats* direla-
koen orde, —hek aire berotuz edo airea baino
arinagoko zerbeitez betherik baitabiltza— huna
orai xoriak iduri tresna batzu, hegaldaka dabil-
tzanak: *aéroplan, biplan...* nork eta nola eginak
baitire, araberako izena dute.

Zoinek hobeki, elgarri aitzinka, urthetik urt-
hera, egunetik egunera, su dariotela, hortan ari
diren gizon biphil batzuz baizik ez da bi aste hun-
tan aiphu. *La grande semaine de l'aviation*: hitz
hoik eta holako badabila gazetataraka egun hau-
tan.

Gure Frantzia ederrean, Reims hiritik hurbil
den ordoki zelhai handi batera zuten hitzhartua
elgarrekin biltzea, handik oldarra hartuz igaiteko
goiti, zoin gorago, zoin zalhuago, zoin luzazago

egon eta ibil airean, hegaldaka; behin goititzaerakin itzulia luze, gero labur, iduri gainera heldu beha daudenei: gero berriz igan; berriz jauts, zango orde dituzten errota batzuez lurrari.

Mundu bat han omen zen ikustera bildua bazter guzietarik: karrosa, beribil, oinezko; frantses, aleman, angles, amerikano. Untziz ethorriak baziren itsaso zabalaz harainditik, jin ahala jin, bertzenaz dabilzan baino bi, hiru egun lasterrago, beldurrez berantegi hel; baitezpada ikusi nahi «*la grande semaine, la grandissime fête de l'aviation*».

Berrehun mila jendez goiti hanxe ibili da ikusten, bizpalau egunez.

Ikustekoa ere omen zen. Hemen Eskual Herrian bertze orduz pilotari handien izenak mihi guzietan ziren bezala, eta gehiago, bibaka, esku-zartaka, oihuka zerabiltzaten ahotik ahora: Lathan, Lefebvre, Paulhan, Blériot eta bertze zenbeit, frantses; Farman anglesa; Curtis amerikanoa; orotara frantses gehiago, arrotz baino. Nausi ere frantsesak airean ibiltzen.

Amerikano Curtis delakoa naski oro baino gehiago zalhutasunez; bainan gureak iraunko-

rrago. Bi orenetaraino, jautsi gabe, ibilki airean, haizearekin itzulika, borroka beharturik ere arizan; bi orenez ehun eta berrogoi-ta hamar kilometro bide, airez aire, egiterainokoan.

Prima gaitzak zituzten: lehena berrogoi-ta hamar mila libera; bertzeak araberan. Zerbeit xahutu ahal da hor. Ardit bat ez omen gobernamentuko dirutik. Behar zen sos guzia jaun aberats buru bero batzuek emana zen. Asko tzarakerietan xahutzea baino ederrago eta hobe, zerbeit ikasi nahiz ari direnen sustatzea, gostaia gosta.

Nork daki, zer ondorio dekarreten hastapen xoragarri hauiek? Beldurtzeko da zenbeitek bizkar hezurra hauts dezaten, haizea ezin garhaituz, edo beren tresna bidean makurturik. Ja bat hiltzer da, tresnari su lothurik. Halere lurrari hurbil zen eta jauzi egin ahal izan du; gorago gertatu balitzaio, zer itzulipurdia!

Hor ibili direnetarik bat, Blériot, izana da berritan Frantziatik Angleterraraino, itsasoaren gainez gain; 30 kilometre, egundaino nehork egin etzuen. Gaitzeko pestak egin ere zazkoten anglesek.

Tresnak aski zail, azkar eta iraunkor egitearekin, uste dukete joan urrunago. Nork daki noraino? Bizi denak ikus. Hein huntaraino ere heldu baitire, zerbeit da. Behinik behin oraiko hauk ez dire bizirik Ameriketarako.

Ez dauzkate bederen itsas-untziz dabiltzan karga ikaragarriak airez eremanik beren tresnetan. Biziki gauza guti baizik ez omen dezakate tresna hoiak jasan. Beren hazta eta gizon bat edo biena, munduko gorena. Halere, jou! gain hetan ez bide da josteta. Nola dauzken ere, oren osoak, mustupilka erortzeko lanjerean, durduzatu gabe, harrigarri da...

Eskualduna, 1909-09-03

Uhaldea

Joan den astelehen eguerditik oren bat ondo-xean ohartzen hasi dire Baionan *la Nive* Kanbotik heldu den ura goiti doala eta dena lur gorri, zikin, oro puzkateriaz bethea.

Begiz ikus ahala zalhu eta gaindi joaki, gero-ta zurruburru gehiagorekin. Metaka heldu, itsas-ura samur denean bezala, mailka; gibelego maila bethi aitzinekoa baino gorago.

Zer da hau? Leihoetarik beha, ur hegiko egoi-liarrak oro. Uraren bi bazterrak eta hiru zubien gainak oren laurden batez betheak jendez.

Oro harrituak, non zer othe zen eta zeri ginauden!

Anhartean, ura bethi gaindi, oldar gaitzean: lapar, egur, abar hil eta bizi, solido, ernai zahar, laborantzako tresna, kadira, ohe somier, athe-leiho, arbola oso errotik jali, gero-ta gehiago eta handiago; behi bat; zonbeit ardi; xerrikume eta urde larri... bat segurik hiru kintalez goitiko; zaldi, asto; ahate, antzara, oilo, zakhur, apotzar,

suge, musker ferde, han iragaiten ikusi ez dutenik ez da.

Hil kutxa bat ere ba omen.

Batek hau ikusi, bertzeak hura. Ez balinba! Nola ditake hori? Bizi ala hil? Hango erasia!

Eta oro beha, begiak luzatuz urerat. Huna suge alimale bat, haur baten besoa bezala, lep-hoa goiti altxatuz doala. —Bizi? —Ba naski! Beha zozu, gizona. —Huna bertze bat, ur hegirat ezin helduz ari; *bipera* izan behar da, —Ez —Ba...

Parasol giderraz batek laguntzen du sugea hegiratzen. Jali orduko, han berean kali.

Ureko sugeak izan behar ziren oro edo gehienak. Mendian urak lo hatzeman zonbeit ere ba naski.

Sant-Izpiritako ur hegi harri lauzaz estalietan omen zen biharamunean frango ageri suge heta-rik, multzoka, nonahi. Beharrik ez dezakete min handirik nehuri egin suge urekoek.

Arraina ere izitu du, zoratu, nahasi osoki uhaldeak; ur zikin, lurrez loditu hartan ezin bizi, ala nork daki zer? Zernahi arrain hil omen da; eskuz bil ahala bazen tokitan, urak apaltzearekin, pentze eta landa zilo batzuetan geldituak.

Amarrain, kolaka eta bertze, zaretaraka hatzeman dutenak omen dire, Baionatik Milafrangan harat. Hetarik batek ziola: «ogi ez artho, ez belhar, bertze deus ez badugu zeren igurik aurthen, goazin, egur eta arrain poxi bat bederen dukegunez».

Ez da jostetarik hor. Izigarriko malurak izan behar dire: ur hegiko errekolta guziak gal. Lurrak oro itsuski zikinduak behere hautan lohi gorritz eta purruskeriaz.

Husten, garbitzen, sorho poxi bat bederen emaiteko heineratzen, zer lana!

Ur hegiz hegi, goiti joanago eta galtze handiagoak ez othe diren, oro beldur.

Itxura guzien arabera, pentze eta landa osoak, lur erabili zenbat ez duke urak ereman burrustan?

Hainbertzetarainoko lur andana derama urak itzulipurdika mendi aldetik itsas alderat. Baionan untziak bethez hartzen zuten hegitik ura, ikusteko zertsu zaukan eta zoin lodi. Erdinkala lur zolarat zohan berehala.

Zonbeit orgatara joan ahal baita hor harat!

Astelehen arratsalde guzian deus garbitasunik ezin jakin da Baionan.

Arratsalde eta gau guzia iraun du izigarriko ur jauste horrek, zernahi zeramala.

Bizi direnen orhoitean egundaino nehork ez duela eskualde hautan holakorik ikusi, zioten orok.

Elhur urtze edo eurite handi luze batzuen ondotik hirian eta orotan urak atheratzen ba; bainan ez holakorik.

Non zer othe da gerthatu? Biharamun arte, garbitasunik deus ezin jakin dugu.

Eskualduna, 1913-06-06

«Je suis une dame»

Engoitik orotan orok badakikezue, badugula Frantzian emazte bat preso. Zer diot: *emazte bat?* Andere handi bat, edo egungo egunean handitzat dauzkatenetarik: ministroetan aipha-tuenaren laguna.

Caillaux, gorri egosi tzar sozialist deus onik ez direnekin bat egiten zuelarik, bere ministerio zerga gosea esku-azpizko jukutriaz xutik zauka-naren oraiko emazteak du joan den astelehen arratsaldean, tiroka, gizon bat hil; bortz tiroeta-rik hiruez hatzemanik hiltzeko ukaldiz ixterrean, bulharretan, sabel zolan.

Ministrosa, Caillausa delako *Madama* moda berrikoak hor hil duen gizona kazetari bat zen, *Figaro* deithu paristar kazeta handiaren egile buruzagia, Calmette izena zuena.

Kazeta hori ez da guretarik, ez eta ere gure etsai errabiatu debroz egin hoien aldekoetarik.

Ez gorri, ez xuri, bitarte hortan baitire zuhail gorrast, egun eskuin bihar ezker, aldizka edo

betan bi aldeak dauzkaten batzu, hetarik da *Figaro*.

Talendu gaitzeko gizonen eskuetan da bethidanik.

Mintzo gira talenduaz, luma eskuan xorrotx eta legun, solasa ederki aphainduz derabilatela.

Gizontasunez, Frantziak baitezpada behar luken gobernamentu azkar eta zuzen, zinezko zuzenaren alderako atxikimendu kartsuaz, ez bertze batzu baino gehiago.

Baita holako, egungo egunean! Eta hoik hoberenak... beren ustez; funtsera eta ororen galgarri baizik ez direlarik, beren jite hotz-ezbero, eztika, orotarot dagolakotz azkenean funtsez nehorat eztagonarekin.

Holetan etzuen *Figaro* delako kazetak, ez eta bereziki haren egile nausiak ezti aldia egun hautan, Caillaux ministro, diotenaren arabera, onaz bertze guziak dituenari bereak erranez, gontzetarik jalgiaraziduenaz geroz.

Ministroa baino gehiago burutik joan-arazi holetan ministrosa, odola jauzkor ukan behar duen emazte... zertsu den hor ageri dena.

Ez bethi, beharrik, bainan ardura ikusten duzuenan da gerthatu hemen: nolako senhar, halako emazte. Nahi dituztenak oro egin behar eta ezin jasan hitz baten entzutea. «Gu ez hunki, gu baikira nausi eta andere eta oraino zerbeit gehiago. Zer ez gira gu?».

Hauk iduriko batzuek erreboluzione handiko egunetan ziotena, kukurusta goiti altxatuz: «*A présent, c'est nous qui sont les princes*». —Ba naski!

Dena den, bereak eta asto beltxarenak aditurik dago, zonbeit egun hautan Caillaux ministroa, gizontasun den gutienekorik luken ministro batek sudurra sarthu behar etzuken saltsa batzuetan zikindu zuela muthurra, beraren eta bere kideko batzuen aberasteko egin zituelako nahaskeriez!

Nahi etzukenik asko eta asko eman diote begien aitzinera; batzu bertzeak baino ahalgegarriago.

Eta oraino handienak agertzekoak omen!

Jendea gogoetatzen hasia, nahiz holako baten berri badakigun mende boketa zikintsu

huntan. Adixkideak eta oro hasiak zitzazkon bertze aldeaz itzultzen ministro goihengarriari.

Behin ez-axolarena egiten zuen; bainan aski barna sarthu diotelarik eztena, debruak hartu du. Are gehiago beraz emaztea.

Hunek, nehoi deus erran gabe, ez eta naski senharrari ere, erosten dautzu errebolber bat, bortz baletakoa: badoa *Figaro* kazetaren buregotara; galdatzen du Calmette hango nausia behar duela ikusi. —Eztela etxean. —Egonen dela beha; ikusi behar duela baitezpada.

Jauna sarthu-ta, erran diotenean etxekoek nor zen han, hura ikus galdez, sar-arazi du... zer nahi duen. —Ahal dakizu zer? Ez nautzu, ez, agur, heldu egitera».

Hainbertzenarekin, esku beso inguratzeko apaindura batean gorderik zaukan errebolbera agertu eta pin, pin, pan, bortz tiro igortzen diozka, gizonari, aldera joanik.

Gizon dohakabea, hil hurran ereman dute, mediku baten etxera; hiltzalea preso... deus egin ez balu bezen odol-hotzean.

Je suis une dame! Andere propia! Funtsean hirugarrena, bertze biga, bat bertzearen ondotik

divorce eginik igorri antzara ferratzerat, edo berak joan, gostuagoko bertze bedera nonbeit hatzemanik.

Han hirugarren hartu, haletan oraino atxikitzen diona. Noiz arte, ikusi behar.

Ez denetz, adixkideak, izigarri, zer jende zurruburruen eskuetaratuak giren! Zer gizonak Frantziak jabe!

Erran gabe doana, emazteak araberako, edo areagoko.

Geroaz pentsa eta lotsagarrienik dena da: hauk eta bertzerik ere ager balakigu hemendik hurbileko bozetara, guziak oro ahantziak ukanen baitituzte boz emaile hanitzek.

Zeren beha othe daude, beren nahizkoitsuak, begien idekitzeko?

Eskualduna, 1914-03-20

1870-1914

Duela 44 urthe Alemaniak egin zaunkun gerla hura eta oraikoa elgarri parrez par ezarri-ta, bada zeren, bada zertaz egin hor bi gogoeta!

Hitz gutiz erraiteko, hau handiago, hura hitsago: lotsagarriago hura, lehen bi hilabetheen buruko kasik etsitzekoa, nahiz iraun zuen zorigaitzez zortzi hilabethe, mende bat bezen luze iduritu zitzauzkunak; hau lehen bi hilabethe hautan hoinbertze odol ja gostarik, oraino hanitz gehiago behar zaukula gusta dituelarik itxura guziak eta bereziki harek baino hunek luzazago dezagukela iraun, —nork daki zenbat?— halere Frantzia ez oraino lotsa, ez ukho egitekotan. Ez eta beldurtzen hasia ere, galdu behar othe dugun.

Kolpatze eta hil berriek sustatzen baizik ez armaden kuraia gaitza.

Oro konfiantzaz betheak: zernahi jasan beharko badugu ere, azkenean partida izigarri hunen irabaztea guretzat dagola: oro segur,

bederen zainik eta zainetan odolik duten guziak, etsaiaren garhaitzeaz.

Segurenik, nor? —Soldadoak. —Soldadoetan berezikiago ja gerlan izanak, ja kolpatuak, ja herioa hurbiletik ikusiak.

Aithortzen ba egia, den bezala, eztela pesta: hanitz sofritu behar, osasuna beiraturik ere; egun eta gaur, hiltzeko lanjerean bizi.

Eta halere guziak hitz bereko; leher egin behar duela oraikotik alemaneria guziak, bereziki Enperadorearen odolekoek, seme ondoko-gei *kronprintz* delako erho tzarrak eta bertzek.

Gerla baten irabazteko, halakorik ez duzu nola konfiantza: behinik behin zuzenean zarela; eta gero indarrez ere, zeurez edo laguntzalenez nausi zarela.

Arren badugu konfiantza hori: hastetik osoa, eta emendatuz, azkartuz joaki: abantail bat hori, 1870ean ez ginuena.

Traidoreak baginituen orduan: ez jakin xuxen zonbat, ez eta nor. Bainan jeneral handienetarik ere baginituelako beldurra, Bazaine zelakoa eta bertze zenbeit haren iduriko, elhea bera etsigarriz zen. Nor nori fida orduan?

Orai ez dugu halakorik: bat edo bertze ukaiter baditugu ere, zalhu, zalhu itzaleratuak dituzte, ohartu edo dudatu ere orduko.

Bizpalau aitzindaririk handienak gogorki gizonak ditugula buruz eta oroz, heieri gaude osoki.

Hil balite ere ordain gei onak omen dituzte ondotik, funts ahulekoak aza jorratzerat igorriro.

Hau ere badugu gerla huntan, lehengoan ez ginuena: *sekretu gaitza*. Zagozte zenbeit aldiz begiak xurituak, berri beha; eta kexu aste batzuek *Eskualduna*-k zoin berri guti dautzuen ekartzen.

Guti baita berri *egiazkorik*. Orizue, 1870ean, bazinuketen berri. Egun guzietz tutaka, oihuka heldu ziren hirietarik kanpaña herrietarat espantuek, bitoria bitoriaren gainera. Zafraldi onik harturik daude orduan alemanak mihietan, depexa eta paper mota guzietarik, handi eta ttipietan: *cornet à piston*, atabal, xirula eta turruteria... *trahison* eta *victoire* aldizka tronpetatzen zaitzute muthiko txar batzuek nondik noren izenean ziren heldu ere nehork ez baitzakien.

Pentsa kazetak ixilik zaudenetz.

Orai holako deus edo kasik deus ez haizu. Kazetak oihuka saltzera ez haizu. Aphal behar eskaini, erdia gutiago salduko bada ere.

Ez haizu kazetetan zernahi emaiterat, gerlako berririk: berri txar ala on, hala direnak baizik ez eman behar; hek ere, ez oro. Jendea izi edo etsaia argi dezaketenik ez behar eman, edo «*gare la censure!*».

Debeka lezakete kazeta eta hartaraz geroz, gaztiga ere garrazki.

Horra nola gauden 1914ean hoin gerlako berri gutirekin: berri *officiels, communiqués* direlako hek bakarrik haizu emaita.

Guk oro jakin nahi eta hoin guti jakitea ezta laket. Nahi badu ba: hobe baita ordean: deusetan ez baita gerlan baino zuhurrago, beharrago, *sekretua*, ixiltasuna.

Hortakotz dire soldadoak ere gerlatik hunat hango berrien nolana emaiterat ez haizu.

Hilen, kolpatuen, presuneren sakeletan hatzeman balitzate asko xehetasun etsaiek, jakin behar ez dituztenetarik, hanbat gaixtoago guretzat.

Debeku hoik oro, ontsa baino hobeki.

Hiruetan hogoi-ta hamarrean holako paper asko hatzemanik, letra, kazeta, eta ixtorio, sekretu atxiki beharrak, gure harat-hunat guziez argitu ziren alemanak.

Ez dute peilik oraiko gerla huntan hoinbertze jakin dezaten.

Garbiki nardagarri ere zen 1870ean ez baitzen pertoli bat, jeneral guzien izenak, balentriak, hutsak, xedeak, oro erhien puntan etzazkienik. Haur mukuzu batzu mintzo armaden goiti-beheitiez, nola!!!

Ce n'est plus ça, mes enfants, eta ontsa da hori: ontsa baino hobeki.

Holako zenbat 1870ean ez bezala 1914ean!

Orotako handiena hau: hau har othoi, orok gogoan, eta ez ez gero niri gal; 1870ean, ororen buru, bitoria galdu ginuela, eta 1914ean, irabaziko.

Eskualduna, 1914-10-09

Bortz haurren aita

Gaizo gizona! Ez dauzkat ahantzirik Urkurai *Pauetako* bizkarretik Kanboko gararaino harekin egin solasak.

Soldado bat zen, gerlari zaharrek orai ukaiten dituzten zortzi egunetarik hiru edo lau etxean iraganik, gibelerat joanki... berriz gerlarat, giza-gaizoa.

Nihaur nintzen karrosaren zokhotik aditzen diot, igaiterakoan oihu egiten postillunari: «badea nehor barne hortan?». Kheinuz ihardetsi othe zion, sar zadin, ala hitzik ez, hura den gorrak, ez nakike, soldado gaizoak, sast, barneko alderat behako motz, ilhun bat eman zuela baizik; eta brau, ni han ikustearekin, ez zangoz, bainan buruz halako jauzi bat egin bazterrerat; berehala ohartu bainintzaion, bi sos baino nahia-goko zuela ni ez han hatzeman.

Sarthu zen halere, paketaska bat lehenik ene alderat aurdikirik, hartaz jo nahi izan banindu bezala.

Ongi ethorri egiten diot ahalik hobekiena, ezaguturik zena zenarentzat, zortzi egun, erdi bideko, erdi etxekorekin herrirat jin soldado zaharretarik zela, nik nakiena bere jendetarik noren ez zonbaten besoetarik eskapatua?

Badea kuraie, adixkidea? —Ba, ba; behar da. Huntan gira engoitik, eta goazin huntarik.

Boza poxi bat erkastua zuen gaizoak; bi begiak gorri hantuak; idekiak kasik ezin atxik, ezin beha ondoko jendeari xuxen, eta nik ere ahalik gutiena nezon beha, nahiago.

Bainan etzen luzaz behatze beharrik, ezagutzeko zerk emana zion hantura eta gorridura hura; ez bakarrik lo eskasak.

Lehen solasek mintzoa poxi bat ideki diote-nean, galdatzen diot ja banakiena, ikusteko zer atherako nion: «errazu eta zertako egin duzu oxtian, hunat igaiterakoan, ni hemen ikustearekin, bazterrerat jauzi sorbaldez eta buruz?».

Halako basa irri, nigar hipa, ezpainak ausikiz ezin iretsizko bat baizik ezin athera diot behin; gero, garhaituxe duenean, begitarteari eskuz thorraka, norbeiti edo zerbeiti nahiz jazarri, pizten du zigarro bat; garbiki egia nahi baduzue

jakin, ez bainindake on, zin egiteko, piztu duen izaitez ala erakutsi bakarrik suari eta hortzen artean tinkatu hala hala, bizi ala hila zuenez, axolarik gabe. Ba, gezurrik gabe, lau edo bortz aldiz utzi du bere zigarro marzukatua ezpainetarik zangoperat erortzera; ba eta behin edo bietan altxatu orduko, eskutik lerratzerantz berriz beheiti.

Ah! hitz dautzuet ez nintzela irri gose. Ahalgetua ba nere buruaz, Jainkoa lekhuko, eta hau hemen irakurtuko dutenentzat zontz, bereziki bat gogoan; gerla huni buruz guk hemen ditugun sabeleko minak, derabiltzagun kazeta lan eta perrekeriak zoin guti diren, holako batzuek urte huntan duten kuraia gaitzaren aldean!

Gaizo soldado zaharrak! Gaizo senhar on, aita bihotz handikoak!

Deus ez gira gu; deus baino gutiago, behinik behin, nik dakidan bat, holako gizonen aldean.

Beldurrez bihotzak gaindi egin zezon, uzten nuen erdi ixil; bainan halere zerbeitez nahi nion erakutsi, ez nintzela osoki holakoentzat esker gabea.

Oharturik, ez zauta hasten gaizoa, bera laguntzen; azkenekotz elhea nik baino gorago eta luzeago: etzela, ez, lotsa; uste zuela oraino zokho hau ikus, bihotza egun baino, eta duela urthea baino arinagorik.

Hainbertzenarekin kapotearen barneko sake-la handi batetarik jalitzen daut, bertze paper horitu, higatu batzuen artetik, fotografia bat, iduri atzo egina, berriaren berriz, eta bizkitartean aspaldi han zuena ja berekin, gerlan. «Zer artharekin beiratzen ahal duzun hori han, zurekin. —Ba, jauna, ba. —Ez baituzu behaka higitzen ere?».

Nigar eta irri.

Zoin duzu maitenik? —Oro bardin. Ez dute ez gero han giren gizon guziek holako familia bat agertzen ahal. Behazu ene emazteari, bere bortz haurñoen artean, lotsatua denez? Nik bezenbat kuraia badu, edo gehiago; esku onetan ditut etxeko lanak.

Osasunekoak gira, Jainkoari esker; haurrak ere bardin heldu. Horra horxe zaharrena; hau, behereko ñimiño hau, azkena.

Bi urthe eta erdi zituen ni gerlarat joaiten. Deusek ez daut hala hautsi bihotza, nola ikus-teak eztuela haur gaixoak bere aita ezagutu. Egungotzat haatik adixkidetuak ginen. Damurik noa hoin fite.

«Jin zauzkit ba segi horxetaraino; nahi ukan banu, heldu zauzkitan urrunago. Horxeko pen-tze ezkinatik igorri tut, ez ginela behar jendeta-rat agertu elgarrekin. —Zoin duzu haurretarik nekezena utzi? —Ttipiena».

Eta gaizoak bethi irri, irri egin nahiago, deus baino, bere hetaz mintzatzean, ala banazka, ala orotaz betan.

Bertzenaz ere nehortaz ez da gizona arren-gura, ez hango soldado lagunez, ez aitzindariez; ez eta hemengo nausiez; etxetiar baita. Izenak eta oro eman dauzkit.

«Horxe da, hor goraxago. Nausia bazkaien ginuen atzo eguerditan gurekin; gero ni arrat-sean haren etxean afaiten. —Horrat bererat jite-koa zira beraz oraino zu? —Ni ba. —Espainiako mendi horier behako bat ez dakozute zuk beraz eman bertze zonbeitek bezala? —Nik ez. —Hots, bazoazi kurairekin eta esperantzarekin, hor

harat? —Ni ba. —Irabaziko dugu gerla hau zure
ustez? —Ba, jauna. —Noizko? —Hori nik eztaki-
dana da, eta ez ene egitekoa. Garhaituko dugu,
hortan da guzia. —Ez zinen lotsa joan-jin huni
poxi bat? —Ba, bainan halere jin nahiago. —Eta
orai, nahiago duzu izanik? —Ba naski!».

Eskualduna, 1915-07-23

PERTSONAIAK

Hil dute

Hil dute beraz azkenean Ravachol, gizon-hil-tzale izigarri hura. Hil dute: ez berehala, ez eta ere errexki. Lehenago erran dugu nola behin Parisen *anarxista* bezala, zernahi tzarkeria egin zuelakotz, bethiko galeretarat kondenatu zuten. Handik gero Montbrison, Frantzia barneko hiri batetarat ekharri zuten, zeren hiri hartan eginak baitzituen lehenago bere balentriarik handienak. Egun hamabortz jakin ginuen Montbrisoneko tribunalak lephoa mozterat kondenatu zuela.

Holako horier uzten diote berrogoi bat egun edo gehiago, nahi badute *apel* egin; edo bederen errepublikako jaun presidentari, barkamenduskatzen direlarik, galdatu, ardietsiko badute eta ez, biziaren grazia.

Ravacholek ez du deus galdatu nahi izan. Jakinez geroz harenak egin zuela, nehor ezin hurbildua omen zen. Irri egiten zuen, ahotik blasfemia zariola, Jainkoaren izena bera aiphatzen ziotenean. Presondegiko aphez omoniera ere ez zezaken begien aintzinean ikhus. Haren ahapal-

di ikharagarriez harrituak zauden oro. Zioten orok egundaino ez dela ikhusi holako mustrorrik. Hitz dautzut ongi et'ongi zaindua zela, eta hurbil-danik begi ziotela haren urhats guzieri, nahiz ez zuen barne hartan urhats handirik egiten ahal. Gau eta egun, bere zaintzalez bertzalde, bazituen ez dakit zonbat soldado, harmak eskuan, xutik, han zaudenak. Garbitzen zuten, igitu balitz!

Hamabortz egun huntan presondegia kanpotik ere soldadoz inguratua zaukaten. Beldur ziren, *anarxista* direlako heiek arma zezaten zerbeit izigarrikeria, bere laguna justiziaren eskue-tarik atheratu nahiz. Halako mehatxuak zituzten ere eginak, ziotelarik goraki: «Ravachol hiltzen badaukute, erreko dugu burregoa, erreko dugu *gillotina*, eta behar bada Montbrisoneko hiri guzia!».

Ravachol hil dute: bainan anarxisten sudurrik nehork ez du han ikhusi. Iziturik ihes egin othe dute? Ala gerokotzat othe zituzten solas lazgarri hek oro? Ageriko da.

Erran behar da gaitzeko prekozoneak hartuak zituztela, justiziarekin hitzarturik, hiriko

buruzagiek. Hiri guzia soldadoz eta harmaz bethea zen. Bereziki azken gauean ez zen, ez anarxistarik ez bertzerik, harat hurbiltzen ahal, bere izena emanik eta buruzagien baimenik gabe. Halere hanitz jende bazen harat bildurik. Egunaz bezen argi omen zen hiriko karrketan. Ikharan zauden alabainan oro, zer behar zuten ikhusi.

Goizaldera buruz, burregoa tribunaleko buruzagiekin presondegian sarthu eta han hatzeman dute Ravachol, harria bezala lo zagola. Bertze guziak izialdurekin harrituak, eta hura lo... egiazko mustroa!

«Jaiki, jaiki, Ravachol». —Jaikitzen da, jauzi egiten duelarik. —«Zer nahi duzue? —Har ezazu kuraie. —Zertako? —Hiltzera joaiteko».

Dohakabea! Irri karkailaz hasten zaiote, trufatzen da orotaz; eskarnio egiten diote balakartzeko elhe on zenbeit erran nahi lioketen guzieri. Burregoa ari zaiolarik bizkar gibelean bi eskuen estekatzen, ahora jin guziak erraiten diozka, erdi irriz, erdi hortz karraskan, iduri josteta bezala. Apheza ikhustearekin erranen zinuen zainetakoa lotzen zitzaiola; zalapartan eta oihuka: ez zuela nahi aphezik; hurbiltzen

bazen, *thu eginen ziola* begithartera, hari eta haren kurutzefikari.

Halere aphez gaizoa jarraiki zaio gillotinaren gaineradino, bethi begiak haren begieri josiak zituelarik, bethi kurutzefika saildua eskuan.

Deusek ez du hunkitu ahal izan haren bihota. Ikhusteko omen zen, presondegitik hiriaren erdira zeramatelarik, orga handi batzuen gainean xutik, burua gora, begia zorrotz, alde orotarar oihuz, juramentu arrailka, gerrirainoko xehakatuak, erdi buluzia, ezin erran ere ditazke haren ahotik atheratzen ziren urdekeriak.

Hiltzeko tresnaren gainera denean, nahi izan da jendeari azken aldikotz mintzatu. Berehala lothu zazko burregoaren laguntzaileak. Nahi bazuen eta ez, etzan-arazi dute han, taularen gainean. Oihu marraskaz eta zalapartan ari zen: nahi zela mintzatu; bazuela zerbeit errateko. Lephoa moztearekin khordokan ari zelarik, entzun dituzten azken hitzak hauk dira: «Biba errepublika». Ordu berean ikhusi dituzte haren burua alde batetarar, gorphutza bertze alderat erortzen. Eta haren arima, norat joan othe da? Nolako errepublika hatzeman othe du, orai den

tokian? Orhoitzeak berak izitzen gaitu. Ez dea bada ikharagarri zertaratzen den bere aztura gaixtoak nausitzerat uzten dituen gizona!

Jainkoak begira dezaukula dugun erlisionea!

Eskualduna, 1892-07-15

Bat gutiago

Iduri du egiazki Jainkoa dabilala.

Egun hamabortz erraten ginuen, ez dagola behin ere lo *Gaineko hura*; behin ere ez dituela harek ahanzten bere aldekoak, ez eta bere etsaiak. Erraten ginuen ethorriko zela guzientzat haren orena; menturaz guk uste baino lasterrago sar-araziko ziozkatela *Harek* gaixtagin buruzagi, judu, framazon eta pagano diren bezalako horier beren irriak eta trufak.

Egun zortzi berriz aipatu izan dugu nola eta nola leher egin duen Panamako zauri izigarriak; nola erdiz erdi atzemanak izan diren ohoiak eta heien aldekoak *gezur eta nahaskeriarik itsusien erdian*.

Xehetasun guziak orduan ezin emanenez, egungo utzi gintuen zenbeit emaiteko. Eta huna non heldu zarokun Parisetik berri bat oro baino handiagoa.

Ba, egiazki Jainkoa dabila!

Ferry, senatorren president berria, hil izan da bet-betan, iragan ortziralean duela xuxen zortzi egun.

Bihotzeko min izigarri batek ereman du, zenbeit orenen barnean. Oro harritu dire, berri hori entzutearekin.

Uste zuten alabainan orok, behingo gizon bazela Ferry. Barne azkarra zuen... iduriz. Gizon gordina zen oraino. Hiruetan hogoi-ta bat urthe omen zituen. Eta horra non den hila!

Erran dugu hemen berean berrikitan zer gizon zen bertzenaz Ferry hori.

Egun ere badugu xedea xehekiago aiphatzeko harek egin lan tzarretarik zenbeit. Alta ez da, ez eder, ez laket, gizon bat etsai izanik ere, hil orduko berehala hartaz gaizki mintzatzea. Baina zer egin dezakegu, baizik ere Frantzia guzia egun hautan, eskualde bat edo bertze, mintzarazten duen gizon hortaz guk ere dakiguna egia den bezala erran? Hanbat gaixtoago harentzat, baldin ez badugu deus onik hartaz aiphatzeko!

Kalte handiak egin darozkigu; baina bereztat du ingoitik zorigaitz handiena, hoinbertze

tzarkeriaz hobendun Jainkoaren aitzinean agertu denaz geroz.

Hila hil, guk ez diogu egia baizik zor. Eta egia erratekotz, behar dugu erran hura bizi zelarik behin ere gorde ez duguna. Huna bi hitzez egia.

Azken hamabortz urthe hautan Frantzian eginak izan diren lege tzar guzien, eta bereziki eskoletarik erlijioea khendu duen lege higuin-garri horren egile nausia izan da Ferry.

Duela sei, zazpi urthe, eskoletako lege hori ezarri zutenean, bere burua gehienik, itsuskienik agertu zuena zen Ferry.

Ferry zen orduan ministroen buruzagi. Hura zuten framazon edo *harginbeltz* direlako gizon tzar horiek orok beren aitzineko.

Egia da berek ere ez zutela bizkitartean hanbat maite, zeren eta oroentzat idorra baitzen, bere buruaz itsutuki hartua, eta oroz gaineratik, ohore gose errabiatua, orotan bera nausi beharra.

Tonkineko gerla denbora hartan galdu zuen bere burua. Itsuskeria batzu egin zituen orduan, eta gezurtto batzu ere erran, gure soldado gaizokeri han egin-arazi huts batzu ezeztatu nahiz.

Bi hitzetan hatzemana izan zen; eta orok begietan hartu zuten, gorri ala xuri, guziek, salbu bere iduriko sorhaio bakhar zenbeitek. Arbuiatu zuten, iduriz bethikotz, guziek.

Khendu ziozkaten esku guziak; eta gorri gorrienak hain ziren orduan asalatuak, non erranen baitzinuen puskatu behar zutela.

Geroztik hunat erdi itzalean egon da. Bainan maltzurkeriaz zagon, bere tenorearen begira.

Tenore hura bere ustez ethorri zaionean, ikhusi dituenean bere adixkide ohiak Panamako saltsa beltz hortan igeri, berriz altxatu du burua.

Zer egin dute bertzek? Ikhusirik oro galduak direla edo bederen higatuxeak, orhoitu dire beren buruzagi ohiak. Elgarrekin hitz-hartu dute, nehork atheratzekotz Panamako ohoin zilo hartarik Ferryk dituela atherako. Ahantzi dituzte lehengo makhur eta herra guziak.

Hor ezarri dute Ferry senatorren buruzagi, geroxago ezarriko zutela ministro eta nork daki? Beharrez oraino zerbeit gehiago. Ferry eta Ferry, ez zen hartaz baizik aiphu jadanik hiru aste hontan Frantzian.

Hari zauden gorri guziak begiak eta ahoak zabaldurik...

Krask! Horra non ximixta bezala hedatzen den berria: «Ferry hil da! —Ferry hil? —Ba, Ferry hil. Hil da Ferry. Ferryk ez du gehiago nehorri bidegaberik eginen».

Berri hori entzutearekin, gizontto batek erraten zuen egun hautan. «Egin bezate nahi dutena. Bil bedite Jainkoaren kontra nahi badute mila edo ehun mila. Horiek oro baino azkarrago izanen da azkenean Jainkoa bera». —Egia handia.

Trufa bedite, trufa Jainkoaz. Nornahi eta zenbat nahi izan diton, ez dire aski izanen. Behinik behin, horra bat gutiago...

Eskualduna, 1893-03-24

Vaillant anarxistaren gillotinatzea

Iragan astelehen ihaut goizean moztu diote lephoa Vaillant zelako anarxista tzar hari. Azken memento arte, beldur ziren oro, zerbeit izigarrikeria gertha zadin. Jadanik hiru edo lau egun eta gau bazituen holako ikhusgarrien ondotik dabil-tzanak, han gaindi zabiltzala presondegiaren inguruetan, arima salbu-ta zakhurak hilkiaren usainera doazin bezala.

Oren fresko zenbeit hanxet iragan dituzte batzuek, gau osoak han, karrikaren erdian xutik; batzu multzoka elgarretara bilduak solasean; bertzeak harat-hunat ibilki, bi eskuak sakelan, zangoen berotzeko. Eta presondegia bethi hetsia...

Azkenean ideki da holetan. Astelehen-ihaut goizeko zazpi orenetan, argi urratzean jalgiarazi dute Pariseko plaza baten erdira, jandarmez eta soldadoz alde orotarik inguratua, dohakabe zen bezalako hura, gillotinatzeko!

Ez omen zen han ikhusle eskasik!

Nola hil da?

Nola bizi, hala hil; alimale bat bezala bizi, eta halaber hil. Burua gora eta mintzoa azkar omen zituen presondegitik atheratzean. Bi eskuak bizkarrean estekatuak eta zangoak ere labur-laburra elgarri, lasterka ihes joan etzadingatik.

Burregoak eta haren bi lagunek gibeletik eta bi besoetarik atxikiz baitzeramaten, erraten zioten: «utz nezazue; ez dut atxikitze beharrik; ez naiz hiltzearen beldur».

Presondegitik hiltzeko tokira bide erditan gelditurik, oihu egin du: «*Vive l'anarchie! Mort à la société bourgeoise!*»... erran nahi baita: «Biba anarxistak! Leher egin dezatela aberats eta buruzagi guziek!».

Holakoak izan dire haren azken hitzak, ba eta naski azken gogoetak ere. Ezen ez du erakutsi den gutieneko urrikirik, ez gizoneri, ez Jainkoari buruz.

Hiltzerakoan aphezak galdatu dionean ea etzenez nahi barkhamenduskatu, ihardetsi dio: «ez jauna, ez dut gaizkirik egin, eta ez dut hiltzeko nehoren laguntzaren beharrik. Bizkitartean ori, jauna, letra hau emanen diozute ene izenean

ene ahaideri; ez duzu bertze deus egiten ahal enetzat, eta ez dautzut deus galdatzen».

Dohakabea! Bi hilabete bertz egun guti eman ditu presondegian. Hogoï egun bazituen hiltzera kondenatua zela. Hogoï egun eta hogoï gau luze bizi izan da herioarekin buruz-buru.

Goiz guziez lotarik atzartzearekin bere begien aitzinera heldu zitzaion lepho mozteko tresna izigarri hura. Arrats guziez lotan sarthu baino lehen bere baithan erraten ahal zuen: «bihar... bihar goizean gillotina!».

Gogoetarik ikharagarrienak egiten dituzte holakoak azken egunetan; eta bereziki gauaz, erdi lotarik nigarrez eta oihuka artzen dire.

Vaillant horrek ez du den gutieneko beldurrik, ez bihotz-minik erakutsi. Ongi jaten eta edaten ere omen zuen. Egunaz bethi irakurtzen edo izkribatzen ari zen; gauaz lo, harria bezala lo. Ez omen zuen iduri amets handirik egiten zuela.

Arima salbu eta abere bat edo azinda bat ez da hiltzeko bezperan hura zen baino iduriz tran-kilago.

Azindek eta aberek hil aitzinean ez dakite zeri dauden; harek bazakien eta halere lo ongi

egiten! Ez denez ikharagarri, gizona hortaratua ikhustea!

Vaillant eta Ravachol

Duela urthe bat eta erdi hil zen holaxet Vaillant horren iduriko bertze anarxista bat, Ravachol deithua.

Hori baino itsuskiago mintzatu zen hura hiltzerakoan. Irriz eta kantuz, oihuka eta juramentu arrailka, aphezari eta kurutzefikari thu eginez joan zen, bide guzian bere atheraldi ikharagarriez oro harrituak zauzkalarik.

Oraiko Vaillant hunek ez du harek bezenbat ahapaldi itsusi eta harrenbertze oihu erabili; bainan etzen gutiago lazgarri haren ikhustea, begit-hartea zuri-zuria egina, bere begi zorrotzak alde orotaratz itzulikatuz, oihu egin duenean: «*Vive l'anarchie*».

Hobeki eginen zuen aphezaren oinetan belhaunikatzea, bere krima handientzat barkhamendu ardiesteko. Bainan ez. Nahiago izan du bizi bezala hil. Ez ukhanik ere Ravacholek bezen mihi zikhina, harek bezenbat edo gehiago urgulu bazuen; urgulu bat gaitza!

Eta horra nolakoak izan diren harentzat urgu-
luaren ondorioak.

Eskualduna, 1894-02-09

Diharassarry apheza

Zer den gutaz! Eta zeri gauden gutien ustean! Badakigu, erraten ere dugu, deus ez girela; egun sendo eta azkar, biharko hilak. Kaska handi bat buruaren gainera Jinkoak igortzen daukunean, orhoitzen, deus ez girela; amets labur bat dela gure bizia. Eta gero, ahanzten.

Heriotzeaz bertzerik ere ikhusten dugu mundu huntan gerthatzen, uste ez ginuenik. Nork erranen zaunkun, duela zortzi urthe! Orzai-zeko jaun ertorarekin ginabiltzalarik herriz herri, etxez etxe, harentzat boz galdez... egun batez ikhusiko zela hemen *Eskualdun*-ean orduko gure etsaia, edo bederen etsaien gizona, itxura guziez heiekilakoa; gure aldeko gizontzat ezagutua; bere deputatu lagun andana batekin itzulia ikhusiko ginuela oneko alderat, agian zinez eta bethikotz den bezala Morroxko Harriague?

Eta aldiz gure adixkide handi deputatu gei apheza, hainbertze harat-hunat ibili ondoan, oraino gazte eta azkar, osasun bethean zelarik,

bere jinkozko lan handiei buruz oraino behingo gizon eta erretor iduriz, ikhusi behar ginuela nehork sekulan amestuko ez zuen tokian, mando itsu batek lehertua, buruan jorik nork erranen zaukun?

Jinkoak baxharrik daki zer ari den eta zer daukan guretzat. Oro haren eskuetan gira.

Ez ginuen ontsala, behar-bada, solas huntarik hasi behar Diharassarry aphez on, argitu eta khartsu zenaz hemen mintzatzea? Zertako ez ordean, ohiko bozen urtheburua dugunaz geroz? Egun hauiek ja, orduko ez orhoit-arazten ginintuzten. Are gehiago, aphez gaizoaren hiltze izigarri hori gerthatzearekin.

Bertzalde, zenbeit aldiz, geroztik gogoan erabili duguna, hemen erran dezakegu: egun bero nekegarri hetan ikhusi dugula hurbildanik aphez hori, bere bizi guzian izan dena: Jinkoarentzat haren etsaienganik zernahiren jasaitera bethi zagola; bere buruaz orhoitu ere gabe; aditzen zituen oihuek, trufek, mehatxuek, deusek den gutiena ez zuelarik gibelatzen, bere eginbide zaukanaren egitetik. Eta zer gogo! Ari ba zinez, eta ibilki bere ahal guziaren egiten, bainan gero

gerhatzen zena gertha, ziolarik: «Jinkoak ez dauku bertzerik galdatzen, baizik ere harentzat gure ahalaren egitea. Ez dire ez, egun hautan gure etsaiak ere ezteietan! Nausitzen bazauzku ere, hoik beren eta bertzen kaltetan dabilta. Guk aldiz oraiko alfer idurizko urhats hauk oro hatzemanen ditugu egun batez gaineko harentzat eginak, ba eta saristatuak». Uste baino lehen behar zituen hatzeman!

Ez dukete orok ahantzia, nola zerk emana zion gogora, deputatu-gei agertzea. Kasik azken egunak ziren eta nehor ez nahi, haize kontra, lanetan ditaken idorrenari lothu.

Adiskidek berotu zuten. Eta erran behar da: ez zuen hanbat berotzearen beharrik, edozoin eskualde, Jinkoarentzat indar baten egiteko. Egundaino ez bide zuen amestu ere, deputatu izaiterik. Bainan bizpahiru adiskide (eta ez nor-nahi) besotik lothu bezala zitzazkon; baginakike xuxen errateko non eta nola ere. «Hots, Diharassarry, nehor ez denaz geroz aitzinatu nahi, zuri doakizu hor zankako baten emaita. Nahuzu izan gure gizon? Huna non garen gu zure». Berehala bildu zuten. Aphez bezala holako lan bati

lotzeko behar zuen baimena ere ardietsi; eta bero-beroa berehala hedatu berria.

Erran behar da, nehor ez zela bertze aldetik ere oraino agerturik. Baia ba? Aphezaren itzala ikhusi orduko tarrapatan hor Baionara bildu ziren gorriak, eta berezi zuten beren gizontzat Harriague, Hasparneko jaun mera, jadanik aitzineko boz-aldian Labaten kontra nausitzea gutitarik huts egina. Oraikotik gainez gain irabaztea segura zaukaten.

Handik haratekoak orok badazkitzate, nahiz ez oro. Ez behar ere; bizkitartean edozoin zere-tan baino gehiago, holakoetan baxhotxari berea badoako; eta solasean garenaz geroz, baditugu hemen bi hitz errateko.

Aphezaren sustatzailetarik bat izan zen Donibaneko auzapeza, Goyeneche zena. Hura ere bat, bere erratekoekin, hau bezala; egungo egunean nehon nehor guti baita haren eta hunen kaskoko gizonik; batek ala bertzeak, ziren tokian, zilho bat ederra utzi baitute, nekez-nekez bethetzekoa.

Ez ziren bertzenaz bat ere elgar iduriak; guzizki, ez elgarrekin uztartzekoak. Xede berak,

osoki berak izanik ere, beldurtzeko zitaken, elgarri hurbil, ez zirela, berek nahirikan ere, hiru hila-bethe makhurtu gabe joan ahalko. Bederen ardura ukhanen zuten bitarte norbeiten beharra. Hain ziren biziak eta baxhotxa bere hartan, osoak.

Ez dut erranen orotaz hein berekoak zirela ere. Batek gaizkiaren herra, bertzeak gaixtaginena. Buruz, amarruz eta askoz, biga ziren; eta bizkitartean...

Bizkitartean bazuten biek hauxet, egungo egunean bakhan ikhusten dena: bata ez bertzea ez ziren buru aphaltzaletarik.

On edo gaixto, omen dugu hori eskualdunek. Hala diote bederen gutaz mintzo diren urrungo arrotzek. Egia? Noiz nola. Ez othe dugu, aiphamen horren begiratzeko, holako zenbeiten beharra?

Dena dela, behinik behin orduan hitz gutiz egin zuten aphez kartsuak eta auzaphez azkar beroak elgarrekilakoa. Hitz har, hitz-eman, berehala lehen urhatsei lothu ziren, ginen, batzu bertzen ondotik, laguntzaileak.

Ez ginelarik zer zitzaukun erraterat aitzinetik deithuak izan, berehala eman ginioten, bihotz onez, ondotikako baia, eta gure ahal guziz egiten ahal ginuena egin. Aithortu behar dugu: nehole-re ez zitzaukun iduri nausituko zela. Berari ba. Uste gaizoak, bera dena khar eta leialtasun zelakotz, bere iduriko leherra gizon hatzemanen zituela, multzoka, herri guzietan.

Hatzeman ere zituen eta ziozkaten adixkidek frango, non egun hetan, haren ahotik ardurena entzuten ginuen elhetarik bat baitzen hauxe: «zernahi gertha, jende onik ere ikhusten dugu han hemenka zokhoetan. Girixtino fededun azkarrak badire oraino, nahutena erranik eta eginik ere gure erlisionearen etsaiek». Egia, ez balitu *on bat* zen tokian bi eta hiru ikhusi. Bere bihotz onak eta gizontasun zabalak egiten zion hori.

Hastapenaren araberako izan ziren ondorioak. Heldu ahal izan zen tokietan hazi ona erainik, bildu zituen 3.779 boz, 5.351 bozen kontra. Donibaneko kantonamenduak eman zion esku-gain handia. Bertze kantonamenduetan gibeletik

zen; bertzeari hurbilenik Bastidan, eta urrunenik Bidaxunen.

Kanbok eman ziozkan 173 boz; bertzeari 175. Bi boz gutiago beraz erretor ohiari. Bere sorherri Saran galtzeak baino anhitzez min gehiago egin zion haren bihotzari, bere Kanbo maitean ez nausitzeak.

Arimetan baitziren haren erroak, lurrean baino azkarkiago sarthuak. Izaitez hala, eta ustez are gehiago, bera zelakotz arima osoki onekoa.

Bertzalde anhitzek hitzeman zioten kanboarrek boza. Aditzekoa zen gaizoa: «holakoak hitzeman, halakoak hitzeman». Eta harek zabal-zabala oro sinhetsi.

Ororen buruan, hura ezagutu dutenek errexki sinhetsiko dute, nehorentzat ez duela herrarik den gutiena egundaino izan.

Orzaizetik abiatua, bere populuari erranik othoitz egin zezaten harentzat; bazoala «Jainkoarentzat indar baten egitera»; zangoa non emaiten zuen, ez zeri zagon gogo eman gabe; bere eginbidea bethe zuena ba? Itzuli zen, bihotza deskantsu, bere Orzaizeko xokho maiterat.

Zenbeit aldi geroztik erran baitu: ez ziola Jinkoari bertzerik galdatzen, baizik ere Orzaizen bizitzea eta hiltzea.

Hil da; hetsi dire haren begiak. Digula Jinkoak, haren ohiko etsaien begiak, ja aphur bat idekiak, idek ditezen Frantziaren eta Eskual Herriaren behar baitezpadakoen gainerat, gero-ta gehiago.

Nehorentzat egiten ez duguna, hil hunen bizia, hemen aldi batez emaite orde, zathika deramagu. Gutartean zelarik ere bazaukan, asko gisetara, eremu puska bat. Ez bizkitartean *Eskualdun* huntan.

Bizirik eskas egin badauku, goza dezagun bederen hilik. Bozek ekharri gaituzte aiphatzerat egun, ohiko deputatu-geia. Bertze aldian mintzatu-tuko gira baxharrik aphezaz.

Eskualduna, 1902-04-25

Louis Etcheverry

Egun zortziko berantegi jakinik, laburzki baik ezin eman dugu Louis Etcheverry, Donazaharreko seme, auzapez eta ongi-egile handi zena-ren hil berria.

Alta ez ginintazken azkenak izan nahi gu, hemen *Eskualdun* gazeta huntan, haren laudatzaile, hura zen eskualdun egiazkoari doakon bezala.

Bere bizi guzia, on zeno eta haizu izan deno, Eskual Herriaren onetan ereman baitu, eritasuna bera garhaituz anhitz urthez; ba eta zenbeit aldiz eritasuna baino jasan-gaitzagoko nahigabe asko. Ez badu bethi bardin osoki laño eta ezti erakutsi bere burua, bazuen batzutan zertaz arrangura.

Bihotz ona duen gizonari deus etzaio hain gaitzi nola eskergabekeria. Eta Jinkoak daki, egungo egunean, hura zen bezalakoek zenbat bihotzmin duten iresteko.

Beren sor-herria itsutuki maite; haren onetan zerbeit egin nahi. Nahi zuketen guzia ez eginik

ere, ahal guzia bederen egin eta gero... dakizue-
na.

Ahalgegarri diren gizon, gizontasun izpirik gabeko batzuei behar lekhu egin!

Ongia egin, eta saritzat ez milesker ere asko-
renganik. Othe da deus goihengarriagorik, oneko
aldea daukanarentzat, nondik ere baitzuen iguri-
kitzen ezagutzarik gehiena, eta harek huts egi-
tea baino?

Bizitasun eta hoztasun zenbeit barkha daz-
kioke hari, non ez den jazartzen hobendun ez
denari. Eta, zertako ez orduan ere uste gabearen
gain eman hutsik handiena?

Aspaldiko urthetan hainbertze bidegabe egi-
ten daukun politika madarikatu horren tzarkerie-
tarik bat izan da —eta ez ttipiena— adixkiderik
hoberenak berak nahastea.

Gaixo Etcheverry! Hemezortzi urthe ditu,
haren ezagutza eginik, lanari lothu ginela, hura
buruzagi, *Eskualdun* gazetan.

Ezen ordu da erran dezagun, *Eskualdun*
gazeta bat balin bada Eskual Herrian, hari esker
dela lehen-lehenik.

Hari zitzaion hau gogoratu; harek zuen hasi, adixkide zenbeiten laguntzarekin, bainan lehenbizioan gehienik bere lanez eta bere diruz.

Bi urthe zituen hasia zela, gu sartzean. Geroztik anhitz urthez elgarrekin lan berean ari-zan gira.

Goraki erran dezakegu beraz, gurea izan dela luzaz Louis Etcheverry, eta gu harenak. Ez deza-kegu hori ahantz eta ez dugu nahi ahantzi.

Eta zuzen da gazeta hunen irakurtzale guziek jakin dezaten hamasei urthe iraun duen *Eskualdun* gazetak bere aita Louis Etcheverry zuela. Doala baxhotxari berea. Iduri zauku, hil dena bizi balitz, atsegin zukela, hau hemen irakurtzea.

Hain zen atxikia bere *Eskualduna*-ri non, orai duela lau urthe, utzi zuenean lan hau, gazetaren izena beretzat beiratu nahi ukhan baitzuen, zer gertha ere.

Geroztik hunat izenez eta buruzagiz aldatu-rik, langile berek lan bera deramagu.

Eskualdun Ona bere eskuko ez izanagatik, begi onez ikusten zuen bethi, hedatuz eta azkar-tuz joaki, gure buruzagi ohiak.

Dakigunaz mintzo gira. Hala ez balitz, ez ginezake aipha; bainan atsegin dugu hori hala denaren erraitea.

Hortarik ageri da, zenbat ere baitzen Louis Etcheverry berak gogoan zuen hari atxikia ororen buruan eta oroz gaineratik *Eskual Herriaren* ona zuela nahi.

Gazetaz bertzerik egin du, bai hartan ari zelarik, eta bai hura utziz geroz. Eskual Herria, eskualdun etxe eta guziz *laborari etxea* nahiz ikhusi azkar eta iraunkor, zenbeit lerro izkribaturik dago gazetak baino goragodanik mintzo diren batzuetan, nola baita *Réforme sociale* deithu bat, erakusten duena zoin den erlisionea gauza ona, gauza beharra, mundu huntako bereko; bertzekoa bertzalde.

Zenbeit urhats erabili ere du Garaziko laborarien dretxoak ez nahiz galtzerat utzi. Etxetik kanpo egin duen azken urhatsa, ja eri zelarik, eta zoin zen eri zakielarik, egin du, ez nahiz Donibaneko konkurra huts egin.

Jinkoak saristatu du bere borondate onaz; eman dio hiltzerakoan bere eginbidearen bethetzeko denbora eta ezagutza osoa.

Bere kofesora deitharazi du; eta jin denean, oharturik etziotela nahi zuen bezen laster iganarazten goiti, galdatu du, zeren goait zauden: berehala nahi zuela kofesatu, biharamun arte iguriki gabe. Ikusgarri omen zen haren kuraia eta fede bizia.

Jinkoak duela haren arima. Eta guk Eskual Herrian, bereziki *Eskualdun On* huntan, hunek eta guk dira guño, haren orhoitzapena.

Eskualdun Ona, 1907-10-25

Adéma apheza

Eskualdun bat hil da. Balin bazen eta izan bada egundaino egiazko eskualdunik, hura zen.

Eztut erran nahi eskualdunaren ongaitz guziak oro bazituela; bainan haren gogoia, bihotza, lana, hots, haren izaite guzia, solas eta urhats, Eskual Herriari, eskualduntasunari zatxikizkola, ba.

Eskuararen eta eskualdunen aiphamena, zoin eder, zoin handi, zoin zahar, leihorrez leihor, menderen mende, hel ahala urrun oro zauzkala, loria zen haren aditzea.

Etzitzakioken bethi jarraik, ez baitzuen giza-gaixoak hasiz geroz bararik.

Bainan hain zen solas egile maithagarria, haur ona: bere zaharrean ere haur bat bere aita amez espantuka bezala mintzo bethi Eskual Herriaz, eskuaraz, eskualdunez, non onerat bai-zik ez baitzitazken har haren atheraldiak.

Koplaria zen, lehenetarik; bainan egun zortzi mintzatuko gira hemen Adéma zenaren kopla ederrez.

Egun baxharrik eskualdunaz gira mintzo, eta aphezaz.

Apheztasuna eta eskualduntasuna, biak elgarrekin, zerbeit badira. Hitz dautzuet bazazkola zerbeit Adéma zenari.

Eliza gizona zen: predikaria, kantaria; gustu handia zuena elizaren aphaiztzen; ba eta hortako jakitatea ere. Egon den herrietan bada harek eginikako asko lan; bera langile.

Bikari egon zen sei urthe Hasparnen; erretor Bidarrain hamar urthe: gero Atharratzen hemezortzi. Azkenik Baionan kalonje. Han hil da eta Senperen ehortzi, elizako ohoreak Baionako katredalean izanik.

Ehorzte horrek orhoit-arazten gitu Hasparnen bikari zelarik 1858an izan baitzen izigarriko eritasun bat, sukhar ustela, etxe baxharretik hiru, lau jendetaraino ereman zituena (ez kolera denboran; hura lau urthez lehenago zen); orhoitzen gira entzunik batzuen eta bertzen ahotik, eriz eri zabilalarik, kuraia handia erakutsi zuela.

Omen zion: sekulan egitekotz, orduan zitakela behar pilota partida eder bat egin, jenden gogoaren arintzeko. Hura behar zen izan, uraren

gainean pilotariei beha egonen zena, uste izaiteko Kaskoina deithu pilotari handiaren eta haren laguneren pilotan ari ikusteak haizatuko zuela gaitza.

Omen zion eritasunak baino jende gehiago zeremala beldurrak, izialdurak, edo bederen askori eritasuna izialdurak loth-arazten ziotela.

Hain xuxen, bertze anhitz bezala, orduan zen hil, sukharra bildurik, Kaskoin pilotari famatu hura.

Nolazpeit bethi pilota partida handi bat segurik egin zen. Ezen hiltzerako bezperan, Kaskoinak ohera ekhar-arazten omen zituen, berak galdaturik, partidaren berriak, ponduz pondu, ari zirelarik pilotariak plazan.

Ordu berean sukhar usteletik hil zen Hazparne Hazketan neskato gazte bat; izialdurarekin oro ihes; hilketariek ere ez nahi kutxan sarthu hila. Adéma apheza hilaren bilha han.

Ikusiz auzoen beldur-ikhara, bi hitz erran zazkoten, ez behin ahanztekoak; hartu berak hila besoetan eta sarthu kutxan.

Orhoitzapen lazgarri hortaz bertzerik izanen dugu aiphatzeko, eskualdun aphezaren ondotik mintzatuko girelarik egun zortzi koplariaz.

Eskualdun Ona, 1907-12-20

Floquet-Renaud

Hilabete hunen hamarrean, etzi zortzi, Doniane-Garazin pesta baten egitera doazi Eskual Herriko eta inguruetako framazonak.

Alegia Errepublikaren ohoretan dela pesta hori, framazoneriak du hor eskualdunen libertatea eta erlisionea zangopean dauzkala erakutsi nahi.

Bi gizon hor aiphu direnen ohoratzea estakuru bat da, bertzerik deus ez. Egiazko xedea, eskuko erhiak iguzkitara bezen ageri dena da: gutaz eskualdunez nahi dutenaren egiteko, nausi ditugula erakustea, framazon hoiek.

Hoik ditugula etsai, badakigu engoitik aspaldi; baina oraiko huntan bezen agerian ez dabil-tza bethi.

Hemengo framazonek Frantziako framazon bilkura guziri galdegina zioten laguntza, pesta hortako.

Guti edo anhitz, orok hitzeman bederen diote, Floquet framazon zenaren ohoratzeko zer-beiten emaita.

Framazon bezala dute beraz ohoratu nahi Floquet framazon zena, eta ez eskualdun bezala.

Nehon guti du egundaino erakutsi bere burua eskualdun bezala; guti baino gutiago: bat ere ez.

Donianen sorthua zen, bainan ez delarik hain aspaldi hila, nor othe da Donianen orhoit hura ikusirik sorherriari nornahik ere daukon atxiki-menduaren erakusten?

Non zer da Donianeko hirian hari esker eginik? Haurdanik urrundua sor-herritik, gazterik paristartua, noizetik noizera heldu zen Eskual Herrirat bere ahaide batzuen ikustera; hori ere bakan, zeren hemengo ahaide hurbilenak beraz bertzelakoak baitzituen.

Bainan hauk ere ez Doniane Garazin. Aiphatzen ere ez zuen Donianen sorthua zelakorik, eta haren berri dakitenek diotenaz, ez omen zuen laket, bertzek aipa zezoten ere sor-herria.

Hots, arroztua zen osoki, eta goizdanik. Haren gogoia ez zen hemen.

Sor-herriari, bihotzez edo buruz, nolazpeit, azkenean zangoz bederen atxikiak direnek badaukate beren herritarrekin.

Gizon publiko bilhakatu nahi direnean sor-herriko deputatu edo zerbeit sartzat lehiatzen dire. Hunek ez du hortaz behin ere axolarik agertu.

Ahaidetasunezko atxikimenduak balin bazauzkan, ez ordean eskualduntasunezkoak.

Eskual Herriarentzat bereziki, ez eta bere sor-herriarentzat ez badu deus egin, Frantziaren ongi-egile izan othe da? Zer ongi du egin?

Hogoi-ta hamar urthe huntan framazonek eta heiekilakoek gure erlisionearen kontra egin lege tzar eta gaineratiko jazarkunde dazkitzuenak oro *ongiak* balin badire, hainitz ongi egin du. Hala ez badire, gaizkirik baizik ez du egin.

Gizon batek bere buruaren altxatzea, ohoretarat heltzea, Deputatuen bilkurako president behin baino gehiagotan izaiterainokoan, buru puska bat bazuelako marka da. Bainan sor-herriko jendearen eskerren merezitzeko, behar da bertzerik.

Horra odol hotzean egia, eskualdun giristino arnegatu dohakabe zenarentzat gehiagoko jan-hizarik, ez aiherkunderik gabe.

Hein huntaraino ere nahiago ginuken ezinbertzean ez aurkitu hemen huntaz mintzatzeko.

Floquet framazon, erlisionearen etsaienatarik bat hil zenean, egin gaizkiaz urrikitu gabe; gero ehortzi zutenean bere lagun framazonek, elizako sar-jalgi bat, ez fritsik gabe; orhoit gira, zer bihozmina izan zen hemengo eskualdun giristino, haren ahaide hurbilentzat, erlisionerik gabeko ahokia bati ezin jarraikiz, berak berex joan behar izan baitziren eliza batean othoitz eta nigar egiterat.

Orhoitzapen samin horren erreberritzeak oraino ere bihotza hautsi behar baleie bizi direnei, ez da gure falta; eskualdun arnegatu edo arrotz axola gabe, hemen gaindiko framazonen gain doala.

Michel Renaud, bere itzalekin, eskualdunago zen; garaztarrago ere.

Giristinoago? —Ba balinba bat ere izaitekotz. Izaitez, sinestea bazuela zion berak, eta daukagu zinezkoa.

Eskual Herriari ere atxikiagoa zen, bere heinean; bainan erran behar da, ez zen gizon handia; ez handiaren aldekoa ere.

Gizon ona ba, edo bederen bihozdua. Ezen bihozdu eta *on*, biga dire; nahiz ongi doazin, elgarrekin direlarik.

Buru baino bihotz gehiago zuen. Enperadore zena nausitu zenean, Frantziako lurra gal-arazi zioten gizon zenbeiti; hetarik bat zen hau. Gero berriz utzi zuten sartzerat hobeki eginen baitzuten, ez kentzea.

Gauza hitsa baita bethi —nehondik ahal bada ez egitekoa— gizonari bere sor-herriaren gal-araztea.

Hiruetan hogoi-ta hamarreko gerlan, engeiatu zen soldado, ja 59 urthe zituelarik. Hortakotz bereziki luke merezi eskualdunen orhoitzapena. Bainan egia den bezala erran dezagun bururaino; geroztik senator izan delarik, boza behin baino gehiagotan eman du erlisionearen etsaien alde.

Nola egin zuen hori galdatzen ziotenei, ihardesten zuen: Pariseraz geroz, hango lagunek beretzen zutela; han sarthuz geroz ez zela bere buruaren jabe.

Gizon piru ahulekoaren atheraldia hori. Bainan egia zuken. Buru guti, eta hura beroa, barka zakioken bertze bati baino behaztopa gehiago.

Ororen buruan, daukagu, Michel Renaud zena hemen estakuru bat dela, eskualdun zenbeiten eta bereziki soldado ohi zahar andana baten biltzeko pesta hortarat.

Lehen eta azken xedea, xede nausia framazonen gogoan —bertzalde berek errana, hau— framazoneria Eskual Herriaz jabetzea da; jabe direla, nausi direla, zangopean gauzkatela, sendi-araztea.

Horra zertako, igandean zortziko pestan aurkituko diren, hemen gaindiko framazon guziak; heien esklabo eta eskumakil, eskualdun giristinasunaz ala jazko haizeaz bardintsu axola dutenak; gero edozoin pestaren usainera laster egileak.

Bertzeak egonen dira etxean.

Eskualduna, 1910-07-08

EUSKALTASUNA

Zezen-kurtsak

Egun zortzi erraiten ginuen, frantses eskualdunak osoki *kaskointzen* ari garela; eta aldizgure auzoan Espainiako eskualdunak, ari direla *españoltzen*.

Ez dakit oraino ez othe garen gu hemen Frantzian ere *españoltzen* ari? Bertze solasik nuen alta egungotzat gogoan; baina inguru hautako kazeta guziak zezen kurtsez mintzo direnean, ez nauke nik ere hitz bat edo bia erran gabe kurtsa horietaz.

Badut beldurra, ez dutela orok ene errana onhetsiko; nahi ez badute ez. Baina erran dut, eta diot berriz ere garbiki *españoltzen* ari garela Frantzian. Eta nor? Ez baxharrik gu hemen Frantzia hegi huntako frantses eskualdunak, baina barnagokoak ere, frantses guziak *españoltzen* ari gare.

Ez liteke gaizki, *españolen* aztura onak bagintu. Baina onak utziz, makhurrak eta tzarrak hartzen ari ditugu ordean.

Berehala erran dezadan, gehiagoko itzulika-rik eta elhe alferrik gabe, balin bada Espainian aztura zoro makhurrik, hori da, zezen-kurtsetako hori. —Ba othe? —Ba, ba otherik gabe, hori da erhokeria handienetarik bat. —Ez dakit alaxintxo, erran bazineza Espainian, harrika zintzazketela españoiek. —Sinhesten zaitut. Hortakotz nago Frantzian, eta nahi nintuzke ikhusi zezen kurtsak hemendik urrun, mendi horietaz bertze aldean. Dagozila han, zezen-hiltzale guziak, hunat ethorri gabe. Gutartean odol eta orro gose direnak, doazila Donostiarat, edo nahi badute, Madrilerat. Guk ez dugu Frantzian holako beharrik. —Zer mintzo zare, jauna? —Mintzo naiz, gogoan dudanaren erraiteko. Arren daukat badugula Frantzian jostetarik aski, bereziki guk hemen, Eskual Herrian. Bakhotxak bere gustu. Badute españoiek solas huni doakon erran zahar bat: «*hay gustos que merecen palos*». Erran nahi baita badirela gustu batzu, iphurdian zartakoak merezi lituzketenak. Hetarik bat da españoiek zezen-kurtsentzat duten errabia hori. Itsutuak dire horietara. Nahi badute ba; ez da gutiago

egia josteta bat dela, eta bertze aldetik salbaijosteta bat.

Zer ditake haurkeria handiagorik, abere basa bat gizon batekin borroka ikhustea baino? Eta zer salbaikeria itsusiagorik, gizona eta zezena, hil edo bizi, han ar-araztea baino: bat adarrez gizonari tripak egin nahiz; bertzea ezpataz, bi sorbalden erditik zezenari bihotza zilhatu beharrez? Zer atsegina, zezen gaizoa khordokan mihia luzaturik hiltzen ikhustea! Gizona hiltzen bada, hanbat gaixtoago harentzat! Ehortz, eta bertze bat bilha. —Eta hilaren arimaz, nor da orhoit? Nor da khexu dohakabe haren bethiereko ethorkizunaz? —Nehor ez. Egiazki harrigarri da ikhustea mundu katolikoan den populu fededun handienetarik bat, Espainiako populu zahar eta ederra, aztura zoro eta krudel horri den bezen atxikia! Aspaldikoa dute; eta deusek ez nehork ez diote hori utz-arazi ahal izan. Alferretan izan dire Elizako buruzagien erranak, ba eta gobernamentuko aitzindarien mehatxu eta gartziguak.

Frantzian ere halaber gerthatuko othe da? Agian ez! Badugu esperantza, giristinotasuna-

rengatik ez bada, bederen gizontasunarengatik, laster aseko dela eta nardatu Frantzia odolezko eta hertze zilhatuzko ikhusgarri okhaztagarri horietaz.

Luze daramat solasa; bainan ez nauke hemen aipatu gabe, iragan arrats batez jaun frantses batek erran dautana.

Burdin bidez nindoan, baiones bi jaun gazte-ekin mintzo: hek biak beren kurtsez espantuka; ni aldiz kurtsen kontra. Hek gora, ni gorago. Ez eta-bai askoren ondotik azkenean erran nioten: «orizue, jaunak, atxik azue zuen eskualdea, nik nerea. Bainan uste dut, erlijionerik aipatu gabe ere, gizonez gizon, frantses anhitzek, frantses direlakotz, nik bezen higuin dituztela zuen kurtsa tzarrak».

Guri buruz xokho batean jarririk zagon gorago aipatu bertze jauna. Ez dakit nor den. Arro-tza zela ageri zuen. Gutarik nehor ez zuen eza-gutzen; bainan bere zokhotik solasaz jabetu zen, gora-gora ziolarik frantsesez: «*monsieur, vous avez raison. Les courses de taureaux, ce n'est pas digne de nous, Français. Et après tout, si*

nous en sommes là, tant pis! Car c'est un signe de décadence».

Erran nahi baitzuen, frantses izaitea bera aski behar litzakegukela kurtsa zoro eta krudel horien arbuiatzeko; eta oroen buruan, hortaratuak balin bagare Frantzian, hanbat gaixtoago! Zahartzen eta zartzen ari garela marka.

Aithortzen dut atsegin handi egin zautala hantxet jaun arrotz haren atheraldiak. Nor ere baitzen, gorri ala xuri, katoliko ala protestant; bardin litzakedan orduan; eta edonor izan zadin, elgarrekin jautsi bagine eta gelditu behar izan bidean, bihotz onez pagatuko nion pinta-erdia, ba eta osoa ere kurtsa horien ondotik dabilzan zenbeiti baino gogotikago!

Eskualduna, 1894-10-05

Bi aldetarik

Ez du aspaldi mintzatu garela hemen Eskual Herriaz eta Eskual Herriak arrotzen begietan bethidanik daukan aiphamen bereziaz.

Iragan egun horietan atsegin handirekin aipatu ditugu eskualdun zazpi herrialdetako semeek elgarretara bildurik egin dituzten besta ederrak.

Ba, eder da eta gozo da ikhustea, nolako atxikimendua duten elgarrentzat bethi, Nafarreko, Alabako, Biskaiako, Gipuzkoako, Zuberoko, Garaziko eta Laphurdiko eskualdunek.

Eskualdun guziek elgar anaiatzat ezagutzen dute bethi eta orotan, itsasoz ala mendiz elgarretarik urrun bereziak izanik ere.

Deusek ez du behin ere batasun hori hautsi ahal izan, ez gizonek, ez eta mundu huntako gauza guziak azkenean higitzen dituen *denborak*.

Nork daki zenbat mende eta mende iragan diren gure lehen arbaso eskualdun zirenen hiltzetik hunat? Nork daki? Eta bizkitartean bertze

jendakia batzu haizeak harat-hunat erabili ondolan erhausten eta suntsitzen zituelarik, eskualdu-
nek bethi atxiki dituzte beren sor-lurrean erroak
azkar.

Gure orhoitean berean, zenbat gora-behera,
zenbat gerla eta bertze makhur ez dire gerthatu
toki hautan edo hautarik hurbil, hemengo buru-
zagi zirenen artean? Gu bethi bihotzez elgarren
haurride. Batzu menditar, bertzeak zelhaitar edo
itsasoar; batzu frantses, bertzeak español, bai-
nan oro bardin eta bethi *eskualdun*; oro elgarren
herritar.

Dugun atxik bethi batasun hori; eta hortakotz
datxikagun orok sinheste bat eta mintzaia bat.
Ah! baginaki ongi, zer eta zenbat zor diogun
gure *eskualduntasunari*! Izen hori eta izaite hori
galduz geroz, deus ez gintazke. Horri esker gare
oraino zerbeit eta norbeit gu, Frantzian eta
Espainian.

Eskualduntasuna begiratzekotz behar dugu
begiratu lehenik gure erlijionea oso eta azkar.
Gero haren ondotik, edo hobeki erran dezadan,
harekin batean begiratu behar dugu eta atxiki
gogoz, bihotzez, solasez eta egitatez gure min-

tzaia zaharra, eskualdunen eskuara gozoa eta aberatsa.

Behin baino gehiagotan jadanik erran dugu hauxet: bainan iduri zauku ez dezakegula erran arduregi, ez eta goregi. Oihu, oihu nahi ginuke egin, eta Frantziako eta Espainiako eskualdun guziei adi-arazi. Batzuek eta bertzek badukegu aditzearen beharra; atzar gaiten eta erna, nahi badugu eskuara, gure mintzaia begiratu; ez balin badugu nahi utzi osoki galtzerat.

Bertze orduz hemen berean erran duguna, *kaskointzen* edo ez dakit zer bilhakatzen ari garen Eskual Herrian. Zinez egia da.

Gu hemen Laphurdin eta bertzetan oro *kaskoin*, *biarnes* edo *obernes*, pitzun eta xanfarin... Espainian aldiz español eskualdunak osoki *españoltzen*.

Badakit hemen zauri minbera bat ukitzen dudala; ez nintuzke nahi Espainiako gure eskualdun anaiak aphaldu nehoren begietan.

Orok dakiguna da Espainiako eskualdunak gu bezen eta gu baino gehiago ere atxikiak direla beren eskualduntasunari. Hanbat ederki eta azkarki dauzkate beren zuzen guziak... *Guziak*

erran dut, bainan aithortu behar da, guri bezala hekiei ere eskurik gehienak egungo buruzagiek khenduak dazkotela eta zuzenik gehienak eba-tsiak.

Halere ez dute beren buruez etsitzen; eta beren *fueros* ohien ondarrak beren ahal guziez begiratur, goraki erakusten dute ez direla nahi izan orotaz buluziak, ez eta nehoren zangopean erabiliak.

Zer ez dute egiten Espainiako eskualdunek, hango gizon argituek, ba eta orok ere, eskuara beren sor-mintzaia galtzerat ez uzteagatik? Zenbat eskuarazko liburu eta kazeta? Batzuek egin, eskuara garbiz, ahalik hobekiena; bertzeek heda eta irakur.

Bizkitartean ezin ukhatua da, hemen bezala Espainian ere, eskuara mehatxatua dela. —Nola hori? —Erranen dugu egun hautarik batez. Luze-gi liteke aldi huntan xehetasunetan sartzea.

Bainan ageri da; ezin ukha ez gorde dezake-gu, eskuara eta eskuararekin batean eskualdun-tasun guzia, ba Frantzian, ba Espainian ttipitzen ari direla.

Bi aldetarik inguratua, gero ta gehiago hertsuran daukate frantsesak eta españolak eskuara. Iduri du ithotzera daramatela bien artean. Ez othe dugu deus eginen, orok elgar lagunduz, Eskuarari Eskual Herrian begiratzeko ez bakharrik nolazpeiteko iraupen bat, bainan zuzenez doakon nausitasuna?

Eskualduna, 1894-09-28

«Eskual etchea»

Berri on bat heldu zauku Buenos Airesetarik. Hango eskualdun jaun batzuek, Salgizeko seme Martin Errecaborda xuberotarra buruzagi, elgar hitz-hartu dute, toki hetan diren eskualdun herri-tarrentzat zerbeit ongiren egiteko.

Buenos Airesetan dute jaun hoiek beren fortuna egin; eta hemen Eskual Herrian sorthu zirela ere orhoit dire bethi. Erakutsi nahi dute beraz bai beren sor-herriari, bai Buenos Airesetako eskualde, heientzat hain on izanari, ez direla esker gabeak; ez bihotz gabeak; badakitela beren zorionetik bertzei pharte emaiten.

Lurrik hoberenerat bota zazu hazirik hobere-na: bihi anhitz sorthuko dira eta ederki handituko. Ba ordean zenbeit lurpean geldituko ere, gal-durik.

Gizon hazi onik balin bada, eskualduna da; eta berriz Buenos Airesetako lurra, lur bat pare gabea. Halarik ere lur hartan eskualdun zenbeit bethi galtzen, nahi eta ez. Dela eritasun, dela tratu okher, errekontru txar, lagun ahul edo eza-

zol, suerte gaixto, berek dakitela edo ez dakitela nola, burhaso eta haur, hanxet familia osoak ikhusten dire miseria gorrian; beren sor-herritik urrun, urrikalgarri.

Gorphutzeko miseria baino hitsago arimakoa; eta huntarik izanki han trumilka.

«Non da hobe gizonarentzat, zioten galdegiten behin amerikano bati, Ameriketara ala Eskual Herria?».

Amerikanoak errepusta: «bizitzeko, bego Amerika; haatik hiltzeko, Eskual Herria». Erran nahi: gorphutzarentzat, sakelarentzat, abere, azinda, errekontentzat, han, han, hobe. Bainan arimarentzat lekhu hotzak hek, eta murrizak: elizak bakhan, bakhan aphezak; erakaspak eta etsenplu on guti; txarra frango.

Arimak galtzen ez badire ere, ahultzen, laztzen, eritzen.

Beraz Buenos Airesetako eskualdun on heiek lagundu nahi dituzte beren herritar beharretan direnak: zahar ezindu, gazte ahul, edo eri haur umezurtz; berenaz ezin egin, eta jaberik ez; nahi diote ahalaz esku eman orori, eta laguntza. Eskola, eritegi, etzateko atherbe, sendagailu,

mediku... hots behar diren laguntza guziak. Ez oro berehala betan, ez; bainan ahal arau, behar-
renetik has.

Oraidanik lur bat erosirik, atherbe handi baten egitera doazi, deithuko baita «Eskual Etchea».

Hasteko lehenbailehen, han gaindiko eskualdun semeak, beren haurrak bezala burhaso pobrenak ere nahi dituzte argitu eta altxatu gizonki, girixtinoki.

Hemendik harat doazin gazteak, bereziki neskatzak, nahi lituzkete beiratu, bidatu, eror ez diten otsoen aztaparretarat.

Hoik orok ordean galdatzen baitute, ez bakarrik diru, bainan buru eta bihotz, beso eta bulhar, eta begi. Ez baitire berak egiten diren lan batzu. Serora eta fraide, edo aphez, gorphutz ala arima laguntzaile, khar aphur batekin eskualdun odoletik zainetan behar baitute izan *Eskual Etche* hortako lanei lothuko direnek.

Hortakotz galdegin diote gorago aiphatu Jaun Martin Errecabordak eta haren lagun aberats ongi-egile heiek, Eskual Herritik harat joanak diren beneditanoei, ea lagunduko dituztenetz

beren xede ederretarik bederen zenbeitetarantz
heldzen.

Beneditanoak ez direlaketz aski han direnak
holako lan bati lotzeko, lagun bilha dabilta. Aita
Iñazio Gracy azkaindarra, Buenos Airesetik sei
ehun kilometre urrunago Vitoria deithu hirian
kokatuak diren beneditanoen buruzagia Eskual
Herrian dugu, lagun bilha ethorria.

Fraide ohi ala fraide gei, ala aphez gazte edo
gei, fraidegoan sarthu gabe, langile lagun, haur
eskolatzaile ala misionest, harat joan nahi duke-
tenen hartzera dago, berekin eremaiteko; edo
geroxago bardin.

Hilabete bat badu hitzemana giniola obra
eder horren aiphatzea *Eskualdun On*-ean. Ezin
heldu gira.

Guregatik behartu zaio berak duen kharra
eta hedadura. Ezen solasa hemen deramagula-
rik, jaun gazte eskualdun bat heldu zauku gaine-
ra: «Agur. —Bai zuri ere. Non zabilta? —Ori ez
da egia bezalakorik, Ameriketarat noha; hola eta
hola. —Gerthatzea da gehiago! Behazu zeren
igortzera nindoan *Eskualdun On*-erat. Zure izena
eman baneza ondarrean, ongi loake. —Ez eman

othoi. Semenarior handitik ere badira, uste dut hiru, ethorri beharrak. —Hobe segur. Beharra den tokian, eta haizu ongi egitea, eta bertalde laguntza eskaintzaleak izanki, zoazte gogo onez».

Eskualdun Ona, 1905-03-10

Gernikako Arbola

Eskualdun guziek badakite izen hori, Gernikako arbolarena. Badazkitzate ere delako arbolari gipuzkoar Iparraguirre koplari handiak eman kantuen airea eta lehen hitz hauk, orok: «*Gernikako arbola, da benedikatua*».

Hitz guziak ez dazkitenentzat emaiten ditugu egun, solas-aldi hunen ondotik.

Bertze edozoin bezen ederrak dire eta ederragoak asko baino, kantatzea laket dutenek ikasteko eta kantatzeko, ala ostatuetan, ala ezteietan ala noiz eta nonahi.

Haritz bat zen arbola hori, ederra, gaitza handia, zaharra. Mila urthe bazituela zioten, bizi zelarik.

Hiltzerakoan utzi zuen ondoko bat, bere hazitikakoa. Hogoia bat urtheren ingurua du sorthurik, lehengoaren tokitik zenbeit urhatsetan.

Zahar zena ere han daukate, hila, ba, baina ahalaz osorik, berinazko atherbe batez inguratutik.

Duela zazpi urthe, mila bederatzi ehun eta batean, erain zituzten zazpi ezkur, Gernikako arbola zenaren ume hogoi urthe dituelakoaren hazietarik.

Nahi zuketzen zazpiak sorthu balire eta handitu, eskualdun probentzia diren bezenbat izan ziten; lau, Espainiako lau probentzientzat: Nabarre, Bizkai, Alaba, Gipuzkoa. Hiru, Frantziako hiruentzat: Lapurdi, Baxenabarre, Zubero.

Zazpi ezkurretarik biek huts egin dute. Bortz baizik ez dire jalgi eta handitzen hasi. Hetarik bat, jats-ondo baten goratasun eta loditasuna dituela, ikusi dugu iragan larunbatean landatzen Ustaritzeko Herriko-Etxearen aitzinean.

«Centro Vasco» izena duen eskualdun espagnol sozietate batek igorri dio haritz landare hori Ustaritzeko herriari; han ere bertze orduz, *kapito-harri* deitzen den tokian, *Haitz* izena duen jau-regitik hurbil, omen baitzen bertze orduz, haritz bat, edo hobeki erraiteko, hariztegi bat; espagnol eskualdunak Gernikako haritzaren pean bezala, biltzen baitziren hariztegi hartan, Lapurdiko 33 herrietarikako gizonak; herri bakhotxetik bat. Ustaritzeko *Biltzarra* deitzen zuten.

Harrizko bi alkhi omen ziren; bat presidentaren, bertzea sekretarioarentzat.

Jaun hek biak jarririk, bertzeak xutik, poneta buruan, mizpirazko makhilaz lurrari, bizkarraz haritz bederari zagozila, egiten zuten *Biltzarra* edo *Zaharren bilkura*.

Han bakotxak bere herriaren eta orok Lapurdiko 33 herrien zuzenak elgarrekin aiphatzen zituzten eta finkatzen; inguruetako buruzagi, errege eta orori buru egiten ziotela.

Lapurdiko herri-nausi zen orduan Ustaritze. Baxenabarreko aldiz Doniane-Garazi; Zuberoko, Maule.

Maule, Doniane, Ustaritze: hiruetarik azken hau zelakotz ohiko *biltzarraren* orhoitzapena zaukana, Ustaritze dute hautatu español eskualdunek, beren haritz-landarearen eskaintzeko.

Tokiaren izena daukate holetan oraino *Haitzeko* jauregiak eta Kapito-harri delako sorhopil haiztegiak.

Bertze izen bat du *Kapito-harrik* Larrosoroko eskolier ohien artean: deitzen dute *bois de six cent six*.

Harrizko mahainaren eta bi alkhien inguruan egiten zelako *biltzarra* deitzen zuten *kapitul* edo *kapito*; latinez erran nahi baitu: bilkura.

Izenak badirau, bainan Erreboluzione handiko denboretan, Ustaritzeko biltzarra gelditu zen. Ba eta harekin Frantziako eskualdunen libertatea behingotz galdu. Agian ez bethikotz.

Halaber Espainiako lau eskualdun probentzietan ere, batzu bertzeen ondotik galdu dituzte gure aneiek ohiko zuzen zaharrak; Espainiako erregeek anhitz mendez utzi zazkoten eskuak oro, edo kasik oro edeki dazkote azken urthe hautan.

Dituzten ondarrak, ohiko *fueros* deitzen zituzten dretxoek itzala bederen oraino beiratu nahiz; ezin etsituz oraino ere noizpeit, Jinkoak nahi duelarik, Eskual Herria eta eskualdunak, eskualdun guziak beren zuzenen jabe ikustea, biltzen dire oraino ere Gernikako arbola hilaren ondora eta haren ume gaztearen azpira español eskualdunak.

Han elgar sustatzen dute Eskual Herriaren, eskuararen eta elgarren alderako atxikimenduan; kantatuz bethi «Gernikako arbola».

Arbola bat, handi alattipi, berenaz deus guti da. Ea zeren orhoitzapen dagon? Nor den haren itzalean jartzen, eta zerentzat, zertako?

Joanak joan; ez Espainian ez Frantzian, ez ditzagun berriz ikhus iragan denborak, orduko *biltzar* eta gaineratikoak, beldurtzeko da.

Atsegin egiten ordean halere lehenagoko orhoitzapenek.

Horra zertako nahi ukhan dugun hemen aipatu, nola duten joan den larunbatean Ustaritzerat ekarri, eta han landatu Gernikako haritz aita-so zenaren ume gaztearen bortz umeñoetarik bat.

Goizetik igurikia zen Ustaritzen arbola hori; baina Hendaiako guardek ez dute utzi sartzerat, haritzetan eta orotan ari diren gaitzetarik baten edo bertzeren kotsua othe zuen beldurrez; arratsaldea zuen, sartzeko baia ardietsirik, xedera orduko.

Eguerditik bi orenetan landatu beharra, landatu dute bortzak irian. Asti gehiagorekin bazkaldu dire Olhagaray Jaun auzapezaren etxean Legranddeputatua, d'Arcangues, kontseilu jene-

ralekoa, eta ustariztar etxeko jaun multzo bat: xapeldun, bonetun, orotarik.

Bertzalde jinak handik eta hemendik, batzu galdearekin, bertzeak galderdirekin edo beren baitharik, baginen bospasei arrotz.

Hanxet egon gira, bidearen ganean zutik hiru oren, txarrenak gogoan, eta zenbeitek mihian, elgarrekin.

Ederki behartu baitzaut behinik behin niri, solas egiteko, baigorriar adixkide bat. Goraintzi gaizo puska onari.

Eguerdiko janatordua hartu dudan etxekoek ez zakiten arbolarik landatu behar ez eta deus ere bazela herrian. Arrotz bazkaltiarak deie berria ekharri larunbat goizean etxera. Ustaritze-ko karrika bethean hori, Herriko-Etxetik zenbeit urhatsetan.

Ez da erraiteko baizik, xehetasun hauk oro bardintsu *berri* direla izanen bihar larunbatean, zortzi egunen buruan, ustariztar *Eskualduna*-ren irakurtzalentzat ala nongo nahikoentzat, bardintsu.

Dena den, landatu dute arbola. Mintzatu ere dire, eta ederki lau Jaun: d'Arcangues, Legrand,

Daranatz apeza eta Gorostiza espagnol medikua; lehena eskuaraz; bertze biak frantsesez eta azkena espagnolaz.

Gero kantatu dute orok balsan: «Gernikako arbola».

Handi bedi Ustaritzen Gernikako arbola. Pitz bedi, atzar bedi eta azkar, haritzarekin, Espainian eta Frantzian eskualdunen libertatea. Ba eta zinezko libertate on guzien ithurria: erlisio-nea.

Ez da halako haitzikez bertzerik.

Eskualduna, 1908-03-27

Frantzia eta Espainia

Holetan Afrika Marok delako herrialdeaz hor auzitan gira, ez bakarrik Alemaniarekin, baina Espainiarekin ere.

Hau bazauken eta bazagon ere ixilik, bere onetan, ez balu ikusi azkarrago bat guri oldartzen, iduri berehala borroka gerlan hastekotan.

Egundainoko guziena da: handiak elgarri jazarri direneko... bertzeak ere saingaz, haumak bederen hastea; non ez dautzuten bazterretik ausiki eginen, zure izariko etsaiarekin lothua zirelarik, edo lotzera joaki.

Ez da gizontasuna, eta bere buruaz oro baino hartuago denarentzat eder baino itsusiago da; zuzenazko ez-baia bertzalde.

Aspaldi du, mendeak ditu, Espainia Frantziak bekaizti dela; mendeak, begietan gituztela gure auzoek; eta ez gero, uste bazinute ere, bakarrik hango nonbeiko Espainia barneko eta beherekoek, baina hor gure auzo hurbil eta *eskualdun* aneiek ere; orok ez bada, frangok.

Beren *fueros*, ohiko dretxo eta libertate galduez aher direla Espainiako buruzagier, gu Frantziako buruzagi ditugun bezalakoeri bezenbat eta anhitzez gehiago; noiznahi gerla piztekotan —ahoz— uztarria gehiago ezin jasanez.

Zazpiak bat behar girela bethi egon eskualdunak elgarren haurride mintzaiaz bezala bihotzez; eta gero noiznahi makurbide eta gerlabide, eta auzibide. Garazi aldeko mendietan abere eta azinden alhapidez bakerik ez dukegula; guarda eta karabinero, ez kontrabanda, ba kontrabanda, tinta-minta guzieri lothuak, leihor ala itsaso, zedarri guzietan, eta zoin zorrozki!

Bethi heienak handienik, gureak deus.

Populurik ez da lurraren ganean, elgarrekin guti edo aski makur, ba eta gerla handi zonbeit ere ukan ez dutenik, noiz edo noiz, edo ukaiter.

Bismark zenaren denboran gutik egin du ez baita piztu Espainiaren eta Alemaniaren artean gerla bat gaitza. Ederki behartu zitzeien Aita Sainduaren arartekotasuna, berek galdatua, ikusirik zertara zoazin, beren kaltetan.

Oraino ere, Marok eta Kongo ala edozoin lur puskari lothuak balire bi buruetarik, aleman

matrail handi eta español mando buruak, berak utz, nehor artetik sarthu gabe, orai besarka dauden bezen aihar eta mutur lagozke segur elgarri, eta fite! Ez behin baketzekotan, española seguririk!

Ezen hau badu españolak, orok baino gehiagokoa: Moisen denborako eta oraino lehenagoko makur, hoztasun, auzi, gerla, bataila galduen orhoitzapena baitauka, menderen mende, sekulan ahanzi, ez eta eztitu ere gabe; duela ehun, berrehun urthekoa bardin atzokoa bezen samin eta bihurri.

Beren herriari atxikiak direlako marka —ez othe urgulua minberago dutelakoa, zailago herra?

Jende bakarren, familien, herri osoen ala populu handien arteko makurrak noizpeit uzten dire gogotik ezeztatzerara; Espainian ez. *Hasta la muerte* badiraute.

Ez da mirakulu Napoléon Handi zenak egin kalteaz orhoit baitire bethi, ahanzterainokoa, gizon izigarri, buruz eta orotaz bertzeak bainoagoko hura bera zela zen bezalakoa, gerlatiar nehon etzaukena; haren hobenak Espainiaren

alderat ez direla, ororen buruan, Frantziaren hoben munduaren akabantzaraino; bara bat badutela noizpeit azkenean orhoitzapenik gaixtoenek. Nor non bizi bakean betzenaz!

Bainan ja erran duguna, Napoleonen denboraz lehenagokoa da espagnolak frantsesarentzat duen janhiza.

Dathorkigula nahigabe handixko bat, ez dautzu gordeko bere atsegina bertzenaz deus ikustekorik ez ukanikan ere.

Berak edo beren erregea hemen gaindi dabiltzala, deus ez zeie sobera, artha eta agur. Hek eta gu baino adixkideagorik iguzkiaren pean ez dela iduri, eta gero, horra ikustatea, gutien ustean!

Hortarik joan behar bagira, goazin hortarik; ez gure, bainan espagnolaren nahiz.

Marok delako tokiaz alemanarekin dugun makurrean ez zuen espagnolak sudurra zeren sar... ez sartzekotz gure alde; auzo hurbilenaren eta zuzenaren alde. Baduk hoberik! Azkarrena uste duenari jarraiki nahiago baitu ordean gure auzoak. On diola!

Cuidado, sarri oraiko lagun azkarrari hortzak luzatzearekin, urriki ez dakion, aleman gose, nehork ezin asea lagundurik! Espainiaren kalte-tan gure Napoleon zena bezenbat, xedez bederen, litaken bat balethor alemanen buruzagi, orduan litazke zinak eta minak; ederki merezi-tuak.

Hiruetan hogoita hamar bat urthe ditugu Marok-en zangoa eman ginuela gure aldetik. Denbora gutiz hangotu gira, eta hango jendea guretu, frantsestu, buruz, bihotzez, lanez, orotaz.

Espainiak badu lau ehun urthe bere aldetik han sarthu zela. Zer egin du ordean? Ez hango jendearen gogoia hatzeman; ez bide, ez lur, ez lantegi, ez eta sal-erospen, deus ez du zehe batez aitzinatu.

Lur batez jabetzeko, eta jabetu ondoan bere-tzeko lur hura bethikotz aski balire urtheak, mendeak eta «Nor gira gu» egitea burua goitituz, nausi litake aspalditik hunat Espainia Marok-en eta bertze askotan.

Hala ez balin bada, noren falta da?

Eskualduna, 1911-10-06

Biba Frantzia

Iragan astean behin, gizon bat —ez eskualduna— Baionako etxe, hazi eta bihi anhitz saltzen den batean sarthu da, iduriz kexu. Zer othe zuen eta zerk zerabilan?

Zerbeit erosi nahi eta sakela hutsa? Ala golkoa pozoinez bethea eta ezin egon, xuxen edo makur, norbeiti jazarri gabe.

Dena dela, gure gizona kexu zen biziki, zario-la: «debru apez hoik! Urhats bat eztezaket egin goizetik arrats, nonahi bi, hiru, lau ikusi gabe, karrika hok oro berenak balituzte bezala.

«Hoik gerlarat, behar ederrez: iduri-ta ez jakin orok, on baino hanitz kalteago direla gerlan apezak! Hasteko ez ginuke gerlarik, ez balitz apezik».

«Eta gero, herriaren trahitzeko baizik ez dire. Gerla huntan berean nork daki zonbat den hoitarik Frantziako armadetan alemanaren alde?».

Oro harrituak gizonari beha, burutik othe zuen ala zer?

Bat ere: gerla egun hits hautan, Jainkoari esker, guti diren bezalako barne egosi tzarretarik bat zen, haguna zolatik goiti zariola, dena lohi.

Utzirik behin bere astokerien aurdikitzerat, hanxe elhe gutiz tapatu zuten bi emazte mihi onek.

Aldetik beha bizpahiru gizon, irriz ustelduak, astaputz hura merezi zituenen aditzen ikustearekin, hitzik gehiago ezin atherazko heinera, mata-tua.

Egunak baitire hauk, apez ala edozoin bertze, gu frantsesak Frantzian elgarrez gaizki mintzatzeko! Eta nortaz nor!

Soldado gaizoak hor harat hiltzeko hirris-kuan, zernahi gertha, kontent doazilarik apezekin, hemen gelditu gizon ziri bat ezin egon ixilik, nehork deus galdatzen ez dionean!

Guti da beharrik, holako guti biziki, egun hautan. Behar ere ba. Bakar bat ere ez balitz, hobe litake oraino.

Etsairik aski badugu, alemanarekin.

Eztu ere Frantziak soldado soberarik, dituen hoberenak begiko zikina bezen poxolu ukaiteko frantses gizon zentzu izpirik duenak.

Agorrilaren leheneko arratsean, larunbatetik iganderako gau erditsutan, gerlarat orotako lehen zoazilarik Doniane Garazirat buruz Donazaharren barna, karrosatara bat gazte, —ja gerlak erhoenari furfuriak barna sar-araziak behar zazkon denboran— batek zintzuraren hausteko heinera oihu egiten zuen; «*Biba Frantzia! Fuera Ybarnegaray!*».

Gaizo zoroa! Nor eta nungo baitzen ere, freskatuxea ahal da engoitik, hil edo bizi.

Onik baizik ez diogu desiratzen. Eta zinez egia, ordu berean ere, nahiz ez ginuen atsegin hartu, oren latz hartan, frantses eskualdun soldado baten ahotik atheraldi koska bihurri hura, —halere gaizki baino nahiagoz ontsa jujatu— gogoratu zitzaukun *arnoa* zela mintzo, ez *gizona!*

Bat kaskoinaren, bertzea eskualdunaren bi ahopaldi txar hoik, bakarrak dire, hilabete bat baino gehiago huntan holako bakarrak, gure beharriek entzun dituztenak.

Aiphatzearen ohorea ere hemen egungo *Eskualdun*-ean etzuketean merezi, ezpaltz garbiki eta goraki erraiteko, zoin den atsegina, zoin eder, zoin gozo, ikustea egun latz hautan, frantses guzien, eskualdun guzien batasuna.

Ezta gehiago gutartean politikazko herrarik, ez eta hoztasunik ere.

Diot: *politikazkorik*; zertako behar litake bertzelakorik ere?

Balitz han edo hemen oraino zonbeit piru gaixto, gerla hunek ezeztatu ez duenik oraino, ez dezatela iraun. Egun zortzi giniona: «Fuera herra!».

Biba bakea, gutartean.

Bazterretako berri eztakigu hemen Baiona hirian. Bainan bi gogoeta on eginik gaude, hemengoz hemengo, bospasei aste huntan.

Zonbatekin eztugu solas egin, bethidanik adixkide bagine bezala, osoki arrotz ginelarik, ba eta zonbeitekin etsai, gerla hunen aitzinean.

Hainbertze ondorio gaixto badu gerlak, non *on bat* ikusten diogunean, eta hura gutarteko, herritarren elgarrekilako bakea, herraren orde

atxikimendua elgarrentzat, bihotza hunkitzen baitauku hemen huntaz mintzatzek berak.

Ba, goazin oro ororekin bake. Biba Eskual Herria! Biba Frantzia!

Biba Frantzia!

Zonbat aldiz othe gaude bi hitz hoik aditurik iragan egun eta gauetan Baiona hiriko karriketant!

Bereziki soldadoak ehunka, milaka zoazilarik hiritik burdin-biderat, gogotik zuten, eta dute oraino bethi bulhar guziek oihu egiten «*Vive l'armée! Vive la France!*».

Nagon karrikan dut azkenik entzun, arratseko hamarrak ondoan, ehun, berrehun heintsu hori soldado atabal eta kleron musikaz karrikako bi etxe lerroak inharrosten zituztelarik, jendea etxe alhazetarik, leihoetarik esku zartaka, oihuka, gauaz, ari: «*Vive la France!*».

Zer zautzue, bat, baño ez baitzen ageri, ez orduan ez bertze egunetan ez gauetan, oihuka; «*Vive la Répu...*»?

Hastiaturik othe ordu artean maite zutena? Ene arabera bat ere.

Bainan bakotxak bere baithan egiten zuen:
«begoite aiphatu gabe gutarteko ez-bai guziak.
Frantses bati, edozoini, den gutieneko pena egin
dezokenik ez dezagun adi-araz».

Nehork, ez kazetetan, ez nehon, erakutsi
gabe, zer oihu egin, zer ez, berek beren baitha-
rik dautzuate hatzeman elgarren alderako jende-
tasun, ikustate hori.

Hori deus ez bazautzue, nik eztakit zerbeit
aiphagarrik zer den, egun hautan Frantzian.

Iraganak iragan, ikusiak ikusi, biba Frantziako
populuaren bihotza!

Eskualduna, 1914-09-11

**EUSKARA
ETA BERE EGOERA**

Biba eskuara!

Eskualdunak gare, bai eta nahi ere

Gure xedea zen egun ere oraino mintzatzea, gaixtaginek gure Frantzian eta Eskual Herri maitetan jadanik hartua duten, eta zorigaitzez gero eta gehiago hartzen ari duten nausitasunaz. Xede berean gare oraino; eta Jainkoaren laguntzarekin, xede horri jarraikiko gare bururadino.

Egun, har dezagun hatsa, zuek eta nik, eskualdun irakurtzale maiteak; eta ahal badugu gure elgarren arteko makhur eta gerla solasak ahantziz, goazin egun mintza bakean eta gozo gozoa *Eskuaraz*, gure mintzaire ederraz. Oxala ez baginu zortzi guziez, ez baginu gure biziko egun eta oren guziez, bertze egitekorik, baizik ere gure eskualdun gazetan gure eskualdun herritarreri, lehengo eta oraiko eskualdun mintzaireaz aiphatzea! Zer zoriona guretzat, baldin etsaiek bakea uzten balaukute, eta oro batasunean, haurride batzu bezala, bizi bagine, elgar lagunduz eta argituz arimako eta gorphutzeko

behar orduetan! Baginuke, Jainkoari esker, elgarri zer erran eta zer egin!

Ala ez othe dira gure Erlijionea, gure Eskual Herria eta gure mintzaire gozoa aski ederrak, aski zabalak eta aberatsak gure denbora, gure lan eta gogoeta guzien osoki beretzeko?

Ez zaut iduritzen baditekela mundu huntan deus hanbat gizonaren bihotza hurbilagodanik hunkitzen duenik, nola baitira hiru gauza hauk: erlijionea, sor-lekhua eta sor-lekhuko mintzai-rea. Are gehiago estekatzen da bakhotxa bere herriari eta herriko mintzai-ri, mintzaire hura eta herri hura nehun ez bezalakoak direnean, nola baitira oroen arabera, Eskuara eta Eskual Herria. Zonbatenaz ez gehiago, herri hartan eta mintzaire hartan erroak barna eginak dituenen lur hunen gainean Jainkoak gizonari eman zezaken arbolarik ederrenak, erran nahi dut erlisio-nearen arbola?

Nundik ditazke gizonak aski zoroak eta bihotz-gabeak, egiazko biziaren hazkurria eta indarra dagokoan arbola horren itzalaz eta fruituez berak eta bertzeak gabetu nahi izateko?

Bainan ez gaiten lerra solas batetarik bertze-
ra. Mintza gaiten gure mintzaireaz, Eskuaraz.
Eskuararen gainean mintzatzea gogorat eman
dagokuna egun, da hil-berri bat egun zortzi
labur-laburra frantsesez eman duguna. Bainan
iduritu zauku ez zela sobera berri horren Eskua-
raz ere ematea. Zuzen da Eskual Herria maitha-
tu duen gizon bat, eta bere bizi guzia Eskuararen
ikhasten eta erakusten iragan duena, izan dadin
Eskuaraz aiphatua. Bertzenaz, nahi baduzu egia
erran dezazudan, adiskidea, ez diot nik hor hil
den jaun hari zuk baino gehiago zorrik. Izenez
eta aiphamenez baizik ez nuen ezagutzen, eta
harek ni are gutiago. Bainan zer erran nahi du
horrek? Eskualduna naiz, eta zu ere ba, ala ez?
Eskualdunak garenaz geroz, zor diotegu ezagu-
tza berezi bat gure herriaren ongi-egileer. Heta-
rik bat izan da, aste huntan, Italiako hiri batean,
hil izan den jaun zaharra eta argitua, Lucien
Bonaparte, Napoléon Handi zenaren iloba. Laue-
tan hogoi urthe hurbil bazituen. Nahiz odolez
Prinze semea zen, eta denbora batez, bere
buruaz mintza-arazteko parada frango bazuken,
nahiago zuen bethi ohore handirik eta harorik

gabe bizi. Ez zuen iduriz haren sortzeari johan zitzaiokeen jitea. Bere atsegin guzia liburuetan zuen. Itsutuki lakhet zitzaion Eskuara irakurtzea eta eskualdunekin solasean egoitea. Nehork ez zuen erranen, hura adi eta, bera ere ez zela eskualduna. Nehun diren eta ez diren Eskuarazko liburu guziak bilduak zituen, Jainkoak daki nundik eta nola. Artetik errateko ederki eginen baitzuen liburu hek, nori edo nori, bere ezagun eskualdun bati uztea! Agian bederen esku onetarat eroriko dira! Badira hetarik zonbeit jaun harek berak eginak, nehun hanbat kausitzen ez direnak. Bertze batzu aldiz bertze jaun batzuek eginak dira, baina haren laguntzarekin: hala nola bat baita, Inchauspé jaun bikario jeneralak egina, erdi eskuaraz, erdi frantsesez *Verbe Basque*; bertze bat aldiz Duvoisin iragan urthean Ziburun hil izan den guarda kapitainak egina: *Testament zaharra eta berria*, burutik buru eskuararat itzulia.

Bainan zorigaitzez liburu eder horiek behin ere ez dira hanbat hedatuak izan Eskual Herrian. Egia erratako, ez dira ere nornahirentzat eginak. Latina, frantsesa eta bertze asko gauza jadanik

jakin behar dira, hein hortako liburuen irakurtzeko. Ederki eginak dira; baina nork ez daki gauza eder guztiak ez direla oroentzat bordin on?

Jainkoari esker, badira Eskuarazko liburuak, jende xehek ere irakurtzen ahal dituztenak. Atsegin handirekin ikhusten dugu liburu heien nonbrea bethi emendatuz dohala. Eskerrak diotzategu hemen, gure Eskual Herri maitearen izenean, liburu on heien egileri. Ez detzazkegu hemen oro aipatu. Bertze alde aski ezagutuak dire. *Aski* ez; behin ere ez dira obra onak eta heien egileak aski ezagutuak. Baina bederen erran dezakegu, azken urte hautan bezenbat liburu on eta eder agertzen bada ondoko urteetan, erran dezakegu gure mintzaire zaharra eta nihon ez bezalakoa, izanen dela oraino behin eta behin aipatua munduan. Biba bethi Eskuara!

Iraunen du Eskuarak, Eskual Herrian gizonik deno. Eta goraki erraten ahal dugu: badira oraino gizonak, eta izanen ere ba agian gero eta gehiago, Eskual Herriaren Erlijionearekin batean Eskuara ere gure artean begiratuko dutenak, eta ahal bada —ahal da!— oraino hobeki ezaguturaziko eta maitha-araziko dutenak.

Behinik behin badut uste, goraxago aiphatu ditugun jaun horietarik zonbeitek segurik ez duten oraino bere azken hitza errana. Agian ez! Bainan nola ez baigira mundu huntan *oro orotako*, ez eta, are gutiago, *bethiko*, nahi gintuzke ikhusi, zaharren edo zahartzen ari direnen ondotik *gazteak*, gaztedanik lanari lotzen. Zer laiteke bada ederragorik ikhustea baino, zerbeit dakiten edo ikhasteko gutizia duketen guziak, hala nola aphez gazteak, eta zertako ez aphez-geiak ere? Guziak Eskuarazko liburu zaharretan lehengo Eskuara zaharren ongi ikhasten; eta gero, buruan zerbeit onik ezarri eta bihotzean khar pixka bat phizten zaiotenean, berak ere lan berri zerbeiten egiten; handi edo ttipi, guti bada guti, bethi zerbeit; ez balitz ere egiteko dituzketen predikuak ahalaz Eskuara garbiz egitea baizik! Nunahi eta nornahiren aitzinean, edozoin mintzaitretan, ederki mintzo den gizona bethi atsegin gehiagorekin aditua da. Bethi badu harek, mintzo denean, bertzek ez duten *indar berezi bat*. Orok dakiguna da hori; eta bizkitartean egia hori hobekienik jakin behar ginukenek ardura ahantzten dugu. Ez dezagun bada ahantz, baldin gure

herria maite badugu, eta nahi badugu herrian herriari eman zaion bezala, eta gure ahalaren arabera, *ongi*, ongi hainitz egin.

Aphezez mintzatu naiz eta aphez-geiezez, zeren eta heiek baitukete aizararik edo astirik gehiena, bai eta ere idekidurarik gehiena, gure herri gehienetan, Eskuararen buruz eta errotik ikhasterat eta behar-orduan, bertzeeri irakasterat artzeko. Bainan bertzenaz orori mintzo gare; zerbeit dakiten, eta, aphezek bezala, astia edo aizina dutelarik, Eskual Herriaren ethorkizunaz eta Eskuararen aiphamenaz den gutieneko axolarik duten guzieri. Zer? Munduaren bazter guzietan oraiko eta lehengo mintzaireen gainean jendea bethi argitzen ari, eta guk behar ginukela utzi gure mintzaire zaharra eta ederra galtzerat! Ez, ez dugu utziko. Bertze alde, ez gare baitezpada gal dadin beldur ere. Sobera ditu erroak lurrean barna, eta adarrak lodi eta azkar, ez baditu ere oraino hanbat urrun hedatuak.

Nor ere baitzare, adiskidea, barkha zadazut ene bizitasuna eta luzetasuna. Ez nauke, behin bethikotz, gogoan dudana erran gabe.

Eskuara baizik ez dakienak ez du asmatzen ahal, bertze edozoin nahi mintzaireen aldean zer esku-gaina dagokan eskuarak. Bertze zonbeit bezala hedatua balitz, ongi argi lezake munduan! Hola hola ere, zer dira Eskuarari begiratu eta, hor harat gure auzo-herrietako mintzaire eta erdara guziak? Deus ez, hauts eta errhauts baizik.

Ez gare beraz harritu behar, nunbeitikako jaun handi batzu heldu badira ere, noizetik noizera, bere tokietan Eskual Herriaren eta bereziki Eskuararen aiphamena aditurik, gure herriaren ikhustera bere begiz; eta bere beharriz aditzera bertze nihon ez delako mintzaire hura. Zerbeitiek erraten bide diote bihotzaren zolan, guk hemen zortzi guziez gure gazeta maitearen hastean ezartzean duguna:

Herri alde guzietan toki onak badira,
Bainan bihotzak dio: Zoaz Eskual Herrira.

Ez dezakegu trenka elhea. Bainan nola geldi, berri on bat eman gabe, hasian hasi?

Nihor hanbat izendatu gabe aiphatu ditugun liburuez bertze alde, Eskuara ederra, gozoa eta garbia irakurtu nahi duena dagola begira, noiz

agertuko den egun hautarik batez liburu xahar-berritu bat, zoina deitzen baita *Laborantzaco liburua*, duela mende erdi bat hurbil egina Duvoisin guarda kapitain zenak. Agertzen den bezen laster, aiphatuko dugu hemen. Hitz bat bakharrik egun... bertze guzien ondotik: Eskuaraz denaz geroz gure egungo solasa, nahi diogu bakhotxari berea eman: ez dugu uste baden orai arteo Eskuaraz eginak izan diren liburuetan bihi bat hain garbiki eta ederki eginik, eskuaraz-eskuara, nola baita *Laborantzako liburu* hori. Eta, bertzeak bertze alde, mintzairia bera ikhasteko edo bertzeri irakasteko gutizia duketenei ez diotegu deus garbiagorik eskaintzen ahal, liburu hura baino. Horra gure ustea.

Balin bada nihor hoberik bere ustez ezagutzen duenik, mintza bedi.

Eskualduna, 1891-11-13

Badakigu eskuara

Utz ditzagun egun bazterrerat *politikazko* solasak. Ah! Zer atsegina, bethi ere uzten ahal bagintu! Bakhan baitugu ordean artea, gure gogorako gauzez... eta gizonez mintzatzeko.

Egiazki nardagarri da eta okhastagarri egungo eguneko ez-eta-baiak ikhususiz, aste oroz mintzatu behar izaita. Gogoan duzun hura kasik ezin erran, gerla phiztu gabe. Gogoaren kontra ere alabainan ez nahi mintzatu, asko mintzo diren bezala. Lanak dire. Zer izanen da? Goazin bethi, Jainkoak nahi dueno, eta jo hoberenetik!

Ez da erraiteko baizik langile guziek astean ortziraile bat balin-badute, guk ere badugula bethi bat, eta ardurago biga. Halere bethi esker eta laguntza baino beltzuri gehiago biltzen... Baina zer derasat? Egun gaixto anhitzen artean badituzkegu oren on zenbeit ere; hala nola baitire gure sor-herriaz eta sor-mintzaiaz elgarrekin solasean deramatzagunak. Bai Eskual Herriaz eta eskualdun mintzai zahar huntaz herritarrekin solas egitea da gure gozamen gozonenarik bat.

Dugun beraz goza zorion hori, ahal dukegun oroz, hala nola egun. Zer nahi duzue erran deza-zuetedan eskuara huntaz? Hurbil eta urrun, orotan azkarki aiphatua da eskuara, bereziki azken hamar urthe hautan. Luze edo labur, xuxen edo makhur, asko elhe eta erasia baderabilate gutaz eta gure mintzaiaz gizon argituek.

Egiazko jakintsunak baizik ez balire mintzo, ongi laiteke; bainan halako baten ondotik zenbat elhe-untzi ez dire ikhusten eta entzuten, deus jakin gabetarik ttar-ttar-ttar ari: hau dela, hura dela.

Batek erranen dautzu: eskuara dela debuz egin tresna dorphe, makhurrenetarik bat; ez duela hunek arrotzarentzat ez bururik, ez buztanik; nehork neholere ezin ikhasia dela. Zer daki? Deus ez.

Bertze batek bi begiak eta bi eskuak goitituz eginen derautzu ahotaraka espantu: «zer mintzai gozoa, ederra den eta aberatsa zuen eskua-ra hori! Nehon ez da holakorik». Zer dakike? Deus ez. Arrotzak bezen *arrozki* mintzo dire... nor! Hemen bereko semeak asko aldiz. Eskual Herrian sorthuak, hemen haziak, altxatuak, eta

bethi hemen bizi direlarik, ez dakite eskuara. Zer eskualdunak! Ahalkerik gabe aithortuko dautzute anhitzek eskuaran baino trebeago direla frantsesean. Eder zaiote eta eskuara utzirik «*de parler toujours français*» zintzurretikako *errrha* bat eginez, iduri ez daki norrh eta zerrr badirrela! Balakite bederen ongi frantsesa? Bainan bat ahanzten dute, edo ahantziarentzat uzten, bertzea ikhasi gabe.

Badire bertze batzu, oraino beren ustez eskuara dakitenak. Uste dute ere eskuaraz mintzo direla. Bainan zinez derratzuet: bi beharriak tapaturik ihes joangarri da, heien entzutea. Zer eskuara! Nolako hitz eta hizkuntzak!

Nere herrian ezagutu dut bertze orduz gizon zahar bitxi bat. Ez zelarik zozoa, ez eta ere baitezpada ernea, jostakina zen. Hurrekin *latinez* mintzatzea lakhet zitzaion gizagaixoari. Alta ez zuen behin ere ez latinik ez frantsesik harek ikhasi. Gogozko latin othoitzak ere bitxiki marruskatzen zituen. Halere ordean gure gizona zernahitaz mintzatzerat ez lotsa latinez. Eta nola? Gauzen izen guziak eskuaratik hartzen zituen eta emaiten zioten ondarrean *us* bat,

ustez eiki *us* hori aski zela eskuarazko hitz guzien *latintzeko*.

Gizona deithuko zuen *gizonus*; emaztea, *emaztus*; ogia, *ogius*; ura, *urus*... Holaxet egiten zituen izen guziak. Haurkeria zela emazue; bainan zer behar zen gehiago haurren jostarazteko?

Hori ber-bera da gutartean gerthatzen; ez eskuaratik latinerat bihurtzen ditugulakotz hitzak, bainan ba frantsesetik eskuararat. Behialako xaharrak eskuarazko hitzei *latintzeko us* hura emaiten zioten bezala dute gutarik anhitzek (bai, anhitzek!) franximant hitz batzuen ondotik ezartzea a bat. Eta gero zernahitarik eskuara eginen derautzute.

Ez da baxharrik egungo makhurra; ez zorigaitzez! Aspaldikoa da. Holaxet eginak dire hitz frantses-eskuarazko hauk: *besta, jileta, pantalona, banka, borta*.

Gure arbaso eskualdunek erraiten zuten soineko hoientzat: *gainekoa*, eta ez *besta*, *barnekoa*, eta ez *jileta*; *galtzak*, eta ez *pantalonak*.

Artetik erran dezadan, soineko eta oinetako guzien izenak eskuetarik joanak ditugu. Nehork ez du kasik gehiago aiphu gizonentzat *gaineko-*

rik ez barnekorik, ez manpulisik; ez eta emazteentzat zaiarik.

Athorra-has gelditzera doa gure eskuara gai-xoa. Ezen athorraren izena baizik ez zauku jadanik gelditzen eskuara garbizkorik. Hura galduz geroz, debruak ereman du Manex. Buluz-gorri beharko da ibili, edo españolez, frantsesez eta anglesez aphaindu.

Horra zertaratuak giren, eta itxura guzien arabera tarrapatan ari dugu eskuara, gure ontasun ederra, eskualdunen bethidanikako mintzaia galtzen edo galtzerat uzten. Hitz asko eta asko baditugu holaxet galdurik. Hala nola gorago aip-hatu ditugun hitzak. Bortharentzat arbasoek erraiten zuten *athea*; bankarentzat *alkia*; oraino ere izen horrek anhitz herritan badirau. Noiz arte?

Eta holako zenbat hitz ez ditugu ari ahanzten? Erdi trufaz entzun dut asko aldiz Donibane-Ziburuko aldean *zubia* deitzen dutela *ponta*; oilaskoa, *pouleta*; eta holako bertze bitzikeria... Bainan ez dugu zeren guk donibandarez trufa. Lapurdi guzian, ba eta ere Garazin eta Xuberoan sarthua da eta orotan hedatzen ari *franximante-*

ria. Ez naski orotan bardin; bainan orotan sobe-
ra... Banuke, sail huntarik hasiz geroz, zortzi
astez erran ahala, eta gehiago; xehetasun han-
ditan sarthu gabe halere! Xehatzen hasiz geroz,
non geldi? Egungotzat bedizan aski.

Gerokoak gero, egun erran nahi nuena hau
da: erhotzen naiz, aditzen dudanean askoren
ahotik: «badakigu eskuara; gu eskualdunak gira;
ez dugu eskuararen ikaste beharrik».

Hori bera igortzen zeraukun egun zortzi
hemenxet eman izan dugun letraren egileak.
Alta haren eskuarak bazuen zuenaren beharra!
Xutik doi-doia zagoken, maingu bat *eskasen* gai-
nean dagon bezala.

Ah! badakizu eskuara, diozunaz, adixkidea?
Hobe zuretzat! Ori nik ez dakit nahi nuken
bezain ongi. Aspaldiko aditzea dut: bakharrak
direla gutartean eskuaraz eskuarari loakoken
bezala mintzo direnak.

Denik ere laborari menditarrek oraino badau-
kate hein batean oso eta garbirik mintzaia; bai-
nan frantses izpi bat jastatuz geroz, oro hartara
doazi. Hobekienik eskuaraz mintzatu behar litaz-

kenak dire makhurrenik mintzo, berek ez dakite-
la nola.

Banitzagoke nehor bereziki izendatu gabe,
orotaz mintzo naizelakotz eta oroentzat. Bainan
zertako ez erran zabal-zabala gogoan dudana?
Fraide eta aphez, serora eta errient, beltz ala
xuri, ala gorri, ikhasle eta erakasle: zerbeit giren
edo behar gintazken guziak barne sarthuz, erra-
nen dut azken hitz: «ez dakigu eskuara. Gure
ondokoek are gutiago jakinen dutela beldur
naiz».

Eskuara badoa, gure ez-axolakeriaz. Berriki
jaun batek galdatu deraut: zertako nahi diotegun
eskuara erakatsi *nonbeitko arrotzei*? Hari buruz-
buru ihardetsi diotana dezaket hemen erran oro-
entzat: Eskuara erakatsi nahi giniokete arrotzei,
huna zertako: zeren eta laster, hemendik zen-
beit urtheren buruan ez baita gehiago izanen
Eskual Herrian eskualdunik eskuara dakienik;
orduan izan dadin Alemanian edo Angleterran,
edo mundu zabalean nonbeit norbeit eskuaraz
mintzatuko dena.

Zer erran dut? Berotu zaut burua, eta solasa luzatu, nahi baino gehiago. Barkha... Ez dut hitzemaiten hargatik berriz ez hastea.

Eskualduna, 1895-08-30

Eskuara eskoletan

Hasian hasi, behar othe nitzauzue oraino egun ere mintzatu *eskuaraz*? Engoitik jaki huntarik asexek zaretela beldur naiz. Bizkitartean ez nauke gogoan dutana erran gabe laburzki bi hitzez. Gero aldatuko gira solasez.

Egungo eskoletan asko eta asko ikhasten da, bertze orduz ikhasten ez ginuenik. Badute hor haro eta espantu: hau ikhasten, hura ikhasten dela: ikhasten irakurtzen, ikhasten izkiriatzen, ikhasten frantsesa, ikhasten karkula; ikhasten *L'Histoire et la Géographie; et la Grammaire et la Chimie, La physique, la Botanique et l'Astronomie...* brrrr! zer ez dute ikhasten egungo eguneko haurrek? Hamar urthetan badakite guk berrogoitan dakigun bezenbat. *Uste* bederen dute zernahi badakitela. Bainan badut beldur, *uste* horrek *uste* gehienek bezala erdia *ustela* duela, eta bertze erdiaren erdia ere bai.

Hasteko, nondik nahi duzue hoinbertze gauza sar diten haur baten buruan, zintzatzen ere doi-doia dakiten adinean?

Behin ere deusetako ez dituzketen jakitate batzuen axaletik ausiki bat jasta... iduri zerbait; eta gero hein batera heltzearekin, kuskua hutsa. Ikhasi beharren zituztenak jakin gabe geldi; hala nola baitire bi gauzarik beharrenak: erlisionea eta sor-herriko mintzaia, egun oroz, nahi eta ez ahoan erabili behar duten mintzaia hura, guretzat *eskuara*.

Zer derasaguzu? Erlisioneaz bezainbatean, paso; hura ba, haur guziek behar dute, edo luke te ikasi eskoletan, eskola guzietan; xuri ala gorri, orotan. Bainan eskuara, zertako? Eskualdun ez direnek ez bide dute haren ikhasteko gutiziarik. Hain da gaixtoa, diotenaz, arrotzentzat, debruak berak bere antze guziarekin egundaino ezin ontsa ikhasi baitu!

Ala eskualdunek dezaten ikhasi eskuara zinduke nahi zuk? —Bai, hori dut galdatzen. Frantsesa ikhastea ongi zaut; ongi baino hobeki. Egungo egunean, bereziki muthikoentzat baitezpada *behar* den gauza da frantsesa. Ez naski errotik, hitz guziak xuxen. Nork daki hala. Bainan hots, aphur bat; soldadogoako harat-hunatetan buruzagi eta lagunakilakoaren egiteko doia. Bai

eta salerospen edo zerbait holakotarik bizi behar duenarentzat gehixago ere on da. On da, behar orduan *letra bat* behar den bezala itzulika ahal izatea. Handik harat, bakharrak dire jakitate gehiagoren beharrik duketenak. Bainan Eskual Herri bethean, eskualdun batzu eskuaraz bi lerroren izkiriartzen ez dakitenak baditazkela ere bitxi zaut.

Bitxi ba, bainan hala baita; ez ditake ere bertzela izan. Nola nahuzue jakin dezaten ikhasi ez dutena? —Zer beraz? Eskuaraz izkiriartzen ziniokete irakatsi nahi eskualdun haurrei? —Bai naski eta segur halere. —Bainan zertako ikhas sortzetik ja dakitena? Horri nindagon; zerbait holako atheraturen zinautedalakoan. Eta errazue: frantses hiri hoitan zertarat doazi, zuen ustez, haurrak eskoletarat? —Frantsesaren ikhasterat. —Frantsesaren? Bainan haur heiek badakite sortzetik frantsesa, etxean bethi frantsesez mintzo direnaz geroz; burhasoekin ala auzoekin bethi frantsesez. Badakite beraz frantsesa; ez dute ikhastearen beharrik. —Bai, bainan *hobeki* ikhas-teko doazi eskolarat. Ah! hobeki? Eta guk, ez othe ginuke on eskuaratto hunen hobekixago

mintzatzen eta bereziki izkiriitzen ikhastea? Hori uste duena, zozo bat da ederra, edo ez-azolatu bat, eskualdunaren izena ere merezi ez lukena.

Anhitz banuke hemen erratekorik. Bainan alferretan mintzatzea litake. Behinik behin gobernamentuko eskoletan eskuarentzat toki poxi baten galdetzea inutil eta erdi litake. Barkha *inutil* hitz hori; ez dut hatzemaiten eskuaran solas huni hoin ongi doakokenik.

Erlisionea bezen kasik higuin dute eskuara eta eskualduntasuna oraiko buruzagiek.

Bainan girixtino eskoletan bederen, bertze lanak egitearekin, zer gal lezakete haur eskualdunek, eskuara poxi bat molde izkiriitzen ikhas balezate? Gal, deus ez gal. Irabaz asko, askok uste duketen baino gehiago.

Bertzeak bertze, ahalgegarri ere bada bakho-txak bere sor-mintzai haren izkiribuz moldatzen ez jakitea. Nonbeitko jakintsun handi batzu buruak hautsiak ari dire gure mintzaia ikhasi nahi. Guk iduri du ez dakigula zer egin, hau ezin ahantziz.

Hoinbertze nahasmendu eta ez-azolkeriaren artetik nola dirauken hein huntan ere nago harritua.

Eskualduna, 1896-10-02

Eskualdun biltzarrea

Hendaian ginen beraz iragan astelehenian; harat bilduak ziren elgarretarat lehen aldikotz, Eskual Herri guzitik hogoi ta hamar bat eskualdun.

Bethi begitarte on egin diotegu, ba eta eginen, Eskual-Herriaren eta gure eskuara, mintzai zahar eta ederraren onetan zerbeiten egiterat ekharriak diren guziei.

Daukagu arren, hor buruil hunen hamaseian, eskuarari buruz, elgarretaturik lanari lothu diren gizonak, hoiek eta oraino agian, *elgar ongi adituz* hoitaratuko direnek, on handia egin dezo- ketela, ez berehala, bainan denborarekin, eskualdun mintzaiari. Behin has zerbeitetarik; *zerbeit* hari buruz orok ahalaz *bat* egin, eta jo aintzina; loth bertze lan bati.

Lehen lana, lehenik *hasi* dena, eta nere ar- bera, bururatu arte lanak emanen dituen lana da: *ortografaren* xuxentzea eta hein bat bederen bateratzea. Xuxentzea zer den ageri da: makhur dituzkegun hitz-adarren adarratzea; *a, e, i, o, u,*

s, z, c, k, tz, ts, x, y, j, ch... eta holako zer guziak nahas-mahas; bata bertzearekin, edo bata bertzearen ordain aldizka, nolana; edo bata behar litaken aldi oroz, bertzea, ez litazke behar eman. Hoitarik noiz eta non, zoin da hobe? Batzuen arabera hau; bertzeen arabera, hura; bertze batzuen gogora berriz, oro bardin zer erran nahi du? —Zer erran nahi duen! Deus ez dakitenak edo deusez axolarik ez dutenak dire horrela mintzo. Zer erran nahi duen mintzai batean hala edo hula, ala nolana mintza ala izkriba (hemen *izkribuaz* da solas!). Ez da munduan mintzairik, aiphatzea doakokenik, non ez dituen, hitzen behar bezala xuxen izkribatzeko, bere legeak; eta eskuara litake bakharrik lege-gabea? Eskuara, munduko mintzai guzietan... ez dut erranen *lehena, zaharrena*, ez baitzaut espantua lakhet; baina oren jakinean zaharrenetarik bat, jakintsunek hunen erroak oraino ezin hatzeman dituztenaz geroz; hau bakharrik ortografarik gabea? Hots, *posser la question... ce n'est pas la résoudre; pas tout-à-fait*; baina bethi *la question s'impose* nahi ala ez.

Zertako has ordean *ortografatik*? Orizue egia: ez zaut gogoratu ere, buruzagiei horren galdatzea. Nik uste, hortarik hasi diren... zerbeitetarik hasteko. Haurrak ere hortarik hasten dire frantsesaren ala edozoin mintzai izkribuzkoen ikhas-ten. Eskualdun biltzarrea ere hortarik edo zerbeit holatsukotarik behar zen hasi, ez hastekotz *astomakhiletarik*.

Hek aspaldi ikhasi ginintuen, ez dea hala?

Hitz makhurren xuxentzea bat duzu; ez guti halere, bereziki guk ditugun buruekin: nehorri ez baitzaio bere hura baizik onik; eta gutartean hau edo hura uste edo nahi, hauturik bat ere ja egina ez dutenek ere ez baitautzute holakoetan onhar-tu nahi kasik deus. «Zertako hau? Zertako hura? Zertako ezar, hots, *ortografa* guzia goihen-barren, azpikoz-gora nahasirik?». —Ez da nahasteaz nehor mintzo; xuxentzeaz da solas. Nahasia orai da, baxhotxa bere burutik doalakotz; eta anhitz, buru-buztanik gabe.

Bainan goazin urhats bat aintzinago gure solas-sailari jarraikiz. Diot makhurren xuxentzea bat dela. Bertze lan bat, errexagoa ez dena da: oroz batean guzien *bateratzea*; erran nahi dut

xuberotar, laphurtar, bizkaitar, gipuzkoar eta guziak elgarretaturik, orori har-araztea, *ahal bezenbat ortografa* bera, edo bersua. Batzuk nahi lukete osoki bera. Hum! ni beldur? Bainan heintto bat *bateratzea* ere ja zerbeit litake. Nork daki? Behar bada, aski buruz jokhatuz, deus ez nehor *nahasi* gabe, batera gitazke oro, hala non Santa-Garazitik Hazparneraino, handik eskuinezker Baigorri, Donapaleu, frantses Eskual Herri guzia hartuz, Donibane-Ziburun gaindi Hendaia-ra; Espainian barna Bilbaon, Iruñen eta bertzetan, eskualdun guziek hitz berez bardin izkriba ditzaten izen berak... ahalaz. Bakhotxak bere mintzai-moldea atxik, bainan orok *ortografa* bat. Ez da hitz hori eskuara; bainan bat ere denak badakike, zer duen erran nahi horrek.

Bertzea baino are nekeago izanen da bigarren lan hau. Zuhurtzia handirekin eta neurritz, gauzak ongi haztatuz egin dadila, ez da ezin eginetza. Entseatzea badoako bethi. —Nork onhetsiko du ordean hori, zuhurki eginik ere? —Nahi duenak, eta nahi ez duenak ez. Hor elgarretaturik hitz-hartuko direnek ortografa beraren edo bertsuaren hartzea ere, ja zerbeit izanen da.

Nahi ez duena uztera haizu den bezala, bego nahi duena hortan sartzera haizu. Bakhotxa bere buruaren jabe. Sarthu-ta ere jali nahiko duenarentzat atheak bethi idekiak izanen dire. Behar ere ba. Ez egon nahi edo ezin egon, hor ikhus. Toki hutsen bethetzeko, sar ditezela bertze batzu. Beharrena da, bizi dadin eskualdun eskualzale biltzarre hori. Sorthu da. —Iraunen du? —Agian ba. —Zerbeit onik eginen du? —Zertako ez? Hasi lan hori behin, eta gero... Gero ikhus, bizi denak zer egin. Hauxet dakigu: biltzarre hortaz itsura bar bar bar mintzatuko diren guziek batean bezenbat lan eginen duela bizi bada eskuararentzat urthe laburrez berak.

Eskualduna, 1901-09-20

Bizia ala eskuara?

Ohoinek oihanetan, lephotik aztaparrez lothu-eta, erraiten dautzute: «bizia ala moltsa?». Halaber guk eskualdunek behar othe dugu egun hautarik batez aditu, ohoinak baino areagokoak diren gaixtagin tzar batzuen ahotik: «bizia ala eskuara?».

Eztakigu; beldurtzeko da, bertze asko itsuskeriaren ondotik, hori ere ikhus dezagun, eta entzun. Soinu hitsak dire bazter guzietarik. Ja badute tokitan holakotsu zerbeit eginik; eta bertzetan bertzei bezen ongi, guri hemen jazar dazkikegu.

Estakuru berak dituzte; ba eta gehiago dena, hisia bera, herra bera, janhiza bera, aiharkunde bera.

Batzuen ala bertzen etsai dire bardin: Bretanian bretonen; Biarnoan biarnesen; Kaskoinian kaskoinen; Eskual Herrian eskualdunen... eta *eskuararen* etsai; etsai gero zinez, hil edo bizi, ahalak diraukoteno ez barkhatzerainokoan.

Hil nahi lagukete gure mintzai zahar maitea; lehertu, ezeztatu lehen-bai-lehen. Begien aitzinean eztezakete ikhus; poxolu dute, hots, ezin gehiago. —Zertako othe? —Zoazi zu! Zertako dire diren bezalakoak? Tzarrik baizik deus ezpaitute gogoan!

Duela bi hilabetheren ingurua, hemenxet aipatu behar izan dugu Rouanet paristar deputatu gorri beltz delako batek Eskual Herrian egin zuela zerasalako itzulia.

Zer etzarion jaun arrotz horri gutaz? Zozo, tonto, buzoka eta huntz batzu ginela oro. Eskual Herri guzian etzuen ikhusi emazte uli, gizon tresna eta haur basa, iheskari, deus ezin adiarazizko halako... bere gisako tetele batzu baizik.

Eta hori, zer delakotz? Eskuara delakotz. Eskuara orotaz hobendun. Eskuara khen, eskualdunaren itzal guziak oro khen.

Delako Rouanet hemen gaindi (gezur edo egia) *omen* zabilalarik, haren kideko bertze batzu bazabiltzan omen —holakoekin bethi *omen* erran behar da, deusetan ez baititazke sinhets— Frantziaren zokho mokho guzietan; bereziki Britainian.

Han ere hemengo zinkurina berak; erasia, elhe nahasi, gezur berak: jende gibelatua, deusik ezin adiarazia. Gizon tokilo batzu direla hango gizonak; emazteak bardin; haurrak are tontoago. —Nor dela kausa? —*Breton* edo *betroin* mintzaia dela kausa. Guk hemen eskuara bezala, heiek ere han beren mintzai berezia baitute, haren gain doazi hango gibelamendu guziak; egiazko edo gezurrezko gibelamenduak.

Gezurrezkoak ba, gehienak. Ezen hango jendea nongo nahikoa bezen biphila da, eta ernea. Iphar-aldean soldadorik hoberenak handik jalgitzen ditu gobernamentuak.

Bardin da; dire ordean *breton* hek gu bezala eta gu baino ere beren erlisioneari atxikiak; ba eta beren aspaldiko mintzai zaharrari.

Aiten aitek erakatsia baiteie mintzai hori, orhoitzapen bat baizik ez balitz ere, nahi lukete begiratu.

Zenbat gehiago eztire bihotzez estekatuak, josiak beren tokiko mintzaiari, zeren erlisionea kasik orok haurdanik mintzai hartaz ikhasia duten, guk hemen eskuaraz bezala?

Othoitzak, predikuak eta katixima *bretonez* egiten edo entzuten, guk eskuaraz bezala. Bakharrik, guk ez bezala, giristino eskoletan ikhas-ten zuten orai artino hurrek, frantsesarekin batean, beren sor-mintzaia ere. Etxean erdi itsura ikhasi *breton* hura hobeki, eta garbikiago, oso-kiago erakasten zeien eskoletan fraidek eta serorek. Mintzai baten orde biga ikhasten zituz-ten beraz.

Orai serorak eta fraideak oro khentzen badiozkate, ez dute *breton* erakaslerik izanen eskoletan. Ahantz-arazi nahi liokete, gehiago dena, etxean ikhasi *breton* poxi hura ere. Huna nola. Ezin sinhetsizkoa da, eta bizkitartean egia. Ministroak Bretaniako prefetei hel arazi deie: beharko dutela hemendik harat hango erretor eta bikario guziek elizetan orai arte mintzo ziren *breton* hura utzirik... frantsesez mintzatu; katixi-ma frantsesez egin; predikuak frantsesez; othoi-tzak ere ba.

Behazue! Diren bezalako nahasi tzarrek, zer-tan eta noraino sartzen duten sudurra! Zer joan zeie ministroei, prefetei eta bertze jaunfutre hoier guziei, *breton* aphezek eta burhasoek nahi

badeie haurrei erlisionea bretonez erakatsi? Egundaino ez bezala, elizetan predikuak baitezpada frantsesez egin-arazteko, zer esku dute? — Eskurik ez; bainan gaixtakeria ordean.

Jakin, atxikiak direla *bretonak* fedeari, eta kitzikatu nahi. Jakin ez dituztela erlisioneko erakaspak ongi ikhasten ahal, beren mintzai hartan baizik, eta hargatik, hartakotz nahi nahasi, kordokatu, durduzarazi, errebel arazi norapeit.

Frantsesaren ikhas arazteaz baino miletan orhoitago dire *bretonaren* eta erlisionearen... *bereziki hunen* gal-arazteaz.

Eta bertze guzien ondotik, horra orai azkenean zer gogoratu zeien. Eta zer mehatxuak gero! Baizik eta, berehala obeditzen ez duten aphez guziei paga khenduren deiela. Jaun mera edo auzapezek beharko dutela sinatu, ba edo ez, bretona utzirik elizetan, frantsesari lothu direnetz aphezak? Hoi da astokeria!

Eztuzue uste? Kanorerik ez luke; ez itxurarik, ez buru-buztanik... Eta bizkitartean ezta gerta eztitakena. —Zer othe? —Zer? Orizue; gauza ber-bera ikhustea Eskual Herrian ere... non eztiuen Bretaniako *haize hotzak* lotsarazten. Hotz

omen baita egun hautan han biziki. Bortz departamendu dauzkala, *Bretania* guzia horma bezalakaturik baitago jaun hoientzat.

Bat ez baita izanen Bretaniako aphez guzietan, debeku zoro hoi onhartuko duenik; ez eta eiki auzapez nor bera den bat, aphezaren salhatzeko aiher litakenik, bretonez mintzatu dela.

Gogoetatzen ez badire, hango ara ikhusiz... Jinkoak daki zeri gauden! Han bortz departamenduri bezen errexki oldarturen ahal baitire hemen bati. Eztaukagu eta guk baten erdia ere, non etzauzkun auzo kaskoinak eta biarnesak alde jartzen, tiranoen kontra.

Gerthatzen dena gertha, guhaur gelditurik ere, etsaiari buruz, ez gira zeren izi. Bretonek eman etsenpluari jarraikiko gitzazko. Heldu bazauzku ohoinak, erranez: «bizia ala eskuara» edo: «eskuara ala moltsa», ihardets goraki: «bata ez bertzea. Fuera ohoinak! Fuera gure erlisionearen eta mintzaiaren etsaiak!».

Ez denetz bada harrigarri: noraino deramaken Jainkoaren eta Jinkozko gauzen herrak!

Eskualduna, 1902-10-24

Murde David

Eskualduna-ren irakurtzale onek othoi barkha dezatedala, egungo solasa kasik ez-deuskeria batez balin baderamat. Behar da orotarik.

Barkha zuk ere, David, eskualdun zahar alzeiru ezin higatuzkoa, Ezpeletako auzapez gaztea, zure izena, marteilu bat bezala, bi eskuz hartzen badut, eskualdun buru gogor batzuetan sar-arazteko itze bat, oraikotik aldean bertze.

Hor nonbeit barnago, gazetaren erditsutan ezar banezote, deus baino gutiagorentzat har lezakete; edo utz, behatu ere gabe.

Iduri zaut hemen, haste huntan, *David...* izen horrek lo daudenei eta orori, nahi eta ez, begiak zabal-araziko gazkotela eta beharriak xut altx-araziko: «Zer den hau hemen egun... David? Murde David?».

Murde David hori zuek bezala nik, nik bezala zuek, irakurtua dugu iragan maiatzeko boz-egunetan. —Eta non? —Hemen, *Eskualdun*-ean.

Ahantzia duzue, ez dea hala? Nik ez. Ez eiki zuek ere: zoin gizonki jarri den eta dagon gure

David, bere adin handian, Ezpeletako gizon zinezko eskualdun fededunen buruzagi. Baina egintza on horren goresteaz bertzerik da ene egungo xedea.

Aithor-azue orok egia: nehor guti zareztela orhoit, egun hoitan irakurturik, *Eskualdun-ean*, bi hitz hauk: *Murde David*.

Murde ala *Jaun* bardintsu zautzue, ez dea hala? Niri ez. Lehen ere erran dut *Eskualdun* huntan hor nonbeit, behin edo bietan. Baina badut beldurra, deus erran ez banu bezala den.

Alferretan izan bedi oraino ere, eta nahi due-nak bitxi kausi beza: ez nauke oihu egin gabe, gora eta urrun, gorrek eta orok, on bazeie eta ez bazeie, oraikoan adi dezaten: *murde* delako hitz itsusi hori ez dela egundaino eskuara izan; ez eta eskualdun elgarri zu eskuaraz erraiten dutenek derabilaten hitz bat, non ez dituzten eskuara eta eskualduntasuna, biak ahantziak. Galduak.

Frantsesak du erraiten aitoren semeentzat: *Monsieur de*, edo *M. de*.

Orotan bezala, Eskual Herrian ere baziren bertze orduz aitoren-semeak *M. de Belsunce* eta

holako. Bainan *M. de...* hori frantsesez zarraikoten: ez eskuaraz.

Eskuaraz, hori baino ederrago, garbiago, xuxenago, eskuarago zen eta da bethi, nahutenek nahutena erranik ere, *jauna*.

Jainkoak berak ez du eskuaraz bertze izenik, Jainko eta Jaun-goiko (gaineko jaun), bat direnaz geroz.

Jesu-Khristo Gure *Jauna* erraiten dugu, eta badire halere gutartean *Jauna* baino ederrago baitzeie *Monsieur*.

Eskuaraz *Monsieur* erraitea bitxi zeienek erranen dautzute *Murde*. Ez dire ohartzen bate-tara doala; baxharrik *Murde* erraiten dautzuna mintzo zautzu aitoren seme bazinauzka bezala... iduri trufaz.

Eskualzale arrotz, nonbeiko *basquisants*, *bas-cophiles* eta eskuara gaixoaren larrutzaileak mintza ditzen hola: *Murde* harat, *Murde* hunat, begoite.

Bainan eskualdun odolekoak ez ohartzea *murde* hori ez dela gurea, eta gehiago dena, tuntik ez dugula guk horren beharrik: zer diozue hortaz? Ez dea bitxi?

Hots hortik othoi; itsusi ere da eta. Banaki koplan, josta nindake gogotik, aldizkatuz *murde* eta *urde*.

Nahuzue utzi hori bazterrerat! Bederen *Eskualdun* huntarat nehork ez igor gehiago.

Bota *jauna* edo deus ez. Hoberenik, hamarretarik bederatzietan, *jauna* baino ere, deus ez. Eskuarago da. Eskuaraz ongi mintzatzeko ez da aski hitzak banazka eskuarazko izaitea. Hura da baxharrik *eskuaraz* mintzo, nor ere mintzo baita eskualdunak bezala.

Ea bada nor entzunen duzuen erraiten gutartean, edozoin jaun ttipi ala handi bere izenaz deitzen delarik: «jaun Oihanburu», edo «jaun Errekarte»? —Ez eta Errekarte edo Oihanburu jauna. Izenaren aintzinean ala ondotik, bardin gaizki doa *jaun* hori.

Oihanburuko jauna ba; Errekarteko jauna ba; eta etxeko-jauna ere ba.

Bainan eskualdunak bere sinaduratzat dakharren izena bera berik aski izen da, gehiagoko forradurarik gabe.

Ezpeletan orok erranen dautzuate *David...* labur. Bertze edozoin herritan Etcheverry, Larral-

de, Harismendy. Nehork ez *jaunik* hor; are guti-ago *murde*-rik.

Zertako eman buruari hala ez dena: izena berik motz dela, eta itsusi? Zer du itsusirik bere-naz izen batek? Zertako khen eskuarari bere begitartea?

Errazue nahuzuen bezenbat: jaun medikua, jaun erretora, jaun notaria, jaun errienta; jaun esposa, etxeko-jauna.

Den gutienik jaun ez direnen artean ere ontsa doake: «ba jauna, ez jauna»; bainan hitz hori berik, hutsik, bakharrik.

Izena erranez geroz, aski jaun da izen hura bera eskuaraz, David ala Salomon.

Eta ez da hori zuen ez ene gogotikako zer bat. Eskuara da hola. Ez guk egina, bainan aitzinekoetarik ukan bezala beiratu behar duguna.

Baitezpada ezin egona dutenek izen guziak, buru has, agurkatu, muziukatu, murdekatu gabe, erran dezatela *Monsieur*, eta ez *Murde*. Izpirik ez da berdin hau hura baino eskuarago; eta puska itsusiago da *Murde*. Bata ez bertzea ez erraitea, hobe.

Eskuaraz mintzatu nahi direnek erraiten dute eta erranen jaun jujea, jaun mera, jaun axuanta. Bizipide edo karguaren izenarekin *jauna*.

Familiako deithurarekin, deus ez: Elizalde, Goyeneche, Amespil.

Gure baitharik orok hola erran ginezake; baina ez dakit zerk egiten duen: izkiriatzeko luma eskuan hartzearekin, frantsesa doaku burura, eta ordutik debruak ereman du eskuara.

Eskualduna, 1908-07-17

Beribil

Nahuzue hitz berri bat emogun eskuarari? — Zer hitz? —Beribil. —Zer da *beribil*? —Deus ez oraino; bizkitartean, zuek nahi duzuelarik, izanen da zerbeit. —Bainan zer? —Erraiten dautzuet bada; hitz berri bat; izen bat, eskuarak eztuena orai arte, eta guk eman dezokeguna. — Nola? —Orizue, nola... ditaken gauzarik errexena da. *Eskualduna*-ren irakurtzale, ba eta egile, orok egun hemenxe berehala elgar hitzhartzea da guzia, nehorri deus ebatsi gabe, gurez gure, guhaurek eginikako hitz pollit, eta xuxen, eta garbi horren har-arazteko eskuarari.

Urrunxkodanik behin, gero hurbilagotik emozue lehenik, solasean barnago sarthu gabe, hor, gain hortan hitz larriz emana den izen... berriari, alde orotarik inguruan, behako bat. Bat aski ez bada, biga; eta beharrez, hiru, astiz, emeki. Bagirea? —Ba. —Ontsa da; orai egia niri hunat: ez dea *begikoa*, hitz hori?

Beribil, biribil; ez luzegi, ez laburregi; hexurmamietan ere hatzemaña; buztan herrestarik, ez

adar kakolarik, ez eta trunpilorik nehorat gabe, deusetaz ez da izarian huts-egina, itxurala.

Emazue ahoan eta egin araz bizpahiru itzuli. Nahi bezenbat atxikirik ere, ez dautzue hortzik hautsiko; ez eta, uste gabetarik irets bazinezate, zintzurra larrutuko; berak bere bidea eginen du, deus urratu gabe; hain da leguna, eta goxoa... Beribil.

Baitire orotan bezala, eskuan ere hitz batzu nehork ezin garhaituak; idorrez edo bihurritz, hots, lotsagarriak, guhaurentzat ere kasik, are gehiago mihi eta beharri arrotzentzat, hau ez da hetarik. Nornahik, mothel batek berak, errexki erranen dautzue: *beribil*.

Sinesten ez duenak ikus beza berak, erranez eta erran-araziz.

Bainan zeri eman eskuarazko izen berri delako hori? —Huna zeri: *otomobil* direlako tresna herrementa, gure bide guziak harturik dauzkate-la, firrindan airez aire, harat eta hunat hor dabil-tzan hoieri.

Alta ez lukete merezi, hoin izen pollit bat, diren bezalako mamu, abere izitzale, haur leher-tzale; bazter guziak, bide hegietako etxe, oinez-

koen zintzur eta bulhar, oro erhautsez ithotzerainokoan betherik atxikitzale hoiek; ez lukete merezi guk emanik, izena eskuaraz, *beribil*.

Bainan ez gabiltza heien onarengatik. Guhaurena dugu gogoan.

Engoitik hemen ditugu behingotz gainean; ez dire guk geldiaraztekoak. Poxolurik aski egiten daukute gure bidetan, ez dea hala? Bizkarkinak dire, jasangaitzak. Izanaren gainera izen bat hastiala; izkribuz ere nola eman ez ginakiena: *automobil* ala *otomobil*?

Berri heltzale batek behin ezarri zaungun *astomobil*, bere samurrean. Zena zenaren utzi ginuen, aldi bat; bainan geroztik berriz igorri daukutenean, harek berak eta bertze batzuk, astoegiz bahitu diotegu beren astoa, eta eman *oto*.

Zertako ez *auto*? Zertako ba? Hortan ginelarrik, tresna tzar hoiien usainaz bezala, garbiki egia, izenaz ere lephoraino aseak, hor norbeitek, duela bospasei aste, aiphatzen dauku *beribil*; zoin ontsa loaken izen hori, *otomobil* orde. To! Berehala buruan hartu ginuen, hemenxe arteka

batez emaitako. Bethi zerbeitak gibelatu gitu; bainan ez ginauden gogoia saldurik.

Bitxi da zoin gutiz eta zoin ederki hatzemana den *beribil*, otomobilaren eskuarazko izen berri hori. Ez dugunaz geroz guhauri gogoratua, laño-ki erran dezakegu, zer zaukun.

Latina eta greka... hortako doia dazkitenek dute hobekienik ezagutuko, zenbat eskualde on dituen hitz berri horrek.

Grekaz *auto* erran nahi da *bera*; latinez *mobile*, *ibiltzale*; *automobile*, biak bati emanaz, *beribil*, *bera ibiltzen* dena.

Izaitez tresna hori bera dabila, zaldirik... ez astorik gabe: horra zertako astokeria bat zita-ken, bertzeak bertze, izen emaita horri, alegia eskuaraz, *astomobil*. Makur bezen tonto eta beharri luze ere zitzaunkun izengoiti hori, arimaz egia.

Miletan hobeki da *beribil*. Hitzez hitz, izanari doakon izenik balin bada, horra bat; eskuarazko-aren bi hitzak frantsesekoaren sail berean. Frantsesak bi aitaso-amaso zaharri maileatuak biak, berak beretik ezin eginez; eskuarak aldiz bata alabertzea beretikakoak, eskuara garbiz.

Eta ororen buruan, eskuarak eta frantsesak hor oraino elgarren eite sudurrez: bat *mobil*, bertzea *ibil*, jinkoak ditzala elgarretara *bil...* edo bederen *hurbil*.

Zer derasate beraz, eskuara lehenago noizpeit zerbeit izan balin bada ere, oraikotz mintzai agortu, hil hurran bat dela? Bertze edozoin bezen bizikor da; eta gaztekor ere litake, lagun-dua balitz.

Elheak elhe, *beribil* delako hitz berri hori bizi dadin ala hil, har dezan ala ez dezan, behin *hazteko* xedea dugu. Zin zinez gero, eta jostetarik gabe.

Bizkitartean irri gose direnak ase ditela; egundainoko izengoiti guziak irriz emanak izan dire, eta gero *izendu*, gelditu, kokatu nolazpeit; erroak egin. Nork daki? Behar bada holako zerbeit da gerthatuko hunentzat ere.

Behinik behin, ikusteko baizik ez balitz ere, holako zerbeit egin ditakenez, guk huni gure ahalak hitzemaiten dazkogu. Bi urthez, egunetik has, luma hunek hemen ez du izkribatuko ez *auto*, ez *oto...* are gutiago *astomobil*; bainan ba

bethi *beribil*. Hitzeko gizon ez bagira, zuek orhoit-araz.

Berri heltzalek, behar-orduan, guk bezala egin balezate, lan bat gutiago guretzat otom... uthur eta asto buztan mozten artzea.

Ohartu gabe bordan sarthuko zauzkunez ez dugu on egiten.

Bizitzekotz, eginen ahal du norapeit indar berak ere bi urthez; haurrik hurrienak ere bi urt-hetako luzenaz badoazi xutik. Bera dabilan tresna baten izenak ez othe du adin hortako bereaz eginen? Ba balinba lehenago ere.

Anhartean, azkartuxe arte baituke gaixoak ororen beharra, emogun laguntza.

Guhaurek erran bethi *beribil*, zuek eta guk; bertzek bertzela erraiten dutenean, ez jarraik; egon gu gurean.

Irri egitea, erran dena, haizu eta on, hitz berriak har dezan ala ez dezan.

Eta zernahi gertha, delako hitzaren aitak eta aitabitxik barkha, beren *Beribil* ebatsi badiotegu. Bakotxari berea doakola badakigu; bainan gu bizi girelarik ezkur hau haitz handitzen bada, orhoituko gira nori esker.

Loth ez baladi, gure gain.

Eskualduna, 1909-04-30

Dugun atxik eskuara

Galtzekotan othe da eskuara? Zer dute ala begietan amentx, poxolu, egungo egunean ohiko gauza onetarik gutiz gehienak bezala, eta ez othe guziak? Hori bederen ezin utz nonbeit!

Bertze bat nehon ez bezalako mintzaia, eskuara; gizon argituenek diotenaz, holako bakarra; egiazko ontasun bat hor guk eskuetan duguna; hainbertzetarainokoa non arrotzak elgarri baitaude: nola ezkiren guhaur huntaz hartuago, huni atxikiago eta jarraikiago.

Eskuara errotik aski ontsa ezin ikasiz ari jakintsun batzu bazter guzietan, hurbil eta urrun; gu eskualdunak huni esker bethidanik elgarren herritar, odol bereko haurride bagine bezala; hau gure lokarri, ez jakin nola gauzkana Eskual Herriari estekatuak oro bihotzez, menderen mende —ez bakarrik hunek, bainan ez hunek gutienik. —Guk behar hau galdu?

Eskuara, Eskual Herria, eskualdunak, ez othe litake bada ederrago eta hobe Frantziarentzat,

ahalaz lehengoan iduriko begira balitza orai eta gero, bethi bardin?

Onthuz ba, geramatzatela, nahuten bezenbat, bainan eskualduntasuna khen, zertako? Eta zer zuzenez? Bertzalde, nola berex elgarretarik herri, mintzai eta gizon, elgarri hoin josiak, hoin elgarrentzat eginak?

Ahantzia naski, gure arbasoak beren baitharik eta berek nahiz frantses bilhakatu zirenetik hunat, eskualdunari, ba eta eskuarari asko zor badiola Frantziak? Zenbat ere baitzen hau ja ordukotzat ederra, edertu baizik eztela eta onthu, azkartu, itxuraz ala izaitez, gu beretzearekin... ahantzia.

Orobat erran dezakezu Espainiaz, edo are gehiago.

Ahal da ere bertzerik oraino bazterretan, berenganat har ginitzazketenik bi besoak zabalduz, eskuara hau dugun baino itzal handiagorik ez ukaitekotan; hitz dautzuet.

Zertako nahi ginituzkete eskuaraz gabetu? Dugun erran berehala, egungo ez-eta-ba zurruburruez puska gorago doala hemen gure galdea;

ezpaita egia bezalakorik, batzuetan ala bertze-tan badirela eskuararen aldekoak eta etsaiak.

Duela zenbeit aste, Baionako karrika batean uste gabetarik buruz-buru egin dute hiriko bi apezek Frantzia beheretar jaun eskualtzale batekin. Ezta gizona guretarik; gure arak, eta gutiago gure sinestea, eztire harenak; gogoko baino begietanago ditu hemengo zerak. Halere, itzuli bat eginik gure bazterren ikusten, bihozmin zuela, zion gibelerakoan —garbiki gero eta zinez bihozmin: ikusirik eskuara eskuetarik joaki eta tokitan kasik joana. —Alegiazko mina othe? —Zertako ez bardin egiazkoa? Bertzeak bertze, badaki eskuarak holako jaun baten berri, xoratuak daudela, zein den ederra! —Biziko othe den? —Delakoak berriz bere burua gizonago baiketik etzuen egin, hanxe aithortuz eskuararen alderako bere atxikimendua.

Ezta gutiago egia, jaun harek eta hura idurikoek —leherra baitire, azkarki gogoia eskuara huntaz hartua dutenak— badutela dakizuen gazte batzuen eite, zuen barkamenduarekin, samurrean zer ari ziren jakin gabe, edo gaixtake-riaz, edo jostatzeko, su eman berek edo utzi

lagunak emaiterat, auzo edo beren etxe ezkina bati, eta gero... garra gainez gain doala... izituak, harrituak, oro suntsitu behar othe diren!

Dena den, aspaldiko herstura gaixtoenatarik bat berritan garhaiturik balin badago eskuara, egungo gizonakilakoa daukaten *ezkualtzalengarnikako* laguntzarengatik, behartu zaio bertzerik: haize ona eta gaixtoa, biak; bere zailtasuna; eskualdunen eta oroz gainetik laborarien atxiki-mendua.

Nahuzuea xehetasun bat? Doakola bakhotxari berea. Gaizo eskualdun laborariak, nor izanen da zuetaz bertzerik, eskualdun ohidura on guzien eta bereziki mintzaiaren begiratzale? Zueri dago eskuara.

Egun hitsen artean hitsagoak badire; ezin ahantzizko amets gaixto baten orhoitzapena bezala utzirik joanak diren halako egun batzuz, zernahitako aiher dazkigun gizon hoitarik aski erhoak izan zirenean, aski atrebituak, gure eltzetarik fuera kanporat eskuararen manatzeko, han gerthaturik *Eskualdun* kazeta ttipia, orok bezala itsuskeria hortaz bere hitza erran zuen; bertzek baino goraxago eta bizixago behar-bada, bainan

gehiagokorik ez. Bazen aski. *Eskualduna*-k helhel oihu egin orduko, trumilka badoazko eskualdun irakurtzaleak: harekin direla oro eskuararen alde.

Egitatea gaitzitu orori: zer zuten tzarkeria hori bertzen gainera? Etziren lurrerat erori kaze-tañoaren hitzak.

Aro gaixtoaren oldarrak inharrosirik landarea lotzen zaio ausikian lurrari; ordu arte ja bizikor eta pixkor, bainan hein batean koxkor gelditua egonik urtheak, hartzen dautzu bet betan hedadura bat, goiti eta beheiti eta bazterretarat, zabalduz doala eta azkartuz, nola! Egun batetik bertzera doblaturik, erredoblaturik jartzeraino-koan. Oro elgarri beha, etsai, adixkide, langile: «hauxe da handitzea!».

Orizue, ezpalin badu gure arbolak sarrixago, Jainkoaren laguntzarekin, bere ostozabalez itzaltzen Eskual Herri guzia; hunen fruituak ezpaderamatzate harrapaka eskualdunek, eztu zeren nehork behinik behin lurraren gain eman. Ona da lurra.

Bota lehenago alferren gain, uzten badute lur hori lo, harrotu gabe; edo laparrak hartzerat,

garbitu beharra, aitzurtzea bethi neke delakotz, eta nekeago aro gaixtoarekin.

Goazin mintza xuxen, eta itzul gure solase-rat, nahiz ezkiren hanbat urrundu. Orhoitzeko da bethi: jende xeheak eztuela bihotzez ala buruz nehorri zorrik; nondik loth adixkideak, behar-ordu batez, baduela lokia; ... ba eta zeri berma ere balukela ostiko bat begitartera kask eman lezo-ken etsairik azkarrenari eginarazteko buruzkain itzulipurdi.

Bainan gu bezalakoak eztaki askotan zer egin; behar du bidari, eta artetan atzarrarazle. Eztakien harek berak, zer egin eskuararen zain-tzeko, begiratzeko? Deus guti; aski ez bethi kan-poko ala barneko etsaiei ihardukitzeko.

Kanpotik —bethi berak, ezpaitute bertze lanik, ez eta bertze sukarrik, gau eta egun, bai-zik ere nondik zer elhe nahasi duten jalgi ahal-ko—: guk maite ditugun guziak baitezpada belz-tu beharrez lehenik, eta gero purtzupilaturik eza-rrri zangoen azpian, mintzaiak eta oro.

Elhe gutiz hor bakotxari berea.

Barnetik —lazakeria, ezazolkeria, eta beldurra—; bertzalde, Jainkoak dakiela zenbat burutan sarthurik eta —sarthu badire sarthu— han kokaturik dauden kakolakeriak.

Hala nola, zenbatek eztautzute begi ukaldi batez neurtuko berehala... phhh!... zertsu ahal den eskuara! eskualdun itzain ixtazabal, zangoa herrestan bere idi eta orgen aitzinean —edo gibeletik— tuku-tuku, doanaren mintzotik, urhatsetik, soinekoetarik?

Iduri eta itzaingoa eztela bertze edozoin bezen bizipide, zeren den asko baino nekeago!

Gizagaizo itzain higitu hura xutago bailitake naski eta gurbilago, norapeit ikasiago, eskuaraz mintzatzeko orde zuek eta ni bezala, haren matrail hezurak ari balire talo bero jaten *obernenez*, edo areagoko frantses tutulu tuntun idiek ezin jasanezkoz.

Ezta ez gero aski erraitea: hau *eskuara*, hori *frantsesa*. Batean bezen ongi bertzean ere badi-re *itzainak*. Behar ere ba; orotan orotarik. Itzainen trufariak nahi nituzke ikhusi heien laguntzaz gabetuak sei hilabete... ea nola bizi litazken?

Eta gero, zer uste lukete hoberik, baserritarrak hiritar bilhaka balite, mendiak ordoki, oro bardin, legun-leguna? Ezkinuke deusen beharragorik!

Balakite gure berri hobekixago hiritarrek! Eztirela gutartean *eskualdunenak* ere, hiritik *urrunekoak*, bat ere bertze batzu baino tontoago beren hartan, balakite, bertze begiz beha lezagukete.

Zernahi izan dadin, gure eskualdun begientzat ezta halako pestarik, nola hiriko karriketan bonetun, xamardun zenbeiten ikustea. Bethi bere hek bakotxari eder.

Ororen buruan, guk ere ordainez nahi baginitu hiritarren itzalak altxatu, aski ginuke begiak idekitzea... lehen ikusiari loth. Ezta lokia eskas, Jainkoari esker.

Hain dute hastio askok eskuara non, izenak berak okastatzen dituela iduri baitute. *Basque...* hitz hori kasik ezin erran, goitikeskaini bat gabe. Eta oraino hori ederrena.

Deus ez litake, beldurtzeko ezpalitz, haurren beharriak, ahalge ditzen azkenean beren sor-min-tzaiaz eskualdun umeak, bereziki *Norgiragu-*

eneko Jauna denean mintzo; ez ahaltze, zernahi izan, hura bezenbat badirenez trufatzeko. Hari behar lako eman eskuara ikas dezan. Baluke behingo!

Heintsu bera dute gure mintzaiari beltzuriz daudenen erraiteko guziek. Alta bada zenbeit!

Eskuararen etsai guziak ez dire bardin ageri; gordeak gaixtoenik.

Gorde ala ageri, etsai ditu, gobernamentuko eskolak beren buruzagiekin. Alde balitu bederen gure eskukoak? Ez ditu hek ere lehengoak bethi hala ukan. Orai gelditzen zauzku bakarrak, eztaikit; agian ba. Bainan huntaz bertze sabeleko minik ez paginu; gure Fraide eta Serora ohi eskolatzaile onez orhoitzeak berak ez palauku bihotza hausten, baginuke hitz bat hemen erraiteko; zeren gu bertze orduz altxatu gituztenetarik zenbeit, esker gaixto onik erakutsirik baitaude gaizo eskuarari, Eskual Herri bethean. Hazteria ukan balu, etzuten urrunago atxikiko eskoletxearen inguruetarik.

Nahi dut haurrak frantsesari lotzeko, bereziki hastapenean, behar direla eskuaratik behin biguindu, ttipiagoan amaren bularretik bezala.

Bada ordean orotan izari bat; handik goiti, sobe-
rak sobera.

Frantses hutsean emazu haurra; eskuara hitz
bat ez haizu, goizetik arrats. Mihia lerratzen
bazaio uste gabetarik, larderia zazu eztakit zer
egin balu bezala; ez barka buruan sarthu arte,
deus eztuela ikastekoetan ikustekorik esku-
arak... Azkenekotz, nahi eta ez, hits bat geldituko
zaio ariman bizi guziko: hola denaz geroz, deuse-
tako nehorentzat eztela on eskuara, tokilo zen-
beitendako baizik; ez on, eskualdun herritar bati,
ez eta ere haurride bati bi hitzen izkribuz igortze-
ko ere.

Hoik oro hola, bizia zail behar du ba mintzai
batek, ihardukitzeko. Emozkitzue oraino bertzal-
de nehork ezin ixilarazizko kalakari batzuen era-
siak; zoko guzietan baitire, deus ez jakin eta oro-
taz mintzo: eztela oraiko mintzaietarik eskuara;
gibelatuegi dela. Eta zoin gaixtoa ikasteko! Dio-
tenaz, debruak egundaino ezin ikasi duela. Egia
balitz! Baginuke aski hori bera, gure onetan ez
uzteko galtzerat eskuara.

Zer ezterasate oraino? Hain dela bihurria
eskuara non eskualdunek berek ezpaitakite

ontsa; nehondik eztela bertzen urhatsari jarraiki ahalko; ja puskaz aitzinduak dituela oro alde orotarar; berekin gu ere leherra zerez gibelatuak gauzkala. —Deus ez elhe.

Huna elhez bertzerik, nahiz elhen ondorioak. Burhaso eskualdun batzu, axolarik ez dutenak beren haurrei eskuara harrarazteaz. Eta zenbat eskualdun seme-alaba, astomakiletarik ez hanbat aitzinatuago, eskuaraz baino nahiago baitute frantsesez izkribatu elgarri, hitz bezenbat huts eginen badute ere. Alde bera daukate bi kazeta, ongi ala gaizki eginetarik, itsura, utz bazterrerat eskuarazkoa. Etxetan, bidaietan, eskualdunak eskualdunekin ezin mintza eskuaraz. Holako eskualdunen haurrek, handik edo hemendik, ebaska, bildu hitz bakarrak laster ahantziak.

Eta lehen kominioneko liburuño hura, amitxiren orhoitzapena, *eskuaraz?* Ba zera! Elizako liburu eskuarak badirelarik, hein bat begikoak barnez eta estalgiz; erosteko eginak, eta ez naski saltzalea baithan egoiteko bipien hazkurri; frantsesa behar baitezpada, bertzek ere hala dutelako estakuruan, haur gaixoak ezpadu ere

meza non den hatzeman ahalko —are gutiago irakur— begien aitzinean bederen idekirik atxikitzeko, egun hartan.

Eta hilen mezak? Ehorztegunetan bil arau izkribuz emanak frantsesez, elizan irakurtzeko eskuaraz —frantsesetik! Irakurtzale eta aditzale, ororentzat pastikagarri, bederen hartu arte, oro hartzen diren bezala.

Eta hil-hobien gaineko hitzak... bitziz irri ala nigarringarri? Han-hemenka ikusi zenbeitek ezpailezakete bat ere gaizki eman sail huni datxikola, ezpalitz hilen eta bizien zauri berri-tzea. Ez izanen zenbeit apez bederen gehiago, bertzei erakusle, herritik joanen izenei darraizko-ten azken hitzak eman ditzatela herriko mintzai-az! Zenbeit othoitz gehiago balukete emazte jainkotiar urrikalmendutsuetarik; ba eta gure tokietan oraino hilen orhoitzapenari hain atxikiak diren gizonetarik.

Hilerrietan direnentzat bederen ez erran: frantsesa behar zeuela *ikasarazi*... Hobeki loake han *eskuara* poxi bat; gaixo mintzai arrotzuak nonbeit bederen hatzeman ditzan eta ezagut

bereak; heiek ere ba hura, —elgarrekin doazila erhauts.

Zenbat etsai gure mintzaiak, argi eta itsu! Orok ahantzia daukatela eta utzia bazterrerat, saldua merke... ezpaitezaket bertzela erran eskuaraz.

Nondik nahuzue dihardukan dohakabeak, batzu ostikoka, bertzeak ihesi doazkolarik? Ez oro beharrik, bainan biziki sobera eta bethi gehiago. Hola joanez, nehondik eztirauke, gero-ta handiagoko mirakulu batez baizik.

Apez eta eskualdun aizinatuak, zer egin dugu hoinbertze aldetarik holako hersturan den eskuararentzat? Behako bat hor bakotxak bere buruari.

Ez erran, frantsesa dugula poxolu gure lurretan. Hauk atheraldia orai berriz hau: frantsesa poxolu guk? Gu frantsesaren etsai? Nehor eztaukagu Frantzian gu eskualdunak baino frantses hoberik. Gure lurrean gira Frantzian bertze edozoin bezen ongi. Frantses mintzaia gurea da. Ez dute zeren guri lephotik loth, iduri-ta nahi eztagulakoa iretsarazi beharrez.

Ahal dugun bezala mintzo gira frantsesez; halere, uko gaudela derasatenak bezen gogotik eta xuxen.

Bainan gure eskuara ere laket dugu. Noiztanik othe da ez haizu bi mintzai ukaitea eta biak maite, izanik ere lehenari, hurbilenari, *bereago* hari estekatuxago?

Ba, poxolu ditugu, begietan ditugu, etsai ditugu frantsesaren itzalean eskuara itho nahi luketenak. Eskuararen atxikitzea gure zuzena da eta eginbidea, adixkide maiteak. Huna zertako.

Zertako atxik eskuara gure mintzaia? —Lehenik, gure mintzaia delakotz, sorgin ez izanikan ere, hatzemanen zinuen hori laguntzarik gabe. Hori nehorat irets eztezaketenen burua dut nik ezin irets.

Bigarrenekorik, gehiago dena, kendu nahi daukutelakotz eskuara. Bakotxak bereari datxikon estekamendua iratzartzen da, etsaia hurbiltzearekin.

Ohartzen bazira zure sakelan, sast edo xixt, sartzera doakizula esku arrotz bat, etzira luzaz egoiten zure baithan gogoetan: «zer othe da

hau?»). Ez; bainan krak berehala zuk ere zure eskua hara berera. Hori zauku gerthatu guri eskualdunei, arrotzak baino areagoko frantses herritar batzuk nahi ukan daukutenean kendu ahotik eskuara, eta guhauren sakelan sarturik, han atxiki gordea, preso, alfer: hori bera aski, luze-luzea eta zalu atheratzeko, dena kanporat.

Ogi huts ala zaharo, guziak baino zailago eta gogorrago eskualdun kaskoetan thema.

Hirugarrenekorik, eskuara kenduz geroz, kentzen ahal laukukete eskual izena ere. Zertako ginuke?

Eskuarari esker gira eskualdun.

Jakintsun eta bazter-ikusle arrotzak ohartuago dire guhauri baino gure mintzaiari. Alde orotarik, eta batzu biziki urrundarik, dathozkigu, begi beharriak zabal eta erne, ikustera, entzute-ra: nola mintzo othe giren eskuaraz eskualdunak?

Nor erran, zenbat angles, aleman, holandes, rusiano, beljikano, frantsesez berzalde, —zenbat diren ibili hemen gaindika; gure auzo hirietan trikatu, hala nola Baionan; hemengo botigetean, ostatueta, deus ikustekorik den guzietan sar-

jalgi eginez; orori galdeka, jitean eta joaitan, Eskual Herri eta bereziki eskuara hain handizki aiphu direlako hautaz?

Frantsesean gehienik trebe diren jaun argituetarik baita René Bazin, hunek dio bere liburu ederretarik batean behialako batez treina hartu zuela Parisen, edo urrunago, biziki urrun; ikusi nahiz eta ikasi, hemen tokiaren ganean, bi, hiru, lau hitzetarik hitz bakarra egiten dutelakotz *langues agglutinantés* deithu mintzaietarik denez eskuara?

Bati galda, bertzeari galda, ez muthil ez nausi, nehork ezin eman zion garbitasunik. Baiona guzian, berak dionaz, eskualtzale zinezko baten hatzemaitea, solas egiteko, lanik aski. Eta oraino badut beldurra, jin bidez joan behar izan zen gibelerat, egundaino bezen itsu.

Ezta erraiteko baizik, holako gizon argituek hoin gogoan duten mintzaiak baduela nonbeit zerbeit onik.

Jakintsunek baino are gogoanago dute gure mintzaia koblariek. Nago, ez othe diren ere frantses koblari guziak oro guti edo aski eskualdun, frantsesdirenaz geroz? Gu, Frantziako eskualdu-

nak, lehenik eskualdun girelakotz gero frantses giren bezala bardin. Ezta hau elhe ahula; da xuxena. Koblariez bezen xuxena eta egia heien iduriko arima eta bihotz jabe diren guziez, hek bezen gora ez heldurik ere.

Ez nauke hemen aipatu gabe gure adixide handienetarik bat —ez ahal baitakite orok hau ere gurea ginuela —François Coppée zen koblari maitagarri, gizon ona. Ez bide baitzen hau jakin-gura, zertarik nola ditugun egiten eskuarazko hitzak; hitz hautarik bakotxa zenbat piruz den iruna ikustetik xehe-xehea zer behar zuen harek? Goiti, goiti koblariaren arima; gure lurretan zangoa eman orduko igan, jauzi, lehen hegala ukaldiz... irrintzinaraino.

Irrintzina... *salbai garrasia* delako hura? —Hura eta bera. Ba naski! Salbaiak oro salbaike-ria. Nori nola zaion. Baditake hor beharria xuxen eta burua oso dituenak bertzerik erran lezaken. Coppée berme.

Agorri-buruil gau izarretara, Getheriako ur-hegian, jaun hura zagon etxeko seme haur on batek aski zuen harek hitz bat erraitea, harantxetara joan eta irrintzina egiteko, itsasoak ihar-

desten ziola; hunen orro burrunba eta mendietan hegoa bezalakorik ezpaita gauaz irrintzina-ren lagun.

Coppée paristar izanagatik, ja ordukotzat haren arima giristino bezala, eskualduna zen eskuara musikan hain laket zitzaionaren beharria.

Jauts giten lurrerat.

Hiritarrek menditarrek ez ditutzue hastio, ba ordean heien mintzaia higuin; aithor azue zuen hobena. Eskuara ezta dioten bezen itsusi ez izigarri. Denarentzat ezagutzen bazinute, laguntza onik egin lezakezue, zuen sehien eskuratzeko, bidatzeko, zaintzeko baizik ezpalitz ere.

Eta nork daki zuen haurrek eztuketenez gero-xago eskuara zihaurek baino laketago eta behar-rago? Sarri zuen alabak erraiten balautzue, doiño bat gorrituz, beharri xilora: «aita, ama, bada ha-han, holako herrian, jaun gazte bat nehor guti bezalakoa; burhaso ditazken ohoragarrienak, nahiz eskualdun; gaizo muthikoa, josia, itzatur bere tokiari; han sorthua, edo han ari lanean; han baizik ez laket. Zer egin? —Orizue, aitzinerat, zer gertha ere, athorra mihisen artean

sar eskuara poxiño bat. Nork daki nor zeri dagon?

Zuen semea izan ditake mediku edo notari Eskual Herrian. Ezpadaki eskuara, urrikari dut, behingo bederen. Galda zenbeiti.

Hirirat ere gogotikago doazi eskualdunak eskuara dakien mediku, bankier, abokatarengana. Ba eta «Eskuara mintzatzan da» beren etxe-sartzean emana duten saltzaletara. Artetik erran dezadan, ahal den eskuara baita hor den hori. Bada oraino hitsagorik.

Eztuzue irakurtu sar-jalgi handiko hiri-etxe zenbeiten aitzinean emana frantsesez: *Entrée libre*, eta haren parrean eskuaraz: «Chartzea libro»? Zer? Gaixtatzea othe? Ala aldixartzea, hil hurrantzea? Milesker, goazin aitzina, barne hortarat, *sarthu* gabe, hor *xar* ditakeno.

Ah! zoin gogotik esku eman ginezoketen eskuararen galtzeko baizik eztiren perrekeria hoik oro lehenbailehen garbitu nahi lituzketenei; eta gero elgarrekin orok bat eginez, gerla gerlari, eskuararen etsaietarik bat ahantzi gabe, burutik buru!

Bertzeak eskuararen galtzeari bezala, gu begiratzeari.

Hel hunat, guti bada guti, nornahi izan diton, eskuara garbi atxikitzen laguntzerat lagonkenak.

Diote, buru hauste gutiago ginukela, utziz eskuara hiltzerat; eta bizitzeari thematzen bada, kenduz. —Eskuara ken, zer zuzenez? Eta gero azkenean, kenduz, ez othe ginezake irabaz baino gehiago gal?

Zer uste lukete, ala eskualdun tzarretarik frantses onak egin? Ba, giristino galduetarik dazkitzuen gizonak egiten eta ja eginak dauzkuten bezala.

Geroaz grina duenak badu hor gogoari zer eman.

Jainkoaz othoi, zertako hoinbertze elhe? Mintzai guziek bezala, baditu eskuarak ere zenbeit itzal; bertzek baino handiago ere dituzkela batzu, emagun. Bainan hatsa zail duela bederen erakutsi du engoitik. Hain da zahartua, aitasotua, ezpalu ere bertzerik alde, iraun duen mende lerroa baizik —ez jakin zenbat— adinean hain da urrun joana non gaztetuz gibelerat baizik ezpaitzake hemendik harat egin. Hiltzekotz, hila lita-

ke aspaldi ja. Mundua mundu deno irauteko eginga izan behar da eskuara.

Eskuararen ez ikastea, gure auzo gurekin hainbertze egiteko duketenentzat, beren buruen asko errextasunez gabetzea da, ikasteak berak eman lezoketen atseginez bertzalde.

Bainan eskualdunek berek beren mintzaiaren ahanztea, uztea, huts bat handia eta kalte bat ez ttipia guretzat; agertzeko on den irabazirik hor deusek ez nehork. Ja ezta gaitz ikustea, hein huntaratzeak ezkituela onthu; beheiti goazila, ez goiti, nahutena erranik ere.

Ez, ez dute zeren erran eskuarari kendua frantsesari eman doala. Hala balitz ere, ez litake zuzen, ez eta zuhur; are gutiago egungo egunean... ez jakin bardin zeri gauden, ez norat geramatzaten, ez eta frantses izenetik eta mintzaitik zer geldituko den ere sail hunen buruan.

Eskuara, zinez, mintzai eskalapoin zahar okitu batentzat daukatenek balakite zoin diren ederrak eskual hizkuntza berezi batzu, kasik oro; bihotz, edo adin, edo nausitasun arau, bakotxari doako atxikimendua eta ikustatea zoin gozoki, zer itzuli bertzek ez bezalakoarekin derabiltzan

eskuarak, balakite, zahartzeak ez deusek ez dituela higatzen ez eta histen ere den gutiena!

Eskuara? Non da eskuara bezala dagonik bere hartan bere gain; aberats ez izanagatik, berez bere bizi, edo ahal bezen zor guti eginez?

Auzo jaun handiek beren ontasunak haizeari burrustan besagainka; egun ba eta bihar ez. Eskuara bakarrik bere hatzean tente, deusek ezin kordokatua.

Bertzeak bertze, *to* eta *no*, baten orde hor biga dituelarik eskuarak; ehun urthe baino gehiago huntan frantsesak utzia *zu* burhaso-haurren artean; eskuarak *zu* baitauka bethi, zerbeit bada hori bera. Haurridek bakarrik *to* eta *no*; heiek ere ez bethi.

Senar-emaztek sekulan eskuaraz, non ez duten ahoa frantsesean hortara jarria... orduan, ez aldatzeko? Bainan hain da itsusi eta dorpe non Jaun-Andere batzu baitazkit elgarri *tu-toi* erraiten dutenak frantsesez, eta eskuaraz bethi *zu*.

Okaztagarri dena eskuaraz, haurrek aitari erraitea *to*, amari *no*; joitea bezalatsu.

Burhasoek haur handituei *to eta no*; ttipiño direlarik, ez; orduan *zu edo xu*.

Holako arthak dituen mintzai bat, etxeraino bi hitzetarik bat zu duena, ez haizuko iguzkiaren pean bere doi tokiren jabe?

Itzal bedi, itzal eskuara Eskual Herritik; izanen da eskuaraz bertzerik oraino gutartean eskuarak baino gehiago argituko eztuenik.

Erlisioeak ere azkarki estekaturik gauzkala eskuarari, ageri dena da. Nork eztu ikusten?

Mintzai guziek hartzen dute erlisioea; batzuek hobeki; hautarik da gurea. Aspaldi du elgarrekin dabiltzala, batek bertzeari beretik eman eta har, menderen mende. Eliza katolikoa-ren mintzai den latinari maileraturik dauzka eskuarak erlisioeko hitz gehienak; heieri esker da den bezen laket eta errex, eskuaraz katiximaren egitea eta predikatzea; ba eta gure kantika eder ahotik ezin utzizkoen emaita elizetan. Orok baino gehiago gauzkate josiak eskuarari erlisioezko solasek eta orhoitzapenek; hauieri aldiz eskuarak.

Eskuaraz ikasirik arbasoek erlisioea, utzi daukute eskuaraz. Mintzai eta sineste, nahi ditu-

gu atxiki elgarrekin, lehen bezala orai eta gero. Gure lehia da, gure zuzena eta gure xedea, zernahi gertha.

Eskuarazko liburuak oro kasik erlisioneazkoak dire; hek aurdikirik bertze batzu ezar ordain! Zertako? Ezta zeren. Hobeki erraiteko, badugu zeren guk, apez eta fededun eskualdunek, elgarrekilakoa bethi eskuaraz atxik; eskuara baita bethidanik eskualdun elizetako mintzaia; gure eskualdun amek lehen hitzak, lehen othoitzak eskuaraz erakatsi baitauzkute. Horra guk egia garbiki. Zer dute ihardestekorik erlisionearen eta eskuararen etsaiek! Argi bethean agertzeko on eztiren ilhunkeria zenbeit. Ez elhe, are gutiago, xede zuzenik ez hor.

Kopetarik aski ez, diren bezalakoek, eskuarari berari jazartzeko agerian; itzul guri apezei buruz; orotaz gu hobendun; *bethi gu*.

Guk daukagula itsu mintzai hori, eskualdunak horri esker buruz beheiti atxikitzeko. Egiazko egia dena da, gezur hori derasatenek luketela nahi eskuara izilka-gordeka urkatu, alegia deus ez, gero eskualdunak errexxiango bereturik, beren hats gaixtoaz kotsaturik, lehertzeko.

Guri, eskuararen atxikitzea eta zaintzea etsai guzietarik, ahal oroz: elhez eta egintzaz. Erlisio-neak eskuarari, eskuarak erlisioneari esku eta laguntza. Dogozila hor elgarri lothurik bethi.

Nola atxik eskuara?

Lehen-lehenik eskuararen atxikitzea bertzen gain ez utziz; ez eta ere gobernamentuaren gain. Nago, nola diren oraino eskuararen ona, bertze askorekin, hortik igurikitzen dutenak.

Gero noizpeit, bertze buruzagi batzuek, edo hauiek berek, oneratzearekin, idekitzen dazkote-nean herrietako eskolak eskuarari!!! Ba eta ordu arte amets horren gainean egon lo, lan zotzik unkitu gabe!

Eztugu zeren deus hanbat igurik eskualtzale jakintsun arrotzetarik ere. Hoberenek aithorturen dautzute, deus eztezaketela, edo deus kasik ez, gure laguntzeko eskuaren begirutzen; deus baino gutiago, beren gain utz baginezote.

Eskuara bizitzekotz, biziko da eskualdunei esker.

Auzoek eta adixkidek egin dezoketena, lanaren errextea. —Nola?— Behinik behin, eskuara-

ren alde mintzatuz ahal bezenbat. Egiaz egia, behingo solas. Bizkitartean hortako behar da zerbeit jakin. Eztakiena dagola bederen gaizki mintzatu gabe ahalgez, kopeta eskasez kalakarien feratzeko. Ixilik egoitea bederen ez ahal da gaitz; zozo ez izaitea aski. Noiztenka bihur; ez egon ikaran bethi koropilo.

Frantses ala arrotz, jakintsunak hitz bereko dire: bekatu litakela eskuara gal ladin. Eta zer? Gure lehen auzoei, gurekin ardura, kasik egun guziez kurutzatzen direnei sobera litzaiketela heien aldean bizi dadin eskuara, hats handia hartuz! Mintzaiaren hatsa, bizia, mintzoa da.

Utz beraz hortik auzoek eskualdunak eskuaraz mintzatzerat, bederen Eskual Herrian —eta zertako ez, gabiltzan toki guzietan?

Urhats bat ezpaitezakegu egin, eskuarari bethi muthur dauden koskari batzu oldartu gabe; larruaren barnean eztauzkela, beharrietara doakotenean *bascou* itsusi hori.

Hori baino bi tanzoz itsusiago berak.

Kuku eskualdun uzkurak; eskualduntasunaz ahalgeturik, beren herriari eta mintzaiari gibebez

edo sahetsez itzuliak; zaharrek utzi on guziekin eskuararen ehorzteari esku eman lezoketenak.

Batzu etsai, bertzeak uko, goazin gu goraki alde. Ongi ethorri eta milesker gurekin diren guziei.

Elhe on bat zor diotegu hemen bereziki *Eskualtzale biltzarretan* barne direnei; deus hanbat ez eginik ere noiztenka elgarretara biltzea baizik zerbait gehiago ari diren batzurekin. Darraikotela lagun; egiazko, zinezko lagun laguntzaile, hitz bateko gizon eskualdun, egin dezaten lan, jarraikiz.

Diren bezala ere, Bilkura hoiek Frantzian, Espainian, Ameriketean, ja orok zerbeit egiten dute. Dena dela bethi egina egin.

Bertzalde, zuzen da erraitea: eskual iraultzale hoiek ezpaderamate beren ildo urrunago eta barnago, eztirela hor eskual buruzagiak hobendun, bainan ba diragazkagun urthe hitsak. Hobendun ere urtheak baino are hitsagoko jaidura erhogarri den bat, Frantziaren eta Eskual Herriaren galgarri: holako edozoin xede oni buruz lan bat edo urhats bat egin behar denean; hari edo huni lerro bat igorri, edo hitz bat erran;

gizonak elgarretara bil ala hurbil, bethi eta bethi dohakabe bakar batzuen bizkarrera baitago egiteko den guzia, non ezten behar nonbeit aphaindurik agertu «*huna gu*», edo mahainean jarri, bazkaiteko.

Hortakotz othe daude, eskual-egun handietan, hurbildu gabe *eskual-langille* gehientsuak!!! Bakotxak bere aldi, ez higitzea? Bego; ez altxa hori.

Zernahi izan dadin, eztu eskuarak, egungo egunean, halako errorik, ez halako bermatzakirik luzaz irauteko, nola eskual etxea, *la famille basque*. Ezta halako biltzar ez bilkurarik, eskuararen atherbe azkarragorik, ez eta behingo etsaiez axola guti duenik; zahar-gazte, burhaso eta haur; eskual-ginharri, hemen lodixago, han mehexago, den hura orotan bardin zail eta gogor.

Behereko zolan mamitsuago eskuara, damurik itsuago; ez ohartua, zenbat etsai dituen aiher; ez aipatu ere behar, gal ditakelakorik.

Gorago igan argirat, eta begiak idekiago; berek —zauria den baino handiago eginez oraino zenbeitek— eskuara frantsesak ausikika dera-

mala, oraikotik azken hatsetaraten ari dela gure mintzaia.

Ez balinba!

Bitxi dena duzu eta laket eztena: zoin axola gutirekin, hasperen bat ez begilhundura bat gabe dautzuten erraiten eskualdunaren izena merezi ez luketen batzuek; eskuararenak ez duela luzamen laburrik barne.

Guti dire hola mintzo; gaizkiago dena da, mintzatu gabe, ohartu ere gabe, bizitzea eskuararik ezpalitz bezala.

Izaitez ezta ere, bazterrerat utzia dutenentzat.

Alta eskuararen begiratzeko ez litake halakorik, nola orhoitzea: eskualdun sorthu eta Eskual Herrian bizi zarela, eta eskualdunen mintzaia dela eskuara.

Deus balin bada lur hunen gainean zuzenik, hori da; eta bizkitartean zer dugu ikusten han-hemenka? Eskual Herri bethean, asko etxetarik haizatua eskuara; utzia, edo utzixea, kasik ohar-tu gabe, edo bederen axolarik gabe; atxikitze-kotz ere, sehientzat; bainan jaun-anderek elgarrekin edo hurrekin; etxeko-semeak, etxeko-

alabak burhasoekin, gazte lagunekin eskuaraz elhe... beaultzue! Lehenago frantsesa jakin gabe murruska, murtzuka, dakitenen irringarri.

Beren buruak diren baino gehiago eginik edo ezin eginez dabilzan batzuen da hori; bainan emagun auzotik auzora doala, batek bertzea kotsatuz: ondorioak ageriko zenbeit urthe gora behera.

Beharrik eztoazi oro bardin makur. Dakizue-na da: Eskual Herriko jauregi, etxe aberatsen-tan, ikasienetan bethidanik eta, Jainkoari esker, oraino ere badaukatela, ederraren ederrez, beren haurrak bularretik lekhora lotharaztea, lehen hitz... frantsesari othe? Ez; eskuarari; sort-herriko mintzaiari; eskualdun seme-alabek haur-tasuneko ezquila —dorreñoaren itzalean beren lehen eta azken loa egiten ohi duten tokikoari.

Frantsesaren aldia jinen da; bakotxa bere tenorean.

Zertako ez erran hemen gure atsegin uste gabekoa, hirian ere hori hola kausitzeaz; eztela-rik ere burhaso bat baizik, aita edo ama, eskuaraz mintzo? Parada ona bertzearentzat, ikasteko

—eta zoin lagun goxo, gixakoekin!— josteta, burua hautsi gabe nondik has ezin hatzemanez.

Galdatzen daukute ardura, gure mintzai huni lotzeko eskualderik hoberena. Horra bat hauta; bizkitartean bide erdi ez gelditzekotan; xutik joan-eta lehen aphainduratzat haurrari eman eskuara leinhura maiteño hura ez uztekotan goizegi, ez behin ere galtzerat, hitsagoko batzuek ahalge-arazirik.

Ezen erran behar da dena; behin baino gehiagotan haizeak derama ttipian ikasi guzia. Zenbaitetik eztautzute erranen: bortz urthetarik zortzi artean eskuaraz mintzo zirela huts bat egin gabe; hamabi urthetako, arrotz; hemezortzitan, arrunt ahantzia.

Artetik sarthu hor eskola eta bertze asko zer; oro... salbu hastean hain eskualdun eta iduriz bethi hala izaiteko egin buru hetan jarraikitasun gehixago, haurrak haurrean hartu ona eztezan handitzearekin gal.

Nola utz ahotik solas hau, hoin laketa, hoin berogarria eskual-arimadun batentzat? Geldi ordu da bizkitartean. Hauk oro batetara doazi: eskualdunak, nahuzue bagiratu zuen eskuara?

Begira zozue zuen egoitzetan, etxekoen artean, borda ttipi ala jauregi handi, orotan, bere zuzena: lehen alxia.

Hain da eder, jende behar bezalakoetan, bizitzan ikasietan ikustea: erdi-erdian dagola jarririk amaxo, etxeko-andere zaharra!

Onik baizik ez dakarke horrek deusetako.

Eskuaraz mintza, eta bertzalde ikas eskuara. Ikas, erran gabe doa, toki arau, ahal arau, arte arau. Bainan garbiki, behar du gizonak itsu izan, egundaino pitsik ikusi ez ikasi ez dutenak bezen gibela izan behar du, ez onhartzeko eta ez ohar-tzeko ere, mintzai bat ikasi eztuenak eztakiela! Zertako loazke bertzenaz eskolarat frantsesaren ikasterat etxean frantsesa baizik aditzen ez duten frantses umeak?

Ondikotz, ezta urrun joaitearen beharrik, ez hanbat eskuara entzutearen, ez irakurtzearen, eskuz hunkitzeko egunean hamar aldi, eta joiteko buruz, *ikaste eskasaren* ondorioak; nornahi har dezazun: ez jaun ala ba jaun.

Etzautzue bada iduri edozoin mintzaik bezenbat eta gehiago gure hunek pizten duela ikaste-ko gutizia, delakotz ere bertzeak ez bezalakoa?

Eskoletan erakasten ezteno, beharrago bai-
zik ez bakotxak bereaz egin, ahal duen ber;
hitzak bederen apur bat jakin doi, eta hitzen
banazkako ala elgarrekilako harat-hunatak.

Hoik oro eskas, ikasi ez dituenak; *ikasi bere
mintzaia ere; guziz hura*. Hortaz duda!

Ezpaitu eskuarak bertze mintzaiek bezenbat
errextasun eta ontasun ageriko; gogoia baizik
alha etzeien asko eta asko zeren izenak berekin
ezin eginez lanak emaiten baitauzku; delakotz
eskuara —ez othoi erran: ezin heldua, bainan—
xuhurra; gutiz bizi; dituen hek atxik tinki eta gor-
derik; indarka edo itzulika, hurriki baizik ezin
edek. Lan bat hor, bere baitharik eztoana, uste
nuke!

Egia hauk eztituzte ukatuko, arrotz eta fran-
tses jakintsun, gure liburu zahar herdoil eta
erhaults dariotenetan sarthuak ari direnek, ikas
eta ikas. Hor daude guri so —aski segurik dera-
satela zenbaitek— zoin giren ezazol, arbasoen
mintzai azkar ederrari buruz.

Saminagorik erraiten ezpadatzuete oraino!

Jakintsun guziak eztire bardin larri; badazkigu
aski xeheak, begi onez behatzeko gu bezalako-

ren lanari; halako zonbaitek atsegin dukete guk ere ordainez hemen hitz bat erraitea heien alde. Beraz gutartean asti eta ahal dutenak eztagozila orai arte bezen hotz eta motz eskual-argitzale direlakoan alderat.

Eskuara hunen ohiko goiti-beheiti, xokomoko guziak ezagutu nahiz dabiltzanei bertze laguntza handirik egin ezpadezoketegu, erakuts bederen esker on gehixago. Zuzen litake; ba eta eskuararen onetan ere, guti bada guti.

Apez eskualdunei azken hitza; bereziki gazte. Agian sarri, lehen bai lehen agian, eskuararen begiratzeko, hedatzeko lanari lotuko, jarraikiko direnen artean apezek atxikiko dute zuzenez eta eginbidez doakoten lerroa; lehen-lehena.

Gu baino dohatsuago izanen dire balinba gure ondotik heldu direnak. Ikusteko ederrik badagoke hoientzat. Ezpala badaukate behin ikusirik Eskual Herriko eskoletan eskuara frantsesarekin ikasten zoin gehiagoka, batek bertzea poxolatze orde lagunduz, izanen dire berak, apezak, elgarren ikusgarri; frantses eta eskuara, beren bi herrietako bi mintzaietan bardin trebe, sortzetikakorat lerrakorxagoño; bertzeari zuzen-

ki doazken guziak utziz, eman ez, den gutieneko zimurkeriarik gabe.

Har gauzak oro behar diren bezala: gizonki, gozoki, goradanik.

Eskual-ildoan zango bat barna sartuko duenak ez du nahiko bertze zangoa frantses-ildoan axal gelditu. Ez du hor lan batek bertzea osatuko eta sustatuko baizik.

Hau aspaldiko ametsa, erranen othe dut? Agian ikusiko dituztela, ditugula Semenari handian eskualdun apezgaiak eskuara hunen zinez ikasteari lotuak. Elitake goizegi. Zer izanen bada eta ez bada, hemen dut buruan, horrek urte gutiz berea eman lezakela, eta ez bakarrik eskuararentzat.

Eztirea ja hor gaindi zenbeit iratzartzen hasiak? Iduri berantetsiak; noiz izanen den heien aldi, lerroan jartzeko? Zoin gogotik diotegun erraiten: ongi-ethorri! Zahartzera goazinei darraikigula gazteria. Deusek eztiozka langile akituari hala arintzen begia eta bihotza, nola ikusteak, emeki bada emeki, ondotik heldu goiti gazteak, behin laguntzale, eta geroko ordain.

Ethor; ez izan lanaren beldur; gure bizia, lana da.

Iraunen othe du eskuarak luzaz oraino, ala hilen da, eta noiz? Eztakigu; bainan eztugu zeren lokhar, beharriz burukitari: geroak ekarri behar duena dakarla. Geroak emanen du guk edekiko dioguna, eta ez bertzerik.

Ba naski, eskuararen bizia, osasuna, iraupe-na, frantsesaren eta bertze askorenak bezala, Jainkoaren eskuetan dire, ba eta gure eskuetan ere; ez geroko bakarrik; orai beretik.

Bada lan. Ea badenetz langile.

Eskualduna, 1909

**ESKUALDUNA /
ESKUALDUN ONA-RI BURUZ**

Ba edo ez

«Badakizu zer diozun? Ez ginuen sekulan asmatuko izan zaitekela aski gizon atrebiturik, gure artean, erraiteko, finkatzeko, eskualdunak baduela, *bi begitharte*. Zer ausarkeria! Zer gezurra!

Eskualduna! Gizon guzien artean famatua daukatena bere *leialtasun, frankezia*, eta oroz gainerik, *gizonak lur huntan izan detzazken kalitate on guzietz, bi begithartetakoa?... !!!...?»*

Nor da mintzo horrela? *Réveil Basque*, gazeta gorria, eskuara eta frantsesa biak bardin dazkiena, eta *oroz gainerik*, gizonak mundu huntan jakin detzazken mintzaire eta bertze gauza guziak bardin dazkiena eta oraino, oroz gainerik... hobekiago!

Hortarik hasi eta, igortzen dauzkigu *Réveil Basque*-k bi lerro, eta oroz gainerik laueta hogoi-ta hamalau lerro, samur-samurra; eta gehiago dena, biziki samur.

Zer egin diogu othe *Réveil Basque*-ri guk, horrela samurtzeko? —Zer egin diogun? Ahalge-

rekin behar dugu aithortu: egun hamabortz, erran dugu badirela gutartean gizon batzu, *bi begitharte* dituztenak. Hori zaio gaitzitu *Réveil Basque*-ri. Ez omen dezake neholare onhets baditakela eskualdunik, bi begithartetakorik?

Beha zazu: nork behar zuen erran *Réveil Basque*-k horrenbertze barne kilika zuela! «Sekulan ez ginuen hori asmatuko». Baina errana den bezala, nehork uste ez duen tokian dago asko aldiz erbia lo.

Hola denaz geroztik, galdatzen diogu *Réveil Basque*-ri, eian ez duen nehor ezagutzen bere adixkiden artean bi begitharte dituenik: begitharte bat eta aho bat, noizetik noizera Jainkoaz, erlijioneaz, eskualdunaren *leialtasunaz* espantuka beso-gainka mintzatzeko; eta bertze aho bat, bertze begitharte bat, eskualdunak sinhesten eta maite dituen gauzarik errespetagarrienez trufatzeko. Eian *Réveil Basque*, emozu behako bat zure mirailari, ikhusteko zonbat begitharte dituzun, eta nolakoak...

Mintzatu girenean bi begitharte dituzten gizonez, ez dugu aipatu, guk, ez eskualdunik, ez kaskoinik, ez eta *Réveil Basque*-rik.

Xoilki hau erran dugu: «eskoletarik, erlijioea khentzen duen legea ona balin bada, zuzena balin bada, lege horren alde direnek, eta bereziki horren azpiko diren jaun errient eta andre errientsek behar luketela lege hori, den bezala begiratu». Erran dugu asko errientsa eta errient laiko, berek egin legearen kontra ari direla kati-xima erakusten, gobernamenduko eskoletan. Eta hori zertako? Jendearen enganatzeko; begietara erhautsaren emaiteko; haurren gibelatzeko eskola giristinoetarik. Erran dugu lege hori ez begiratzekotz, behar litakela khendu. Ez lege, bai lege; katixima utz eta har; har eta berriz utz; othoitzak orobat: hori ez dela gizontasuna erran dugu.

Ba, erran dugu: hori dela *bi begitharte* ukhaittea. Zer da gero egia balin bada? *Réveil Basque*-k erragula, egia denez hori, bai ala ez?

Badea Frantzian lege bat, gobernamenduko eskolak erlijionerik gabe nahi dituen?

Bai ala ez? Lege hura zuzena dea? Bai ala ez? Zuzen edo makhur, legea lege denaz geroz, behar dea lege hura begiratu orotan bardin? Bai ala ez?

Lege bat, on edo tzar, egin ondoan, lege haren aldekoeri azpitik esku emanaz, bizkitartean berek lege hura hausten dutenak, nornahi izan diton, bi begithartetakoak direa? Bai ala ez?

Emaguzu horren gainean arrapostua xuxen, *Réveil Basque*. Gero eginen daukuzu, nahi bezenbat espantu eta larderia. Bainan aldi bat othoi mintza zaite xuxen. Ihardets ezaguzu galde horien gainean: ba edo ez.

Eskualduna, 1892-11-18

Eskuara gehiago

Jaun batek gaizkiak igortzen dauzku bizi-bizia: ea zer ari giren? Ala frantses hori osoki nausitzerat utzi gogo dugunez *Eskualdun*-ean?

Eskualdun gazeta ttiki hunen erdia bederen eskuaraz egina behar litakela dio gure jaunak. Ez da gaizki mintzo gizona. Dathorla hunat; uzten diogu lan guzia bere gain zenbeit egun edo aste-rentzat. Har dezala, nahi badu, sei hilabetherentzat; bethe dezala *Eskualdun* guzia burutik buru eskuaraz. Dathorla; atseginekin ezarriko dugu bera nausi. Zer diot? Ez baxharrik nausi, baina *langile*. Zato, jauna, sei hilabetez zuretzat lan guzia, eta gero handik harat ere ba aitzina, nahi dukezuno. Egiazki. Ez othoi trufatzat har nere eskaintza. Zin-zinez mintzo nitzauzu. Zato. Heldu zirea, ala ez?

Ez naski? Banuen beldurra! Ah! jauna, zu bezalako kontseilu emaileak merke dire; lana da, *lana* khario egungo egunean. Langile batentzat badituzketzu bi nausi, hamar kontseilari eta ber-

tze hanbertze so-egile. Eskuzko ala buruzko lanetan, orotan bardin da hori.

Gure herritar nekhatzaileek badakite deus ez dela langile batentzat jasan-gaitzago nola baitire bazterretikako elheketariak. Hau ez ongi, hura hobeki, ehun mila erasia...

Gizona, orizu tresna eta loth zaite lanari, edo emaguzu bakea.

Deus ez lakikegu holako solasak laborarien berenganik heldu balauzkigu; eta ez naiz baitezpada hemen heientzat mintzo.

Badituzue, laborari gaizoak, zuen lanak aski; ba eta guk ere alafede zenbeit aldiz...

Halere ez zauku gaitzitzen gure eskualdun irakurtzaile *langilek* eskuara gehixago galdatzea. Aithortzen dugu ez dela lakhet, astean behin gazeta bat erosten duenarentzat, eskuara baizik irakurtzen ez jakin, eta gazetaren laueta-rik hiruak *frantsesez* direla kausitzea.

Hortakotz gure ahal guziak egiten ditugu, *Eskualdun*-ean eskuarari dohakon hedaduraren emaiteko. Larunbat goizetan, gazeta heldu zaukunean, ideki-eta berehala so egiten diogu, ikhusteko ea zenbat eskuara dakharren. Bat,

biga, hiru, lau *sail*... poxi guziak elgarri emanaz, laueko hortara bederen heltzen ez girenean, beltzuri egiten diogu: «ez aski eskuara».

Nor da hobendun? Nehor ez, eta oro.

Bainan bitxikeria hau da: «zertako ez bederen Eskual-Herriko berriak eman eskuaraz?».

Galde horri behar diot hemen ihardetsi ahal bezen xuxen eta garbiki. Ez da oraiko solasa. Dugun ikhus, ea hortan bederen nor den hobendun, eta zer dezakegun, ahalaz oroen gogoaren hatzemaiteko.

Berri guziak ez dire toki berean gerthatzen, ez eta ere beren baitharik heltzen toki batetik bertzera. Ez gu ere, gazeta-egile edo irakurtzale, ez gira oro herri berean bizi; zu zure xokhoan, ni nerean.

Ez detzazkezu zuk nere berriak jakin, ez badaitzut nik igortzen; ez nik ere, ez dazkiket zureak, baldin zuk edo zurekilako norbeitek ez balin badaitazue heltzen.

Orai huna zer gerthatzen den gure artean. Baditugu bazterretan adixkideak, hastean aipatu dugun jaun hori bezala, ederki mintzo direnak. Iduri dute bihotzez atxikiak direla *Eskualduna*-ri.

Begi onez ikhusten dute gazetaño hau beren herritar nekhatzaileen eskuetan. Lakhet zaiote, behar bada, berei ere hunen irakurtzea.

Bizkitartean badakite gazeta bat ez dela bere baitharik egiten. Badakite nehondik neholere ez detzazkegula guk hemen bazterretako berriak xuxen eman *eskuaraz*, zoin beren egunetan, baldin ez balin badugu igortzailerik. Baditugu han hemenka zenbeit bakhar; bainan ez dakit nola: lokhartzen zauzkigu ardura, edo bertzela lan handiak dituzte; bethi zerbeit estakuru.

Aste ondarra ethorri da ba? Gu Eskual Herriko berririk gabe. Dazkigunak igortzen ditugu *Baionarat* (non ez gituzten gu ere bertze lanek edo zerbeit buruko minek gibelatzen).

Baionan egiten da *Eskualduna* ortzegunean. Gu ez gira han orduan, berri biltzeko. Zer gerthazten da? Gure langilek ez baitakite ongi eskuara, gazeta frantses batzuetarik ebaska bezala hartzen dituzte berriak, eta ezartzen *Eskualdun*-ean hala-hala: *frantsesez*.

Zer egin beraz? Egun horietarik batez bertze adixkide bati erraten nioena: «bakhotxak bere herritik igor ditzala eskuaraz berriak; hala nola

zuk zure herrikoak, jauna, baituzu aitzina edo asti, eta jakitate, Jainkoari esker». Bertze alde, zer jakitate behar da, berrien igortzeko? Aski da ez izaitea alfer eta zikhoitz.

Jaunak ihardetsi daut: *ez dela lan hori haren egitekoa*. —Milesker!

Eskualduna, 1894-05-18

Bederatzi urthe

Egun bethetzen ditu bederatzi urthe, lehen aldikotz agertu zela *Eskualdun* kazeta hau. Hamargarren urthean sartzera goazi.

Gure xedea zen orduan Eskual Herriaren gure ahal oroz argitzea eta laguntzea bere zuzen ala behar-ordu guzietan. Eskualdun girstinoa nahi ginuen eta nahi dugu oraino ere argitu erlisionearekin egiazko gizontasunari doazkon eginbide guzien gainean. Zertarik eta nola, noren nahi-tik doazin legeak, on ala tzar; zertako eta nola behar litazkeen lege tzarrak khendu, makhurrak xuxendu; nor diren lege hoieri buruz gure etsaiak, eta nola behar litzaioketen etsai heieri orotan ihardoki; zer ondorio dakharketen gaixtaginek eginikako eta egin-gogoko lege galgarriek, luzaz nausi uzten baditugu: horra laburzki hastapenetik hunat zeri nahi izan ditugun ohartarazi eskualdun gure irakurtzaileak.

Xede berean gira bethi; bainan xede hortarat buruz egin othe dugu, eta egiten zerbeit onik? Ez othe doa gure lana gutiz gehienentzat alferre-

tan? Ez, ez balinba! Gutienetik bederen balinba bederatzi urthe hautan jarraiki zauzkigun irakurtzaileetarik zenbeiti zerbeit onik sarthu ahal diotegu buruan.

Zenbeiten gogotik asko ilhunpe, asko lanho khendu dituzkegu; itsu zenbeit argitu, zenbeit gezur suntsitu, egia zenbeit ere ba ezarri lur onean behingotz ongi landaturik...

Bertzenaz alabainan etsitzeko litake osoki Eskual Herriaz; ba, egiazki etsitzeko eskualdunen fedeez, gizontasunaz, gure arbaso atzar eta erne, giristino azkarrek utzi dauzkuten ontasunik ederrenez! Jainkoak begira gaitzala!

Datxikagun bethi gora eta zut eta oso gure eskualduntasuna; datxikagun hemen, gure sorherrian, gure lurrean, gure etxeetan gure nausitasuna. Ez utz gure eremuetan *arrotza*, bereziki arrotz *etsaia* nausitzerat. Dagola baxhotxa bere zedarrietan.

Gure buruen jabe nahi badugu egon bethi, jakin dezagun beldurrik gabe, behar arau mintzatzen eta egiten. Ez izan uzkur, ez herabe. Jazar etsaiari, zangoa buruaren gainean ezarri nahi leraukigukenean. Eta ez badu sinhetsi nahi

gu girela, gu eskualdunak Eskual Herriko nausi,
jo muthurrean.

Etxeko-jaun batek nahi othe luke bere etxean
arrotz bat nausitzerat utzi? Halaber dezagun
herrian herriko gizonak atxik bethi gure nausita-
suna. Elgar lagun, elgar argi, elgar susta eta sus-
tenga. Ah! baginaki horrela eskuz-esku, biho-
tzez-bihotz *orok bat* egiten... baginaki! Zer inda-
rra ginuken etsaiari ihardokitzeko?

Batzuek uste dute, hauk oro kazeten eta
kazeta-egileen egitekoak direla. Herriko goiti
beheiti guzia, lege on, lege tzar eta bertze...
hots, *zer* eta *zer* guziak oro gogotik eman litzaz-
kete jauntto batzuek gure gain, *kazetari* hotz eta
hits, ahul girelako batzuen gain. Hortakotz araiz
igortzen daukute noizetik noizera: ea zer ari
giren? Lokhartu girenez ala *farlesian* erori?

Barkha othoi bizitasun hau; bainan ez nauke
erran gabe: garbiki, ez daukatela baden hori
baino *astokeria* handiagorik. Zer beraz? Guk
behar ginuke, guk bakharrik lur hau argitu,
onthu, erabili! Eta zuek, jaunak, deus ez? Orobat
lakiket erraitea, egunazko lanak oro iguzkiak
behar dituela egin; eta gauazkoak? Nik dakita?

Hek naski hilargiak edo supazter xokoko arraxin-argiak. Zaude, nausia; eta zu, etxeko-andrea, zaude bi besoak kurutzaturik, argiari so, ea zer ikhusiko duzun? Nik hitz derautzut, egun eta gau laburrik barnean, bazter pollitik eta zokho garbirik *argituko* duela zure *argiak*.

Ez da erraiteko baizik, halako igel, apho eta bare batzu behar ditugula guk ere zenbeit aldiz iretsi... edo barneak gaindi egiten duenean, holaxet jin bidez gibelerat igorri. Goraintzi nor ere baita hura eta hari.

Bertze batzuez erranen derautzute, burua bi aldetarat derabilatelarik, bi besoak, bi begiak goiti altxatuz: «ai, kazetak..., kazetak! Hobe litake, miletan hobe ororentzat, bat ere ez balitz kazetarik; haro gutiago litake den baino bazterretan; makhurbide, nahaskeria gutiago».

Hala da hori, egia da, egia handia, gizon maittea. Bainan ez baita ordean... zer *litaken* hobe; zer *den* hobe baita solas.

Zuk eta nik hau edo hura *hobe litakela* erranikan ere, urak aitzina bere bidea eginen baitu bethi.

Guk erranikan ere: miletan ehun miletan hobe litakela kazetarik ez bertze halako paper zurruburru hoitarik ez izaitea; *baitire* ordean kazetak; *baitire* kazeta tzarrak eta tzar heieri behar-orduan ihardesteko behar *baitire* kazeta *onak*. Ez da hor harat-hunatik; debalde dugu lehengo mende eta jende dohatsuak gogoan, jarririk egoitea, gibelerat beha.

Jeiki beraz hortik eta itzul, itzul alde huntarat hunat; ez gaizki dabiltzanei jarraikitzeke, bainan gibelerat dakharzkikegunen biltzeko; edo bederen gure buruen hobeki zaintzeko, ikhusiz bertzeak nola doazin eta zerk galtzen dituen.

Bide makhurretik doanak du bide xuxenaren erakusle *beharrena*. Eta xuxenean denak daki, zer eta nolako lanak dituen; zenbat argi eta laguntza behar diren, xuxenetik makhurrerat ez zehartzeko.

Banuke hor engoitik aski erranik, gor ez denari adi-arazteko, nahiz ez duten, gorago erran dugun bezala, *kazetek* egiten baxharrik egungo eguneko gora-behera guzia, bizkitartean hein batez, bai oneko bai tzarreko, indardun

direla kazetak. Zorigaitz kazeta onek baino tza-
rrek irakurtzale gehiago duten herriari!

Debruak darama laster hango jendearen fede
oso eta zinezkoa, gazteriaren garbitasuna, herri-
ko buruzagien zuzentasuna; hitz batez, erlision-
nearen *funts* guzia.

Solasa luzegi dakidan beldurrez ez naiz mint-
tzo kazeta on batek erlisioneke eta gizontasu-
nezko egiez kanpo bertzalde dakharzkitzan
argiez, bereziki *laborantzari* buruz. Munduaren
lau bazterretako berriak ere aphur bat jakitea on
da; lakhet da. Egungo egunean, asko bilkhure-
tan, bertzeak nonbeitko gora-beherez mintzo
direlarik, deus ez dakiena zozo da; eta zozo ez
denean are gehiago ahalgetzen da bere buruaz,
ez dea hala?

Ixiltzen naiz; bertzenaz nere lagunak samur-
tuko zauzkit, toki guzia ebasten diotedala...

Eskualduna, 1896-03-13

Hamabi urthe

Hilabete hunen hamabortzean bethe ditu *Eskualduna*-k, egunez egun, hamabi urthe.

Hamabi urthe: ez da baitezpadako adin bat, adin hori, gizonaren biziari so egin-eta. Bizkitartean, hamabi urthez asko itzuli eta goiti-beheiti ikhusten ditu gizonak; ba eta gutiago urthez ere, bereziki egungo egunean. Gauza guziak oro pekoz-gora ez doaziea?

Gogo eman baginezote xehetasun guziei harri ginintazke, zenbat handi ttipitzen diren eta zenbat ttipi handitzen hamar bat urthez. Zenbat hiltzen eta zenbat sortzen!

Ez gira mintzo baxharrik gizonez, baina gizonari doazkon zer guziez. Esku-lan, buru-lan, etxe, bide, lur, argi eta nik dakita oraino zer? Guziak oro... edo bederen, oro ez-bada, gehienak ikusten ditugu goihen-barren itzulikaturik.

Izaitez ez bada itxuraz, eskuz edo nausiz, bethi oro nolazpeit aldatuz doazi. Batzu onthuz, bertzeak tzartuz; bana bertze, azken hameka, hamabi urthe hautan, onari tzarra, zuzenari

makhurra nausitzen ikhusi dugu. *Eskualduna*-k bethi bere ahala egin du Eskual Herrian zuzenari eta egiari indar emaitako. Ez alferretan; ezen ez da oraino etsaia orotan osoki nausitua. Anhitz tokitan oraino, Jainkoari esker, herriko buruzagiak, herriko nausigoa daukaten gizonak alde ditugu; heiek ere ba gu. Elgar lagunduz oraino zerbait egin dezakegu, Eskual Herriaren onetan.

Ez etsi, ez lotsa: zuzenak indar du, nehork uste baino gehiago. Bego zuzenari bide; goiz edo berant, jaliko da hura noiz-bait, non ez dugun haren aldekoek orok batean ukho egiten. Ez dezagun ukho egin; eta segur, azken hitza guretzat izanen da. Guretzat edo gure ondokoentzat. Ezen heietaz dugu, eta ez gutaz guhaurez griñarik handiena. Daukagu, ondokoez orhoituz, geroari buruz ahal dukegun ongi guzia eginez, eginbide bat bethetzen dugula; eta ez hala-hulako eginbide bat, bainan gure eginbide handienetarik bat. Xede hori gogoan, horri buruz deramagu bethi aintzina gure lana. Deusek ez gitu orai arte xede hortarik gibelatu, ez eta ere gibelaturen, Jainkoaren eta adixkide onen laguntzarekin. Deusek: ez batzuen hoztasunak, ez eta bertze

batzuen esker gaixtoak. Zenbaitek araz hahemenka begietan gituzkete; guk ez dugu, gure ustez, bertze etsairik Eskual Herrian gal-arazi edo bere zuzenez gabetu nahi luketenak baizik. Gaizkia gaizki dela, gezurra gezur dela, zuzen ez dena ez dela zuzen erran dugu bethi; eta bethi erranen ere ba. Hanbat gaixtoago, hunkitua denarentzat!

Eskualduna lehen aldikotz agertu zenean, zenbaitek zioten: «ez du iraunen; bi urthe gabe hilen da». Bi urtheak joan ziren bertze zenbaitekin.

Gero berriz gure adixkide deputatuak gorriek garhaitu zituztenean, ohiko profeta berak entzun ditugu erraten: «oraikotik, akhabo *Eskualduna*. Alabainan, politikan auzia galduz geroz, zertako ager gehiago?». —Zertako? Eskual Herrian ahal dukegun ongiaren egiteko, eta ahal dukegun gaizkiaren ezeztatzeko. Politikari, on-gaitz anhitz darraikio; eta hortakotz da etsaia gehienik politikari aiher. Bainan ez da mundu huntako ez-baiguzia politikan fini. Bada bertzerik. Hor da familia; hor da erlisionea; hor dire mundu huntako ala bertzeko gizonaren zorionari doazkon egite-

ko guziak. Hoitan da gure sinhestea. Hoik ditugu neholere begiratu nahi, hatsak dirauguno.

Xede hori gogoan eta bihotzean barna sartua daukagularik, sartzen gira gure hamahirugarren urthean.

Oxala, guk bezala, bertze zenbaitek ere, sarrixago gauza bera erraiten ahal balute, gure adinera heltzearekin... heltzen badire!

Eskualduna, 1899-03-17

Bortz mila... hurbil

Iragan urtharrilaren zortzian agertu zen, *Eskualdun* zenaren ordain, *Eskualdun Ona*. Bortz hilabetheren buruan, erran dezakegu, ez diola irakurtzaleen eta gutarteko batasunari kalterik ekharri, ez eta engoitik ekharriko, izenaren berri-tzeak.

Hogoi ta bi astez igan gira bi miletarik laueta-
ra. Zer diot? Bortz miletara hurbil-hurbila hel-
duak gira eta ja; eta bethi aitzina joaki. Aste
guziez handik edo hemendik heldu zauku hamar,
hogoi, berrogoi *Eskualdun On* gehiagoren gal-
dea.

Banazka bethi zonbeit abonamendu berri;
eta noiznahi saltzale berri edo zahar... aintzinka
bezala, ehun, berrehun aste bakhox gehiago
baderamatzagute. Nun uste duzue girela? Bi
miletarik hiru mila berehala jo ginintuen; gero
hiru; gero lau. Gero? Huna nun giren bortzekora
hurranduak.

Norbeitek erran ere badaut: «etzazula aipha
oraino; hemendik bizpalau asteren buruan, bortz

miletan harat baigoazke, orduan emanen duzu, orok ikhus dezaten, kazetaren hastean, hitz larriz: *Bortz mila*».

Ba bainan orduan bertze zerbeit aiphatu beharragorik badukegu. Egun aldiz artea dugu, elgarrekin mintzatzeko, zertan giren.

Luzatuz, gertha lakikegu ja gerthatu zaukuna. Gure Pochelou adixkide onari zinez hitzema-na ginion, lau miletaratzen ginenean, kukuruku eginen ginuela hemen, hastapen huntan; labur ba, bainan ahal bezen gora eta azkarki.

Lau milakoa jin; joan, joan goiti, holetan bortzetaraino hurbil. Arte hortan, bertze solas-bide asko ezin utzizkorik sorthu.

Eta futxo, aldian xori bat baizik ezin biphil. Halaxet astetik astera luzatu dugu beraz; bainan ez ginauden ahantzirik, ez eta gogoa saldurik.

Gure lan idorrari buruz eta bihotzez garraizkolarik, atsegin dugu ikhustea, ez doazila guhau-ren eta gure laguntzailen ahalak oro alferretan. Urrun da, bortz hilabetez, elgarren laguntzari, eta gutarteko batasunari esker, holako jauzia egin dugunaz geroz.

Lotsatzekotan izan bagine (nahiz ez ginen hala), baginuke hau bera aski, bihotzaren altxagarri. Ezen zer da langilearentzat hoberik... barnea hobeki hatzeman dezokenik zer da, baizik ere ikhustea, norentzat ere baita lanean ari, eta harenganik esker ona duela lanak?

Hola goazinaz geroz, eta hola goazino, agian luzaz, eskerrak hemen bihotzetik gure irakurtzailei. Guziz irakurtzale zaharrenei, zeren zauzkun bethi jarraiki; eta zeren duten gure kazeta beren inguruetan ezagut-arazi.

Eskerrak adixkide aizinadun, argitu... argitzale on, asko gisetara ja zenbeit hilabete huntan kazeta hunen bethetzen, aphaintzen, aberasten, hedatzen... hegaldarazten lagundu gaituztenei.

Eskerrak herrietan ditugun saltzale jarraiki eta biphilei. Goazin hola, eta bethi gero-ta hobeki, elgar lagunduz, argituz, eta behar-orduan... xixtatuz (minik egin gabe) lokhartzen denean gutarik bat edo bertze.

Goazin bethi aitzina..., aitzina norat joan bide deno.

Elgarri gauden tinki, azkarrago izaiteko. *Eskualdun Ona*-ren egile eta hedatzale, eta ira-

kurtzale, Jinkoak lagun gitzala oro. Badugu beharra.

Eskualdun Ona, 1904-06-03

Pas un

Badugu astean behin zertaz mintza *Eskual-dun On* huntan; egun guzietakoa ere baginuke. Eta bethi berri, nahiz aspaldikoak oro, edo gehientsuak, solas berera doazin. Dakizuena.

Egun ez nauke, oro utzirik hitz bat erran gabe, guri, gazeta hunen egilei eta hunen adixkiderik hoberenei doakuna.

Garbiki erraiten dautzuet: ez nauke hau gogoan ixilik. —Ea zer? —Huna, orizue, berehala; eta elhe gutiz.

Iragan udan, gure langileen eta lanaren nau-sigoa bere gain zuen jaun gazteak itzuli bat egin zuen Eskual Herrian. Jo hara, jo huna ibili zen; dela oinez, dela burdin bidez, dela bizikletaz. Bat bertzearen ondotik herri handienak oro kurritu zituen, orotan trikatuz ezagun berri zenbeiten egiteko, eta xaharrekin ere, bi elhe onen egiteko doia. Hendaiatik Atharratzeraino, Bastidatik Baigorriara, Donibane, Ustaritze, Larzabale, Donapaleo, Maule, Espeleta, Hazparne, oro hartuz, orotan behar zen denbora geldituz, bere burua eza-

gutarazi zeien; eta xehetasun asko eman ere ba, zenbeitek behin ere entzun etzituztenak omen.

Beltzuri bat nehork nehon ez bide zion egin. Askotan askok eta hots, orotan kasik orok begitarte on erakutsi zioten. Haren galdeari, othoi lagunduko ginintuztenez, ahalaren arabera, gazetaren egiten eta hedatzen, anhitzek iduriz gogotik hitzeman zioten baiez.

Hitza atxiki ere ba zenbeit bakharñok; bospa-seiek; erran den itzulia etzuela osoki alferretan egin erraiteko doia. Mintzo naiz herrietako gert-hakarien heltzaleez.

Gerthakarien heltzale, berri igortzale guti dugu biziki; denik ere, gehixago, gure jaun gazteak bere itzulia herriz herri eginez geroztik.

Othoiztuaren bortxaz, bakhar zenbeiti azke-nean bihotza hausten zeie. Bertze deus hitzeman nahi ez daukutenek ere, bederen elhe ona eman diote gure gizonari. Dena ere on.

Ehun, berrehun arte hori eskualdun on beren tokietan zerbeit eta norbeit direnekin ezagutzak eginez geroz eta solas, hemen trika, han trika eta orotan trinka; uste ukhan du araiz, edozoin laguntzaren ardiesteko, aski zuela xixtu bat egi-

tea, edo kheinu bat urrundarik *Eskualdun Ona*-ren, eta bere adixkide zahar eta berri, hain berri-tan bere begiz ikusi heieri.

Letraño bat itzulikatzen dautzu, labur eta xuxen, hitzak argi eta ezti; eta ez baitzezaken letra bera berrehun aldiz egin bere eskuz, bako-txari baten igortzeko, inprimarazi du pollikiño; bere izena zolan eman, larri; eta igorri postaz, aitzineko egunetan elhe onez hanturik utzi zute-nei.

Zera zeien galdatzen: othoi bakotxak igor zitzola Eskual Herritik kanpo bizi diren eskualdun zenbeiten izenak, eta non ere baitaude eta hango heien adrezak. Nahi zukela urrungo eskualdun hetarik zenbeiti hel-arazi *Eskualdun Ona*; segur anhitzek hartuko zutela gogotik, Eskual Herriko berriak jakiteko baizik ez balitz ere, sor-mintzai poxi bat irakurtzearekin.

Gazeta egileak nahi du alabainan bere lana hedatu, saldu; langileen egunsaria nonbeitik behar baitu bildu.

Ditaken gauzarik errexena da... edo zen, edo litake oraino ere, paperño hura irakurri-eta, gogoz egitea herriko edo bederen auzoetako

itzulia: ea zoin diren etxeak, seme edo alaba, norbeit han nonbeit, Ameriketan, Espainian, Bordalen, Parisen, mundu zabalean duketenik. Hamar, bospasei, bizpahiru adrezañoren biltzea, xakurrarekin jalgi-aldiño bat egitearekin, aire hartzeko... debrua izanik ere, ezta lan bat.

Berak egin eztezenak edo ez nahi, norbeiti egin-araz lezoke aise; zenbeit izen lerroan paper batean ezkribuz emaiteko aizina eta borondate ona lukeen gizon bat, xuri edo beltz, *bat* hatze-manen eztuzun herririk ezta. Ezta.

Hartakotz galdatzen zuen gure jaun gazteak, othoi bakotxak berak, edo norbeitez, egin zezola hari, eta guri, atsegin hori.

Zenbatek uste duzue, diotela ihardetsi? — *Batek.*

Eta bat harek ere zer eta nola? Herrian berean, auzoan duen gizon baten izena emanaz, auzo hura bildurik, abonamenduaren hartzera.

Gabea baino hobe, segurki, eta milesker nor ere baita eta hari.

Bainan berrehunetarik *bat* higi, eta bat harek hemengo izen bat.

Nehork ez urrungo eskualdunen izenik. Bazautzuea? Behar-bada ez. Niri ba.

Nondik nahuzue iraun dezan, hoin guti lagundua den obra onak?

Badago eta badao, guhauk dakigu nola. Baina gu ere bagoazi. Gero?

Geroko erroak non ditu *Eskualdun Ona*-k? Noren gainean dezake konda? Non ditugu eta nor laguntzaileak? Zinezko adixkideak nor bada, eta non?

Bitxi da, zoin neke zeien kasik orori Eskual Herrian, atsegin egiteko, ongi egiteko, bi lerroren izkribatzea, eta bi soseko tinbre bat gainean lothurik igortzea. Lehenago bazkaiterat eman lezazukete, bihotz onez; ba eta behar orduan bortz liberako bat edo biga.

Diru eta bazkari, oro on dire beren aldian; baina; baina zuk galdatzen duzun hura; behar duzun hura, etzinezokete jalgi, aitzinean belhau-niko jarririk ere. Baduk hoberik!

Aizararik edo astirik eztuenak eztu. Baina hura duenak zer othe du eskas?

Bitxi baino bitxiago dena da, ez, adixkidea, zuk nitaz eta nik zutaz axolarik ez ukhaitea. Bai-

nan axola dutenek; dutela diotenek, nago, non duten bada?

Notari, aphez, errient ohi, mediku, arrantier eskualdun zahar, eskualzale, *bascophiles* eta bertze aizinadun guziek, ororen artean urrungo eskualdun baten izena ez igortzea, *mais pas un...* errazue, hots eztea bitxi?

Bitxi erraiten dut, bertze zerbeit erran beharra.

Hemen hau nik egun emaitiak deus ekharriko ez badu ere, dagola hor.

Eskualdun Ona, 1907-11-22

NARRAZIO BAT

Emazte elheketari, buru gaixto...

Behin baziren bi senhar emazte xahar. Emaztea etzen baitezpada gaixtoa, nahiz adin batetaz geroz emazte gehienak gaixtutzen diren. Oxala ez balire oraino gazterik hartarutzen!

Beraz gure atsoa etzen gaixtoa; bizkitartean etzen ere itzalik gabekoa. Bazuen aztura bat neholere ezin utzia: mihia luze eta zalhu; ezin egon mintzatu gabe. Senharrak hau edo hura erraten zionean, edo zerbeit gora-behera gertatzen balin bazen etxean, berehala bazoan emaztea lasterka auzoz auzo, orori erratera; guziek behar zuten jakin haren berri. Etzagoken ixilik.

Eta gero deus etzuen erraten garbiki eta xuxen, ikhusi edo entzun bezala; zenetik etzena behar zuen egin, xehetasun guziak handituz eta edertuz ez dakit nola; asko aldiz orobat guziak burutik buru berak eginez. Aiphatzea kasik bitxi zitaken gauza batetarik eginen zuen mendi bat, sagutik otsoa, ulitik arranoa.

Behin baino gehiagotan senhar gaizoak behar ukhan zituen jasan emazteak bere mihiatz batzuer eta bertzeri egin bidegaberen ondorioak. Emaztea emaztekin samurtu eta, azkenean gizonak gizonari jazartzen zitzazkon, iduri-ta hurazzen orotaz hobendun, gizagaizoa!

Egun batez gure xaharra joan zen, behiak uztarturik orgekin, oihanerat othetxaketa. Patar bati behera zoalarik, horra non ohartu zen lurra bertzetan baino han harroago zela; iduri zuen irauli edo aitzurtu berria; zenbeit tokitan behekitua zen, eta zangoa gainean eman orduko zilo bat egiten zuen.

«Zer da hau? Hemen behar othe zaizkit sarturik gelditu nere behiak eta orgak. Goazin ikus lehenik ea nork zer egin duken lur huntan?».

Hartzen bi eskuz aitzurra, eta emekiño hasten da lur igituaren altxatzen. Hiru zehe barna zilhatu dueneko, agertzen zaio lurpetik untzi baten ezkina. Inguruan khentzen du lurra bazterretarat, eta zer du hatzemaiten? —Eltze handi bat urhez eta zilharrez bethea...

«Ah! zer fortuna! Oraikotik aberats gira zu eta ni, Maria».

«Ba, Mariak ez baitaut ordean atxikiko sekretua. Bihar goiza gabe, herri guziak balakikek; alta bada holakoak eta halakoak jakinez geroz, zer hatzeman dudan, ez diagu bakerik, ez bizi onik. Zer egin...».

Bide bazterrean jarri eta han zagon bere buruarekin gogoetan Extebe, behiak hatsmarrun ari zirelarik.

Azkenean xutitu zen jauzi batez bet-betan, zerbeit mirakulu gogoratu balitzaio bezala.

Eltzea bere urhe eta zilharrekin sartzen du berriz lurpean; estaltzen du lur igitu hura ongi ostoz eta lapharrez; eta badoa bere bideari aitzina othetxaketa. Orgak erdi hutsik joan zen etxerat, xoria bezen arin. Behier uztarria khendu-eta, emazteari deus erran gabe, etxe gibelean gaindi, joan zen handik auzo hiri batetara.

Hiri hartan erosi zituen xarbo bat eta erbi bat, biak bizirik; eta joan zen etxerat oihanean gaindi itzulian.

Xarboa ezarri zuen buztanetik estekaturik haitz baten gainean, adar gorenatarik batean. Erbia aldiz ezarri zuen ur handiaren erdian soka

luze batekin harri handi bat zangotik, ihesi joan etzadin...

Gero badoa lasterka eta bide laburrenez etxerat. Etxen sartzearekin erraten dio emazteari: «ez dakizu, Maria, zer ikhusi dudan oihanean? —Zer ikhusi duzu, Extebe? Erradazut berehala; erretzen ari naiz, jakin nahiz. Ah! banuen ba, beldurra, zure begitharte arina ikhustearekin, zerbeit bazinuela errateko. Badea berriagorik? —Ba, bainan, Maria, zuk orori salhatuko diozute ene balentria. —Ez, gizona, nehuri ere ez diot aiphatuko.

Ez ea nehuri ere? —Nehori. —Hitz-emaiten dautazu beraz? —Hitz-emaiten dautzut; behar duta besoa altxatu, zin egiteko? —Ez, ene Maria. —Beraz, Extebe gaixoa, errazu othoi, zer da? —Zer da? —Zato hunaxe hurbil, Maria; beharri xilora erranen dautzut. Ixil-ixila, egon gero eni, haurkeriarik gabe! —Ba, gizona, ba; bainan erdi zaite hortik; xigortua nago hemen; zer othe dukezun? —Huna zer. Oihanean hatzeman dut eltze handi bat diruz eta zilharrez mukurru bethea. —Zaude ixilik! Ba othe? Eta zertako ez duzu etxerat ekharri? —Ohoinen beldur nintzan, nihaurek ekhar-

tzeko. Nahi baduzu, joanen gira bilha sarri biak elgarrekin. —Goazin berehala. —Goazin».

Badoazi beraz oihanerat biak elgarrekin. Bidean solas egiten dute. Senharrak erraiten dio emazteari:

«Egun hautan ikhasi dut gauza bat, uste ez nuena: arraintzaleak ihiztari bilhakatzen omen doazi, eta aldiz ihiztariak arraintzale. —Zertako othe? —Zeren eta, Maria gaixoa, oraiko arrainek arbola gainean egiten baitituzte ohantzeak, eta hala-hala oihanetako ihiztiak ur handietan bizi baitire. —Emazu bakea; egia dena da, oraiko jendeak ez dakitela holako gezur buru-buztan gabe ko hedatzen baizik. —Ez duzu sinhesten, Maria? Sinhetsiko duzu, ikhusi-eta, so egizu goiti; ea zer den hantxet erdiko haitz-adartto haren puntan?».

Hainbertzenarekin, kheinu egiten dio emazteari eskuz eta begiz: «ez duzu ikhusten xarbo hura han dagola dilindan, ahoa xabaldurik, buztanaz abarrari lothua? —To, hala da, ez nuen sinhesten, orai ikhusten dut. Bainan nola igan da ordean xarbo bat haitzari goiti hoin gora? Nola dago han kokatua? Hauxe da mirakulua! Nola

litake hori? Ez, ez; bada hor zerbeit sorginkeria; zoazte gero, egizue sorginez irri, gizon horiak...».

Gizona han dago xutik, lephoa goiti bihurtua, bi esku-muthurak bi sahetsen gainean landatuak, ahoa zabaldua, begiak luzatuz, bere bait-han erraten balu bezala: «egia balitz, oroen buruan, emaztek diotena: badirela egiazko sorginak? Nork daki?».

Emaztea bere aldetik harrিতua dago goiti so, beheiti so. Begiak thorratzen ditu, hobeki ikhusteko. Xarboa bethi han, gainetik behera so, iduri irriz... Bitxikeria!

«Zoazi, Extebe, igan zaite, eta hatzemazu xarbo hori; sarri nik erreko dut, eta zuk janen, ez dea hala? —Hala da».

Igan zen beraz eta xarboñoa eskuetarar bilburik jautsi; eta biak lothu ziren etxerako bidea-ri.

Ur handiaren hegian zoazilarik, senharra betetan gelditzen da, urerat begira. Emazteak galdatzen dio, zer duen? —«Ez dakit, Maria; bainan zerbeit bada hemen; ez duzu ikhusten ura igitzen dela? Behar dugu jakin zer den. Zaude zu

hor. —Ez; heldu naiz ni ere, zurekin, zer gertha ere».

Badoazi ur hegiari behera; hurbiltzen dire ondoraino, eta zer dute ikhusten? Erbi bat uraren erdian igerika!

«Zer erran dautzut nik, Maria? Erbiak arrain bilhakatu zirela, ez dea egia? —Egia zen eta hala da. Zoazi, unthuts zaite eta urean sarthurik, hatzeman ezadazut ihizi hori zangotik».

Erran bezala egin. Badoazi etxerat, batek xarboa, bertzeak erbia eskuetan xoratuak, hogoi urthez bederen gaztetuak.

«Gaurko afaria eta biharko bazkaria baditugu; ez dute orotan holako errekirik. Zer muthur gorria izanen duzun, Maria, zuk bihar arratsaldean! —Eta zuk, Extebe, zer pottoka! —Otoi emazu aphas, emazte ergela; aditzen bagituzte, xahu gira.

«Handiena oraino ikhustekoa dugu». Ehun bat ixtape egin-eta, gelditu ziren berriz, gizonak emazteari ziolarik: «huna hementxet urhez eta zilharrez mukurru bethe eltzearen gordegailua. Goazin emeki deus hautsi gabe».

Baztertu zituzten lapharrak eta ostoak; lurra altxatu zuten, eltzea inguruan agertu. Khendu zioten estalgia, barnearen ikhertzeko. Oso-osoa eta bethe-bethea zela ikhusirik, hartu zuten bi giderretarik; gizonak ezarri zion berehala emazteari buruan; eta bera zain gibeletik zarraikion, ahapeka erraten ziolarik: «Maria, badugu behingo ontasun; ez gitu bederen aurthen goseteak hilen».

Holaxet erasian joan ziren etxerat, afaldu-eta oherat.

Biharamunean hustu zuten eltzea, eta bertze zerbeit onez betherik ezarri zuten. Etxeko-andreak hil zuen oilarra, eta gero handik ondoko aste guzian egun oroz oilo bat. Hainbertze urhe eta zilhar ikhustearekin alabainan mothoa makhurtu zitzaion gure Mariari eta burua... ez xuxendu. Egunduz ez dakit nolako bazkariak eta afariak han ziren; auzo guziak harat-hunat han zabilzan. Goizetik arrats, gauaz ez egunaz etzen atheratzen jendea. Jan eta edan eta oihu, eta jauzi...

Extebe gaizoa harrtua: nola iraun, eltze bat urhe eta zilharren orde, etxearen bethe ukhanik ere?

«Maria, othoi goazin emeki; beldur niz... — Zeren beldur? — Buluziko gituzte auzoek, eta larrutuko. — Zer da gero? Jakin zazu, Extebe, eltze-urhe hori biek hatzemaña dugula; biena da, eta nahi dutanaren xahutzeko badut nik zuk bezenbat esku. — Ba othe? — Ba naski! Diru hori zurea balin bada, enea da».

Batek ez, bertzeak ba, eta bethi azken hitza Mariak.

Ixildu zen beraz Extebe gaizoa, etsiturik emaztearen heztea, behin nausitzerat utziz geroz.

Bizkitartean ikhusi zuenean azken beltzera zoazila, samurturik erran zion: «ori, Maria, nahi duzuna eginen duzu; nik ez dautzut gehiago dirurik emanen urari behera arthikitzeko. — Ez ea zuk? — Nik ez». Batek oihu, bertzeak marruma, hor hasten dire borroka.

Atso zaharra senharrari aztaparka lotzen zaio, iduri-ta begitarte guzia larrutu behar diola: «hizen bezalakoa! Hortarik ari haiz! Ago, ago; ez

diat hire sos zikhinen beharrik, alferra, zikhoitza, barea, ohoina... ago. Nik begiratuko haut hire diruaz gozatzetik. Zorrez eta zorritz estalia behar-ko haiz ibili, nahi baduk eta ez baduk, eske, eske hor harat etxez etxe, bide bazterrean leher egin arte. Ez hiz urrikaltzekoa izanen, hizen bezalako piltzarra!».

Extebe gaizoa zen uhar haren pean ikhustekoa. Hastean, zerbeit ihardesten zuen; bainan bertzea gero-ta gorago joaki. Senharrak hitz bat, harek ehun eta berrehun. Laster garhaitu zuen emazteak senharra.

Alta gizagaizoak ahal guziak egin zituen, bai larderiaz, bai estitasunez. Harria baino gogorra-go zagon bertzea bere hartan.

Nahi zituenak oro erranik, joan zen herriko auzaphezarengana, ala ez baitakit ez ote zen bakezko jujearengana joan.

«Jauna, zuregana heldu naiz, ene senharrarekin ezin biziz. Burutik badu, edo nik ez dakit nolakotzen ari den. Dakizun bezala, jauna, eltze urhe hura oihanean hatzemanenez geroz, nehork ezin jasana da. Alferkeriari emana da; erdietan mozkor arraila; ni ez nitake harekin bizi. Othoi,

jauna, edeki ezozu eskuetan duen diru undarra; nahiago dut buluzirik ikhusi, ezen ez horditua».

Buruzagiak sinhetsi zuen; nork ez sinhets bere senharra gaizkitik ezin begiratzuz dabilan emaztea?

Deithu zuen gizona bere aitzinera, eta erranzion: «emadatak hunat eni berehala hirekin derabilakan diru guzia. —Zer diru? Jauna, nik ez dut dirurik. Hobe nuke ba, banu! —Baduk, eta ez duk zeren gorde, ez eta hemen zozoarena egin. Bazakiat badukala eltze bat urhe eta zilhar oiha-nean hatzeman; alferrean duk egia ukhatzen. Hobeki eginen huen, eltze hura hatzeman eta niri ekhartzea, edo gutarik norbeiten mintzatzea, jakiteko norena zitaken eltze hura... Dohakabea! Ez dakika gauza hatzemanaren gordetzea ohointza dela? —Barkhatu, jauna; bainan zin-zinez erraten dautzut, ez dudala nik urherik, ez zilharrik ez eta arditik. Nere emazteak amets egin duke, edo ez da bere baithan. Zerbeit erhokeria erran dautzu eiki eta zuk sinhetsi. —Ez, jauna, gezurra du, dio emazteak berehala solasaz jabeturik, ez naiz erhotua; urhez eta zilharrez betheazen eltzea mukurru. Ikhusi dut».

Senharrak orduan. «Jauna, ikhusten duzu ez dela bere baithan. Ori, galda zozu noiz, non eta nola hatzeman dutan erraten duen eltzea. Xuxen ihardesten badautzu, hitz-emaiten dut ditudan guziez buluztea».

Emazteak bazterretik: «horrek uste badu ere, jauna, burutik maingu naizela, edo berak dakien xehetasun zerbeit ahantzi dukedala, erakutsiko diot ez naizela ez ahanzkor ez maingu. Adi zazu, jauna. Huna nola gerthatu den jadanik aiphatu dautzudan gertakaria. Oihanera joan gira biak elgarrekin; eta han hatzeman dugu lehenik haitz baten gainean xarbo bat. —Nola hori? Nola erran duzu, Maria? Xarbo bat haitz baten gainean! Trufatzen zira nitaz, ala baduzu burutik? —Ez, jauna; egia nere begiz ikhusia erraten dautzut».

Extebek orduan: «jauna, horra nik errana; ageri da eri dela gure Maria. —Zer derasazu, eri eta eri? Ni eri? Ez alafede zu baino gehiago, ez eta zu bezenbat ere. Badakit xuxen-xuxena zer erraten dutan. Eta zuk, Extebe, zuk ingoitik ahantzia naski hantxet ur handiaren erdian hatzeman dugun erbia?».

Buruzagiak ordu arte lanak izan zituen irria ezin atxikiz; bainan azken hitz horiek entzutearekin, ezin egona lothu zitzaion eta karkallaz hasi zen. «Emazte bitxia!».

Senharrak erran zion: «gogo emazu Maria; oroen irri-egingarri bilhakatzen ari zira; ez ginuen deusen beharragorik! Eta zuk, jauna, ikhus-azu eta ikhas behin bethikotz; ez direla behar sinhetsi emazten erranak».

Buruzagiak ihardesten dio: «egia da hori; ez dire behar sinhetsi. Nork ikhusi du behin ere erbirik urean bizi, eta arrainik oihanetan, haitz-ondoan gainean? Egiazko emaztea behar da izan, holakorik sinhesteko eta bertzeri sinhetsarazi nahi ukhaiteko».

Ezaguturik etzuela garbitasun osorik jakin ahalko, ez eskualde bat ez bertze, igorri zituen senhar-emazteak besoz-beso etxerat, bakean bizi zitela erranik.

Herri guziak jakin zuen berri hori; eta zenbeitetek ongi irri-egin zuten Mariaren nahigabeaz. Urrikitu zitzaion ba; bainan berantegi. Esku guziak khendu ziozkan ordutik senharrak; hobe-ki eginen baitzuen ez baliozka behin ere hartze-

ra utzi! Jainkoak begira behin gaina har emazte makurrak! Erreka jo behar du etxeak.

Herrialde guzietan badira holako ixtorio zaharrak. Hau den bezala Rusiatik heldu omen zaku. —Beraz hango emazteak ere elheketariak dire eta buru gaixtokoak? —Holetan ba. Nongoak ez?

Eskualduna, 1894-03-23

LAU GUTUN

I. gutuna

(Larresorotik)

Hazilaren 4a 1894

Jauna,

Zerbaitek burura emaiten daut egun edo bihar etorriko zarela gure ikustera.

Egun heldu bazare, ongi etorri! Arratsaldean ez bazaitut ikusten handik edo hemendik ageri, gutuna huni har-araziko diot Ahazparneko bidea.

Ez nuke nahi, hunaz geroz, huts egin gaitzazun. Arren bihar, uria jauts-ahala ari ez balin bada, eguerdiko bazkaldurik, Itsasurat goazi, urte guziez bezala, gaztena, talo eta gasna jatera.

Ez beraz etor bihar arratsaldean hunat. Berze egunetan? Erran bezala. Biharkoaz bezainbatean, atsegin balin bazinu eztei horietan aurkitzea, zato, burdinbidez ala oinez, arratsalde erdi-tsutako Itsasu Elizaldeko ostatura. Hango atea-ren aitzineko haiztegi hartan izanen da oroentzat toki.

Han edo hemen, zure hautura, ikus arte, Jauna.

Gelditzen naiz zure zerbitzari eta adiskide.

Manex Hiriart Urruty apeza

Ondotikako hitza.

Bazinaki ongi zer egiter deraukuten egun hautan, gure «adiskide» direlako (!) batzuek nahi izan dakote gure *Eskualdun* gaixoari kendu bere izena eta izaitea. Kaskoindu behar omen gintazke, Jaun batzuen gogora! Ez duzu sinesten? Eta bizkitartean hola da: «*hay bascos que merecen palos*».

Nik hitz dautzut, Jauna, Jainkoaren eta adiskide onen laguntzarekin, begiratuko ditugula nor ere baitire xede hortako, eta hek, holako lanik egitetik.

Gutizia dutenak doazila kaskoinerat. Gu ez. Eta zu, Jauna, noiz arte bizi gogo zare «franchiman» debru hoiengan? Xo! Ez da ene egitekoa. Deus ere ez dut erran ez erranen gehiago.

Hunen hamabortzean zu hemendik urrun izanen zare naski. Bertzenaz erran nezakezu egun hartan ere ez zaitela etor. Ezteietan izanen naiz

Itsasun, egiatzko ezteietan orduan: anaia bat ezkontzen zaut herri hartarat...

Eta banuen beldurra! Azken hitzera naizeneko, huna non zautan heldu zure gutuna. Zer egin? Gogotik egon nindake nihaur hemen, bertzeak arto jatera igorririk.

Bainan ez dezaket nere eginbideari uko egin: bi multzotan goazi, handiak eta ttipiak berex. Ttipien bidatzea eta larderiatzea ene gain da, bereziki holako egunetan, zeren den ere ene ondokoa bidekari txarra. Ikusten dut garbiki, ez lakiokela gure Jaun Buruzagiari ontsa, edozoin estakuruz bihar nere lana bertzentzat utz baneza.

Barka beraz; otoi zato etzi asteartean tenor bereko edo goizago. Igurikiko zaitut eta ez nauzu baitezpada makurtuko. Oren bat eskola baizik ez dut hiriak eta erdietarik lauak eta erdi arte. Arte labur hartako izanen da hemen nitaz bertzerik zurekin solas egitea atsegin ukanen duenik.

Edo ezinbertzea balin baduzu, jo Itsasura bide nabarka bihar. Talo bat osorik begiratuko dugu. Nik ez dakot eneari min handirik eginen.

Bihar edo etzi arte. Oren bat eta erdi bederen
Itsasun egonen gira. Gu hunat itzuli orduko ilun
ondoan izanen da. Etzi etortzea dukezu hoberenik
ahal bada.

Bihar ez balitz ateri, ez gintazke atera; bai-
nan nola jakin hori goizetik xuxen?

II. gutuna

Larrosoron egina,
urriaren 21ean, 1895ean

Jaun adixkide ona,

Sarako erretorrak igorri daut egun hautan zure aiduru dagola. Ahal baduzu, ez huts egin joaitea; atsegin ukanen du zure ikustea eta zurekin ahal bezen luzaz solas egitea. Nik uste gabe eta nahi gabe, hitza jan dakot; amets bat bezala iragan zauzkit bi hilabete hauk. Azken egunak bereziki harat-hunat tarrapatan, ez dakit nola, galdu ditut, zuri azken aldikotz aurten, eskua tinkatu ere gabe, xede nuen bezala. Ez naiz atrebizten «ajoutatzera» (hitz berri hori berritan entzuna dut; ezar ezazu berehala zure sakelako bertze heiekin)... hemen gaindi behar bazine iragan eta trik-aldi labur bat egiten ahal bazinu, edozoin tenorez, bainan eguerdi aitzinttoan hobekienik, atsegin ginukeela guk ere, nik eta bertze zenbaitetek hemen zure ikustea. Mintza gintazke xeheki

gure lan hasi handiaz. Bainan zoin hurriki dera-
magun! Beti bertze zerbeit egiteko...

Bettiriñoaren berririk baduzuia? Nik ez dut. Zezena xixtatu-eta, uste nuen zin edo min ximix-
ta zerbeit agertuko zela; bainan Ezpeletan bota-
tu zituen eiki azken uztarrak. Ez dakit; aiher niz
bertze akul-alditto baten emaiteko... Zure arabe-
ra? Ez dakit ordean nondik lot... Banaki, banuke
gutiza iharros-aldiño baten emaiteko pottolori,
adarretik edo buztanetik. Ikusiko dugu.

Zuk, Jauna, bederen zuk ez duzu ahanzten
Eskualduna, ez eta haren aldakak.

Eskerrak zor daitzugu aurtengo Egunariaren-
tzat; artoski berezirik igorri dauzkigutzu ateral-
di pollitentzat. Pariseko berriak ere halaber hel-
duko dauzkigutzu. Eta geroxago Eskual Herrian
kokatuko ziren herrikoak ez dea hala?

Zu zira gure irakurtzaile... eta laguntzaile biz-
pahiru hoberenatarik bat. Asma zazu bertzeak
zer diren... arauera.

Barkatu ene ausartzia. Zure zerbitzari, Jauna
eta, nere heinean, ahal guziaz adixkide.

Manex Hiriart Urruty apeza

III. gutuna

(Larresorotik)

Larunbata (01-11-03)

Adixkide ona,

Bagoazi. Egunaria badaramagu... berantxe hasten gira. Are zaluago gitzazkon lot alde orotarik. Ea ikus ixil ixila, alegia deus ez, hazilaren leheneko burura dezakeguneez, Lasserre-en ttritteria txarrari aitzinduz... Ez dezala otoi deus jakin. Bego lo.

Bainan ez otoi, otoi lo egon zu. Bardin debalde duzu zure buru-berokeria: biltzarre, batzarre eta egundainoko amets eder guziak holako lan gorde apal (iduriz ahul) zerbeitetara beharko dira erori.

Jaunak doazila jaunekin elgarri agurka edo ausikika. Zato zu langilekin lanerat, gizon bat balin bazira. Orok hala zirela uste dute ba, bainan nehork ez daki oraino. Egintzetarik da, nor nor den eta zer den, ageri, ez da hala? Otoi beraz eta zinez ele alferrak utzirik, «Errabiaz» hitzema-

na daukuzun lantto hura. Ez luze ez jakintsunki. Solasa labor, garbi, argi.

Nola ohart dakioken zakur errabiatuari? Zenbat irauten duen errabiak? Nola lotzen den errabia jendeari? Zertarik lotzen den? Hatsetik? Hagunetik? Hagunak larrua edo soinekoak hunkitzea aski den? Ala odolera sartu behar den?

Zer egin ausikia denean? Norat joan? Aztiatarat? Noiz medikurat? Pariserat noiz? Han oro sendatzen direnetz? Eta holako... *Vous connaissez le type de lecteur, si personne.*

De six à dix pages de ce papier-ci. Otoi berehala. Jar zite, lot lanari. Lotuz geroz, uzteak emanen derauzkitzu lanak. Ikusiko duzu...

Bizpahiru ditxo bitzi, tartalkeria, ohiko edo egungo hazpandarkeria, irriz urrarazteko zenbeit, eztazkitzu? Ai bazinazki! *De l'inédit* ahalbada.

Beste hainbertze errezeta edo osasunari doazkon kontseilu: gelak nola atxik. Jateko, edateko, soineko, nik dakita zer?

Oi, zu bezala mediku banintz eta arrantier, donado zahar eta eskuara zuk bezala maite, Eskual Herriko zer guziekin!

Hola da ordean lur hau: ahal lukenak eztu nahi. Nahi lukenak eztezake.

Ea, erna hortik...

Zure kitzikari... (alferretan?).

Manex Hiriart Urruty apeza

IV. gutuna

(Larrosorotik)

Hazilaren 5a 1903

Adiskide ona,

Zu! Erran gogo ez dena eta kasik erran behar ez dena, jali araz zinio. Beharrik badakit ez zera-biltzala, beste frango bezala, jakin goseak. Sudurra luze baino beroago duzula bihotza badakit.

Horra zertako, atxiki behar ditudanak atxikiz, erranen dautzutan laburzki hor... hitz labur on horien igortzalearekin ukan dudala mokokaldi bat, min handi egin dautana zortzi bat egunez. Urgulutsuia zirela diozu zuk. Zu. Gaizoa! Deus ez zira beste zonbaiten aldian.

Hau banakiin puska bat bazela. Ez ordian hoinbeste. Bainan oraikoak aldia egin du. Joan da. Nere federik hoberenian bi hitz igorri nazkon, beharrenak hunkituz, *Eskualduna*-ren xokoak miatu balin baituzu ez baitut erraiterik zertaz, iragan egunetako ateraldi... «lerrakor» batzuez.

Orotako handienetarik biga, guziz bat: (irrintzina = *hennisement de la femme violée*..) Loti edo nik dakit noren burutikako perttolikeria,

Donapaleoko joan-jinaren xehetasunetan ziren. Eta nola ene eskuietarik iragana baitzen mintzal-di hori, eta arte eskasez hala hala igorria bainiin, behako bat doi doi hegier emanik, barnia miatu gabe, niri zela zaudan ene buruiaren garbitzia.

Izariz mintzatu nitzai, ustez. Luzexko ba, hasian hasi, bainintiin beste arregura ttipi batzu ere. Baia ba! Ez dautzut erranen zer eta nola ihardetsi dautan.

Pentsa! Nihaurek ere aldi bat baizik ez dut irakurtu, eta joan da berehala surat, erretzeko hobia baitzen. Burutik behar du ukan boltaka, giza gaixoak: erran ere badaut, asko ele maku-rran artetik, baditakela, ororen buruian «kintze bat» badiin.

Ni hiltzen baniz eta lan huni buruz harekin uztartzen bazira egun batez, orroituren zira huntu-taz.

Bego. Ihardetsi nakon ez hotz ez motz, bai-nan labor eta gizonki ahalaz, buru-bihotzek elgar zaukatela. *Sans rancune* emana baitzaundan, halako «irri hotz» bere gisako batekin (arrazoina du Irrihotz sinatzeko, alafede baietz!); ihardetsi nakon: *sans rancune oui, mais pas sans tristesse*.

se. Eta gero hamar bat lerro, ahal bezen xuxen eta sarkor: ez nakola sekulan gehiago hutsik altxatuko; ginozin aitzina lanari, nahi baziin, zoin gure alde. Igortzen zaitanak eskuztatuko nintiila, deus erran gabe, iduri zitzautan bezala, eta berak galdatu edo onetsi bezala. Esku eta esku eta fini...

Nindagon ondorioari. Ja ikusi dukezu Lekor-neko errientari eman dakon sistako berria. Ezin egona.

Geroztik igorri dait «Orotarik» eta bizpahiru berrixka on; eta barnian karta hau... ez gaizki.

Bi egun espres luzaturik, igorri dakot ene karta, hitz hunekin, orotara dagona: *merci*.

Hortan gira. Ukanen du briden beharra gure pottokak. Bizkitartian zerbait onik ere badu segur; eta miletan nahiago dut holako buru bat, zeharka ere onerat itzulia, ezen ez gaixtorat. Non geldi litake? Pereka dezagun ile alde, bainan soka labor atxikiz eta zaldare beroturik ahalaz ez eman ez. Ferdetik ausarki; eta karrosan hirunazka ezar beti erdian. Halere ni beldur lanak emanen dauzkula. Agian ez! Nik ez dut kitzikatuko...

Bestiaren ezkontza berriz! Agian emazte ona izanen du. Bastart on bat buluzirik hobe, miliuner bat askoren kapetarekin baino. Bazinaki zoin gogoan dudan gaizo haur ona! Jinkoak ez ahal du nahiko gaizki kausituia izan dadin.

Ontsa balin badoazi, erran gabe doa, on litakela untzitik apur bat esku onetarar eror dadin sarrixago.

Dodgson ez ahal zauku samurtuko. Au ba! Azala lodi dute holakoek; eta herritar zonbeit jostatuko dira. Bizitasun poxi bat ba, bainan moldegaizkeriarik ez zaut iduri erakutsi dudala. Merexi zukeen.

«Errabia» joan da; dena berriz izkiriatu dut, bi aldetan eina zelakotz. Han hemenka zonbeit itzuli luze laburtu daitzut; taakoari xehaldiño bat eman, bi agoardient ihizñorekin, pizteko. Zure lana atxiki dut, hitz batzuz mintzatzeko, aizina dukegun batez. «Zakur guziak «h»-rik gabe eman daitzut; «heldarra» eta «hezurrak» ez...

Ah! zer lan ona egin duzun. Hain xuxen hainbeste zakur errabiatu izan baita aurten; itoka irakurtuko dute.

Gibelaxko gira eta hurriki doa lana; bainan *Eskualduna*-ren saltzale berrier esker, salduko da... gasna bezala.

Milesker; eta aitzina beti! Berririk balin bada ttipi edo handi, otoi ez niri lokar.

Igandian igurikatzen dut Larrieu «Action Libérale»ko sekretarioa. Zaude, zaude, erranen dakot Hazparnen lehenik noren ate-mailua jo!

Zu ziin bezalakoa behar zinen apeztu edo ezkondu: bat ez bestia ez baituzu inen. Barka! Eskapatu zaut. Zerbeit jakinki eta... hitzik ez nautzun erran behar. Lerratu... luma. Barka!

Zure zorduru hartzeduru, ase-ta-gose beti.

Manex Hiriart Urruty

Ez dut ber-irakurtzeko arterik. Hutsak bete gogoz otoi zuhauk.

HIZKA-MIZKA BAT

Jean Etchepareri eman erantzun bat

Baiki Manex; ederra dugu hau! Hunek Lekui-
nez bertzerik ere hunkitzen du. Azken phikoño
hortaz mintzatu gabe, zer behar dute huntaz
erran haspandarrek? Egun zortzi Papogorrik
musika: Lekhorne, Makea eta Luhoso beharko
dituela Hazparnek galdu. Egun berriz elektrikak
elizan, dirdira sobera duela. Bat xori, bertzea
saindu, zer dire hauk holakorik?

Beharrik larrua on du Hazparnek eta bizkarra
zabal, ooren jasaiteko. Ba eta Lekhuinek ere,
Hazparne handiaren itzalean.

Bertzenaz, den bezala erraiteko, bada hor
gatz poxiño bat, bipherrarekin, ontsa polliki
hatzemaana.

Egia da: bai aphezek, eta bai bertzek, maite
dugu, behar-bada soberaxe, begietara doan
edergailu hori: argi eta lore, zilhar eta urhe, xin-
gola, girgilleria,... perrekeplum, lakhet zauku
biziki.

Emozute guziz egungo elizetako andre sero-
rei dirdir eta ñirñir egiten duten aphaindura dis-
tirant hoitarik.

Bainan ez da baxharrik elizakoa hau. Etxe-
barnetako zer guzietan, oroz gainetik soinekoe-
tan, bitxi da zonbatetaraino emanak giren
ezdeuskeriari.

Ez goazi Lekhuineko sailduak erranaren kon-
tra. Nor bihur bertzalde saildu bati? Ageri dena
da bertzalde, gauza guziek badutela hein bat.

Bizkitartean behar dire oro ikhusi. Hemen
urgulu dena badukezu hanxet baitezpada behar.
Hala nola, elektrikaz denaz geroztik solas, Haz-
parneko elizak badu elektrikaren beharra, leihot-
etarik heldu zakon argiarengatik.

Lekhuinekoak ez hainbertze holetan. Guk
baino hobeki badakike hori hango *sailduak*.

Nor othe zen eta zer, *lehenago*, saildu «*mun-
dun zelarik?*». Laborari, zapetain edo larru-
aphaintzale on zenbeit? Jinkoak daki hori.

Orizue, nornahi izan zadin, ez bide zen mot-
hela. Hain aspaldi huntan mutu egonik, mihia ez
osoki herdoiltzea duzu gehiago. Urtheen eta urt-

heen buruan, oraino ere hoin ontsa mintzo! Ez denetz bada hoi handi, jaartora!

Elhe alfer hauk oro baino, nahiago zinukete jakin garbitasuna: zer eta nor zen. Bai alafede eta nik ere... Ez dakit ordean; eta biziki beldur niz, ez daukagula jakinik, non ez daukun berak erraiten bertze aldi batez.

Berak ikhus, ororen buruan; behinik behin, ni ez nitzaio joanen ondotik, galdez. Nahi badu, mintza bedi.

Anharteaz zerbeitki bederen badakikegu: *zer zen*, ez; bainan *zer ez zen*, ba.

Dio, ez zela aphez. Eta bizkitartean saildu! Jakinen ez badugu ere, gogoeta nago, zer othe zitaken beraz? Haizu ahal da araz gogoeta hori; ez da gaixtoa.

Ez zen balinba notari, edo abokat edo mediku? Hum! Saildu guti hoitan. Hasteko notari bihirik, ene jakinean; nahiz ez dezakedan ukha badirela (eta hain xuxen orainxet, eta Lekhuinetik ez urrun)... badirela, hots, hoitan ere gizon zuzenak. Bainan ohikoez gira mintzo. Eta gutiz gehienak hari hailgo nahasi sobera utzirik joanak dire hor harat, saildutzat behin ere ezagutuak

izaiteko. Abokatak halabertsu, nahiz hemen ere balukeen *orai* Lekhuinek, Hazparnerekin esku, nor eman aitzineko... Xo, Barrandeiko leihoetarik nehor barrandan balin badago ere, adi ez gitza-ten.

Eta medikuak? Lehen guti, orai gutiago. Izai-tekotz ere Lekhuinen berean zitakeen hango bereko bat, auzo herrietarikakoa baino segura-go, lehen.

Hauxe da erasia! Elheaz jabetuz geroz ezin utz... Barkha dezadala Lekhuineko sailduak, nik ere, haren ondotik, bi hitzño erran nahi ukhan baditut.

Ageri duket, ez nizela lehengo jendetarik; ba eta ere, ondikotz! ez nizela saildu... oraino. Bai-nan bizi denaz ez da etsitzeko.

Badut bethi esperantza, ene potretaren aitzin-ean ezko-argirik, ez bertzerik, nehongo elizetan erreko ez balin bada ere, bederen zeru xokhoño batean sarthuren ahal nizela, zeren ez bainiz mundu huntan... mediku.

Kito.

Eskualduna, 1903-06-12